


*Jaka'ra oñez
Naparroa'n zear*

Latxaga



Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

JAKA'RA OÑEZ
NAPARROA'N ZEAR

LATXAGA

JAKA'RA OÑEZ
NAPARROA'N ZEAR



EDITORIAL
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
BILBAO, 1976

© LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA, 1976
Calzadas de Mallona, 8 - Apartado 1510 - Bilbao
Teléfonos (94) 416 97 44 - 415 69 00
Director: José M.^a Martín de Retana

*Nere arreba Isabel'eri
eskertsu ta biotzez*

I. S. B. N. 84-248-0258-6
Depósito Legal: BI. 1.155 - 1976

Impreso en España
por LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A. - Carretera Bilbao a Galdácano, 20 - BILBAO - 4

Printed in Spain

Argibidea

	<u>Orrial.</u>
Itzaurrea.	11
Sarrera.	15
Orexa erria Aralar aurrean	25
Eguna urbiltzen.	41
Mallopean Araiz	47
Larraun ibar paketsua.	65
Basaburua oianez apaindua.	79
Ultzama'ko belaze orlegiak.	87
Anue ibar estua.	103
Esteribar'ko lur nabarretan	111
Erroibar'ko aize xuria	115
Artzibar'ko mendi zakarretan.	121
Aezkoa'ko ibarra basoz josia	165
Saraitsu'ko ibarra Orhi'pean	179
Erronkari izen Aundiko ibarra	199
Anso Aragoien Naparroaren alboan	241
Etxo erri alaiara Aragoien	257
Sasabe, Aragoiko gotzaitegi zarrena'runtz.	269
Azkenean Aragoiko Jaka'ra	283
Euskal txirularia Aragoien	301
Ametsetan egatzez.	309
Amaitzea.	313
Ibillialdiaren neurketa	315
Errien izenak	317

Itzaurrea

Emen dugu berriro Latxaga jauna. Emetxe dugu orain iru urte «Naparroa Euskal Arrobi» liburu bikaña eman ziguna.

Geroztik ez da lo egon. Gaur eskutaratzen digun liburuak bere ibilladi bat azaltzen digu. Zortzi eguneko ibillaldia. Ibillaldi latza, zail eta alde askotatik arriskutsua. Aste batez, oñez, egunik galdu gabe, daokala egiña. Nondik nora ordea? Gipuzkoa'ko Orexatik, Jaka Aragoi'ko cañokoa Nola gero! Ez zozokerian, «aidea burun eta ibilli mundun» dabiltzanen antzean. Azkar ibilliz ta bidenabarrean bideko ta inguruetako guzia kontuan artuz.

Berak aurretik nondik-norako bide-karta egin zuan, eta egun bakoitzean, eta asmatutako tokiraño iritxi ziran, izerdi ederrik aterar rik. Baiña laister joatea bakarrik ez zuan billatzen gure bidariak. Ze-biltzan toki bakoitzean euskal-kulturarako zerbait onuragarri ba'da arkatza (lapitza) dantzatzen du. Euskara ta Euskalerrria aberastu duar ta edertzen duan gauzrik, ez du bildu gabe utzi nai.

Naparroa'ra bidean

Orren ibilketa luze ta nekagarriari zergatik eldu ote zion? Apustuz? Ala esango du norbaitek. Deus ere olakorik. Egia, bai, Latxaga berak esaten digunez, ibilleran asi baiño len, apusturako bezela egin zuan. Lizarraga'ko esaera zarrak dio-ta: «Probintzikoak apustua egin baño lenago ateratzen dik izerdia». Artarako, Oresa'tik Gorriti arteko mendiak barrena, bein-da-berriz egiten zituan bere nekaldiak, eta gauez alare.

Oraingoan Naparroa alde-alde igaro nai bai zuan. Eta Ez Naparroa bakarrik, Aragoiko alderdirik menditsuena era bai, Jaka bereraño.

Naparroa'ko «Euskal Arobia» noraiño irixten zan len, eta noraiño iristen dan gaurkoan. Ori ongi ikusi ta erakutsi egin nai zigun.

Ibillaldi ontan igaro ditu Larraun, Basaburua, Ulzama, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Aezkoa, Saraitu ta Erronkari ibarrak. Baña bere ibillaldian ez die begiratu geienik dabilten ibarretako alderdiei. Bidenabarrean euskal arnasea ta bizitasuna nolakoa izan dan eta gaurkoan zertan dagoan begiratu du.

Ziza-biltzale ernea

Ziza-biltzale erne baten antzeko egiten zait Latxaga. Ari etzaio ziza-larre bat ikusi gabe gelditzen, dabillen tokietan. Nork-nqi dabizkian larretakoak ez baiño, maldetan, mendi, sasi eta malkar eta malkor tartetakoak billatzen ditu. Eta iñork uste etzuan tokietan betetzen du bere pardela, zizarik ederrenez.

Berauxe egiten du, lengo ta oraingo ibilleretan Latxagak, liburu ontan ageri danez.

Latxaga'k dakarkigun guztiaren ikuspegia

Arrobi ontan Latxagak arkitu du zerbait geixago poztu gaitzazkena. Zer ote da? Euskal kultura goratzeko beren jakintzaz, lumaz edo idazkiz, eresi musikaz, abotsaz eta kantuz, mintzaldiz eta irakasketaz lan egindutenak.

Jarri ditzagun aztu gabe txistulariak, ondoan datoz abeslariak, urrena bersolariak, laxterkari korrikalariak. Oietakoak edozein ibarretan agertzen dizkigu. Bakanxago badare uztargille, etxagille dorre ta eliz-gilleak. Azken aldera mairu ta frantzitarren garaille diran, alde guztietako euskaldun gudariak, Naparroa'ko erregekin. Non ala?

Orrega'n, Erronkari'n, antziñako Napar-lur Aragoi'ko Jaka'n, Berdun'dik Leire artean «San Juan'en» Arkaitzan eta Xaldua'n (Zaragoza) Naparroen eliz arrigarriarekin.

Latxaga ibilli dan ibar eta errietan euskera bizi al da?

Araitz ibarrean euskara zertan da: Uztegi'n eta Atallo'n aurrak ez darabilte euskararik; erderaz erantzuten dute. Ikastola ba'dago

txikientzat Betelu'n. Baiña bereortan Ikastetxe aundira dijoaz Araitz osoko aur guziak. Orko Irakasleak guztia erderaz erakusten ba'dute, aur guztiak ez al dira euskara era bat galdu-ta aterako? Naita-naiez, gurasoak ez ba'dira gogor jartzen euskarari eusteko.

Larraun'en, Lekunberri'n badago Ikastola aur txikientzat. Baiña or ere Larraun'go mutiko ta neskato guziak Ikastetxe aundi, or jarri dutenera biltzen dituzte. Lekunberritarak beti erdaraz ari dira. Omkoak beste edozein erritakoak alako bi ba-dira, ta Ikaste erderaz erakuste ba'zaie, zer itzegingo dute Larraun'go aurrak?

Gañerakoan Larraun'en euskara bizi da erri guztietan.

*Imotz'*en Etxaleku, Oskoz Goldaraz, Zarrantz eta Muzkitz'en bizi da, oietako apezai eskerrak.

Basaburu'n, Beruete, Arraras eta Igoa'n txiki ta aundietan bizi da; beste errietan gazte geienak ba'dakie, erdaraz ari dira baiño.

Ultzama'n, Erdara sartu da era bat erri geinetan; euskara Auza'n eta Urrizola'n mintzatuko dute geienik. Auza'n orain 20 urte guziak zekien.

Anue'n Olague'tik alde, erri geinetan 50 urtetik gorakoak jakingo dute noski. Lanz'en Gauza bera.

Esteribar'en, Ikastola Zubirin orain, Bide berritik bazter dauden errietan 50 urtetakoak, euskara ba'dakite, erdaraz ari dira baiño.

Erroibar'en ez zuten oartzeko betarik izan; baiño Mezkiritz'en, Aurizperrin (Espinal) eta Auritz'en euskal-giro zerbait ba'da ta euskara ederki dakienak ez gutxi. Baño erdara nagusitua dago.

Artzibar'en erdara besterik ez darabilte; zarrenen batzuek jakingo baiño.

Espartza'tik barrena igaro ziran, Erronkarirakoan. Oartu gabe erri ontan ere euskal zaletasuna pixkat ba dela. Orain iru urte or bildu nituan egun batez 30 esaera zar, lau gizonen artean. Elizan, euskaraz jarri dute noiz egiña ta berritua izan zan.

Arago'ko bidean gure bidariak

Esan genezake noski: Naparroa'ko arrobia ez al da, ba or akitzen? Zer billatu zezakean, ba, emen? Arixtian esan diguna egiztatu nai digu. Naparroa'ri ta Euskalerra osoari erakutsi, Naparroa'ren, Napar-erregeen lurak noraiñokoak ziran Naparroa osoa euskalduna zan garaian.

Bidegabekeri ta zitalkeri aundia zan euskaraz Oska'n noiz-nai egiten debekatzea. Euskaldunei eskerrak mairuen atzaparretatik askatua

zegoan iri ori. Inguruetako erriak euskaldunak ziran. Saltze-erosketaz kion euskaraz mintztu zanari. Baiña ez gaitezen ortaz arritu eta esparik atera. Geron egunetan, Naparroa'n euskaraz itz bat esateagatik, ez al genituen gure maixuak ziorkatu?

Zerk arritu gaitzazke geroztik Aragoi'ko iri, erri, ta baserrietan Euskara pixkanaka galdu izateak?

Naparrok Latxaga jaunaren antzera saiatu ba'giña Naparroa'ren nortasuna, bere euskal arrobiaren zabaltasun eta luzetasuna ezagutzen! Gure erregek Aragoi'en zuten eskua eta an egindako lana, noiz adierazi zaizkio Naparroa'ri?; ez genuen ikusiko gaur ikusten ari gerana, euskeraren zapurdia. Napar guziak irakurriko al dute liburu zoragarri au? Villoslada'ren «Amaya» atsegingarria da, baiña ez da kondaira. Latxaga'k ordea, euskeraz Naparroa'ko kondaira agertzen digu. Danak euskaldunak eta ez diranak irakurri naiko dute liburu au. Latxaga'ren lan onek balio aundia du.

Intzar Damaso An.

Iruña'n 1975'an Neguillaren 27'an


Sarrera

Jaka'ra oñez joateko asmoa? Nundik nora sortu zitzaidan. Egizako arrazoia ematen zailla ta errex. Mendiak beti amets. Malloak, mendi gallurak indar berexi bat daukate neretzako. Mendiak ikusi bezin aguro, adiskideak bezala arkitzen ditut. Neretzat mendiak bizi dira, bizitza daukate; urbil, barruan, bertan ditudala, deritzait; gaiñera edozein garaitan. Euskal mendien usaia gogoan, arpegi aurrean, ezpañetan eukitzen dut.

Egun bat mendian igarotzea, beti egun zoragarria, baiñan aldiro motza, laburra. Aspalditik zerbait geiagoren gogoa neukan. Aspergabeko ibillialdi baten irrika; izadiarekin bat egin, alkaturik bizi, bere inguruan goizetik gabaraiño, eguzkia arpegian artu ala, aize garbia barreneraiño sartzan utzi, gorputza izerdiz busti, anekin lurra zapaldu, ibilli ta ibilli, lasai ibilli, egun bat eta bestea, ezeren kezkarik gabe. Noizbait izadiarekin alkaturik bizitzeko gosea sortu zitzaidan.

Begiak goxatzen utzi; errekek, ur tantoak, sasi illunak, oian garbiak, arkaitz legunak, errikkak, bi iru etxe, elizatxo, gora ta bera goizetik illundu arte; subea, azeria, katagorria, txori arrapatzallea, izerdia, egarri ta gose. Artzaia ikusi, mandazaia topatu, amonaxoaren itz goxoa, gaztetxoaren irriparra, etxeoandreaaren poza, apaizaren zugurtasuna. Ta egunero, altxa ta berriz mendira. Orixe nuen, amets, gose ta egarri.

Izadia dan bezala ikusteko, ibarretan gora ta bera ibai ondolik ez da topatzen; askoz gutxiago mendiak. Onena, ibarrak lepoz lepo artzea; mendiko atetik, gora ta bera. Antxen arkitzen da askatasun osoa ta norberaren indarra. Gaiñera, begiak iriki nituen ezkerotik, gauzik atsegiñena mendi lepoak izaki; mendi lepoak errenkan, bat bestearen atzetik, urrunean, zear, okertzen dijoaztela. Mendiak ainbeste,



Artzaia goizian goizik bordan (OREXA)

lepoak atsegin. Lepora iritsi ezker, mendia onduan gelditzen da, bertan. Lepo gaintan, larrea, bordak, belazeak, bidexiorrak eta bi aldetan arkaitza edo basoa.

Ibilli aldi ontan euskal aizea ugari artu nai nuen. Nundik nora jo, zeatz eta meatz, erabaki bearra zegoen. Naparroan zear ibilli nai nuen. Naparora'ko euskal usaia atsegin zait; mendiko gizonak ezagutu, euskal aztarnak billatu, euskara zarra entzun. Bonaparte ibillitako erriak ondo ikusi, erri oietan zeuzkan laguntzalleen ingurua nolakoa dan jakin. Azkue ere, mendi oietako errietan ibiltzen zan euskal doñu zarrak, euskal erri elertia biltzen. Ez dakit zergatik.

Baiñan iduritzen zitzaidan gaiñera, Naparora'ko mugak sortaldera etzirala euskal kulturaren mugak. Erronkari'ko lurren ondoan, Aragoi'ko aldiak kutxu berdiñekoak, kideak dira; gizonak, izenak eta abar. Erronkari'n Jaka'ko bortiak, mendiak, larreak, peria, maiz ezpañetan daukate. Jaka izena Erronkari'ko gizonentzat senidekotzat artzen dute. Naparora'ko muga ez da euskal kulturaren muga.

Orexa'tik, nere parrokitik ateratzea erabaki nuen. Orexa erria ta bazter ori, gaur Euskalerriko biotza zeritzaidan. Euskara bizirik dago, gizasemeak euskal zaletasuna daukate. Ortzen igaro ditut lau urte nere euskal zañak zuzperten. Ortik oñez irten nai nuen, mendi aldetik Naparora zearka igaro eta Jaka'raño iritsi. Aragoi'ko bazter orrek Naparora'ko itzalean sortu zuen bere nortasuna ta izatea. Aragoi alderdi zar ori, era bat euskalduna zan eta izatez Erronkaritarretik urbillago daude, auek gugandik baiño. Jaka, Euskalerra berri baten otsa eta ezaugarri zeritzaidan. Orexa'tik Jaka'ra bide zoragarria iduripenez, biyek oñez eta arnasez lotu bearrak. Lepoz lepo, erriz erri, euskal aztarnak, gure sena xurpatuaz eta zabaltzen, bide ori egin bear nula buruan sartuta, gelditu zitzaidan.

Gaiñera ba nekin andik gutxira Euskalerritik urruti joan bear nula. Paris'era ikastera joatea erabaki nuen. Orain dela amalau urte amaitu gabe utzitako Teologi ikasketak bukatu naian nenbillen. Erabakiak artu nituen. Euskalerra'ri azken agurra eman nai nion, ez nolanaikoa. Gorputza eta arnasa, gure lurrarekin igurtzi nai nuen. Gure mendietako argia ta margoa luzaro irauteko irentsi naian nenbillen. Aste osoa atera, gelditu gabe ibilli, euskal usaia barreneraiño sar zekidan. Paris'ko lañoak eta neguko zeru illunak nere oroitzapena minberatua uzten zidaten. Euskaldun bezala irauteko, gure mendietako argiaren bearra nuen.

Asmo onek zorutzen ninduen, bainan beldurtzen nintzan. «Aste osoan bide ori egiteko almena izango ote dut?» eragiten nion maiz nere buruari. Beste aldetik nere osasunaren sendotasuna zenbatereñakoa zan, jakin nai nuen. Len Paris'en gaxotu nintzan eta gaxotegian iru urte luze egin nituen, amar aldiz iriki ninduten eta bi bider il zorian arkitu nintzan. Gorputzaren indarrak neurtzeko etzan bide makala, larrua zailtzeko ezta ere.

Bidea gogorra, egun gutxi eta Jaka uruti gelditzen zan. Egunero amarren bat ordu gelditu gabe ibilli bear, beste batzuetan amabost. Astakeri geiegi ez ote zan pensatzen nuen. Gorputza aurretik zaildu bear nuela, bidezkoa iruditu zitzaidan. Ortarako aurretik ariketak egin bear. Etzitzaidan ondo iduritu gure baserritarrak lanean zeudela, aien aurretik ni egunero mendira, egurastera, ateratzea. Gaiñera oraindik gai asko nitun idazteko ta liburuetan berri asko jaso bearrak, baita idazki batzuek izparringietara bidaltzekoak. Orduan illunduta ateratzea erabaki nuen. Egunez idazten, illunabarrean meza eman eta ondorean afaldu, oso gutxi. Arratsean amarretan, baserritarrak, batzuek afaltzen ari zirala ta besteak oyeratzen, nik mendira jotzen nuen, Espuru aldera lendabiziko egunetan, gero Zolitzarrene' raiño, andik gutxira Uli'ra, azkenean Areso'ko lepora. Gaberdiko amabiak inguruan sartzen nintzan etxean. Azkeneko egunetan, erre-torretxetik Areso'ko mugara joan etorria bi ordu baiño gutxiago kostatzen zitzaidan.

Egun aiek, obeto gaba aiek ezin ditut aztu. Batzuetan illargia, mendian itzala ta egunean bezalako argitasuna. Illargiak basoan argitzen zula, lerrak jai irriparez, gaba eguna bezala. Zolitzarren'dik Aralarren azala garbi ikusten zan. Bide zelai artan mutur batetik bestera nenbillen egurasten, begiak zorutzen eta belarriak erne, gabeko ixiltasuna jasotzen. Zeruan eunka argi, Urkieta zorrotz ta magalean itzala, illargiaren argiak putzuetan irudiak agertu arazten zituen.

Aize legorra zebillen, nere azala goxatzen. Euskalerrria ixillean eta nere anima ametsetan. Aintzineko gure arbasoen irudiak eukitzen nituen gogoan, gure euskaldun zar aiek, bestetan karlistadako gizonak, Santa-Krutz apaizaren oroitzapena, gure gudariak, mendizaleak, baserritarrak, gazteak, lamiak, sorginak, ta San Migel'ko kondaira, biarko Euskalerrria, nere Naparroa. Oietxek nituen nere ametsak. Ixiltasunean, illargiaren laguntzarekin, gure mendiekin alkar izketan. Etziran gaba danak ain goxoak. Batzuetan oroitzen naiz ongi aski; illun beltza, laño itxia, ebi langarra, bidean lokatza, ezurretaraino sartzen zan ezetasuna. Bestetan aize zakarra ikaragarrizko orrua ate-



Idi pareta goldean (OREXA).

ratzen duna, indar aundikoa, eten gabe bultza ta bultza dabillena, ego gaiztoa. Mendi gainean nolako indara daukan ikusi nai nuen. Uli'ko ariztegian anka sartu bai, baiño ango orruak eta adarren ezin egonak beldurtu ninduten. Guda dirudi. Oztuta gelditu nintzan, bazter guztietan etsaiak ikusten nitula; basoa asarre zegoen, errixta egiten; gaua illuna, giro beltza. Egualdiak nola aldatzen dun izadia ikusi arte ez dago siñesterik. Izadia ez da bakarrik edertasunean ikusi bear, ekaitz aldiak bearrezkoak ditugu. Beain oroitzen naiz, otza zan, eskuak ubelduta gelditu zitzaizkidan, elurra mara mara asin zan. Ori Uli'ko gainean. Zolitzarrenen pixko bat zuritu zuen eta Elizako piñudegira iristerakoan ebi jasa, jo ta jo, eginal guztian erortzen; ura berriz indarrakin, goitik bera. Erriko gaineko aldera urbildu arte ez nuen argirik ikusten. Errian batzuetan serora etxetik sartzerakoan edo bastetan Gogorzane'ko gaineko aldetik, zutik arnasik artu gabe egoten nintzan, batez ere itzalen bat ikusten ote nuen edo illunean otxen bat entzuten, gero, barrena lasaitu ondorean, poliki poliki etxeraño elizako zimite-riotik barrena.

Gaba oietako ibillialdietan ez nintzan beti sasoi onakin ateratzen. Askotan egunez asko idazten nualako burua minberatua eukitzen nuen eta gorputza aulduta. Bein oroitzen naiz ondo asko, Gaztelu'ko gainean nintzan eta ez nuen deus ikusten, zapla zulo aundi batean erori nintzan eta ez dakit zerengatik baita parrez asi. Antxen lurrean, unetxo batean etzanda gelditu ondorean altxa ta aldapa bera jo neun. Ustekabean gurdi bidera erori nintzan berriz, baita eskuan miñ artu ere. Eguneroko ateraldi auekin ez dago esan bearrik, nere soiña ta batez ere anak asko zaildu nitula. Metu nintzan ta gorputza ariñagoa arkitzen nuen. Ala guztiz ere Jaka'rainoko bidea aste batean egiteko geiegitxo ez ote zan buruari galdezka nenbillen. Eguneroko bideak mapan al nuen geiena laburtu nai nituan. Lenengo egunakin asi bear; luzegia iduritzen zitzaidan. Baezpare bide motzagarik ez ote zegoen errian galdezka asi nintzaian. Iru gaztetxo adiskide nitun eta beti jai igandetean alkarrekin ateratzen ziran. Aietako bat egunero ardieta artzai joaten zan eta Urkieta'ko bazterrak ezagutzen zitun. Nola, ala, galdetu nien, Gorriti'ra joateko biderik motzena. Urkieta'tik zala erantzun zidan. Erantzun ori etzan naikoa neretzat. Bein, bidea ondo ikusteko, osorik egin nai nuen. Urrengo igandean joango giñala agindu zidaten iru mutillek, amaiketako meza ondorean. Basabe'ko errekan zeuden nere zai. Iribarren'go Resurrezion, Mikelen'go Luisito ta Alziturrieta'ko Faustino. Irripar, alai, arin zeuden amasei amazazpi urtekin. Narbaitzu'ko aldapa gelditu gabe igo zuten. Esan nuen polikiago joateko. Aiztxiki aldeko

gurdi bidea artu genuen, beroa egiten zuen, baita eguzkiak ondo jotzen ere. Atallo'ko mugako burnisaren gainetik igarota, Urkieta'ko pagadian sartu giñan. Bidexigorra estua ta zerura begira, gure aurrean. Pago embor luzeak ondoan ixillik. Urkieta'ko ospel aldetik dioa bidaska au. Lendabizi aldapa ikaragarria. Ao zabalik gelditu nintzan, biotza berriz pumpaka lasterka, kopeta izardiz betea. Gure bidaxka oso gora igo ondorean, zearka abiatzen da ia neurri berdinean, arri aundi batzuetara iritxi arte.

Arkaitz batzuetan berdintasuna galtzen du. Bi arkaitz aundiak ate baten antzera ezarriak. Andik zerbait biurtzen dala, Unikate'ra jeixten da. Ez giñan aurrerago joan. Antxen exerita gelditu giñan. Giroa alaxekoa bait zan. Itzalean, ostoak eguzkia gugaraiño sartzen etzutela uzten. Begientzat jura atsegiña! Aurrean gure neurrian mendi gallurak; ezker Zotzune, bordak eta Areso'ko belazeak, sortalderuntz Elostas, Santa Barbara elizatxoa ta Gorriti'ko belardiak, gure aurrean berago Atallo'ko garotegiak, azpiko zuloan Araxex erreka, eskubi Aralar garbia eguzkia artzen, zuzen zerura begira. Gure ondoan noizbeinka aiezak pixko bat astintzen zitun ostoak. Nere gaztetxoak ezin egona zuten. Resurrezion'ek ala dio: «Basamutil joateko asmotan nabil. Aizkora batekin kanka, kanka, asteko gogoz». Luisitok parra egiten dio: «Bota itzak arbolak, lasaiago sartuko gaituk ardiekin». Faustino: «Ardiak zaintzea, azkena dek. Aste baten buruan aspertuko aiz ongi». Ba goaz errialderuntz ostera. Oartu gabe Orexa'ko mugara jetxi giñan. Zuzenean koba aundiko bidea artu genuen. Koba arpean aixurrakin zulatzen ibilli giñan. Beste sarrera bat erakutsi zidaten. Sartu nintzan. Aoa zabala dauka, goitik bera du bidea. Estalaktita ederrak lurrean puskatuta ikusi nituen. Erriko artzaiak goitik, arriak botatzen zituzten eta orrela autsiak daude. Aundienak nere etxera astoakin eramateko agindu nien. Emandako sariakin pozik gelditu ziran nere mutillak. Urkieta'ko bidea, erreka ondolik, azpitik zijoana bainan luzeago zala oartu nintzan. Ortan neretzat etzegoen zalantzarik. Motzagoa izan bearrean luzeago izaki. Gure gaztetxoak gauzak errex esaten dituzte baiñan neurria artu bear zaie.

Nere ateraldiaren eguna urbiltzen zijoan eta gaiak zamaten. Bakarrik bide luze ori egiteak beldurra ematen zidan. Toki basati askotik igaro bear nuan. Zerbait gertatu litzaidake; galdu nindekean. Bakarrik ibiltzea motza gelditzen zan neretzat.

Geiegi ere izateak ba ditu bere eragozpenak; batek zuria nai dula, besteak beltza. Buru arin bat naikoa bazterrak nasteko. Bide luze ta gogor ori egiteko, txantxetan ibiltzeko asti gutxi berriz.

Taldetxo bat izan ezker, musker margozko ertañekin edo guardazibilekin larri ibilliko giñake. Gure atzetik usaia artzen, bat baiñan geiago jarriko lituzkete. Neurri onena, bat bainan geiago, ta garai berdinean al zan gutxinak.

Gaiñera ostatua billatzekoan beti buruauste aundiagoak; mordoxka izan edo bizpairu ez da berdiña. Ezagun baten etxean sartzerakoan, atea irikitzeke ez da gauza bera, buru asko ikustea edo ale batzuek.

Lagun baten bearrean nengoan. Nor aukeratu? Nere asmoa eza gutzen zuten batzuek, pozik etorriko lirakela, agertu zidaten. Ariñegiak arkitzen nitun. Mutil ibilkari gogorra, mendizalea, euskalduna eta nerekin ondo etorriko litzakena bear nuen. Nere neurri aietan sartzen zan ikasle bat zegoen; mutil egokia, azkarra, ixilla, argia, ona ta euskalzale amorratua. Agertu nion nere asmoa. Atsegin zitzaion. Orrelaxe ibilli-aldi ontarako nere laguna arkitu nuan. Mikel bere izena. Euskara ikasten zazpi aste egin ditu mutil onek Oresa'n. Zazpi aste oien ondorean alkarizketan euskara bakarrik egiten genuen. Nere ibilli aldi ortan topatzen nituen napar adiskideak, euskara zein ongi ta azkar ikasi ziteken agertzeko, laguntzaille berezia. Ba nekin apez askok nola ikasten zan euskara galdetuko zidatela, orrela eredu ar zezaten, ezaugarria onduan nuen.

Bide luze ortan, euskal lurra zanpatzen genuala, euskaraz egin nai nuen, euskaraz mintzatu. Mikele'ri baldintza egokia iruditu zitzaion. Ni pozik gelditu nintzan. Mikel ez nuen aspaldiko adiskidea. Igande batean, Txuñe'ko Jesús bataiatu nuen egunean, mutil luze bat zimite-riean zegoen nerekinitz egin naian. Euskara ikasteko asmo zula agertu zidan. Nungoa zan galdetu nion. Bilbotarra erantzuna. Bizkaitarrak Gipuzkoa'ra euskara ikastea etortzea, etzitzaidan ondo iduritzen; eusko gogoa ta eusko zaletasuna Bizkaian sortu bait ziran. Gizata-sunaren aldetik aberastasun ta nortasun aundikoak dira Bizkaitarrak. Beti itzal eta indar aundiko gizonak iduritu zaizkik. Arrazoi orregatik ez ditut nere ikasketan artu. Gure alkarizketan, Mikelek bere gipuzkoar sustraiak agertzen zizkidan, bere aitonaren aitona txistularia, Zumarraga'koa zala esanez. Txistulari ori, Zumarraga'tik Begoña'ra joan zana bizitzera, askotan aipatzen zuan Pablo Elolak, Justo Azkue'n Bilbo'tar adiskide zarrak. Justo'n bitartez ezagutu nuen; ori neretzat naikoa zan gogoan eukitzeko. Pablo'kin zerbait ikustekorik bat ote zeukan Mikele'ri galdetu nion. Bere Osaba zala erantzun zidan. Pablo Elola ezagutzen nuanik etzekin Mikelek. Unetxo bat itxoiteko esanaz, barrengo gelatik, arriakin egindako Amabirjiñaren irudia erakutsi nion. Irudi artan bere osabaren lana ezagutu zuen. Ikusteakin irriparra



Iriarte'ko amandrea elizan (OREXA).

sortu zitzaion. Irudi ura bere osabak eskiñe zidan. Besterik gabe, muti gazte au ikasle bezala artu nuen. Bi urtez etorri zan, Orexa'ra, Txuñe'ko baserrian lana egiten zuen baita bazkariak artu ta lo egin. Egunean berriz Erretoretxe'ra zetorren euskara ikastera. Danetara zazpi aste egin zituen. Azkenean alkarrekin euskaraz bakarrik egiten genula gelditu giñan.

Txuñe'n maite zuten. Lanean laguntzen zien, umekin pozik jolasten zan. Mutil gazte onek naiz lenengo bi abizenak erdaldunak izan, euskal arpegia zeukan eta zaletasuna bizia. Odol nasketa guztietan, euskal sustraiak ba du indar berexi bat eta bere nortasuna danez gain agertzen du. Mikel Monedero Isorna, Euskalerriko seme jatorra da barrngo izaeraz eta biotzez. Gure mendiak eta euskara atsegin zaizkio. Nerekin etortzekotan baldintza batzuek jarri nizkion, neretzat bearezkoak. Lenengoa, neri mendian beti aurretik joaten uztea, batez ere aldapa gora. Gaztekin mendian ba dakit zer gertatzen dan. Las-terregi ibiltzen dira ta ni bezalako eldu xamarrak atzetik ezin jarraituaz mingaña aotik aterata. Nere neurrian ibilli nai nuen. Jota gelditzen ba nintzan bide luze oietan eta ibilli aldia utzi bearrean, ez asarretzekotan gelditu giñan.

Berari zerbait gertatzen ba zitzaion, garbi ta aurrez aurre esatekotan. Gure artean jakiña, euskara bakarrik egitekotan. Nere baldintza oiek bat batean ontzat artu zituen.

Zamatuta ibiltzeko asmorik ez nuen. Bideko jatetxe ta ostatuan gelditu, al zan gauza gutxienak artuaz. Bizkarrean bakarrik argazki tresnak, esku zapia, paperak eta luma, lojantzi bat eta jerse itsia. Besterik ezertxore. Soinean berriz, oñetako lodiak, ardillezko galtzerdiak, atorra besomotza. Makilla, gauza egokia; Legasa'ko aitonak Migelek eman zidan, nere ikasle batek Beasain'go Gereño Karlos mutil gazteak omenaldia egin zitzaion egunean, eskeñi ziona. Bide guzian eskutik ez nuen utzi, ondo lagundu ninduen. Ibillialdi oneri asiera Orexa'tik eman nai nion. Len esan bezala, erri ontan lau urte erretore bezala egin nitun. Nere ustez zor aundiak dizkiot. Erri onen izenak neretzat, asko esan nai du.

Orexa erria Aralar aurrean

Sapeltx kabia dugu; mendian txintxilik, goizian goiz argia berandu arte ikusten duna. Egoak gogoz astintzen du. Aldapa latzak, larre goxoak. Inguruan, alderdi guztietan mendiak. Eguteran dago ta Aralar aurrez aurre, Malloak garbi agiri ditula. Azkarate'ko Balerdi begi aurrean. Eguzkia dugula, azkeneko argiak, Tuturre, arpegian jotzen dula ikusten da. Illargi beteakin Urkieta'ri begiratu bear, beti erne, tente, zorrótz, erri zaindari. Añe ta Otsabio, Aralar aurrean ego aldetik, neguan, bi mendi oiek illun, zuriz jantzita eukitzen ditugu.

Arrazoaiakin OR izen sustraia eman zioten errixka oneri. Orixek dionez, «Oro» izenak, gaur galdua daukagunak mendia esan nai omen du. «Mendi» itzak, ORO izena baztertu zuan. Itz berria latinatik sartu zaigu. ORO itz sustraia berriz toki izenetan ugaria daukagu. ORIAMENDI, ORKOIEN, ORTZAUN-ZURIETA, ORION, ORHI, ORO, eta abar. Izen sustrai au bera euskalduna ote? Edo Keltak ekarria? Griegoz ezin dugu aztu ORONTES, OROGRAFIA, eta abar. Dana dala Orexa, toki aldapatsua. Erritik ez da zelairik ikusten, malda gora ta bera baizik, itxaso arrotuaren antzera.

Geienean ixiltasuna dago, udaberrian txoriak kantari ta kukua etengabe deika, neguan egoa zalapartan. Erri ixilla, toki argitsua, aldapa latza. Giza semeak berriz lanari eusten ikasiak. Zerbait nai ba dute, nekatu bear; menditik egurra ekarri, belarra toki malkarretik, askotan lurrari lau eskukin eldu bear. Emengo gizonak eragozpenan oituak. Emakumeak, ez diote gizonei lanean beldurrik.

Maiz aipatzen entzun ditudan zar batzuek naikoa esaten digute. Bat Matxine'ko gaurko nagusien amona, Josepa Inaxi, Alziturrrietako alaba, ezkondata berealaxe alargun bi aur txikiekin gelditu zan. Aurak



Orexa elurretan.

bere gurasoen etxean utzi zitun, Matxiñe baserrian maxterrak jarri ta neskame Irurita'ra joan zan. Urtean bein Irurita'tik Orexa'ra oñez bere aurtxoak ikustera zetorkien. Aurak azi ziranean, berriz baserrira itzuli zan, bere bi semekin etxea indartu arte. Iltzerako, dana aginduta utzi zuen, baita nola jantzi bear zuten. Emakume kementsu onen semeak, Dionisio zuen izena. Sei egun il aurretik, 86 urte zitula, Tolosa'ko perian erosita'ko sagar landare batzuek belardian aldatu zituen. Egun batzuetara gorputza zan. Lesaga'ko aitona bestea, Migelen aita; menditik ez omen zan beñere esku utsik etortzen; beti ba zuen zerbait, gaztañak, intxaurrak, xixak, belar onak, ezertxore billatzen etzuanean, arri bat bizkarrean ekartzen zuen, etxe ondoko luiziak iraulitako lurak eusteko. Legasa'ko Migel'eri 1971 garren urtean udazkenean erriak Omenaldi bat eskeñi zion; erriko alkate izana, erria zaindu zuen, errege bidea egin, basoak ugaritu, mugak ikusi, benetan gizon argia, euskalzalea ta ona. 1931 garren urtean garagarrilan 14'an, antxen zan Lizarra'n estatutuaren egunean. Omenaldiko bazkari ortan Irabarrengo Andres eta Txuñe-berri'ko Jesus Marik bota zizkioten bersoak ezin ditut aztu. Gure aitona begi urdinekin zuzen begiratzan zien, azkenean negarrez. Urtero San Migel egunean Aralar'ko Aingeruaren etxera joaten zaigu. Bezperan Tolosa'n aitortu ta urrengo egunean San Migel'en meza entzun eta Jauna artu.

Erri ontako gizasemeak bizitza gogorra eraman dute; erantzuna neurri berdiñekoa izan da. Orexak bi apaiz izan ditu bertakoak eta bertan luzaro il artio, erretore bezala egon diranak. Bat joan dan gizaldian, Juan Bautista Montes Oyarbide; 1797'ko azaroaren 20'an jaio zan Ormaetxegarai izeneko etxean. Gorriti'n egin zitun apaiz bezala lenengo urteak. Meza azkarregi ematen zulako, Iruña'ko eliz barrutira salatu zuten. Aldiro Iruña'ko bikarioak eskutitz bat bidaltzen zion eta beti Gorriti'ko apaizaren erantzuna auxa izaten zan: «Enterado Montes». Esaldi labur onek denbora asko iraun zuen apaizen artean.

1851 garren urtean Orexa'ra dator eta 30 urte Orexa'ko erretore egiten ditu. Matematikas eta eresia lantzen zuen. Uitziko Osambela etxeko alabak berakin pianoa jotzen ikasi zuen. Felipe Gorriti, Tolosa'ko organistaren laguna zan. Piano modelo bat sortu zuen, baita 1867 garren urtean Paris'ko erakustegira biali. Piano ori, Ibarra'n Agirre markakin egiten zuten. Klarinetea jotzaillea genuen. Prozesioetan kapaundi azpian klarinetea eramaten zuen eta tarteka joaz zijoan. Matematikas kontuetan iayua. Militarrek mapan kotak egiten Orexa'n barrena ibilli ziranean, bein etxera talde bat etorri zitzaion eta problema bat jarri. Neskamea deitu zuen eta berealaxe Josepainaxik kora-

pillo denak askatu zizkien. Eguzki erlojuak, errian dagona ta inguruetako errikoak ere apaiz onek egiñak dira.

Karlisten bi garren gudan, Tolosa'ra jetxita gaben batean, beste batzuekin, zalaparta ederra atera zula, diote. Oresa'n 1877 garren urtean il zan. Montes izeneko txertua, Oresa'tik Ibarra ta Ikaztegieta'ra zabaldu zan.


Apaiz ontaz, gaur Oresa'n oso gutxi oroitzen dira. Berri geienak Antonio Maria Labayen, idazle ospetsuari zor dizkiot. Egan VIII aldizkarian idatzitako lanatik jaso ditut.

Beste apaiza, Saturnino Gastesi dugu, Iribarren baserrian jaio 1943 garren urtean il zan. 50 urtetik gora egin zitun erretore bezala bere erri ontan. Apaiz bezala errian asi zan lanean eta il arteraiño iraun. Errikoetxean, Jesusen biotzaren iduripean arrilosa eskeñi zioten.

Apaiz onen zugurtasuna ezaguna zan. Begiramen aundia zioten erritarrak. 50 urtetik gora erri ezitzallea izana; sakramentuak, kristau ikasbidea ta errian eta sendietan itzala aundia zuna. Prosezio asko egiten zitun eta igandero meza nagusira alkatea, kapa ta kopaz'ko sonbreruarekin etortzen zitzaion. Etxeondoko nagusiak, kopaz'ko sombreruarekin ezkontzen zitzaikion. Garai artan Oresak etzeukan errege biderik. Orrelako ezkontza bat zanean, astua artu ta Tolosa'raiño oñez zijoazten, gero Donosti'raiño trena artuta, an, Ponsol etxean kopazko sembrerua erosi ta astoaren gaiñean ekarri. Etxeondokoak ba zuten nagusitzaren zaletasuna. Primo Riberak Espainiko agintaritzta artu zuanean, oitura auek galdu ziran Oresa'n.

Saturnino Gastesi'ren aspaldiko argazkiak gazte garaikoak, Iribarenean, salan, txintxilik ikusi ditut. Arpegi artan ba dago zugurtasuna. Esan nien izena jartzeko, gainerakoan gazteak nor dan emendik gutxira aztuko dute.

Oresak ba du seme bat ez dana Euskalerrarentzat nolanaikoa; Nikolas Ormaetxea «ORIXE», Iriarte besarrian jaio zan. Orduan bizpairu sendi zeuden etxe ontan. Orixe'ren bizitzak sarrera bean zeukan, sortaldera, gaur oraindik ikusten dan azkeneko atea. Iriarte'ko errege bide aldeko orman dagon idatzitako plakan gaizki jarri zuten xetasun bat. Ala dio: «Orixe» aldameneko etxean jaio zan. Etzan aldamenean jaio, etxe ortan bertan baizik, ikullu ondoan zegoen bizitzan. Amak iruxkiak euki zitun. Nokolas'ek argia lenengo aldiz 1888-XII-6'an ikusi zuen. Amarentzat bear bezala azitzeko iru aur geiegi ziralata, Uitzin ama ordezkoa billatu zioten. Errekalde baserriko amona Asuntzik artu zuen. Azita urtean bein, Oresa'ra gurasoak agurtzera zertorkien. Uizi'tik irtetzean azkeneko baserri ondoan aiton baten



Alziturrieta'ko Juan belazeak gorozten (OREXA).

esaten zion: «Orixe'ra al oa?». Itz ori maite zuen baita betiko idazlanetarako izen ordezkos artu.

16 urtekin Jesus lagundira joan zan; latin eta griegoa ondo ikasi zitun, Gramati'ka irakasle bezala ibilli zuten. Apaiz egiteko garaian jesusenlagunditik irten da eta Bilbon Euskalzaindian Azkuek bere orduan artu zuen. Errialde ikasiak bezala Euskalerrriak, bere poema bear zula ta diru laguntza eman zioten eta lan ori egitera bere jaioterriira itzuli zan. Nikolas'en gurasoak Iriarte'tik Bentaberri izeneko baserrira joan ziran bizitzera. Errian entzun dutenez, Nikolasek esan dugun jasotako diru orrekin Gogorzane baserria erosi zien, elizaren ondoan, San Markos'ko baselizatxoaren bidean, baita idi parean. Gogorzanen, lan ortan, urte mordoxka 1931-1936 egin zitun. Ementxen idatziak dauzka «Barne muinetan» eta «Euskaldunak» liburu poema. Gogorzanera Lizardi Tolosatik maiz zetorkion. Olerki zoragarri batean aipatzen du ori Orixek.

«Anai arteko guda» sortu zanean ertzainak Nikolasen billa etorri ziran. Gure gizona eskola ematen. Arreba etorri ta iges egiteko esan zion. Eskolako atea itxita, antxen dijoa Nikolas Orexaran'go errekarra. Legasa'ko Migelek borda batera janaria eramaten zion. Aste baten buruan, Uitz'i'ra joan zan eta Martinperene'ko Arraiza jaunak ganbara batean gordeta euki zuen. Andik Frantzi'ra ta geroxeago Ameriketa'ra jo zuen. Andik urte askotara berriz Oresa'ra etorrita urte bat egon zan. Etxekoekin etzan nunbait ondo konpontzen eta Lazkano'ko Benediktinoak artu zuten. Donosti inguruan Zabalegi'n il zan. Oresa'n etzuten geiegi maite. Txorotzat artzen zuten; Espuru'ko lizar baten gaiñean irakurtzen maiz egoten omen zan. Bestetan mendira korrika arnasa, sakon artuaz, izerdiz bustita joaten omen.

Gutxinaz 1969-X-12'an erriak omenaldi eder bat eskeñi zion. Orduntxe jarri zuten, Olano gotzaiaren diruakin egindako arrilosa bere jaiotetxean. Askozeg geiago merezi du Orixek; euskal idazle onenetako sinismen aundikoa ta mistikoa dugu. Emparantzako iturrian irudi bat bear luke ta iturriari bere izena ematea. Ez al dugu Euskalerrriko kulturaren egitazko iturria izan? Baita ere erriko elizan, bear luke euki illobia, gaur bataio ponteak dagon tokian, koru azpian geldituko litzake, ortxen kristautu bait zuten. Bataio ponteak, gaur, animen aldaren dagon tokian bear luke izan, toki erosoagoa da ta argi geiago geldituko litzaioke. Oresa ta Orixe betiko, biek alkaturik, lotuta gelditu bear lukete. Nolako zorrak ditun batek besteakin dakigu. Orixe idaz lanetan txapeldun. Oresa'ko euskara aberatsa, garbia, egokia, ta ederra. Oresa'ko izkuntzak jatortasun aundia dauka.

Nun sartzen nintzan askorik jakin gabe, Oresa'ra nentorren 1969 garren urtean urriaren azkenean. Erri euskaldun bat eskatu nuen eta Oresa'ra bidali ninduten. Donostia'n nintzala, erderaz idazten nuen eta bear bezala euskaraz ezin idazteak lotsa ematen zidan. Euskal erri batera euskaraz ondo ikasteko aldatzea egokitu zitzaidan. Batez ere aditzaren bearra ta kezka nabaritzen bait nuan. Donosti'an ondo ikasteko aleginak egin nituen, baita ezer arkitu gabe gelditu. Euskaldun batek, euskaraz ondo ez jakitea lotsagarri zeritzaidan. Alaxe ninjoan Oresa'ra; gure izkuntzaren bearra nuala ta alkarizketan nere estutazunez bereala oartu nintzan. Igandeko itzaldiak, aurren Kristau Ikasbidea ematen nituela, naita naitz askatu bear. Aditza zan neretzat zallena, ortxen zegoen egitazko korapilloa. Meza ondoren ostatuan nere baserrirekin alkartzan nintzala, izkuntza aberatsa arek arrituta uzten ninduen eta erabiltzen zuten aditza ez nuen batere ulertzen. Aur txikienak ere ni baño geiago ziran euskara kontuan. Baiñan aditzaren korapilloa askatzeko errextasunik ez nuen arkitzen. Ekin eta jarrai azkeneraño zan nere gogoa, argia artu arte. Nere buruko laño ta lambroak baztartzan joan ziran. Azkenean gure aditzak ditun izkuta-penaz jabetu nintzan eta benetan zoragarria iduritu zitzaidan. Oresa'ra joatekin ez nintzan galtzaille atera, asko irabazi baizik.

Erriko euskara zeñen aberatsa zan ikusi ondorean, baita Oresak daukan euskal sena zeñen sakona, neronek ere, gure izkuntza obeto erabiltzen asi nintzanean, euskararen alde zerbait egin bear nuala, gogoratu zitzaidan. Asmo orrekin nenbillela, Robert Puchulu nere adiskide, Paris'ko apaiz xiberotarrarekin, Atarratze'ra ninjoakien eta an, Jean Pitreau baserritar gazte ta gizon argia ezagutu nuen. Gizon azkar onek udaran oporretan baserritarrei laguntzeko, goimailleko ikasleak zekarzkien. Ikasleak beti zerbait laguntzen zutela, baserriko buruausteak eta bizitza nolakoa zan ezagutzen zuten. Ekintza bezala, egokia zeritzaidan. Gauza berdiña Oresa'n egitea asmatu nuen. Uztailan belarra biltzeko garaian baserritarrak nekepean daudela, gazteen eskuak eta kemena eskeintzea oherena. Lanaren orde z berriz, gazteak euskara ikasi. Euskara ikasteko ikasbide egokia ezin ohea, Oñabibia'rena zalakoan nengoen. Ikasketan ikusitakoa, baserrietan maiz erabiltzea, ariketa on bat egiteko aukera egokia ta paregabeko bidea iduritu zitzaidan. Auxe izango genula Orixek merezi zuen benetako omenaldia zeritzaidan; bere jatorriko itzalean Euskalerrriko gazteen artean euskara zabaltzea. Ala oldoztu ta baita egin ere. Urtero gutxi artzen nituen. Baserrian bizi ziran, egun erdian lana egin, bertan lo ta jan. Baserritarrak euskara bakarrik egin bear zieten, beste egun erdian

erretoretxean, azpiko gelan neronek ematen nizkien ikasketak. Etxe geienetan etzituzten laguntzalleak eskatzen udarako. Bat besteakin amar amabi osatzen ziran. Etxe berean bi arrotz oso gutxitan sartzen nitun. Lenengo urtean laguntzeko, Jon Oñatibia maiz zetorkigun, bizpairu egun gurekin gelditzen zan. Dantzak ere erakusten zizkigun zimiterioan. Egun aietan ikasi zuten erridantza, geroztik Oñatibiak Euskalerra osoan zabaldu duna. Bigarren urtea ezkeretik euskara zerbait ikasiak zeudenak artu nitun eta aditza gogotik eman nien. Bear bada geiegi. Irugarren urtean berriz gure ikasketak askoz ez obeto joan ziran. Irakasteko bidea asko landu nuen eta eragozpenak legundu. Aditza era bat ikasi nuen. Uda ortan Iruña'tik deitu ninduten Diputazioak euskal irakasleentzat eratutako ikastaroan aditza emateko. Oresa'n ikaskaia amaitu bezin azkar taxis batean Iruna'ra ninjoan.

Oresa'ra euskara ikastera askok etorri nai zuten, danentzat ez nuen tokirik. Amabiren bat etxerako, 140 dei gutxi gora bera izaten nitun Ameriketatik asita Finlandia'raño. Euskararen zaletasuna zeinien aundia dan, orduntxe ikusi nuen garbi asko.

Egun oietan, udarako euskara ikasle oiek, erruz egiten zuten lana. Baserrietan gogotik ibiltzen ziran belarra biltzen, euskaraz mintzatzen asko aurreratzen zuten. Orduzkeretik euskararen alde zenbat lan, kultura bidetik egin genezaken oartu nintzan. Pakean ixtillurik gabe, lana bear bezala egiñez asko aurreratu gaitzeke ta gure Euskalerra zuzpertz. Danak ez gera berdiñak. Besteak Euskalerra izenean karraxiak, borroka, indarkeria ta irrintziak bear dituzte. Ixkoaren antzera ostikoa bota bear ta ostikorik gabe, festarik ez. Nor nor baino geiago izan nai. Ollaskoak kikirriki egiteko zernai aitzaki.

Lana buruakin egiñez, zurgurtasun aundian euskarak eta Euskalerra asko irabazi lezake ta aurreratuko litzake. Arrazoiakin ikasketa auei Oresa'ko «Udarako erri Unibersidadea» izena eman nien. Erri maillan orrelako gauzak Suezia'n ikusi nituen. Goi maillan bakarrik ez, erri maillan ere, an, lana asko egiten da, gure artean oraindik bear bezala ezagutzen ez dana. Stokolmo'n ikusi nituen erri unibersidadeak eta egokiak iduritu zitzaizkidan. Gure artean bizi diran kaikuak, idazleen artean ere ba daude asko xamar, zergatik deitu nitun gure ikasketak «udarako erri unibersidadea» etziran oartu. Gure ikasleak erriarekin batean bizi bait ziran. Etzuten bakarrik nere ikasketetan ikasten. Nere ikasketak eta erriarekin bizitzea ori dana zan «erri unibersidadea». Oresa'ko aurrak ere ba zekiten zer egin bear zuten euskaraz ikastera zetozten gaztekin. Bein baiño geiagotan esaten zieten «ori ez da orrela esaten, bestela da...».



Udaran Kaletarrak euskara ikasten (OREXA).

Neska mutil jator asko zetozkigun. Euskaldun berriak ziran bañan benetako euskalzaleak. Aietako batek esan zion baserritar bateri: «Etzegoela oraindik euskaldun berririk euskara ostikoka ibilli zuanik. Euskaraz ondo zekiten artean berriz askok euskarari ixika egin ziotela». Orexa, Gipuzkoan erririk txikiena da, baiñan Euskalerrian ezaguna, izar eder bat. Orexa'n askok ezagutu dute nolakoa dan euskal sena ta gure arteko jatortasuna, baiñan esan dezakegu ainbeste gazte gure artera euskara ikasteko irrikarekin etorriaz, gure erritarrak ere zerbaitegaz konturatu dira; euskaldunak ba daukala balio aundiko gauzak eta bat danetan aundiena, izkuntza. Ba zuten orren bearra. Erri txikiak ez dituzte arrotzak galtzen, bertakoak baizik; ezin ikusiak eta ezin eramanak.

Nik ere Orexa'ri dizkiodan zorrak aitortu bear. Iru urte gelditze-kotan etorri nintzan, baiñan lau egin nitun. Irugarren urtea bukatzera zijoala «Naparroa Euskal Arrobia» izeneko liburu berria amaitzen asi nintzan. Orregatik beste urte bat geiago luzatu nuen. Azaroan eraman nitun paper danak Gazteizko irakorlara. Abuztuan atera zan eta San Migel legunean agertu genuen Iruñan. Urte ortan bertan maiatzan argitaratu nuen «Aralarko San Miguel» liburuxka. Orexa'n ere idatzi nuen, «Errioxako San Millan», Paris'en nengoela agertu zana. Urte oietan Orexa'ko etnoloji lana egiten ibilli nintzan. 1973'ko Eguarritan, Jose Migel Barandiaran jakintsu ta ospetsuari eraman nion. Argitaratzekotan gelditu zan; euskaraz idatzia dago. Lan dana auk euskaraz egin nitun eta ori Orexa'ri zor diot. Idazterakoan artu nuen poza berbera opa diet irakurlei.

Gainean berreunen bat artikulu egunkari ta aldizkarietan idatzi nitun. Zoritxarrez nik eman nai nizkion ordaña guztiak itxultzeko aukerik ez nuen izan; argi indar berria sartu, eliza konpondu, alkiak jarri, Amabirjin ederra tolestatu, erretaula garbitu, baserritar danei zerbaitean lagundu... Azkenean kanpai Dorreko ordukari ederra ixildu zitzaigun eta aspaldi itxua gelditu zan. Bildu nitun erriko gizonak eta Legasa'ko aitonaekin, alkarrekin, Zubillaga'tarregana Tolosa'ra genejoakien. Erremendari langille auk Orexa'ko kasta dira, gizon argi ta sendo auen aitak egin zuen Orexa'ko ordukaria. Ondo artu ginduzten, baita etorri ta konpondu ere. Egia zanik ere etzuten erritarrak uste. Ordukariak bizia ematen dio erri bateri ta gurea aspalditik antxika zegoen. Erritik joan nintzanean arnasa artzen asia zan.

Inazio Zubillaga, Juandabarrene'n 1869 garren urtean jaio zan. Lanean ikastera Betelu'ra Bonifazio Yeregi erremendiarengana jo zuen eta antxen burnilangintza ikasi, baita ordukariak egiten. Juan

Garmendia Larrañaga'k idazki polit bat eskeñi dio «Euskal esku langintza» II liburuan. Andik jaso ditut berri asko. Albistur'era joan zan bizitzera 1889 garren urtean. Batez ere lurgintzako tresnak egiten ditu ta aberentzat perrak. Lendabiziko ordukaria Orexa'rako, bere jaioterriako egin zuen. Bi burnizko idazkiak jarri zizkion lenengo lan oneri. Batean ala dio erderaz: «orexa'ko alkatea Jose Ramon Malkorra»; besteak berriz: «Ordukaria Saturnino Gastesi Zulaika, Orexa'ko erre-tore dala Inazio Zubillaga'k egiña, 1893 garren urtea. Albistur».

Geroztik erri askotan egin zitun ordukariak, 12 parroketan (Albistur, Segura, Ormaitegi, Alzo, Ordizia, Eibar, Andoain, Billabona, Orduña, Aduna, San Inazio Donostian, Amezketa) bi errikoetxean (Ordizia ta Billabona) gaiñeza Tolosa'ko Karmelitetan, Oju (Txina'n) eta Tolosan (Jesus'en alaben ikastetxean ta Justizi enparantzan). Aizkorak ere egiten zitun eta bestenak baño obeak zirala azaltzeko, aposturen bat egin eta irabazi zuen. Ortara iritsi bear, saldu nai izan ezkerro. Larogei urtekin il zan.

Sendi guztientzat Albistur'ren lanik etzegoen. Jose (gaur 76 urte) ta Periko (68 urte) Albisturren jaiok dira, 12 urtekin irten ziran Tolosara bizitzera. Aita, Inazio Kalparsoro'ren tallerrean jarri zuten enkargatua bezala. Izendatutako bi semeak, aitakin ikasi dute ofizioa. 1943 garren urtean bere kontu asi ziran lanean. Bi semeak aita bezala erremendari azkenerano iraun eta 1972 garren urtean Tolosa'ko lan-teria gelditu azi dute.

Lasaigo eguneroko lanaren estutasunik gabe ordukariak emen eta an konpontzen ari dira. Lenengoa Orexa'koa, aitaren jaioterrikoa. Bi anayak etorri ziranean erriko gizon batzuek deitu nitun eta Inazio zanaren bi semeak pozik irriparez zeuden, aitaren eskulana ikusita. Kontuz ikuitzen zuten. Idazkiak garbitu ondorean aitaren izenari begiratzen zioten. Ala zion Josek «Au dana eskuz egiña dago, eskolik gabe ba zuan burua» Burni tresnak eskuan zeuzkala Perikok berriz «Beste larogei urte iraun dezake». Doñua atera arazi zion, «Au bai dala erriarentzat musika». Nola ordaindu galdetu zioten erriko gizonak; «Au aitaren lenengo lana nola dan utsean zuzenduko dizuet». Perikorentzat ordukaria eskuetan artzen zula jostallua zan. Erriak, bai, beinpen bear ederra. Ordukaria erri txiki batentzat laguntza aundia da; eresia, deia, lanaren neurketa, zaindaria; jatorduko neurria, alaitasuna ta biotzaren ezaugarria. Inazio Zubillagak ainbesteko urtetan nolako bizia eman zion bere erriari etzuen jakingo. Gaur berriz Jose ta Periko bi langille jator euskalzale benetakoak eta erri maitale egi-tazkoak, aitak egindako lana esnatuaz Orexa'ko aizeak berpiztu di-

tuzte. Legasa'ko aitonak, Migelek zenbat esker eman ote dizkie, bere biotz xamurran, Jainkoaren izenean bi Zubillaterrei? Aralar'ko magalean dauden errixkak Oresa'ko ordukaria entzutean esango dute, «Oresa bizi dek».


Eskulana, lan soilla askotan deritzaigu bainan eskuen bidez laguntza bikaiñenak zabaltzen dira. Zubillaga'tar anaiok bi gauz ederrak egin dituzute, aitaren trebetasuna ospatu ta bere sorterriari arnasa eman. Orrelako biotzak zorionezkoak dira.

Beste ixiltasun aundi bat berdindu bear genula Oresa'n zeritzaidan. Txisturik etzan erri ontan entzuten. Gutxi gora bera orain dala 25 urte il zan, Oresako azken txistularia, Legasa'ko aitona, Migelen aita. Igandero arratsaldetan txistua artuta, txistua joaz erriko enparantzara igotzen zan eta illunabarrean ezkillakin batean etxera. Gaurko aiton amonak makiña bat jauzi atera zituzten, tuntuna eten gabe zebilela. Orduan ingurutxo ta aureskua dantzatzen zuten. Aitona il zan eta txisturik gabe gelditu ziran. Txistua erriko arima da; ze alaitasuna ots ori mendiko bazterretik entzuten dala. Urtean bein zekarkiten txistulariak Santakruzetan. Orduntxe ikusten genituen alai asko gora ta bera ta, Meza nagusira alkateakin zetozen. Alegi'ko txistularia zekarkiten, gizon argi ura ere il zitzaigun.

Gaztetxoekin asi bear nula bururatu zitzaidan. Tolosa'n galdezka asi nintzan. Serapio Letamendia, Berastegi'ko idazkari gizon ziñezkoa arkitu nuen; bera txistularia ta bi seme txistulari onak ditu, bat sendagillea ezkondu berria, ta bestea legegintza ikasten. «Bata ez ba da, bestea ginjoatxik». Itza eman baita bete ere. Orain dala bi urte asi zan larunbatero etortzen. Sei gaztetxo bildu nitun; Txuñeberriko Jose ta Jesus Mari, Larte'ko Serapina, Legasa'ko Migel Angel, Iribarren'go Andres eta Alziturrieta'ko Faustino.

Iñaki Letamendiak 18 urte zitun, gaztea, mea, alaia, izlaria, biotz oneko mutilla, beti parrez, gañera berez ezitzallea. Oresa'ko gaztetxoekin nai zuen bezala egiten zun lana. Erakusteko esku ona du, solfeoa irakasten asi zitzaien. Poliki, poliki, ondo ikasi arte etzan aurreratzen. Urrian asi zan. Ilbeltzerako, lenengo 20 ikaskaiak ikusi zituzten. Berrogei-garrenaraino iristerakoan txistuak erosi arazi zizkien. Andik aurrera erdia solfeoa ta beste erdia txistua erakasten zien.

Larunbatero Iñaki'kin ikasten zutena, astean bizpairu aldiz illunabarrean meza ondoren, erretoretxean ondo ikasten genuen. Orrela aurreratzen ari zirala, Santa Krutzak Oresa'ko festak zetozen. Garizuma bukatu aurretik «Uso txuria ta Andre Madalen» ikasi zuten. Ura poza! Ainbeste aldiz entzunez uste dut erri osoak ondo aski ikasi



Erriko alkatea sagarra jotzen (OREXA).

zitula. Urrengo donua «Pello Josepe» ta «Maiatzareko Biribilketa». Erriko festetako lenengo zanpetakoakin, antxen genituen erriko gasetxoak, txistulari berriak «tarran parran». Mendiak pozik, errian jai, etxetan parra. Egun oietan Iñaki Letamendia etorri zitzaigun bere lagunekin jotzera. Txistua ezpañetan artzen zuten eta etzekiten uzten. Bata lertuta gelditzen zanean, Aizpun'ek txanda artzen zuen. Zer dan gaztedia, sua, kea, bizia.


Udara ondoan berriz asi zitzaigun astero larunbatetan, bazkal ondoan etortzen 2 tik iruterdiak arte. Aitak ekartzen zuan eta taxis batean etxeratzen zan. Neronek ordaintzen nion. Orexa'n egiten zuen ordua ondo beteta joaten zan. Beti zutik zegoen, gelditu eziñik, eskuakin edo txistuakin eragiten.

Gure gasetxoak etzuten lorik artzen. Solfeotik 80 ikaskai ikasi zituzten eta bigarren negua bukatzerako 25'en bat doñu txistuakin jotzen zituzten.

Berriz erriko festak zetozkigun. Orain gasetxoak etzuten beldurrik. Zuriz jantzita atera nitun neska mutilla, zapel aundi batzuekin buruan. Goiz eresia beko muturretik goiko baserriraiño jo zuten, lau biribilketa ondo zekizkiten, gaiñera iru tuntunekin atera ziran. Base-rietan etzegoen lasaitasunik, leyotan, atarietan zai. Meza nagusi aurretik alkate doñua joaz, errikoetxetik elizara etorri ziran. Meza bukaeran «Agur Jaunak» jo zuten. Eguardian eten gabe berriz doñu sailla. Atsaldean berriz berdin. Zorionez Iñaki gure irakaslea gurekin genuen; alaitu zituzten bazterrak.

Korpus egunean prozesioan lagundu zidaten ondo asko, txistulari gazteak. San Inazio egunean, elizan mezaren bukaeran jo zuten gure zaindariaren donua, erri osoak abesten zula. Biotzak lasaitu ziran ondo asko. Eliz atarian gizonak pozik zeuden. Euskal erri txiki batek gizonak arnasa bezala, txistua bear du. Txistuarekin euskal erriak beste kutxu bat dauka.

Iñaki'ri esker aitortu bear Orexa'k berriz txistua eskuratu dula. Mutil gazte onek bere burua pixko bat estututa, bere lagunekin jolas-ean lasai ibilli bearrean, guregana zetorkigun. Gure gasetxoak txistua jotzen ikasi dute, trebetasun bat landu, Euskalerrria geiago maitatzen ikasi ta gure erri txikiari alaitasuna berriz itxuli. Iñaki Letamendiak gure bearrik etzeukan; Tolosa'tik Orexa'ra oker gelditzen da, eguna txarrena larunbata, txistua ikasiei erakutsi lezaieke; Tolosa'ko Errikoetxeko txistulari buru daukagu gaur. Ain urrutik ezertxore etzekitenei erakastera zetorkigun beti pozik eta alai. Ixtillurik gabe, irrintzirik gabe mutil gazte onek, Euskalerrriko kultura aberastu



Segalari gaztea (OREXA).

du ta euskal erri txiki bateri arnas berri bat eman dio. Gazte onek trebetasun bat daukalako lagundu gaitu. Gazteak Euskal erriari laguntzekotan trebetasun aundi baten jabe agertu bear dute. Lanaren bitartez jasoko dugu Euskalerrria.

Zoritxarrez bear bezala ez nuen Iñaki ordaintzen. Orrelako lan batek ondo ordaintzea merezi zuen. Utsune au betetzeko, beste mailla batean zerbait egin bear genula burutu zitzaidan. Adibidez, Aurrezki kutxen bitartez, erri txikietan txistua zabaltzeko irakasle talde bat sortu. Aurrezki kutxentzat ekintza polita izango litzake, baita ere Euskalerrriaren kulturarentzat. Ementxe dijoa nere asmo au.

Nere egunik zoragarrienak Orexa'n eguraldi guztiekin, euria edo eguzkia, lanbroa edo elurrarekin gure gaztetxoek txistua entzunez igaro ditut. Txistuarekin Orexa'k beste usai bat dauka.

Eguna urbiltzen

Iruña'ko ikastaroa, Amabirjiña egunaren aurretik abuztuan amaitu zan eta berealaxe nere ateraldia antolatzen asi nintzan. Abuztuko azkeneko astean egitea erabaki nuen. Egunak oraindik luzeak dira, beroak gainera indarra galtzen asia. Lenago ezin nuen eta geroago berandu egiten zitzaidan. Paris'ko aldaketa egiteko ere astia bear. Egun oietan azkeneko xetasunak jasotzen nenbillen, liburuak, mapak, bideak nundik laburtu begirutzen. Ala, astea urbiltzen zijoan. Nere asmoak errian ez nion iñori agertu. Eztarria gero ta geiago estutzen zijoakidan; ez dakit zerengatik baiño bide ori ezin eginezkoa zeritzaidan. Aurrez ikusten nuen nere burua geiegi larrituko nula, ta azkenian ezin ibilliz geldituko nintzala. Gainera lenengo egunean eguraldi ona bear nuan, euri geiagokin ezin izango nintzan Gipuzkoatik atera.

Lenengo egunean ateria izan ezkerro, Gipuzkoatik irten ezkerroz, gero legorra arkituko nula ziur nengoen, garai ontan gainean Naparroan legor aldiak izaten dituzte, ta Aragoien zer esanik ez. Lenengo eguneko zoriak asko esan nai du. Gaiñera egun ortan bide luzea egin nai nuen, Orexa'tik Ulzama'raiño. Eragozpenen batekin, lenengo egunean, bide luze ori bete gabe utzi ezkerro, Jaka'raino aste batean ezin iritsiz ibilliko nintzala nengoen. Eragozpen aundiena euria izaki. Ba, nere ateraldi orren aurreko astean euri asko egin zuen Orexa'n. Ostiralean euri jasa. Larunbata itxoin bear garbiago ikusteko. Igande bezperan berriz euri parrasta. Mikel'eri esan nion igande aurreko egunak txarrak egin-izan ezkerro ez etortzeko ta beste noizbaitean egingo genula gure ateraldi ori.

Nere barrenean estutasuna, antxia ta erri inguruan euria bota ala, mendietan lañoa. Mikel etorriko zanik ez nuen uste. Baezpare

azken erabakia arratsaldeko meza ondoren artzekotan gelditu nintzan eta orduan aizeak nundik nora jotzen zuen ikusi arte. Larunbata ortan nere jantzi ta oñetakoak tolestatu nituen; aterako banintz bezala gaiak ondo gertutzen, ibilli nintzan.

Mikel'en berririk ez nuen; eskutizik artu gabe ta telefonotik otsik gabe nengoen. Arratsaldeko zortzitan ate joka Mikel agertzen zait. «Au poza nerea, esan nion; etorri aiz». «Ba al goaz», galdetu zidan. Gaur meza ondorean ikusi bear aizeak! «Biar goizean ateria ba daġo ta Unikaten illuntasun geiagorik ez, ba goaz»; gure azken itzak.

Mikel bere baserrira Txuñe-zarre'ra afaltzera ta lo egitera joan zan.

Arratseko meza ondorean lañoa sartu zitzaigun Oresa'n. Galdetu nien baserritarrei, «Biar nolako egualdia izango dugu». «Gaur bezin txarra ez, biar ateria» erantzuna. Meza berandu izaten da, arraktseko bederatziterditan udaran. Meza ondoan berandu arte, gure gizonekin musean jolasten aritzen nintzan ia beti. Gaberdian «ordago, enbido, nai det, utzi», ugari esan ondorean etxeratu nintzan. Laño xuria errian genuen ondo sartua. Lo egitera ninjoan baiñan ezin lorik artu. Oian ezin egona. Goizean goiz jeiki, ura berotu, tea nastu, ta galleta batzuekin artu nuen, baita pardel txikia gertuta utzi; lo egiteko jantziak, ardillezko txamarra, ezpartxiñak, galtzerdi meak, espadadrapoak, argazki tresnak, mapak eta idazteko papera, danak batean jarri nituen. Geiagori ez.

Igande goizetan meza nagusia amaiketean ematen nuen. Geienetan, aiton amon xarrak biltzen ziran, eta aur batzuek. Danetara amabi amabost lagun. Igande ontan aurrez esanda ordua aldatu nien eta meza goizeko bederatzitan eman nuen. Meza aurretik sukaldean tresna danak ateratzeko gertu utzi nituen. Mezak ordu erdi bat iraundu zuen; lo gutxi eginda, nere zain xuriak ezin pakeaturik, meza motel xamar eman nuen. Meza laguntzallei esan nien aste osoan ez nintzala etxean izanen.

Erretoretxean sartu nintzan. Lendabizi jantziak aldatu; panazko galtzak ardillezko galtzerdiak eta oñetako lodiak. Nere pardela bizkarrean artu, makilla eskuan ta aide. Mikel atean irriparez zai. Erretoretzeko ate leioak ondo itxi nituen. Atertu zuen, baiñan lañuak ugari mendi gallurretan. Unikate garbi ikusten zan. Euria berriz asi aurretik, Gipuzkoa'ko mendi zoko oietik, len bait len, atera bearra. Euria, Gipuzkoa'n asten danean, beldurra ematen dit, ibiltzeko txarra bait da.



Arto zuriketean Gogorzane baserrian (OREXA).

Aurretik ninjoan, Mikel atzetik. Ordukarian amarrak ogei gutxi. Erretoretxe azpiko bidexiurra artu genuen jauzika. Arrizko galtzaran barna jetxi, Arane'ko borden bidea utzi, eskubira jo ta Bidarte-txe'ko galtzara artu. Aliturri ondoan, Malkorra'ko Daniel gizon gaztearekin topo egin genuen. Segar bizkarrean zuen, mandoa aurretik belar zamaikin zijoaki. Bi itz alkarrekin egiteko gelditu giñan. «Orren goiz ta ain azkar zuek Aralar'era zoazte»? galdezka Daniel. «Bai Naparro aldera urruti goaz. Egun osorako bidea dugu». Agur ta Agur.

Bidea, erritik Bidartetxe'raino naikoa jeixten da. Goitik bera piñudi batetik jarraitu genuen. Ezkerreta karobi zuloa ikusten da berealaxe. Orexaran'go erreka ateratzen gera. Oxane'ko bordetara iristerakoan, ur ondoan, Ormaetxegarai'ko bi anaiak bularra billautsik, sasiak segakin garbitzen zeuden. Gure oñetakoaren otsak ernatzen ditu. Guri begira gelditzen zaizkigu. Gure joera jakiteko gogoia agertzen digute: «Gorritiko festara al zoazte». «Bai» erantzuna. Bidetik urrun xamar zeuden. Ezagutzen nituen; kontuak esaten ibiltzeko beti zai; astegunetan maiz bide baxtarretan izketan ikusten genituen errian, igandetan berriz lanarekin estutasunak. Ez giñan batere gelditu. Errekan sartu ta zuzenean aurrera. Andik bidea igotzen dijoa. Arri koskorak, ugari, ibai obian ta erreka zulo artan. Ots ederra ateratzen genuen. Puska batean Lizarza'ko lurretan sartu giñan. An, bertan Tolosa'runtz urak eramateko aska luzea ta itxia asten da; putzu batean biltzen dituzte iturriak. Urbieta'ra urbiltzen gera. Toki orren izena ondo jarria dago; ezker eskubi menditik datozen urak, erreka bat Areso'ko menditik datorrena, bestea Atallo'ko mendi aldekoa, ortxen Orexaran'go erreka sortzeko batutzen bait dira. Eskubi'ko erreka artu genuen. Arkaizt batera igo ta bidexiorra uraren ondolik dijoakigu. Arkaitz gorri ta garbian amilka jeixten da, zillarrezko ura. Arkaitz tartean putzuak. Mendiak gero ta geiago estutzen dijoaz. Erreka, zulo batean gelditzen da. Nai ta naiez, guk mendizulo artatik atera bear. Bidaska, gainean daukagu, esker aldetik. Gure gaineko aldiak gutxitan bezala ikusten dan urritztegia; ostoia ugari, enborrak lodiak ta adar azpian garoa. Zoritzarrez zugaitz asko, ebakiak lurrean etzanda zeuden. Bidaska, ostaje artan galtzen da. Zorionez ondo ezagutzen ditut bazter oiek. Lurrean eroriak zeuden adarrak ez ginduzten ibiltzen uzten. Aurreratzeke anken ta eskuen bearra izaki. Basoa oso bustia zegoen eta oñetako lodiak zugaitzen enborretan ondo irristatzen ziran. Azkenean, al genuen bezala inpernu txiki artatik atera giñan eta eskubi aldera berriz bidaxka baita billatu.

Bidexiorra igotzen dijoala erreka aldera sartzen da. Aspalditik bide erdian, mendiaren bi egalak alkartzen ditula, pago luzea zegoen etzanda. Adarren artean makurtuta al dan bezala igaro bear. Andik Urkieta aldera igo giñan. Goroldilloz ondo jositako zelai batean sartzen gera baiñan antxen asten da gure bidea era bat zakartzen; zuzenean goruntz jo bear. Bidaxkaren aztarnak ez dira ondo ikusten eta bidea askotan asmatu bearra. Ankarentzak naiko tokirik ez dala, oñetako mutur gainetan beti igotzen, eskerreta alegindu bear. Erreka, legorrenaren zulo aldera berriz jo genuen, sasi itxi batzuen artean bidea eginta, gorputza larrutu gabe, kazkardi txiki batera igo giñan ta erreka urri batera iritsi. Mendia errekatxo orren gainean orma baten antzera gelditzen da. Atzaparrak lurrean sartuta, andik ezker aldera atera giñan. Gaineko aldean ariztegia enbor mardulakin ta ostaje itxia. Zugaitzapean erreka ezetasun ondoan, gorondilloa ta gainean an ta emen, multxoka, xixorik, eta «sagu atzaparrak» izeneko onto xurik. Bizpairu artzen ditut eskuetan eta oso usai gozoa dutela, basoaren antzekoa nabaritu nuen.

Zearka, goruntz dijoan bidaxka berria ageri da. Aldapa galanta, benetan gogorra. Goraxcagotik, adarren gainetik zeruaren argia ikusten dugu. Inguru aietan, onto ustelak nunai daude, onik ez. Gorondilloa bukatzen dan tokian, orbela erruz ondo zamatua ta goraxeago garoa. Goi aldera pagoak nagusi; gero ta geiago bakantzen dijoaz jakiña. Garoa berriz, gora aldera gero ta aundigoa ta ugariagoa. Metro batzuek ezker eskubi eginda, goian gaude. Unikaten, goizeko 11'ak dira. Azkar ibilli gera. Biotzak zanpetako aundiak ateratzen ditu; jo ta jo etengabe dabil. Mikel nere ondolik atzean daukat. Nere baitan, ala diot «Txarrena egin dugu». Baso azpi ura oso bustia genuen. Jaunari esker illuntasuna artatik ateratzeko lañorik ez, euritik ezta ere. Gure zoria aundia zan. Unikaten ain goiz arkitzea, aurrerapen aundia guretzat. Gure biriak aize gozoa ta otza artzen dute gain artan. Kopeta ondo bustia, anketan miñik ez. Mendi lepo artatik izadi berria ikusten genuen. Ez oztutze arren geldirik etzegoen egoterik. Eskubide Urkieta'ko tontorra ta arkaitzak, aurrez aurre Santa Barbara ta Elostia, ezker Aitzondo'ko baillara ondo ikusten zan. Gure atzeko aldiak laño beltzak, Aralar'ko malloetan laño txuriak, sortalderuntz eguzkia laño tartetik agertu naian. Neretzak toki aiek ezagunak ziran.

Mallopean Araiz

Artaldearen eskila zebillen baztarrak astintzen. Urkietako egal batetik beruntz zetorren artzaia. Aurretik bizpauru ardikin gizon bat zijoan, bestea artaldearen atzetik ziztoka. Artzaiak ezin zuen nai bezala artaldea bildu ta txakurra eragintzen zebillen. Ardiak goitik bera asi ziran lasterka. Txakurrak ezin zitun gelditu arazi ta artzaia arin marmarika ondotik zijoakion.

Artaldea gure aldera urbildu zala, auntzak eta antxumeak ere ba zeudela konturatu nintzan. Artzaia ezagutu nuen, Atallo'ko Jose kaxkazuria ta aurrean zijoan beste gizona aren anaya. Sututa zebillen gure artzaia. Oiu bat egin nion «Maldiziorik ez bota». Ezagutu ninduen eta parrez esan zidan «ondo —ondo». «Zer moduz etxeok» nion berriz. Itz geiago esateko etzegoen girorik. Urkieta'ko erregea dugu gure Jose, ango baztarrak gutxik ezagutuko dituzte gizon onek bezin ongi. Maiz, egunean bi aldiz egiten du bide ori. Zoko guztiak nun dauden badakizki. Ibilkari ikaragarria dugu, gaztegarraian ba ditu laster aldi ederrak egiñak. Geroxeago aipatuko ditugu berriz gizon onen lanak. Adiskide ona dut. Bein Aralar aldera oñez joan giñan eta egun ura ta egun arteko zorientasuna ezin ditut aztu.

Ezker aldera jo genuen garoa ugari ta erditik gure bidaxka goruntz oyanean sartu zan; aritzak, iturri bat erdian, gaineko aldian baso mutillen etxola. Berriz garoa zabalean eta gaiñez gain ginjoazela toki iriki ta garbi artatik eskubi aldeko lurrarte eder aiek ikusiaz Aralar aldera, oroitzapen zoragarriak bururatu zitzaizkidan. Balerdi'peko errixka aietan ibilli bai naiz, baita goiko malloetan barrena. Mallo aiek bizitasun aundia daukate neretzat. Antxe tente, erne ikusten nitun eta tarte aietan mendi lepoak belarrez ondo inguratuak. Illuna-

barretan azken argiak goxotasun aundi bat daukate; arkaitzak urdin illun gelditzen dira ta lepotan argitasun leguna, irriparren antzekoa. Tarte aietan gora ta bera egurasten, baztarrak ikusten ibiltzeko egarria izan nuen aspalditik baita ondo kendu ere; artzai onek bidea erakutsi zidan eta bizpairu aldiz egiña daukat. Ango argik ta aizeakin nere osasuna ongi busti nuen.

Mallo aiek tente, erne daudela ez dira bakarrik begientzat atsegin baita nere jakin naiarentzat. Askotan «Malloak» izen orren esanaia jakin naian nenbillen. Korapillu ori askatzea, lortu dutela uste dut. Malloak, malloa, malla, sustrai berdiña dute. Zerrak mallak ditu; ortzak, kokkak. Malloak euskaraz, erderaz «Sierra» ren esan nai berdina dute nere ustez; Malloak euskaraz, «Sierra» erderaz.

Malloen azpiko erri txiki oietan, berriz, askotan ibilli naiz. Uda-berrian maiatza inguruan, goien dena txuria elurrez jantzia, bean belazeak orlegi ta artaldeak an ta emen, arkumeak jauzika. Udaran, belardiak lorez beterik, millaka margo guztietakoak, usaia gozoa inguruetan eta mallubiak ezetasunaren ertzean. Eguraldi onakin alderdi orrek daukan argia, bizia ta edertasuna beste toki gutxitan ikusten da. Alderdi guztietatik iturriak kantari dijoaz beruntz.

AZKARATE'ra bizpairu aldiz joan izan naiz. Errixka au toki askotik ikusten da. Orexa gainetik, Espuru'tik ondo ageri; batez ere Eliza dorre zorrotzakin eta erria eliz inguruan banatua. Bi auzo Ergoyen ta Elbarrenen. Eliza gaztelun antzekoa; orma lodi galantak, leyo estu batzuek edo saetakin, sarrerako atea estua ta luzea. Erri au Gipuzkoako mugan edo «probintziako» mugan dago ta bide ori aintzinako garai zar aietan nunbait ondo zaindu bearra. Erriaren izenak naikoa esaten digu; «Ate» itz orrekin. Lenagoko galtzara zarra ortik zijoan. 28 etxe daude 150 bizi lagunekin. Exte batzuek ikustekoak dira; Munutxo, Martin Jose Balerdi'n jaiotetxea, Ameriketara joan eta an egindako diruakin erritarentzat fundazio bat utzi zuen ta bestea Jauregi izenekoa, arrilanduko leyo zar batzuekin; emen jaiio zan Matias Azkarate aspaldiko erregearen aolkularia.

Erriko gaineko aldian, Gipuzkoa aldera San Fermin'en elizatzoxa dago. Uztallan sainduaren egunean, elizatik elizatzoxo ortara San Fermin'en irudi gotiko bat lau gizonen bizkarrean artuta bi makillen gainean eramaten dute.

Ibilli aldian, San Inazion martxa Lizarza'ko mutil batek aize soñuakin jotzen zula ginjoazen, bein, 1971 urtean. Tamalez Naparro osoan ez dute San Fermin'en euskal kanta zar bat izango; merezi luke egitea. San Inazio soñua jo bearrean, euskaraz egiña San Fermiñe'na izan bear zukean. San Fermin'en tradizioa zarra da Naparroan eta esan nai aundia dauka; Kristau sinismenaren



Elizan dirua jasotzeko ontziak (GAINZA).

argia ekarri bait zien. Len egun ontan etzituzten Azkarate'n nola naiako elizkizunak. Maiatzako ostiral guztietan meza prozesioarekin baseliza ortaraino. San Fermin bezperan animaren kofradien Meza beko elizan. San Fermin'en egunean, aurretik letaniak prozesioarekin eta goien Meza eta ondorean «Adorazioa». Egun guztian bisita elizan. Len egun ontan erromeri ederra egiten zuten eta gizaseme asko biltzen zitzairen, batez ere Gipuzkoa'tik, oso urrutitik asita.

Nunbait garai artan Iruña urruti gelditzen zitzairen. Oresa'tarrak ere erruz zetorkien eta gure erriko zarrak entzun omen zioten bein egun ortan izlariari esaten: «San Fermin Glorioso, mutiko guri guria zen»; itz oiek orrela esan ondorean parra barrendik ateratzen zitzairen.

Nunbait garai batean etzan inor inguruetako erritik joan gabe gelditzen. Roskillak erosi ta makilletan txintxilik ekartzen zituzten; aurretik ondo nekatzen ziren ingurutxoak aspertu eziñez dantzatuta.

Orain erromeria asko galdu da. Gizaseme multxoak bildu giñan, geiegi ez. Erri bertan ez dute erretorarik eta Azpiroz'ko apezak etortzen zaie. Auxe bera genuen errelikiarekin eta euskaraz eman zigun itzaldia. Aurreko garai aietaz oroitzen ziran zarrak eta ala esaten ziguten: «Orain roskillik ere ez daude. Emen orixe izaten dira festak, jatea; ardin bat ilko zuten eta ura bukatu bearra».

Gaur etxeko seme guztiak inguruetako lantegietara dijoaz. Al dutenean Leiza edo Gipuzkoa'n lanean asten dira, egunero etxera bilduaz. Orrela gasto gutxi izaten dute ta jasotako diaruakin Gipuzkoa aldean bizitzak erosten dituzte, gero ezkontzeko.

Iru neska ezagutu nitun Zabalegi'n nekazarien eskolan zebiltzanak. Irurak neska garbiak, itxura onekoak, euskara maite zuten. Erri euskalduna dugu. Aurak eskolan dabilzala erderaz egiten dute, gero berriz euskaraz, erdera berriz mutillei askori azten zaie. Neskak buru ohea dute erderarentzat.

Baselizatik errira jetxi giñan eta an trinketean mutil koskorak pelotan zebiltzan. Trinketea orain berrogei urte egiña da.

Erretoretxea usturik nola dagon, iganderako Elosegitarak artu dute. Emen-txen biltzen dira jai egunetan eta udaran. Etxe eder ortan kaiola daukatela Jesus Elosegi'k, Aralar'ko toki izen danak biltzen ibilli da: amar millatik gora orain argitaratu ditu liburu berrian. Erri ontako inauteri ederrak Juanito Garmedia Tolosar idazleak bilduak ditu; argazki ederrak baita liburu ortan bertan argitaratu.

Auntxaxeago, Irumugarrieta'ren azpiko aldean bi errixka daude, bat goien Gaintza ta bestea beran Uztegi. Aspalditik ezagutzeko gogoa nuen eta Oresa'tik oñez joan nintzan bein, bizpairu urte dirala. Narbaitzu, Illarratzu, Añe, Mikelen etxe eroria, Azkarate'ko gainetik GAINTZA'n sartu nintzan. Marrubiak loretan bide bazterrean. Errixka au dana batean dago. Eliza zarra da, erromaniko gotiko garaikoa, sarreran estalpe bat dauka ta andik Malloak gaineko aldean ageri. Intza'ko Dorrea izeneko mendi gallura ondo ikusten da. Mendi mutur

orren erdia erriarena dute. Parrokiak San Martin'en izena dauka; erretaula berria du ta gaineko aldean dagoen Gurutzea, gotiko antzekoa. Sakristin Amabirjiña txiki bat illea ta sonekoakin jantzita ikusi nuen. Kendu nizkion illea ta sonekoa ondo ikusteko ta nere begien aurrean XII garren gizaldiko erromaniko Andra Mari bat neukan, oso bitxi polita. Erretorak etzekin erromanikoa zenik. «CLAVERIAK» bere Naparroa'ko Amabirjiñen liburuan ez du irudi onen berririk ematen. Orrelako bitxia, zoko batean baztertua daukate. Eliz ontan dirua jasotzeko egurrezko tresna politak ikusi nitun, gutxinaz iru ziran «Kotxoa» izena daukate. Bataiatzeko ontzia erromanikoa da.

Elizaren atzeko aldean argiolak daude. San Martin'en izena eman diote eliz oneri. Gaintza'n 21 sendi bizi dira ta 26 aur zituzten eskolan. Udaran bost artzai igotzen dira Aralar'era artaldearekin.

Erri au era bat euskalduna dugu, bertan ez da apezarik bizi. Betelu'koa datorkie. Meza euskaraz eta erderaz bitara ematen die, baita astean bi aldiz kristau-ikasbidea. Principe de Viana, Diputazio'ko euskal aldizkaria, gutxi gora bera bizpairu aldiz artzen dute urtean eta orduan 10'en bat ale. Erriko festak egun batean egiten dituzte eta orduan meza bakarrik. Gaintza'ko azken txistulariak, Martin Miguel Arraztikoa zuen izena.

Bi mutil, nekazari eskolan ibilliak dira. Bertako gizasemeekin izketan asi ezker lenengo gauza esaten dizutena: «Apaizik gabe gaude Erretoretxea utsik dago».

Goizuetako errian 1962'ko abuztuaren 19'an Diputazionak antolatutako bersolarien txapelketan, Azpiroz'ekin bertsuetan ibilli zan Gaintza'ko semea; Moises Jaso bersolaria aipatu nai nuke.

Gaintza'tik UZTEGI'n berealaxe sartzen da. Bertan dago, azpiko aldean. Goitik bera begiratuta ondo ikusten da. Eguberritako jaiotza baten antza dauka. Gaiñeko aldean elizari erantsia erretore etxea biyak bat eginta, antzineko jauregi zar baten antzekoa; egur sendoak agirian dauzka. Aurrean etxeak banatuak eta inguruetan baserriak.

Parrokiak amabirjiñaren jasokundearen izena dauka. Erretaula nagusia 16 garren gizaldiaren bukaerako eskolako da bainan ez ain esku onekoa. Gurutzearen azpian Amabirjiña gotikoa. Eskubiko aldarean santu karmeldarra 17 garren gizaldikoa. Sapaia erdi borobilla du, alkiak 18 garren gizaldikoa oso ederrak, atzean argi olak berexiak, 15 desberdinak; erri eskulenen erakustaldi bat agertzeko egokiak. Bataio pontearen erromaniko gotiko bitartekoa.

Sakristin 16 garren gizaldiko Amabirjiña ta San Jorge gotiko bat daukate. Elizaren ate ondoan arri losa bat dago euskaraz idatzita ta orrela dio «Oroitza Betirako. Jesusen biotz maitearen billera Uztegi'ko eliz ontan, Jesusen lagundiko Aita Sebastian Mendiburu'koak 1764 garren urteko abuztuaren 21'an ipiñi



zuen, berritu zen 1880'ko apillaren 30'an urte ta ill ortan bertan ipiñi zen Amabirjiñaren biotzarena».

Labayen'ek Aralar'eri buruz egindako liburuxka batean esatean digu, mendi aietan ibilli ondorean Dodgson ingles euskalzalea Uztegi'ra jetxi zala ta aita Mendiburu'n oroitzapen au pozik begiratzen ibilli zala. Arri orren gainenetik ezin omen zitun begiak kendu. Gauza bat da alegia, Aita Mendiburu Jainkozale ta euskal izlari argia emen orain dela 200 urte ibiltzea ta bestea erri ontakoak etorri aldi ori esker onez arrilosa batean ipintzea. Gaiñera euskaraz idatzi zuten; ez da gutxi.

Gaur euskaraz aurrak oso gutxi mintzaten dira. Sendi batzuek aurrei dana erderaz egiten diete. Gurasoak aitzakia ematen dizute; orain dala amarren bat urte, goiko meatzera lanera, langille erdaldunak etorri zirala. Erretoretxea utsik nola dagon bizitzen an jarri zituzten. Arrotz oien aurrak erderaz bakarrik egiten zuten eta aiekin batean asi ziran errikoak. Ain errex euskara baztertu dute zorrigaitzoz. Eskolan 20 aur dabiltz. Mutil bat Leiza'ko nekazari eskolan zeukaten orduan. Utsik zegoen erretoretxera jai igande eta oporretan, Gipuzkoa'ko batzuek datozte. Meza ematera Azpiroz'ko apezka datorkie ta euskarazko abesti ederrak erakasten dizkie. P. de V euskal aldizkaria, denak, illero jasotzen dute Diputazio-tik.

Ostatuan bazkaldu ondorean, azkar irten nintzan, Arribe'n, Atallo'ko autobusa artzeko. Gainbera legun dijoa erregebidea; belaze zabalak inguruetan, sasi gutxi, zugaitzak erreka ondoan, ura kantari. Nere aurretik urrutixko gizon motz bat zijoan ariñasko. Euskaraz nola egiten zuen jakin nai nuen. Erdi lasterka ta onez, bitara, urratsak arintzen asi nintzan, noizbait atzeman nuen. Argi indarrakin ba zituan gure gizonak naiko buruauste; argi indarra bear eta erriak ezin alkartu. Guk nola egin genun Orexa'n agertu nion, berez Gaintza'koa zan.

Gure ixkuntzari buruz asi giñan izketan, berak ala zion. «Izkuntz ederra da euskara bainan Diputaziora joateko bearrezkoa dugu erdera. An ez dakite besterik». Olako batean galdetzen dit: Zu apaiza al zera? Baiezkoa entzun ondorean, dio; «Orain erlijioa aldatzen ari zaizkigute. Guk berriz etxean len bezala jarraitzen dugu; egunero kristoren gurutzearen aurrean sendi osoa bilduta, Gurutzbidea egin gabe ez gera oyera joaten. Gurutz bide ortan artzen dut nik bizitzeko indarra. Nik dauzkadan buruaustekin ez dakit gainerakoan zer egingo nezakean». «Sinismen aundia ba dago bazter aietan» nion nere baitan.

Sortalderuntz, Araiz'ko ibarran beste errixka bat dago, Euskalerrarentzat izen aundikoa dana, INTZA. Beti Aralarren barrena ibilli aldi bat egin ondorean, Tuturre'tik Intza'ra jetxi oi naiz. Goiko larretik jetxi, ardi bidea artu ta gaineko baserrietatik sartzen nintzan errira. Beti baserri baten azpitik igaro bear, etxe



Araiz ibarra Mallopean.

barrenetik dijoakio bidea. Egia esan bearra: Mendi bazter au bear bezala eza-
gutzeko gogoa nuen, bi arrazoiengatik. Lenengoz jakina Aita Damaso kapu-
txinolarra, emen, jaio zalako. Beste arrazoia; Altadil'en liburuan irakurri nuen
gauza arrigarria: «Añate ta Txuntxurregi mendien magalian ur geldia dagola
1745 garren urtean sortua». Berriz, 1775 urtean ikaragarritzko luiziak izan omen
ziran illabete bat iraun zutenak. Etxe danak batean elizaren ondoan zeudenak
iriki omen. Sendiak larri zeuden, tresnak aldatzeko astia izan omen zuten, arri
tarlean bizia galdu gabe. Etxe zarren arriak jasota berriak inguruetan eratu
omen zituzten, gaur ikusten diran bezala.

Iturri asko nola dauden, 41 danetara, idazleak bere ustez, lur azpitik
dabiltzan urak sortzen dituztela luiziak, dio. Berri onen gora berak jakin naian
askotan galdezka ibilli naiz, baiñan bear bezalako argitasunik ez didate beñere
eman.

Erri onen lurretan barrena ibilli ezkerreko arrituta gelditzen da bat zenbai-
terainoko luiziak dauden baztarretan ikusita. Azkena larri ibilli dana, eskola;
ormak irikitzen asi zitzaizkion eta utsik utzi dute. Orain aur danak berebillan
artuta Betelu'ra daramazkite.

Malloen azpiko aldian goitik eroria ikaragarritzko arkaitz aundi bat, ikusten
da. Tuturre'tik jetxi ezkerreko agirian ondo dago. Puskatuta erori zan egunean ots
aundia atera omen. Errian danak beldurrez gelditu ziran.

Ba nuen erri ontara patxaran etortzeko gogoa, kontu asko galdetzeko ta
berri geiago jasotzeko. Bainan astirik ezin artu. Aralar'ko San Migel'en irudi
bat ikusteko naia izaki, baiñan ezin. Orain apaizik gabe daude. Azkena Maximo
Otsandorena, Irurtzun'era bidali dutena. Erri ontan euskaldun garbiak dira,
aurrak beren artean ez dute besterik egiten. Betelu'ko eskolan maisuak larri
dabiltz erdera ezin erakutsiz. Orrelako aurrekin astakari galanta da eskolan
erderaz erakusten astea, euskaraz asi bear lukete ta gero poliki poliki erderaz.
Euskaldunari bigarren izkuntzak edo irugarrenak ez dio kalterik egiten. Txa-
rrena da, norberena utzi ta bestena artzea.

Erri ontako semerik ospetsuena Aita Damaso dugu, kaputxinoa, orain
Iruña ondoan Arrotxapean bizi dana. Gizon ona, apaiza zinezkoa, euskalzale
sutsua, idazle argia ta langille porrokatua. Bere 87 urtekin ortxen dabil erriz
erri oraindik euskal esaera zarrak jasotzen. Azkeneko aldian Goldaraz'ko bide
bazterrean ikusi nuen. Illero Principe de Viana aldizkarian idazten du. Napa-
rroa'ko bitxi aundi bat dugu. Bi aldiz itzaldiak ematen ikusi dut. Lenengoa
1972 garren urtean, Auritz'en Larreko'ri egindako omenaldian, bestea 1973'ko
udaran Iruña'n Diputazioak antolatutako euskal irakasleen ikastaroan.

Erriz erri 25 urtetan, Berri Ona zabaltzen ibillitako apezka baita Napa-
rroan euskal kulturaren mixiolaria. 1914 garren urtean «Irugarren Prant-
zizkotarra» izeneko euskal aldizkaria atera zuen. Aldizkari onek 5.000 ar-

pidedun lortu zituen. «Zeruko argia» ere gure aita kaputxino onek sortuta,
zuzendari bezala azkeneko guda arte iraun zuen. Gero Txile'ra bidali zuten,
iru egun beretzako eskatu zituen joan aurretik.

Bat ama ikusteko, bestea San Miguel'era igotzeko ta irugarrena Iruña'ko
anaiak agurtzeko. Txile'n, aberritik urruti 32 urte egin ditu. Atzerrian zegoela
egun batean, bere gela erre zitzaion. An zeuzkan gordeta Naparroa'ko aditzaren
aldaketak, erriz erri jasoak, baita esaera zarrak. Sei egun iraun zituen suak.
Jaunari esker bazter batean esaera zarren idaz liburu erdi errea agertu zan,
oraindik irakurtzen zala.

Zorionez 1974 garren urtean, Naparro'ko esaeran bilduma, Iruña'n argi-
taratuko diote. Gerra aurretik erri batetik bestera «Euskararen adiskideak»
elkartearekin asko zebillen laguntzen. Oraindik oroitzen da ondo asko nola egon
zan Lekunberri'n ta Etxarri Aranaz'en 1934 garren urtean.

Euskalzaindia sortutako garaiko, oraindik bizi dan kide bakarra dugu
Aita Damaso. Euskalzaindia, 1919 garren urtean sortu zan ta Aita Damaso
1920'an izendatu zuten.

Indarkerian aurka dugu ta euskaldunen alde, berak esan zidanez. Orain
euskal zaletasuna zabaltzen ikusten dula asko postutzen da.

Aita Buenaventura Oyeregi'n laguna dugu; onek «Arbelaitz» zuen ezizena.
Alkarrekin asieratik lan asko egin zuten. Aita «Villaba», gero kaputxinoen buru
izanak, euskara lantzeko agindu zien biyeri. Ezin duguna aztu, Aita Damaso,
lendabizi, Iruñako apaiztegia sartuta ondorean kaputxino joan zala. Bere
profesio egunean Muskaria'n ama etorri zitzaionean, interprete baten bearra
izan zuten. Semeak euskara aztu zuen eta amakin ezin ulertu. Ori guri euskal-
dunen artean gertatu bear. 1910-12-17'an apaiztu zuten. Aita «Villalba'k»
utsune au ikusten zuen eta etziztaion ondo iduritzen.

Geroago Aita Oyeregi'kin batean, Irugarren Prantziskotarra sortu zuten;
bizpauru milla arpidedun berealaxe egin zituzten. Aldizkari onekin Aita Oyeregi
datorkio egun batean esanaz: «Euskalerrriak gogo aldizkari bat bear du, sinis-
menaren alde lana egiteko, baita eliz abestiak argitaratzeko. Utsune ori ber-
dindu bearrean gaude». Orrela sortu zuten Zeruko Argia Iruñan. Liturgia'ri
buruz, Aita Oyeregik idazten zuen Eliz abesti erriko asko. Aita Donostik
eta beste aita kaputxinoak bildutakoak argitaratu zituzten.

Txile'tik etorri ondorean, Aita Damasok sortutako aldizkari ortan bein
baiño geiagotan ateak itxi diozkiote. Lanak bidali ta ez argitaratu. Lotsagarria
da, baiñan egia. Kaputxinoen itzalpean naiz agertu, nunbait, auek eskutik utzi
dute. Uler eziña. Garai batean kaputxinoak langille benetakoak euskal alorrean
izaki eta gaur jarraitzeko eskurik ez.

Euskalerrian euskararen alde, gaur lekaiden artean lan gutxina egiten dutenak, kaputxinoak, gerra aurretik mixioak ematen, abestiak berritzen, aldizkariak argitaratzen eta abar... gaur berriz zer?

Benetan negargarria, nun ote daude gazteak... Aita Ibero, Bera, Donostia, Oyeregi, Inza, Murieta, Olazarán, Riezu, eta beste asko ez ikusteko? Gaur kaputxinoak Euskalerrian arrotz ote? Zorionez Aita Damaso oraindik gure artean dugu ta galdera batzuek egin nizkion. Aita Damaso, zure iritziz, nor dira Naparroa'ko euskalzale aundienetakoak?». «Arturo Kanpion^a eta Altadil» erantzuna.

Azkeneko egun auetan jakin dut eskuan dabilkila «Adoain'go Aita Esteban'en bizitza»; asmoa ez da makala. Adoain'go Aita Esteban euskaldun ziñezkoa izan genuen, joan dan gizaldian.

Intza'ko erriak onelako semea, Aita Damaso jakiña, ospatu bear luke. Nola? Euskara errian zainduaz, etxetan lendabizi, elizan ere bai, bañan batez ere eskolan, aurrak ikastetxean euskera ikasi dezaten. Ekintza onekin artuko luke gure Aita Damasok pozarik aundiena.

Ba dago erri ontako beste seme bat Saturnino Mugika apaiza euskal idazle. Antzerkia dauka saritua, Goizuetan bizi zala idatzi zuen. Gastearekin bein baño geiagotan agertu zuten.

Bizpairu bat urte, Tuturre azpiko azkeneko baserria gipuzkoar batzuek erosi dute, euskal artisten kabia izan dadin. Jimenez injenierua ta bere emaztea Mendiburu margolariaren arreba Oresa'ra etorri zitzaizkidan, no'ko asmoa zuten agertzera. Baserria apaintzeko Gustavo Maeztu'ren marrazki bat eman nien Zumalakarregi'ren irudia. Geroago Principe de Viana'n irakurrita baserria erosita berritzen asi ziralako jakin nuen.

ATALLO erria Araxes ondoan, ibarraren azpiko aldean dugu, Urkieta tontorra ipar aldean, Aralarko Malloak egoaldean ikusten dirala. Araxes ibaia garbiaren ertzean, dago errixka au. Araiz'ko aranakin batu da. Donosti'tik Iruña'ra errege bide nagusia, erdiz erdi, erri barrera dijoa. Ego aldera Eliza dago, arrizkoa. Dorre sendo batekin tente asko. Bide inguruan etxeak errenkan, beste batzuek ibai ondoan ta gero dozena bat baserri mendian eratuak; etxe geienak zarrak, arri ta egurrakin egiñak. Zaarrena, Anduza etxea orain dala 40 urte bota zuten eta armarría Iruña'ra eraman; danetan 34 etxe ta 240 biztanle gutxi gora bera.

Azkeneko 18 urte auetan, 28 ezkontza egin dira ta oietatik bost bakarrik errian galditu zaiizkie.

Bizi-bide bezala, geienak nekazaritza dute, baserria; artzai bat ere ba dago.



Arribe Elostapean.

Eliza azpian, bera aldera ola bat, soinekoak ta jantziak egiteko jarri dute; 68 langillekin, geienak nezkak, Araiz ballarakoak. Beste batzuek Leitza'ko papelera dijoaz.

Erri onek arremán geienak Gipuzkoakin ditu. Egunerokoa geiena sartzen dana «La voz de España» da. Batek ala zion: «jolasa era gustietatik Naparrak bainan geiago du». Eliza barrenean ba daude bizpairu gauza oso ederrak, batez ere Andra Mari, Amabirjiña gotikoa, 14 garren gizaldikoa, eserita bere semea belauna gainean dula, irripar eta begiratu goxuakin. Jakin dut noizbait erritik eraman izana dala irudi au ta berriz ekarria. Sakristian dagon beste Ama birgiñaren irudia zutik, bere semea besoa dula ez da nolanaikoa Antxietan eskolakua. Aldare nagusia gainean ba dago Gurutxe gotikoa ta sakristian beste bat 16 garren gizaldikoa. Orain arte arrent euskalduna genuen erri au. Gaur aur txiki guztiak erderaz ari dira. Askok euskara ez dakite. Eskolako garaia datorkianean, gurasoak erderaz aurrei egiteko abisua artzen dute, auek euskarakin gutxi aurreratuko diralako. Aur txiki baten amak auxe esan zidan: «emengo maestreak dio, euskaraz mintzatu ezker, erdera «dejoakin» ikasten dutela aurrak» Arrazoi onengatik aurren ezpañetatik alde dijoa gure euskara. Gurasoak, beren aurrei, eskolan sartzekoan, parra parra, erderaz mintzatzen die. Jakiña, gurasoen erdera mordollo utsa da. Kezka bat bakarrik daukate; ez dezaien beren aurrei eskolan, euskaraz entzun. Euskara izango bait da eskolako utsune guzien aitzakia. Ara, ba, Atallo'ko errian gaurko egunean, euskarak artu duan ostikoa. Euskara ez da bakarrik erdaldunengatik galtzen. Erri ontan, eskola bat dago; Arriba ta Atallo'ko neskak or biltzen dira. Maestra berriz, euskalduna Azpiroz'ko alaba. Bertako erretora Emiliano Apezetxeak badaramazki 18 urte erri ontan, berez Baztandarra da. Euskara maite du. Izan ditu larrialdia gure izkuntzari eustearren. Errosarioa euskaraz erreztatzen zuen, baita erantzunak ere kristauak erderaz eman. Geroztik itzaldia beti euskaraz egiten ditu. Meza erderaz edo latinez ematen du; aurrei kristau ikasbidea ere erderaz. Orain ortara jarria dago. Dana dala Erretorak Principe de Viana aldizkariaren aleak banatzen dizkie erritarrei. Miñez esaten zidan «karretera ondoko errietatik ba dijoa euskara».

Euskarari, baten batek, ostikoa eman nai diola ikusten da, bainan onek ez du esan nai utzi dutela arrent. Etxe askotan radio frekuenzia moduladakin ekartzen dituzte, Loiolako irratia entzuteko. Gazteak ere euskal diskoak gogotik erosten dituzte. Aurten bertan erriko jaietan bersolariak jarri zituzten, baita saio ederrak, danak enparantxan bilduta entzun ere.

Bein batean tximista bezin azkar ibiltzen dan gizon batekin topo egin nuen. Korrikalaria izaki «Ataloko txikito», Gizona bai luzea, mea ta ariña len aipatutako artzaia. Anak ez ditu geldirik egoteko. Gazte zalarik, lau edo bost apostu ba ditu egiñak. Arruiz'ko txikitokin ere ibillia da.

Makina aldiz ikusi dute gure korrikalari au Lekunberri'tik aterata, egu-nero San Migel'era joaten edo Beruete'ra. Arribe'ko enparantzan aterata Illarratxu'ra, egin izan ditu 8 km. oiek, 25 minutu eta 46 segunduetan. Nunbait gorputza arin izaki eta anak azkarrak.

Aipatu bearra daukat ere, orain dala 25 urte, erriko festetan egiten zuten «Antzara jokua». Iru antzara ta pipar pilla, beren anilluetan jartzen zituzten, arku barrenean, lorekin apainduta. Mutillak zuriz jantzita, zaldi gainean zijoazten, ezpatak eskuetan artuta. Koskalloak danetan eta kanpanilla bat. Aien atzetik jendea segika. Enparantzan sartzerakoan zortzikoa jotzen zieten eta asten ziran korrika. Gero joku ondorean enparantzan, txokolatea izaten zan danentzat. Mutillentzat tabernetan kafea, dana ordaindu gabe. Erriko neskak, dirua ematen zuten, gastua egiteko. 1946 garren urtean egin zuten azkeneko aldiz. Lau astotan atera ziran. Errian naikoak ez izaki ta laugarrena, Bedaio'ko Gurdilla-txikia etxetik ekarri zuten.

Erri onek ba ditu aberastasun ederrak mendietan. Uxane, Urkieta ta Elosu mendiko pagotik diru asko ateratzen dute.

Orain dala gutxi ATALLO TA ARRIBA, danetarako batu dira ta erri bat balitz bezala dabiliz.

ARRIBE errixka, Atallotik, aurtaxeago goruntz Iruña'ko bidean, Elostapean datza. Elostamendi eder ta zabalaren azpian, arkitzen dugu erri alai au. Eliza bere dorre sendoarekin, bidea azpitik dijoakiola, begi bakarrek etxea dirudi ta kanpadorreak ollaskoak bere gallurra bezala azaltzen du. Ondoa, errekarren ertzean etxe batzuek, zubia Araxes ibai garbiaren gainetik. Bertan Iruña'ko errege bidea nagusi dijoakie, bi aldietan etxe sendoak, arrizkoak beren armarriekin; mendi egalean berriz baserriak. Iru jauregien izenak aipatu bear ditugu; Mugerra, Zurutuza ta Orella. Eliza gotikoa da; San Miguel'en izena darama; sarrera ta bataio ponteak bikaiñak ditu. Aldare nagusian erretaula eder bat du amazpi garren gizaldikoa. Ez dakit nork egiña dan, baiñan bai nork ordaindu zuten. Deba'ko Martin Pikabeak eta Lesaka guda gizonak aurreratu zituzten 499 dukado. Emezortzi garren gizaldian bukatu zuen dorrea Martin Gainzak; 12.200 errial kosta zan. Aldare nagusiak ba ditu egur lan batzuek oso ederrak: batez ere Oliamendi'ko otoitza ta Judas'en musu ematea, eta lau Ebanjelariak.

Bazter bateko aldarean ba dago amabost garren gizaldiko irudi ederra, gotikoa, Maria'rena bere semearen gorputza belaunetan daukala. Eskubiko aldarean, Amabirjiña bere aurrakin zutik dugu, oso polita.

Erri ontan unetxo bat gelditzea merezi du, ditun gauza bikaiñak ikusteko.

Sakristin ba dago Santa Katalina bat Antxietan eskolakoa, ez dana ain txarra ta gurutze bat amerikano kutsua daukana. Bi kustodia ederrak antxen daude.

Iruña'ra goazela arkitzen da Bideko Amabirjiñaren elizatzoa. Gaiñera Atallo'ko lurretan dagoen Santageda'ren basilizara, urtero bein, lenago biltzen ziran Arribatarrak.

Eta euskara nola dijoa? Aldapa bera. Etxe batzuetan eusten diote, bestetan ez. Ba dira aurrak ez dakitenak itz bat. Emen eskola ba dago Arriba ta Atallo'ko mutillentzat. Maisu bat daukate, bertan 30 urte draramazkinak. Arpegi txarra jartzen die euskara mutillei entzun ezkeru ta gogor egiten gaiñera. Gizon onen aotik mutillak euskaldunen alde itz gutxi entzun dute. Bera Irundarra da. Eskola ortan ibillitako gizon batek esaten zidan: «Aurrak euskaraz egin ezkeru asarretzen da maisua, orregatik dago erdera sartua».

Dana dala ba daude erri bertan euskaldun amorratuak. Erriko festetan maite dituzte bersolariak entzutea. Ez dituzte errez aztutzen Azpillagak urte batzuek dirala botatutako bertsoak.

*Arrazoi gabe
kendu nai digute
lege kontrako izkera,
gezurra esan da
enuke joan nai
mundu ontatik bestera.
Eta gaiñera
kontari daude galduko dala euskera,
gogor egiten
ez ba zaiote
oientzat batez ez gera.
Lokatzarraren azpian dauden
txiki errukagarriak
amarretatik bost iltzen dira
beste bostak elbarriak
pixti gaixtuan
bildurrik beti
gora ta bera jarriak.
ondar gutxiko
gorputzak eta
suspiro ikaragarriak
modu onetan bizi gerade
oraingo Euskalerrian.*

Apaiza euskaldun porrokatua dute, berez Lekunberritarra. Igandetan meza bat euskaraz ematen du, bestea erderaz; astein bitara. Kristau ikasbidea berriz eskolan dana erderaz. Elkarizketan beti euskaraz jarduten da.



Emakumeak garbiketean latxategian.

Erri onek berrogei etxe ditu ta berreun bizilagun. Araiz baillarako Errikoetxea ementxe dago; orain gutxi egin berria. Etorkizunari begira ba dute experientzi polita bat merezi duna aipatzea. Bost baserri batu dira ta koperatiba bat egin dute. Ortarako eliza gibelean ikullu berri galantak altxa dituzte. Ba dauzkate berrogei ta sei bei ta beste ainbeste txekor. Koperatiba onen izena Elostabarrena da. Egunero 580 litro esne biltzen dituzte. Buru bezala agertzen dan baserritarrak badu garra, argitasuna ta bere lanbidean sinismena: «Baserri kaxkar auk ez daukate bizitzerik. Gu ondo goaz orain kreditoak ta laguntza ordaintzen ari gera».

Koperatibaren beko aldean ba dago latsatoki ederra, ur garbi naikoa sartzen zaiela. Emakume asko garbiketan ari ziran. Arriba'ko andreak garbiak ta langilleak izaki.

Aipatu gabe ez nuke utzi nai bertako bersolaria Manuel Iriarte, 1961 urrillaren 29'an Etxarri Aranaz'ko, Naparroa'ko txapelketan ibilli zan.

Arribe'ko errian ibilli ondoren bizpairu urte geroago jakin dut berri ederra. Kardaberaz, 1742 garren urtean Mixioak ematera Arribe'ra etorri omen. Itzaldian lapurra erretora gaxorik zegoen etxean sarturik zebillela esan omen. Altxata ba dijoaz erritarrak ikustera ta atera urbiltzerakoan, antxen, alde, azkarasko gizon arrotza...

Uztegin bezala merezi luke erri onen atarian arrilosa aita Kardaberaz'en oroitzapenarekin ipintzea. Kristau sinismenaren ezaugarri ta euskararen omenez izango litzake egokia.

Iruña'ko gotzaitegian esan didatenez, Arribe'koa da Miguel Intxaurren Arriaran, Iruña'ko apaiztegian gerra aurretik euskal irakasle izana. Ba du 1926 garren urtean liburuxka argitaratua erderaz «Eliza ta Eusker», izenarekin. Inguru auetako erririk aundiena BETELU dugu. Iruña'ko errege bidea erditik dijoakio. Erri onek bere askatasuna gorde du ta Aitzondo ta Larraun ibarren erdian dago. Elostamendi egalaren bazterrean ta Araxes ibai ondoan datza. Betelu'tik goraxeago erregebide nagusia ikaragarritzko mendi tartetan Iruña'runtz dijoa. Len etzijoan zulo ortik. Galtzara zarra, Gurutze Santu delako baselizatik mendira igotzen zan, baita San Donato'ren baseliza ondolik igarotzen. Baseliza au bakardabe osoan dago gaur: len ez, bide ondoan zegoen. Baseliza onek ba dauka bere izkutapena. Bidelariantzat gaxotegi bat zan. Eliza barrenean idazki batek ala dio: «San Donato'ko ermitakoak, Birgina sortzen garbiari eta pelegriuari». Aldare gaiñekoa arku erromaniko gotiko bitarteko garaikoa da. Eliza barrenak eta inguruak mereziko luke garbitasun bat.

Erri onek, arte lan aldetik ba dauzka gauza interesgarriak. Bat parroko sarrera; amairugarren gizaldikoa dugu. Alda bakoitzean bost abetxo ditu ta auen gainean erromaniko iduri batzuek. Baita garai berdiñako Andra Mari bat eserita bere aurra belauna gainean dula, iduri liraña benetan. Koru azpiko ur ontziak erromaniko antza du.

Parrokiko eliza ederra da. San Pedro'n izena darama. Aldare nagusiko erretaula amazazpi garren gizaldikoa du ta bataio ponte amasei garrengo. Eskubian ba dago aldare berri bat, bertako seme batek egiña Jose Igarategi kalonjeak. Berari esker egin ziran erriko eskolak. Gizaldi ontako gizona dugu. Errian etxe zabal eta ederrak nunai ageri. Bat, ibai ganeko aldean arri ta egurrakin egina, amabost garren gizaldikoa, ezin dana ikusi gabe utzi; bere izena Apezetxezarra. Euskalerriko etxegintza nolakoa zan ikusteko gogoan euki bearra da: etxe ederra, sendoa ta alaia. Bestea, Indiano jauregia delakoa, erri erdian daukagu, arri landuakin egiña, sarrerako atea berriz burnizko iltzekin ta barrenean ba du abekin egindako igarotegi zabal. Etxe au ondo xamar dago, merezi luke zerbait egitea. Erriko seme ospetsuen lanak dira etxe auk. Izan ditu erri onek seme aundiak. Bat, batez ere, Peru'ko gobernadore izana, Pedro Lezaeta. Len peria, frontoiko enparantzan egiten zan, illearen azkeneko ostiralean. Azkena orain dala amar urte egin zuten.

Irurogei ta amaika sendi bizi dira Betelu'n ta irureun biztanle ditu. Olategi berriak ekartze arren, erria ez da lorik gelditu, «Wiske española» etorri zaie. Lurrak eman dizkiote ta urte askorako zergarik gabe utzi. Gipuzkoar batek ere ba du biguña edo mantekilla egiteko lantegia. Gaiñera Dama iturriko ura botilletan sartuta saltzen dute. Oso ona omen giltxurdiñetarako. Eztarriko gaitzentzat ba dago beste iturri bat; «iturri santua» deitzen diotena. Onen urak ibaira zuzenean dijoaz. Lantegi auetan 20 langille dabiliz.

Betelu, 1694 garren urte arte, Araiz baillarekin batuta zegoen. Geroztik dauka bere buruaren nagusitza ta Errikoetxea.

Aspaldiko garaietan Naparroa'ko erregeak asko lagundu zieten, batez ere Juan Labrit'ek 1507 garren urtean.

Ezin dugu aztu erri ontako ibilkari ezaguna, Antonio Juanagorri. Aralar'ko bazterrak ondo ezagutzen zituen. Arrigarritzko gizona zan. Astero bizpairu aldiz San Migel'ko bidea egiten zuen eta amar duro ematen ba zizkioten Malloetako malkorretan gordetzen zituen.

Zoritxarrez erri ontan euskara asko atzeratu da. Principe de Viana batzordeak 1958 garren urtean euskaraz mintzatzen ziran aurrak saritu zituen. Orduan 25 ba zeuden zerbait zekitenak, 20 ulertzen zutenak. Umeen Deia liburuan amaika orrialdetan emengo aurren ipuiak agertzen dira.

Gerra ezkeror erdera sartu zan elizan. Aitzakia alaxekoa; erdaldunak etzekitelako alegiña. Geroztik orain arte ia dana erderaz egin dute. Kristauikasbi-dearekin berbera gertatu da eskolan.

1949 garren urtea bersolaria azkeneko aldiz ekarri zituztela, pelota txapelketa bukaeran.

Pako Urrizalki txistulariakin egin nuen bein topo kalean. Ondo zetoekidan

«Antzara jokuaren» goraberek galdetzeko. Txistua jotzen nola ikasi zuen esan zidan. Gaztetxo ziranean, Intza'ko erretorak kotxe zar batean eramaten omen zituen Luis Alduzin Aldaz'ko erretorengana, txistua ikastera. Amar urtekin asi ziran ikasten bera ta Bitor Yeregi. Gerra aurretik euskal giro jatorra omen Betelu'n; txistua, dantzak eta erromeria. Bi txistulari gaztek jotzen omen txistua igandero enparantzan, baita inguruetakoko errietatik makina jende biltzen. Pakok amalau urtekin, 1935 garren urtean Ezpata Dantza bakarrik jo zuen; «Aiek txaloak bai ederrak». Makina zillarrezko duroak erori omen ziran bera zan lekura.

Gauza auetarako etzegoen girorik gerra ondorean. Gaizki ikusia zegoen. Aurten berriz, bere bi alabekin jo du goizeresia, erriko festetan. Gure txistulari onek gure erriko dantza zar danak ezagutzen ditu, batez ere Antzara jokua ta Karrika dantza. Mutiko zala bakarrik ikusi omen du Antzara jokua jolasten. Gero 1946 garren urtean asi ziran berriz lanean dantza au egiteko, bainan ortarako bear zuten mutilla il egin zitzaaien. Karrika dantza berriz askotan egin dute, baita 50 bikotekin atera ere. Dantza au inauteri irugarrenean egiten zuten, Antzara jokua berriz Inauteri bigarrenean. Karrika dantza aldiz orain dala 12 urte egin dala. Oiturari utzi diote. Antzara jokua Baraibar'en 1949 garren urtean azkeneko aldiz jo omen zuan.

Orain amar urte, asi ziran berrero gaztetxoei Ezpata dantza erakasten. Bederatzi mutil zetorkion. Gero iru gelditu ziran eta orrekin bere asmoak txin-txillik gaur arte.

Patxik bere egun zoragarriena orain dala iru urte izan du Muskaria'n. Tolosa'ko txistulariekin joan zan ostiko jolasa ikustera ta aurretik ango Errietxeko kide bateri joateko asmoa agertu zioten ta an bezala ez omen dituzte inun artu. Lagunak zai: sendietan, kalean ta alkatearen aurrean txistua joaz. Zeukan pozakin, sugurrarekin ere txistua jotzen omen zuen.

Len, aspaldi, erri onek ba zuen txistulatia guztiz ona ta ospetsua, Antonio Artetxa bere izena. Aita Olazaran'ek oneri artu zizkion doñu zar asko. Azkue'k ere Antzara jokuaren doñua Betelu'n jaso zuen.

Naparroa'ko Diputazioak euskarari laguntzen dion bezala egin bear luke txistuarekin. Txistua ta dantzak erakasten dituztenei saria eman bear lieke. Orrela berpiztuko lirake erri askotako oiturak.

Azkeneko egun auetan berri pozgarria jakin dugu: «Eskuela bilingue» Diputazioak eraiki duela. Alkatea, Idazkaria, irakaslea ezezkoakin agertu ziran Iruña'n. Ala guztiz ere Ziordia jauna baiezkoakin irauñ zuen. «Art. 14-17: se estudiarán la lengua materna donde se habla» bezazpian artuta Betelu'n agertu zitzaaien. Gorriti'ko Mikaela Gastesi, andereno billa asi zan baita jator askoa arkitu ere: bertako zortzi aurren ama Guipuzkoar batekin ezkondua, maestra dana, bere izena Guadalupe Goikoetxea. Goiz ta arratsalde 3-6 urteko aurrak artzen ditu ta euskara irakasten die.

Larraun ibar alai

Araitz eta Malloak asper gabe begien aurrean nitula, goizeko aize goxoa arpegian artzen nuela mendiko belarraren usaia danetik sartzen zitzaigula, gure bidea jeixten asi zan. Ez genuen eguzkirik baiñan bai argi ederra ta ibiltzeko giro ona. Belazeta'ra iritsi aurretik burnizko ate bat iriki ta gurdi bidea artu genuen. Antxe zegoen lokatza ugari, ur putzuak eta bustiña inguruan. Borda batzuen ondotik, lenngo baserrietara iritsi giñan. Aurrez aurre gain batean GORRITI ageri zan, bertan oso urbil. Bidea arrizkoa, aurreraxeago erreka, aldapa koxkor bat eta elizaren atarian giñan. Goizeko 11'35 ziran. Gizase-meak lasai etxe inguruan, erriko jaiak zituzten. Dorrearen azpian Juan Martin Arrizibita erretora. «Egunon, gaur etzaudete gaizki, erriko festetan» nion. «Nora zoazte?». «Ulzamara». «Gelditu zaitezte gurekin artuko duzute zerbait». «Ez dugu astirik». «Agur Jaunak». Orduntxen asi zan eguzkia ateratzen. Frontoi inguruan giza seme geiago, galtza illunak eta atorra txuriek.

GORRITI erria, dan dana batean dago, etxeak baratzez inguratuak, Eliza alde batean, txikia baiña polita, dorre arin luze batekin, zinkeko tellatuakin burutua. Bizpauru iturri bizigarriak baditu ta frontoi edo pillota jolas toki eroso bat. Inguruak basoz josita daude.

Izandako azkeneko aldian illun zegoen, bertako mendietan elurra ari zan. Egun artan, San Migel Aralar'tik jetxi ta Gorriti'ra ekarri zuten. Erritarentzat egun benetakoa. Aralarko Goi-aingerua oso maite dute.

San Migel zeramatenean, errian sartu giñan. Otza zan eta saldatxo bat artzera edantokira joan giñan. An alkartuta zegoen erri-gizon talde batek ala zion: «Leenago politagoa zan San Migel ekartzten zutenean. Elizako gurutzeta artuta, erri gutzia, ondoko erri mu-

garaiño joaten giñan. Bi gurutzek agurtzen ziran eta San Migel errira ekartzten genuen. Orain biribillean bertaraiño sartzen dute».

Beste batek ala zion: «Mesede ederra egin zigun orain dala urte batzuk San Migelek. Satagiñez betea zegoen lur guztia. Gure Aingeru maitea ekarrita dan danak garbitu ziran, etzan bat bakarrik gelditu». Parrez ala zion beste gizon sendo batek: «Beñ batean satagiñez beteak zituela belazeak, nagusiak ala esaten dio morroiari, —San Migel ekarri bearko dugu, ok danak garbitzeko—. An bertan ba daude naikuak garbitu nai baditu, oneaiño etorri gabe, erantzun omen zion morroiak». Eliza, garbi asko, egiazko otoitz etxea da. Berritua dago. San Bartolome'ren izena eman diote. Aldare nagusian San Migelen iduri polit ba dago. Eliza barrenean, atzeko aldean sepulturak daude, zurezkoak, itxura berexi ta benetakoak, euskal kutsu ta garrezkoak. Zeiñen gauza txikitan ikusten dan, beste erriak ez bezalakoak gerala. Apaiza, euskaldun jatorra. Betelu'koa da berez. Leendabizi Arano'n egondu zan. Gero Beuntza'n, Atezko ballaran. Kristau-ikasbidea aurrei euskaraz ematen zielako, erderaz etzekiten gurasoak Iruñeko gotzai Delgado Jaunarengana joan ziran apaiza salatzer. Gotzaiak Marzilla'ra, Erriberako erdalerrira aldatu zuen. An Mezalaguntzailleek euskaraz ikasi zuten. Bein itzaldi erdia euskaraz egin zuen, erritarrak aserratu zitzaizkion.

GORRITIN, mezak den denak, euskaraz ematen ditu. Ez du euskara bakarrik maite, baizik euskalzale jatorra bezela agertzen da.

Ez bakarrik euskal giroari, erriko lan giroari asko begiratzen dio apaizak. Berak zuzendatuta, orain dala iru urte jaio zan baserritar kooperatiba, LANKIDETZA izenarekin. Lau baserri batu ziran eta alkarrekin lan egiten zuten. Ikullu berri ederrenetakoetan, 45 bei, 60 txekor zituzten. Elkarte orren etxeko jaunek eta maiorazgoek kooperatiban lan egiten zuten. Denbora gutxian tresna asko erosi zituzten: traktorea, rotabatorea lurra lantzeko. Kamioia ere ba zuten esnea eramateko. Geientxuenetan apaiza zebillen kamiozale. Oraindik marmor arriak eramaten ibiltzen zan, lan geiago egite arren. Zoritxarrez alkarrekin ez dute ondo artu ta azkenean desegin da.

Erriko gizasemeak, euskaldun jatorrak dira ta euskara maite dute. Emen jaioa baiñan Elizondo'n bizi dana dugu Klemente Ezkurdia bersolaria.

Erriko aurrek eragozpen batzuek izandu omen zituzten eskolako andereño irakasleekin. Rekreuan euskaraz egitea aurrei galerazi omen. Orduan gurasoak, andereñoen erabaki ori gaizki artuta bere aurtxoei esan omen: «Zuek ez egin ori. Eskolan erderaz ikasi bai, andik alde



Amona ixilla lanean.

eginda euskaraz mintzatu ta gaiñera irakasle andereñoari euskaraz erakutsi bear diozute». Aurrak saiatu omen dira euskaraz erakusten baita andereñoak ikasten asi ere.

Gure mai ondoan, aurtxo bat zebillen korrika, Iruñen bizi dana; bere aitak euskaraz ez omen daki, berak berriz gure izkuntzan ederki egiten du. Euskal ikastolara dioa. Etxeko andreak ala zion: «Mutiko au, Iruñen bizi arren, euskalduna izanen da».

Napar erri jator ontatik ba daude bi andereño Iruñeko euskal ikastolan. Bat Mikaela Gastesi Mikelengo alaba, Iruña'ko lenengo ikastolaren andereño buruzagia.

Etxe guztiak baserriak dira; gazte asko, neska ta mutil, Leizeko olategira joaten dira egunero lanera.

Erri onek 18 etxe ditu eliza inguruan. Mendi gaillurrean Santa Barbara baselizatxoa ageri da. Aspaldiko garaietan antxe borrokan ibiltzen ziran giputxi ta naparrak. Noizbait gipuzkoar eskuetara erori zan. Gipuzkoarren beste ezaugarri bat dago erri ontan. Antonea etxe sendoko armarrari apaiñean, Gipuzkoako armarraria jarrita. Zer esan nai ote du orrek? Alegia ango nagusi zaarren batek lan berexiren bat gipuzkoarren alde egin ta, emanen ziotela eskubide ori?

Santa Barbara'ko elizatxotik bertan, leiza batean karlista garaiko guda tresnak billatu omen zituzten orain dala ogeita-amar urte. Noiz ikasiko ote dugu, guda egin bearrean, pakea osatzeko alkartzen?

Giza seme jatorrak bizi dira Gorritin, kontalari ta izlari bikaiñak. Ondo eziak gaiñera; etzigiten galdetu nor giñan eta nundik gentozen, baiñan. bai betiko ezagunak eta etxeoak bagiña bezala artu.

Gorriti uzterakoan eta ostatuan giza semeak ikusita ezin aztu Aita Donostiak emen bildu zuen leloa, 1916 garren urtean «Bentara noa, bentatik nator, bentan da nere gogo. Ango arrosa klabelinetan artu dut amorioa».

Askotan Gorrititik Urizi'ra joan izan naiz. Gaur ere pozik joango nintzan, bainan bidea ezin nuan geiegi luzatu ta nere iritziz Lekunberri'ra Azpiroz'tik lenago sartuko ginakelakoan nengoen. Orregatik ez giñan UIZI'tik barrera joan eta beko bidea artu genuan. Baiña'n Orixe ezitako errixka au ezin dut aipatu gabe utzi; emendik mendiz iru ordulaurdengo bidea dago, karreteraz luzeago.

Goian datza toki egokian. Orixe, Euskaldun poemaren leenengo olerkie-tan idatzia utzi zigun nola ikusten zuen, erri maitagarri au. Berak esandakoa, arrilosan idatzirik jarrita egon bear luke erri sarreran: «Naparroa zarrean Larraun'en Uitz, belar goxo tartean eper kabi iduri, belardien inguru kabi orren esi baso maitea dago, ikazkin lantegi».

Alaxe da, eper kabia dirudi, baiñan ez nolanaiko kabia. Beaskubi, Urbiñeta ta Oizo mendi tontorrek agirian daude. Mendi magalak basoz beteak, belazeak alderdi guztietatik inguratzen dutela erria.

Erri tontorrean eliza ta inguruan Naparroan dauden etxerik ederrenak. Eliza bikaiña da ta sarrera dotorea du, abe sendo ta lorategi apaiñakin. Oraindik berria; joan dan gizaldiaren asieran erre ta berriz altza zuten. San Migelen izena darama. Koru azpian sepulturak daude eta ez nolanaikoak, Euskalerrian nik ikusi ditudan ederrenetakoak, batez ere Martinpen'koa ikusgarria da. Enparantza eder-bat, garbi asko dago pelota jolastokiakin eta ezkerretara Martinpenea jauregi etxea, Greziko Partenon edergaillun antzekoa. Zabalean ta luzean dauzkan neurriak edertasun berexi bat ematen diote. Ez da arritzekoa askok Naparroa'ko Partenon deitzea. Joan dan gizaldian jauregi ontan egona dago Karlos erregea, Fernando VII-garrenaren anaia. Eskubitan ikastetxea dago, jauregi baten antzekoa, dana arrizkoa ta ondoan Osanbela jauregia, beste ikusgarritzko etxe eder bat. Gaiñeko aldean, Juanenea, oso euskal kutsuzko etxea. Beste etxe ta baserriak ere ez dira nolanaikoak.

Bazter paketsu lasaiak baditu inguruetan erri zoragarri onek. Santa Garaziko zuloa bat, baseliz txuri galantakin lau neurrietan berdiña bakardade utsean. Bestea Santa Kruzko zelaia gain batean Gorriti aldera, baseliza luze bat da ardi borda batzuek daude. Orrelako toki aidosuan, gizonak ere berexienetakoak izaki. Iru izan ditu erriaren alde lan aunitz egin dutenak. Bata apaiza, Goikoetxea baserriko semea. Joan dan gizaldiaren asieran Uiziko erretora izandutakoa. 1801 garren urtean eliza berria altxatu zuen. Bere bizi garai osoan, bertan apaiz bezala egon zan. Emen jaiio, emen aurrak ezi, Berri-ona zabaldu, izerdi guztiak utzi ta gaixotu. Urtetan sartuta, eri zala sumatu zuanean, garai artan Zaragoza'ra sendagillearengana joan ta an il zan.

Bestea, Jose Iriarte ta Osanbela, 1794'ean Uizin jaiio zan. Sal erosle zeukan osaba batek, Cadiz'era eraman zuen ta andik Amerike'tara joan zitzaien. Liman diru aunitz irabazi ta diruetxe baten jabe egin zan ondo aberastu arte; zintzoa, langillea ta aurrerakoia zalako. 1880 garren urtean il zan baiñan bere erria etzuen aaztu. Neska mutillentzat, 1877 garren urtean ikastetxe zoragarri bat altxatu zuen. Aurrak Ballara osotik etortzen ziran ikastera; garai artako unibersidade txikia izana da. Elizako aldare nagusia ta illerria berak ordaindu zituen. Ondorengoentzat gauza asko utziak ditu, batez ere bere erriarentzat.

Euskalerrriak eman duan idazlerik ospatsuena ementxe azi zan. Oraingo erretorak, Eugenio Ulyarrek dionak zuzen izaki: «Orixe, emengo artzai ta jakintsua izan da. Erriko goraberak erritar batek bezala dakizki baiñan nola jakiñean argia zan, orduan erri-jakinduria goi maillera altxatu du».

Orixe, Uizin, Errekaldeko etxeoandreak, Asuntsi amandreak bere ama ordezkoreen lana egin zuen eta antxe azia izandu zan eta bizitu amazazpi urte arte. Euskal usaia, kutsua ta aberastasuna Uizikoa dauka. Ontaz itz nagusiak esanak dauzka Labayen'dar euskalzaiñak; «Maitetsu ta biotz zabalez artu zuten aurra Errekalde, Uitziko etxeoak, eta Orextatar aurra, napar koxkor biurtu zan, eta arrezkero ez zituan saltzeko ez Inude, ez Asuntxi ta ez Errekalde ta ez Uiziko erria. Aur ta gaztaroa emen igaro bai zituan; bertan lenengo eskola ikasi eta bertan lanean asi. Ordutik zekizkin errotik nekazaritza, artzantza ta mendi basoko lantegi guztiak».

Euskaldun Poema liburua idatzi zuanean, idazki nagusi ontan, Uizi'ko ta alderdietako berri guztiak altxa zituen. Orixe ezagutzeko, Uizi ezagutu bear. Euskal idazkietan Uizi ta Orixe bat egiñak daude. Betiko Uizik, Orixe euskalkutsu aldetik osotu zuen eta Orixek urrezko izkietan Uizi'ko euskal gorra ta sena azaldu dizkigu. Batek bestearekin zorrak egin zituzten. Nork nori ordaindu bear?

Martinperene'ko Arraitzatarak ere oso gizon ospetsuak eman dizkiote Naparroari. Etxe ortako semeak, Iruñeko alkateak, Naparroko aldundek eta Diputazioaren leendakariak izanduak dira.

Goitik beera sartu nintzan Uizin. Erri sarreran Eugenio Ulayar apaiza, erretora, baratzean lanean arkitu nuen, patata edo lur sagarrak ereiten. Gizon argia ta izlari bikaiña da. Bere erri ori asko maite du. Berak dionez: Leenago Uitzin, belarra kentzen izaten zuten lana. Lurtzen zutela bizi ziran. Orain ikasi dute belar ortan daukatela aberastasuna.

Urak ez dira malkorrekuak, burni lurrezkoak baizik. Errian bertan iru iturri jaiotzen zaizkigu. Bat Iturri-aundia Errekalde etxe goiko aldean, bestea Iturri-otz beeko aldean, aska luze batekin antolotua dagona. Irugarrena Iturri-txiki, Martinepenetik auntxaxeago, Perutxene azpiko aldean.

Erri onek, 30 sendi ditu ta 250 bizilagun. Lekunberri'tik 5 kilonetro daude ta Leitzetik 8. Geienak lurgintzatik bizi dira. Gazte aunitz Leiza'ko olategira joaten da lanera.

Uizi Naparroa'ren goi-aldeko beste errien antzekoa da. Ez dute Erriberakoen antzik. Emen danetan, belarra ta osto geiago ateratzen da, orduan giza semeak erraxago gordetzen dira. Zakuto aundia daukate bizkarrean, barranean daramakitena, nork daki, zer dan? Erriberan ez; diran bezalakoak agertzen dira. Eusko giroari eusteko aalegiñak egiten ditut. Euskara gurea da, Naparroako aberastasun bat. Elizkizunetan aal dudan guztietan sartzen dut.

Mutil denak egiten dute euskaraz, neskak ez orrenbeste. Aurrak gutxiago, eskolan erderaz ikasten ari dira, ta eskolan neskekin iru monja lekaike daude; oietatik bat naparra baiñan ez daki euskaraz.

Erri ontan bertsolariak maite dituzte; urteko jaietan bi edo iru egunetan izaten ditugu.

Gure apaiz jator onek dion bezala, euskarari eutsi bear zaiou. Gizasemeak maite dute baiñan batzuek, aurrak erderaz egitera beartzen dituzte. Guraso aiek, diotenez, arrotz errialdetan, gaizki ibilli dira euskara bakarrakin. Orregatik ondorengoentzat ez dute nai beste orrenbeste ta aurrei, batzuek erderaz egiten die beti etxean.

Erri onek, egitazko bi aberastasuneri eutsi bear lieke, asaba zaarrak utzitako bi zoragarrizko ondasunei. Edergallu aldetik bata erriaren edertasuna ta berexitasuna da. Naparroako erri txikietan ederrenetakoa ta politena dugu. Ori ez luteke galdu edo itxusitu bear. Ez dezatela berritu mesedez Lesakan egin-dakoa. Oategia edo lantokia sartzerakoan errotik alde jarri dezatela, osasunarentzat eta begientzat egokiena izanen dalako. Ez desegin zaarrak utzitako edertasunak.

Beste aberastasuna euskara da; indar berri bat eman bear lioteke. Ortarako onena Orixe'ri erriak eta Naparroak diozkaten zorrak ordaintzea izango litzake egokiena. Diputazioak ta Principe de Biana batean, omenaldi berexi bat opa bear lezaioke. Orrela Uizi'n Napar euskaldunak bildu, Orixek agertutako napar mamia sakontzeko ta aztertzeko.

Zenbat gauza egin diteken Uizin, bai Naparroaren alde, baita gure euskararen alde! Baita bi edo iru eguneko ikasaldiak, urtero osatu. Orixe'ren napar jakinduria ezagutarazteko, Uiziko egokitasuna ez litzake gaizki etorriko. Etxe bikaiñak eta naiko aundiak ba ditu. Erri inguruak ere ezin obeak ateraldiak egiteko, bai Santa Garazi ta Santakrutz beselizatxoetara, eta abar.

Ni emen izan ezkeretik azkeneko urte auetan, bertako semeak, euskararan alde asi dira lanean. Oreja jauna, Principe de Viana'ko batzordekoa dugu Diputazioan. Juanita Azpiroz andereñoa berriz, udarako irakasleen ikastaroa eginta euskara irakasten Ulzama'n asi ta orain Iruña'n dago.

Geroztik, erriko eskola itxi dute. Etxe eder ura ez da ba txarra... Lekai-meak ere euskaraz ematen asteko prest zeuden.

Uizi'ko etorkizuna, jakinduria, turismoa, euskal usai aldetik Orixe'rekin loturik bear luke. Aberastasun au ezin liteke ametsetan utzi. Uizik esnatu bearra dauka, Naparroari bizi berri bat emateko.

Gorriti'tik Azpiroz'era, arrizko gurdi bidea dugu. Goitik bera errax joaten da. Burnizko atea igaro ta beraxeago bi gazte lasai bazterrak ikusiaz Gorriti'runtz zetozen. Bazkaltzera zijoazen. «Kaxo jaunak, pestara?». «Bai; ondo irabazita». Gure oñetakoak ots ederra ateratzen zuten arri aietan. Guri begira gelditu ziran bi gizaseme aiek. Berriz ezkerreko mendi laster bidera sartu giñan, igo zerbait,

arkaitzetan barrena ibilli ta lizarrez inguratuta dagon borda batera atera. Andik gure asmoa, Azpirotz'ko erri gainetik joatea, barrenean sartu gabe. Elorri baten ondoan eta urritz batzuen inguruan katagorria zebillen. Gu ikusterakoan alde egin zuen arin asko. Jaunari rzkerrak eman lezaioke, gu eizteriak ez giñalako. Euskaldunak katagorriak pakean ezin utzi. Beste lurraldetan ez dituzte garbitzen eta jostallutaz eukitzen baizik. Alemanian oroitzen naiz bein, iri bateko basoan nola intxaurrak eta ogia eskeni ta nola eskura etortzen zitzaizkien.

Orrelako bitxi txikiak ez genituzke il bear, zaindu baizik. Nere aurtzarroan Bera'n katakutxintxa izenarekin ezagutzen genituen. Zoritarrez nere osabak geiegi iltzen zituen.

Mendi magal eder onen gaiñ batetik, beko zuloan *LEZAETA* errixka ageri da. Garai batean goitik bera sartzen zan gurdi bidea, bai Gorriti edo Azpiroz'tik. Orain errege bidea Araxes ibaiaren ondotik dijoakio.

Lezaeta erri barrenean bein bakarrik izan naiz. Errege bidetik joan nintzan. Egi gainean dago intzaurrez inguratua. Elostia mendiaren malkorpean, arkaitzak ormaren antzan ta ur eroriak goitik bera ots ederra ateraziaz. Orain lau sendi bizi dira, (lenago bederatzi), sua pixten duten etxeak, Mainxandegi, Juana-sena, Ugaldea, Bentaberri. Bide bazterrean utsik, irikita dagon etxe galanta Metazarra. Ugaldea, etxea txuri ederra da errege bidetik ikusten dana. Emen jaiio zan Arbizu'ko erretore zana, Juan Goikoetxea gizon ziñezkoa ta euskalzale argia, euskal alorrean eta sinismena zabaltzen lana aundia egina; Iruña'ko euskal itzultzaillen betzordekua genuen.

Elizatxoa oso txikia da bainan bitxi eder bat dauka; amairu garren gizaldiko «Andra Mari» bat irripar goxo batekin eta begi argiekin. Elizan sartzeko giltza Juanasenean jaso nuen.

Ari giñan *AZPIROZ'*era inguratzen. «Uiziko Muga» izeneko mendia luze egiten da. Ala deitzen diote emen. Onen onduan auntzaxeago Atune tontorra kaskasollari arria agiri. Gurdi bidea goitik bera, erriko gaineko aldeko etxeen atzetik dijoa. Mutillak futbolearen jolasaten ari ziran eta erderaz itz egiten zuten. Itz batzuek euskeraz egin genizkien, erantzunak ondo eman zizkiguten gure izkuntzan, bainan beren artean erderaz jarraitu zuten. Ez giñan batere gelditu berriz aldapa gora aterata, beko aldean eliza ta erretoretzeko baratza ondo ikusten genitula, aurrera jo genuen. Azpiroz ondo ezagutzen dut, bein egun osoa igaro nuen, baita erretorakin baskaldu ere. Gizon au Migel Maria Azpiroz oso ezaguna dugu Euskalerrian. Udaran bera ibiltzen



Errekalde Uizin Orixeren baserria.

zaigu erriz erri San Migel'ekin. Orain Azpiroz'en bizi da bainan beste iru erri erabiltzen ditu; Azkarate, Uztegi ta Lezaeta. Gizon langillea da ta sasoi onekoa.

Azpiroz goien dago, aurrez aurre Aralar'ko malloak dauzkala. Erri ontatik eguraldi onakin ikusten diran illunabarrak edo eguzk sartaldeak ez dute izenik, zerua Balerdi aldetik gorri bizitasun osoakin eta mendi itzalak urdin illun. Elur jasak eta ekaitzak, laño aztunak mendi gañak estaltzen dituztenean, beldurra emateko aiña itxura artzen dute.

Basoz inguratuak ba dauzka errege bidearen beste aldean, aurrean, mendi gaiña orlegiak, beti garbi ta argi daudenak; Itziar eta Astotzar dute izena.

Azpiroz errege bidetik urruti xamar gelditzen da, baiña ura motor otsa entzuten dana. Orruka dijoaz kamioak saillean. Erria belazez inguratu gelditzen da. Eliza gaiñeko aldean: errömaniko gotiko erdiaro garaikoa, arrilanduakin egiña, sarreran aterpea ta kanpai dorre zabala; Doneztebe izena du; oso txukun arkitu genuen. 26 senditik iru urte gutxi 13 joan zaizkie. Lau bei zituztenak ezin bizi erri txiki batean. Leiza'n zortzi mutil lanean asi dira.

Etxe sendoak daude. Ostatuak armarri galanta dauka, antxe dago errikoetxea.

Bestea, Mintxerrea armarriarekin, Lizarraga eliz azpian utsik, Etxetanea bestea utsik...

San Bartolome izeneko elizatxea ere ba dago. Orain erriko festetan ez dute gauz azkorik egiten. Meza nagusia, aize soñua jo ta zikirua jan. Nun daude erri onek zeuzkan garai bateko Alkidantza ta ingurutxoa? Ziur nago, erri onek dagon tokian, arnas berri bat izango dula oraindik. Inguruak, aizeak, erosotasuna, pakeak ematen dio orrelako bikaintasuna. Begi ernen bat, egunen batean asmo berriekin azalduko zaio.

Gora aldera artu genuen bidea, oraindik gurdi bideak «S» bateni antzera egiten du ta an laster bidean sartu giñan. Ez nuen erregebidaren aldapa gainera atera nai. Naiago menditik ibilli. Bidaska arri-tartean, ote ta garotan estutzen da ta goiegi ginjoazen. Mendiko zakarraren barna jauzika ibilli bear. Bidea ankapean galdu nuen. Bean ikusten zan gurdi bide ederra. Beste batean toki berean berdin gertatu zitzaidan; Lekunberri'ra Orexa'tik oñez joan bear nula ta ementxen bertan galdu nuen bidea. Nola ez dan toki basatia, ez dago galtzerik. **LEKUNBERRI**, aurrean urrutisko ageri da. Goitik bera Uizi ta Tolosa'ko bidekruzeta atera giñan. An berebilla turutuka, Betelu'ko Pako



Etxe aurre apaña Etxarri'n.

leyotik eskua ateriaz; «Goazen Gorriti'ra. Nora zoazte?». «Jaka'ra», nion. «Erotu zerate» esanda alde egin zuen.

Guretzat obe. Ez genuen gelditzeko astirik, larri genbillen. Bidekruzera iristerakoan 12 ta laurden ziran. Aurrera begiratuaz, bata bestearen atzetik, errege bidean gure oñetako lodiak ots ederra ateratzen zuten. Fit, fit, tximista bezala igaro berebillak. Batzuek turuta jotzen ziguten. Mikelek egarrria zuen, bainan Lekunberri'n bazter batetik sartu giñan, eta elizaren ondotik igarota etxe bakan batzuek gelditzen dira. Edantokirik ez genuen ikusi. Ordu bata terdiak ziran eguzkiak jotzen zuen, bazkaltzeko garaia genuen eta Etxarri nun zan galdetu genion emakume bateri. «Artu bide zabal ori ta jarrai, ezkerreta jo ta goian dauden baserrietan galdetu berriz bidea». «Ondo da, eskerrikasko».

Atzera begiratu nuen unetxo batean Lekunberri aldera. Askotan ibilli naiz erri ontan. Ementxen biltzen dira San Migel'era dijoazten ibilkari geienak; arratsaldean jeixterakoan berriz gelditu bear.

Galdutako euskal kutsua berriz pizten dijoa. Lengo erretorak Don Migel Ezenarrok, asko egin zuen. Ikastola sortuta joan zan Elizondo'ra. Oraingoak, Jesus Jaimerena gazteak biltzeko esku ona du, baita pelota partiduak eratzeko ta euskal arnasa zaintzeko. Erri ontakoa dugu Aita Modesto kaputxinoa, Naparroan erriz erri zebillena, euskal doñu zarrak biltzen. Makiña bat jaso ditu, baita Aita Donosti'n abestien bilduma egiteko eman ere. Merezi luke Lekunberri'n omenaldi bat egitea, baita bere izena emengo ikastolari jartzea.

Bizpairu kilometrora baserri batzuek patxaran. Inguratu nintzan batera, ikulluko atea irikia zeukan. Barrenean emakume bat, beyei bazka ematen. «Arratsaldeon etxeoandre, Etxarri'ko bidea, arren». «Zoazte aurrera, or, eskubira jo ta baserri bat duzute, aurretik dijoan gurdi bidea artu, gain batera aterako zerate, andik karretera ikusiko duzute». «Eskerrikasko ta agur».

Bide zabala utzi genuen, baserri bateraino jetxi giñan, atarian iru berebil eta motoa atsedena artzen, olloak papoa astintzen. Ura beroa! Aldapa igota, aritz batzuek eta pista. Aurreraxego mendiak larrutu berriak, soroak egiten zebiltzen. Lur gorria ta ondoan zakarra errea ikusten genuen; azpian sakona ta errege bidea biurriak. Gure aurrean berriz gain batean erriaren gibela, tellatu illunak eta elizaren dorrea. Aldapa ura astuna egin zitzaigun. Ordu biyak bošt gutxitan errian sartu giñan. Alde batetik mendi egalean txintxilik ikusten da erri txapar bat, baiñan igo ezkerre zabalean dago eratua, oso etxe sendoekin. Gutxitan ikusten dira bizitzak ain ederrak. etxe bakoitxak

jauregi baten antza dauka. Goien eliza arrizkoa San Migel'en izena duna, sortaldera balkoi luzekin jauregi galanta ta elizpean bizpairu kale ethez beteak. Azpiko aldean zelaia ta ertze batean Gipuzkoa'ko aurrentzat udarako koloniak igeri tokiekin. Aurrez aurre sortaldean «Treitateko mendia».

Udaran arrotz asko dabil *ETXARRI'N*, ez da arritzekoa; toki alaia, eroso ta paketsua izaki. Egia esan, gu egarriz itotzen geunden. Bereala pitxer bat garagarra ta gaseosakin nastuta edan genuen eta bazkaria gertu bitartean, Mikel igeritokira bustialdi bat artzera joan zan. Ni berriz, erretorengana. Gizon eldua Modesto Berasoain, Leitza'ko semea.

Neguan berak dionez, elizkizunak eta kristau ikasbidea euskaraz egiten ditu, udaran berriz erdaraz ari da kolonietako aurrak diralako. Euskara zerbait irakurtzen ote zuen galdetu nion. «Etzula astirik» esan zidan. Aldaz eta Arruiz berak erabiltzen ditu ta udaran latina ematen die gaztetxoiei.

Etxarri'n 22 sendi bizi dira. Erretorakin egon ondorean, etxe baten arpegian, eliz-pean irudi politak ikusi nitun eta argazki bat atera nion; leyo bat da, azpian bi gurutze aundi ta bi ertzetan S bana ondoan beste iduritzo batzuekin. Leioko arrian, buru bat ere ikusten da.

Garai batean, erri ontako gazteak, Alki dantza ta atxuri beltza izenekoa, jai egunetan dantzatzen zuten.

Lekunberri'ko Aita Modesto kaputxinoak ba ditu emen lelo batzuek jasoak, Aita Riezuak argitaratuak. Bat «Azpirozko aldapatik» 1920 urtean jaso. Bestea «Zaldabai-dantza», izenak dion bezala eskuak astinduz dantzatzen zutena. Ara, oraindik, emengo abestien beste izen mordoxka; «Lendabiziko ori», «Beltzak eta txuriak» «Itz egin zionian»...

Jantokian sartzerakoan, Lizarza'ko gizon batek, errena berez ezagutu ninduen: «Kaxo ta kaxo». «Etxe ontan ondo bazkalduko duzute». Lizarza'ko Pepito'n semea zan erri ontako neska batekin ezkondua. Mai beltz baten inguruan eseri giñan, arroza, letxuga, xerrak lur sagarra prejituakin ta igaliak. Iruterdietan abiatzeko berriz zutik.

Kosta zitzaigun maiatik altxatzea. Gure ankak arrizkoak zirala zirudin. Gure aurrean, bide luze baten muturrean *ALDAZ* ageri. Bi aldetan belazeak genituen. Lenengo etxea, lekaimena, joandan gizaldian egiña. Erri erdian eliza, amazapi garren gizaldikoa dala ematen du. Ondoan pelotan gaztetxoak jolasean zebiltzan, euskaraz

egiten zuten. Enparantzaren ondoan jauregi ederrak daude, zabalak, sendoak, burnizko balkoiekin, «Goldarazena» ta «Juan Martinena»; bestea polita «Loperena».

Antxen asten zan gure gurutz bidea. Basaburu'ra joan bear eta mendiz joan nai. Inguruetako mendi muturrak nere begientzat eza-gunak ziran, basoko bideak berriz arrotzak. Nundik nora joan, galdetu bear. Enparantzako mutiko batek esan zigun: «erriko azkeneko etxean, Martin karteroa nun bizi dan galdetu ta arek bidea badaki».

Atean jo genuen: «Gora»: sukalde txikia, maia orman txintxilik eta gure Martin oian. «Itxoin, deituko dugu». Or datorkigu Martin erdi lotan. «Itxaso'ko bidea artu nai genduke jauna» nion. «Zoazte emendik aurrera ta ataka bat arkituko duzute ta burni saren erdian dijoan bidea artu ta borda txuri baten ondolik zoazte ta aren atzeko aldean baserri bat dago ta an bi mutil zar bizi dira. Aiei galdetu, eiz-tariak dira ta mendi ura oso ondo ezagutzen dute». «Ondo da, eskerri-kasko, agur».

Ba goaz esan bezala. Ugaldeko borda, etxe illuna, gaztain zar batzuen onduan dago. Traktore ta kamioi zarrak ate aurrean, zakurra zaundaka. Etxe barrenean zebillen gizon bat ikulluko tresnak garbitzen, beste gizona etxe atzetik ur ontziakin agertu zan. Begiratu illunak, kopeta beltzak, itz gutxi: «Arratsaldeon, Itxaso'ra joan nai genuke mendiz. Martin karteroak esan digu zuek bidea ondo ezagutzen duzute-la». «Traktore orren ondolik dijoan bideari eutsi, erreka batera dijoa. Ura igarota eskubi aldera jo ta berrogei metrora kamioi mendi-bide ikusiko duzute. Bide ori artuta Itxaso'ra ateratzen zerate». «Eske-rrikasko ta ondo izan».

Basoa alde guztietan ikusten genuen, artea geiena. Mandauli gaixtoak zebiltzan eta gugana zetozkigun.

Arbasta bat artuta, burua ta besoa joaz ibilli bear. Eztatrria ondo legortua genuen, izerdia ugari. Erreka polit artan ez giñan gelditu, kamioi bidea billatu arte ezin egona aundia, gure barrenean.

Basaburua oianez apaindua

Uraren beste aldean Pagadi galanta, zugaitz ederrak eta bide erosoak. Gain batera atera giñan. Andik lurraldi ederrak ageri ziran; eskubi Iruyondi mendi zabalaren egalean, gain batean *GOLDARAZ*. Errixka txiki onek ba du kutxu berezia ta euskal usaia. Bispairu sendi bakarrik bizi dira. Emen jaio zan Andres Astiz Oderiz, 1863-6-1 garren urtean eta bertan il 1924-2-6'an. Goldaraz'ko bersolaria bezala oso ezaguna inguru auetan. Gizon onen aotik, Azkuek ipui asko bilduta argitaratu zitun. Aita Donostik jaso zituen bersolari onek egindako «Goldaraz'ko astoaren» bersoak.

Irurtzun'go perian asto bat rifatu zuten eta bersolariari erori.

Ura zoria! Goldaraz'era dator pozik bere astoarekin. 1908 garren urtean emen jaio zan Franzisko Astiz Arregi, Andres bersolariaren semea. Aita pasiotarra da ta Idazdeunaren irakaslea Tafalla'n. 1960 barren urtean «Goldaraz'ko bersolaria» izeneko liburua idatzi zuen, aitaran olerkiekin. Lekaide onek Principe de Viana aldizkarian askotan idazten du.

Bein izan naiz errixka ontan eta elizan daukaten 16 garren gizal-diko Amabirkiña exerita ikusten ibilli nintzan. Adineko gizon luze bat euskal ipui asko zekina an bizi zala esan zidaten bainan agurtzeko astirik ez nuen izan. Errixka ontan danak euskaraz egiten dute. Naiz ibarrako erriak euskara era bat galdu, emen goien nunbait maite. Beran Latasa'n burni bidea egin ondorean, langille erdaldunak sartu ziran eta aien umeakin bertakoak erderaz ikasi zuten eta euskara era bat utzi.

Aurrez aurre goien beste erritxa ageri; Zarrantz, gaur sendi bat bakarra bizi da. Imoz'ko lurrak ditugu. Askotan ibilli naiz ibar ontan.

Zerbait billatzen nion, mendiz josia, ur garbiak, oyanak danetan, erri txiki alaiak eta euskara bizirik. Alde ontatik Irurtzun aldera, Naparroako azkeneko euskal errikkak ditugu. Geroxeago berri geiago emango ditut.

Berealaxe basoa bukatu zan eta bordak eta belazeak genituen ondoan. Erria etzala oso urruti izango, bururatu zitzaigun; aurrak gurasoekin alai asko belarra ontzen zebiltzen. Eguraldi legorra bazter aietan, bidea berria arri kolokakin egiña; gure oñentzat txarra. Oso bera jetxi bear erria ikusteko. Gaiñetik sartu giñan *ITXASO*'n arratsaldeko 6'tan; Basaburu'ko ibarran dago. Lendik ezaguna. Bitxi ikusgarria dute elizan, toki gutxitan bezala ikusten dana. Amar etxe ta elizatxo ardiarokoa erromaniko-gotiko bitartekoa. Barrenean Errenazimientoko erretaula; 14 ol margoztuak, San Pedro'ren bizitza agertzen.

Margo urdinak ba dute argi pozgarria. Marraskia oso ondo bukatua. Ol oiek bakarrik ikustera merezi du oneraño etortzea. Ba dago gaiñera San Pedro'ren irudi gotikoa eserita dagona, oso bikaña, gutxitan ikusten dana; beste irudia Amabirjiña eserita errenazimientokoa ta gurutzeko zillarezkua gotikoa. Orrelako erri txiki batentzat nolako aberastasuna! Orain gutxi arte alaxe zan errikk geienetan. Gure apezak danak saltzen asi ziran eta gure bitxiak alde egiten. Kasallu ta buru gogor asko izan da gure artean. Euskararekin ere berdin gertatu da. Gure erriak zeukan bitxirik aundiena izaki ta erri batzuetan arrika ibilli dute. Itsaso'ko aurrak ezagutu ditut euskaraz etzutela geiago egiten. Ulertu bai, itz egin ez. Jaunari ezker Andres Petrirena Azpaizak eusten dio. Aspalditik emen dago, euskalzale amorratua, Barandiaran'ekin Iruñan lanean ibilli ta etnologi lan bat egiten ari dana. Orain gainera bazter ontako ikastolako zirikatzerik aundientakoa. Zer esanik ez, elizan euskarari eusten diola. Naparroak orrelako apaiz asko izango ba litu, illargia ere euskaraz egiten pozik ibilliko litzake. Ba du gizon onek barrëna, lendabizi Adoain basamortuko errikk batean zegoen, eta gero onera. Orduan gaiñera euskararen alde etzegoen girorik Itxaso'n, ala ere gure apez onek irau.

Zoritzarrez gure apez, aldi ontan, etzegoen etxean, beste eginkizun batean urrun baizik. Agurtu gabe alde egin bear. Bidea motzeta nundik zijoan galdetzeko, erretoretzeko atea jo genuen. Gizon gazte batek lagundu ginduen erritik aterata Jaunsaras'era dijoan bide berria artu arte. «Eskuminak eman Andres'eri, esanez, alde egin genuen». Eman nai ziguten arratsaldekoa, edaria ta gainera berebillez Ulzama'raiño eraman, bainan etzan gure asmoa, oñez ibiltzekoa baizik.




Itxaso errikk Basaburu'n.

Ankak egurrezkoak genitula zirudin. Gaineko bide berri artatik Yaben errixka ageri; eskubi aldera etxe sendo galanta ta eliza txikia. Errixka ontakoa dugu Angel Aldaz bersolaria, 1961 eta 1962 g. urtetan Diputazioak antolatutako txapelketan ibillia.

Errege bidera atera giñan. Esan bezala bizpairu kilometrora JAUN SARAS'en giñan.

Emen datza Basaburuko ibar errikoetxea. Bizpairu etxe, sendagillearen bizitza ta orain ikastola. Elizak Maria jasokundearen izena du; bataio ponte garai berdinekoa, olak oso politak ditu. 12 sendi bizi dira. Jaunsaras'en 1910 garren urteko liburu batean jakin dugu danak euskaraz zekitela. Gaur aurrak etzuten geiago mintzatzzen. Basaburuan, erri batzuetan, era bat galtzen zijoan eta izkutuan daudenetan irauten du adibidez, Beruete, Igoa, Arraras. Iru erri oiek gañera oso goien daude. Ego aldera dagon Imoz'ko ibarran berdin gertatzen da, errixka geienetan galtzen batzuetan irauten, adibidez Etxaleku'n. Bear zan garaian Diputazioaren laguntzarekin euskalza-leak lana egin dute. Yaben eta Garaikoetxea jaunak, Diputazioko Aolkulariak, eliz barrutiko bikario dan Pedro Maria Zabalza jaunarengana joan ziran galdetzera; «nun lagundu bear litzaioken euskarari Naparroan». «Oraindik itz egiten eta galtzen dijoan tokitan adibidez, Imoz eta Basaburu'n», erantzuna. Etxaleku'ko semea dan Lakunza'ko erretore, Yelz jaunarengana dijoaz zuzenean. Onek ibarra-ko idazkariaren izena, Aleman jaunarena ematen die. Pedro Aleman, Amayur'ko semea ta Etxaleku'n bizi dana euskalzale amorratua da. Ba ditu bi seme ta alaba gañera euskararen alde lana egiten ari diranak. Gazte auek euskara ondo ikasi dute, mutillak idazten eta neska andereño bezala Iruña'ko ikastolan lanean dabiltz euskal alorrean. Itxaso ta Beruete'ko apezakin alkar izketa egiten dute ta 1973 garren urtean ilbeltzan Jaunsaras'en, Imoz eta Basaburu'ko ikastola irikitzen dute. Sendagilleak etxe aundia du, zelai zabal batekin eta gela bat uzten die. Biotz oneko gizon onen izena Meliton Meoki Yaben. 13 aur asten dira ta andereño bezala Beruete'ko Maria Dolores Otxotorena neska gaztea. Egunero aurrak berebillez, Itxaso, Etxaleku ta Beruete'tik artuta eramaten dituzte. Ezin esan, erri txikitan ikastola irikitzerik ez dagola. Gauzak aurrera ateratzeko gizonak bear. Euskarari laguntzeko, gizonak alkartzen dirala, asko da. Emen orain dala 50 urte etzitzaien iduritzen euskarak ain balio aundia izango zuanik.

Bestela aitortu bear ba daudela inguru auetan ekintza ikusgarriak eta gizonak, gauz batzuetarako, alkartzen dirala. Adibidez OSKOZ'en. Erri



Gazta egiteko zamatza.

ontako koperatiba Euskalerrri osoan ezaguna da. Erri au Etxaleku'tik bizpairu kilometrora dago. Askotan izan naiz. Eliza goien gain gainean daukate, erria bean, etxeak aldapan. Eliza dagon mendiak kaxkuntxegi izena du. Erri aurrean zelaiak; Illegi izena dute. Zria erreka dijoa azpitik. Aurrez aurre zelaiaren beste aldean Zarrantz mendia, Alta Mari mendi tartean bere iturriarekin, Elosa mendia, ta Loizu.

Bertako erretora dan Manuel Errekalde Betelu'ko semeak 37 urte emen dagola, eliza berritu ta txukundu du. Merezi du ikustera etortzea. Eliza erromaniko gotiko tarteko garaikoa da. Arrilanduz egiña. Bataio ontzia borobilla erdiarokoa. Erretaula 17 garren gizaldikoa Pedro Landa'k egiña. Bazter bateko aldaren 16 garren gizaldiko Amabirjiña eserita. Iru begiko aterpea dauka. Erretoretxepean erriarentzat egontoki ederra egin du. Gure erretore onek beste mesede aundi bat egin dio erriari; bei ta esne koperatiba. Ikusten zuen baserritar askok etorkizun txikia zutela ta erria ustutzen zijoala. 40 sendi ezagutu zitun, orain 23 dira. Esan zien 1965 garren urtean 9 etxe alkarrekin lana egiteko bildu ezker, aurrera joango lirakela. 18 etorri zitzaizkion. Arau bat (Arandia) danon gustokoa egin zuten. Batzordea edo junta 3 urtetako aukeratzen dute, 200 ektarea lur erabiltzen dituzte, 140 bei ta txekorrak. Baita egunero 600 bat litro esne jezten. Gainera 900 ardi «latxa» lau artzaiekin. Artaldeak udaran Urbasa'n egoten dira. 3 traktore dituzte. Erriko 19 edo 20 gizon langille bezala dabilte, 130 pezeta irabasten dutela egunero. Irabaziak erdia lanarentzat dira ta beste erdia ontasunentzat. Bakoitzaren ontasuna, metroz neurritako lurrak dira.

Ikusi dugun bezala errian 180 bizilagun, 23 sendietan. 5 sendik, bakoitzak bere lurrak daramazkite. Koperatiban danen buru ta dirukontuak eramaten apaiza ibilli da orain arte.

Ekintza ontan asteke ta irauteko gizon onen bearra ba zuten. Gero, pixkanaka koperatiba era bat erriko gizasemeen gain geldituko da. Ango ikullu ederrak agertzen zizkigutela, ikusten zan, gogoz ari zirala lanean. Erriak ere basotan aberastasun aundia dauka. Urtero 200.000 milla pezetako etekiña.

Orrelako kemena daukan errian, euskarak zer? Gaur gaizki xamar. Kanean aurrak (ba daude 25) eta gastetxoak danak erderaz. Tarteka erdaldunak sortu dira esanaz, «euskara ez du ezertako balio». Etxetan berriz askotan euskarak iraun du. Apaizak elizkizunetan eta kristau ikasbidean eusten dio garrakin.

Ba dago bertako alaba Lekunberri'n andereño bezala ta Iruña'ko euskal irakasleen ikasketara anai arreba Mendia abizenekoak etorri zitzaizkigun; zerbait da bainan geiago egin leike. Bestela, euskal kutsu aundia dauka Oskoz'ek eta aspalditik ba zuen euskal arnas berexia. Azkue emen ibilli zan kantak biltzen. Justa Goldarazena'ri «Kantuak» eta Fermina Lizaso'ri «Talo talotxin» artu zizkien.

«Aurra egizu lotxo bat» kanta emen bildu zuen aita Donostik. Txurrun xanketan» beste kanta 1912 garren urtean egiten zuten oraindik gazteak. Len «Gerriko dantza» ta «Alki dantza» egiten zituzten. Oraingo erretora etorri zanean aize soñua jotzen zuten, besterik ez. Txistua bertakoak ez dute bein ere jo, baiñan orain dala 100 urte ba zegoen bersolari ona; Erdabide izenakoa. Orain erriko festetan ez dute bersolaririk ekartzen. Len urte zar egunean errian etxez etxe euskaraz kantatzen ibiltzen ziran gazteak. Orain apaizari esker, P. de V. euskal aldizkaria etxe danetan artzen dute.

Imoz'ko ibar onek, ba dauka neretzat lurra ta argiaren aldetik berexitasun bat, indarra ta goxotasuna. Mendian daude errixka geienak. Arnasa aisa artzen dute birrikak eta begiak baztarrak ikusiz goxatzen dabilte. Sortalderuntz landa ederrak zabaltzen dira: basoak eta orain zelai zabalak urratu berriak. Bazter batean BEUNTZA gelditzen da, eliz erromaniko eder batekin. Emengoa da esaera; «nunbait ijitoa pertza zarrakin karrika gora zijoala esanaz: «Pertza zarra onekin nork nai du ezkondu nerekin». Orain gutxi arte euskaraz ba zekiten, geroztik uzten. MUZKIZ errixkan berriz erdiz erdi egiten dute. Errixka ontan bildu zuan 1919 garren urtean Lekunberri'ko aita Modesto'k, «Arrosa Lore» kanta zarra.

Jaunsaras'eko edantokian sartu giñan egarriari pakea emateko: pitxer bat garagar gaseosakin eskatu genuen. Adiñako gizon batzuek zeuden egarria kentzen eta gure joera jakin naian, erderaz batek: «Zuek Gipuzkoarrak? Lekunberritik al zatozte». «Ez, Gipuzkoatik?». Nik ere ba nuen zerbait galdetzeko gogo: «Zuek euskaldunak?». Aiton xar batek: «emen jaiok eta beti emen bizitakoak». «Euskaraz emen egiten al da?» berriz nik. «Guti goiko mendiko erritan bai; galtzen, galtzen ari da. Orain bai jarri dute ikastola. Ari dira pixtu naian». Erriberako napar batek erderaz: «euskara zalla da. Guri etziguten erakutsita...».

Dana jakin nai zuten; nun lo egin bear genuen, noraño ginjoazen, zergatik gure burua ain estu artzen genuen eta abar. Gogo onekin utzi genituen. Guk alde ta aurrera: «Agur ta agur» esanaz.

Atarian neska gazte batzuek zeuden euskaraz mintzatzen. Beruete'koak ziran, ondoan beste batzuek erderaz aiek berriz Yaben eta Itxaso'koak. «Euskaraz, euskaraz egin bear dezute» esan ta errege bidetik ginjoazen. Illuntzen asi zuen eta guk Illarregi'raño, an lo egiteko, joan nai genukean. Asmo ori nuen buruan sartuta ta bete naian nenbillen. Eskubi aldean benta bat utzi genuen. Gure eskubi aldetik ibaia, Basaburua izenekoak zijoan patxara ederrean. Ezker aldetik berriz mendia. Lendabizi bidetik ez da gauz aundirik ikusten,

mendiak estutzen dutelako, bañan gero ta geiago lasaitzen dijoa ibarra. Garzaron ta Erbiti'ko bideak eskubi aldean gelditu ziran. Arraras ta Igoa'koak berriz ezkerreta. Oso luzea egin zitzaigun lenengo eguneko bide puxka au. Ankak larri zebiltzan, gorputza nekatua, estarria legortuta.

OROKIETA'ko bideraiño iritsi ginan. Emen oroitzapena esnatzen asi zitzaidan. Erri au errege bidetik ez da ikusten. Joandan gizaldian naiko ezaguna zan. Borroka aundi bat izan zuten emen karlista ta Liberalen artean 1872 urteko uztaillaren 16'an. Karlos VII garrena karlistadaren bigarren gudan larri ibilli zuen Morriones generalak; gutxin bearra izan zuen etsaien eskutara erortzeko. Zaldiz lagun batzuekin iges, Frantzi aldera joan zan.

Borroka ontan, Gurutz gorriko gizonak lenengo aldiz Españian lana egin zutela. Karlistadan, gudan, arrapatzen zituzten etsaiak danak, alde batekoak eta bestekoak iltzen zituzten. «Gurutz Gorria» izeneko elkarte Suiza'n sortu zan eta egiñalak egin zituzten liberalen eta Karlisten artean prisionero'en bizitzak errespetatzeko. Gurutz gorriko gizonekin ementxen genuen Aita Menni gaxozainen elkartea berpixtu zuen eliz gizona. Gero Europa osoan gaxotegi asko eraiki zituen; bat Santageda Gipuzkoan. Errixka au Basaburu'ko azken erria dugu. Ez da euskaraz, geiago egiten, erdera sartu da erabat.

Ultzama'ko belaze orlegiak

Ari zun illuntzen. Gañean genuen illunabarra. Mendi gañetan laño me batzuek gorriz jantziak, belazeak ondoan argi bizi, ixiltasuna inguruan, berebillak oso bakan, basoan zakurra zaunkaka ta oiuru illun aren oiartzuna urrutiraño zabaltzen zan.

Gain batean *ILLARREGI*'ko etxe batzuek ageri ziran. Aldapatxo bat igo ta errian giñan. Enparantzako askan emakume bat akullua eskuan beiak edanarazten. «Arratsaldeon etxeoandre. Urrikenia etxea emen al dago?». «Orixe da, ni or bizi naiz». Etxekoandrea zan bañan etzigun esan.

«Aurrera, aurrera» esanaz, beiekin joan zan. Erria ezin leike erosoagoa izan. Gain batean karrika bakarra, eskubi eliza enparantza ederrakin. Elizak iru arkupe ditu, sortaldera dorre luzea. San Migel'en izena dauka. Arratsaldeko zortzitan jo genuen Urrikenia etxeo atea. Sole atera zitzaigun esanaz, «etorri etorri, sar zaitezte». Neska au dugu etxeo alaba zarrena, Iruñako Diputazioan euskal saillean lanean dabillena ta asko ezagutzen dudana. Nere asmoa aspaldi agertu nion. Jaka'ko ibillialdia jakiña ta lo egiteko etxea eskeñi zidan.

Urrikenia etxea oso ederra, egitazko jauregia. Etxe aurrean bi ate arrizko arku borobillakin, lenengo bizitzan bost leyo ageri ta oraindik bigarreanean beste lau. Bean sarrera zabala, txukun ta apaiña, gela aundi baten antzera eskubi egurrezko malladiak. Atzean ikulluak. Goien sala aundi ta jangela, baita sukalde ederra. Sukaldean beko sua gorde dute bere burni zarrarekin; «kertokie» izena du. Ondoan dauzkate labe berrienetakoak. Maya berriz altxa ta orman lotuta gelditzen dana, «izellu» izeneko alkiakin. Sala, etxeo mutur batetik besteraino dijoa ta erdian aritzako mai luzea, bazterretan kuprezko

paziak eta gazta egiteko tresna zarrak; bi zimitzek, kartola ta ma-latxa. Etxe ontakoak ez dira nornai. Etxekoandrea Urbana da, Urrikeni'ko alaba dugu. Senarra Martin, Ulzama'ko Alkoz'tik etorria. Iru alaba dituzte; Bakartxo, Karmen eta gaztena Olaya. Bakartxo Diputazioan lanean, bigarrena etxean orain gutxi ezkondu berria ta gaztena andereño Iruña'ko ikastolan. Gainera Urbana'n beste bi aizpa bizi dira ta betiko morroia; errian bertan beste 7 baserri dituzte bereak. Euskaraz esaten dan bezala oso aberatsak dira. Etxean beiak eukitzen dituzte ta larrian artaldea lareun ardikin. Urbanak beatzak ondatuak dauzka. Asi ta egun batean berak bakarrik eun ta berrogei ardiei illea ebaki zien aitzur aundi batzuekin. «Ye ye etxe ontan lan aundia dugu «zion Urbanak; nik egin bear danak». Langille amorratua da etxekoandria. «Beti animaliak bezala lanean ibilli gera». Beste etxeko ezagunei bezala, guri ere, biaramonean etxe aurreko gain batera eraman azi nai ginduen, andik bere etxeko lurak erakusteko. Guk ez genuen astirik izan. Baiñan jakin dut norbait tontor artara eramaten dula esaten diola «emen inguruan ikusten dituzun mendi ta zelaiak gureak dira». Ori esanta lasai gelditzen da. Ba du arrazoia. Naparroan etxe gutxik izango dituzte ainbeste lur ta gañera ez nolanaikoak, Ulzama'koak baizik. Egitazko etxekoandrea da Urbana. Ez da arritzekoa maiz esatea «etxe ontan nik egin dut lana, senarra beti tratuan». Senarra peri batetik bestera ibilli da beti. Peritik perira abereakin. Urbana berriz etxean... eta bere jaiotetxean.

Martin nagusia, ez da nolanaiko gizona. Sukaldean berak bakarrik egiten du izketan eta besteak entzuten, baita Urbanak ere ixilik. Ala dio Martinek «Emengo etxe ori ta ango lurak nik erosi ditut. Beiak emen erosi ta an saltzen ibillia naiz. Azparne'n garai batean 300 urde euki nitun». Urbanak etzuen itzik egiten.

Olako batean esan nion Urbana'ri: «Ba al dakizu zer esan nai duan URRIKENIA, zure etxearen izenak?». «Ez ba». «Ziur asko, Urraka-rena izango zan asieran, nion; Urraka emakumearen izena da ta etxe onek emakume baten izena darama. Etxe onen izenak esan nai digu oso izen zarra dala ta gainera euskalduna».

Urraka izena erdiaroan erregiñak ere erabiltzen zuten. Urraka, erderaz, ez du ezer esan nai; euskaraz bai, «urra, urritza». Urbana etxekoandreak zoraturik zion: «Gure etxeko izenak esan naiko du beti emakumeak agindu dutela». «Bai, bai, Urbana, ala da». Sukalde eroso artan, Ulzama'ko euskara goxoa entzunez ez genuen gure soñean nekerik nabaritzen. Pozik geunden kontuak kontari.



Urrikenia baserria Illarregi'n.

Etxekoandrearen aizparik zarrena beti mendian artzai ibillia, inguruetako bazterrak eta errekek ezagutzen ditu ongi. Len udan ardik, Andi mendira bidalitzen zituzten. Beste aizpa errena, etxean beti. Alabarik zarrena Bakartxo diruetxean zegoen lanean eta orain Iruña'ko Diputazioan euskararen saillean. Aurten bertan artu dute laguntzalle bezala Diputazioan. «Euskararen alde lana egitea izan da beti nere asmoa. Ikastetxean nenbillela danak ba dakite nolako grina agertzen nuen gure izkuntzaren alde. Ultzama'n nola galtzen ari zan ikusten nula miña ematen zidan. Orain pozik nago»: maiz entzun dizkiot itz oiek. Neska sendoa ta gogorra dugu, biotz onekoa Naparroa'ko ikastolei laguntzen dabil jo ta ke, eten gabe. Bigarren aizpa, argia, illegorria, liraña, bizi bizia etxean dagona ta orain Irun-
 seme batekin eskondua. Gaztena berriz, maitagarria, Iruñako ikas-
 tolan andereño.

Ultzama'n euskara goitik bera galtzen nola zijoan, ikusiaz mindurik zeuden danak etxe ontan. Euskara maite dute ala guztiz ere. Aitak alabekin beti erderaz egiten du etxean, amakin berriz dana euskaraz.

Illarregi'n erdara era bat sartu da. Bi edo iru emakume, inguruetako erdal erritik sartu ziran eta aiekin batean erdara. Apezak elizkizunak erderaz egiten ditu era bat, danak obeto ulertzen dutelako aitzakiakin. Ala guztiz ere Ultzama'ko ikastetxean «Kili-Kili» ematen ibiltzen da. Euskaldun garbia dugu, adiñeko gizona.

Ultzama'ko euskara lagundu naian dabil Sole. Alegiñak egin ditu. Lana au idazten genbillela euskal andereñoa euskaraz erakasten ulzama'n asi dala, jakin dugu.

Ba zan noizbait asteko garaia. Eskoletan euskara emateak garrantzia dauka, baita bearrezkoak euskal jaiak, txistua ta gure dantzak. Ultzama ibarran, azkeneko garai ontan euskara amiltzera zeramakiten. Aezkoa ta Ultzama ikusten genituen gaizkienak. Naparroan Sole'k naiko lan izango du. Eskola maillan asko egin lezake. Idazten ditu ere artikulo politak Ultzama'ko oiturak agertuaz. Emakume gutxi dira Naparroa'n idazten dutenak, oietatik bat Bakartxo. Ultzama'ko euskara goxoa egiten du.

Apaltzeko naiko janari goxo atera ziguten: etxeko urdai-azpiko eldua pipar gorriekin: igaliak ugari ta kafesnea. Apaldu aurretik, urintzakin garbitu genuen soña ta jantziak aldatu ta oñak lasaitu. Urrengo eguneroko bidea agertu genion nagusia'ri; Erro'raiño joan nai genuen Latasa'tik ta gero Iragi'ko bidea artu. «Gaizki zoazte» esan zigun: Artu Urrizola'ko bidea ta andik Olague'n zerate. Gero



Urrikenia'ko alabak (Illarregi).

Leazkue'tik mendi lepo batera atera ta andik Leranoz'en zaudete ta Zubiri bertan. Beiak eramateko bide ori artzen genuen guk».

Amaiketan oyeratu giñan. Goatze zabal bat eman zidaten, gela erosoa, zola aritzkoa argizariakin dirdira botatzen zula. Gorputza sutan neukan. Etzan ondorean anak zabalik jarri nitun.


Lenengo eguna uste bezala egin genuen. Etzan gutxi; bigarren eguneko asmoa bete ezker, irugarrena uste bezala joango zitzaigula oldozten genuen eta Jaka'raño aste batean iritziko giñala mendiz, aurretik nai bezala. Goizean zazpiterdian esnatu ginduzten. Gosari ona eman ziguten ta zortziyak ta ogeitan atera giñan: «milla esker eta laister arte» esanaz. Etxeko danak atarian utzi genituen. Aldapa bera jetxita, errege bidean sartu ta, Auza aldera jo genuen. Lur zabalak bi aldetara ta ezker, sail ederra zaldi taldeak, beorak beren umekin. Eskubi aldera *ELZABURU*'ko tellatuak ageri ziran; aspaldi erri ontan izan nintzan, euskaraz aurrak etzuten egiten. Apaizak eusten zion, geroztik il zan. Orain erri ontako andereño bat Marikruz Larrayoz ezagutzen dut Iruña'ko Paz de Ziganda ikastolan dabillena. Jose Maria Mutuberria erri ontako semea, 1961 garren urtean Elizondon bersolarien txapelketan agertu zan.

Bereala *AUZA'N* giñan. Erri sarreran Gurelesa'ko kamioak esnez betetzen ari ziran bizpauru mutil eta euskaraz egiten zuten.

Errege bidea erri erditik doa; ezker, eliza dorre luze batekin eta eskubi erreka ta auzo bat bi aldetan etxekin. Bazter onek euskal kutsua du. Erri onen izen zarra, Aoiza zan. Erdiaroan euskal izeneko zerga ematen zioten erregeari «Beraurdea edo Eyurdea» Karlos III garrenak kendu zien. Erri ontan euskaraz iraundu du ta geienak mintzatzen dira. Urte asko egin ditu apaiz batek Emilio Goldarazena euskarari eutsi dionan. Elizan eta karrikan beti euskaraz egin du. Inguruetakoa bide bazter ontan utzi zuten euskara, emen ez. Orain beste apaiz gazte euskalduna daukate euskalzale jatorra, Beratarra Irazoki jauna. Apaiz au Iruña'n eta Ulzaman euskararen alde saiatzen da. Erri ontan Guda aurretik «Euskeraren adiskideak» jai aundi bat egin zuten aurrentzat.

Erriko azkeneko etxean lantegitxo batean burnia suakin lantzen zebillen gizon bat, beste bi laguntzaille zitun. «Euskaldunak al zerate erri ontan»; nion. «Emendik beiti ez da euskaraz egiten. Guk ongi dakigu», erantzuna irriparez. «Eutsi ba. Agur». Zuzenean Larraintza aldera ginjoazen. Errian sartu aurretik ezkerreko bidea artu genuen eta zelai baten erdian ibarreko eskola sendoak daude. Etxe aurrean bizpauru langille lanean. Arpegi beltzak zituzten eta nungoak ziran

antzik ez nien eman. Erderaz agurtu nitun «Urrutitik al zatozte lanera»? «Euskaldunak gera» euskara garbian zion; Ondoan ikusten dan etxe ortakoa naiz. Nere aitak euskara maite zuan». Urrizola'ko bidea galdetu genien. Lizaso'tik joateko agindu ziguten. «Etxe aundi ori Ulzamako errikoetxea da, ondotik joan zuzenean, beti aurrera, ezker eskubi jo gabe ta Lizaso'n zaudete». Artu genuen gurdi bidea, ondar gainean egina, inguruetan putzu batzuek zeuden eta zugaitz bakan batzuen atzean, gain batean *LIZASO* ageri zan. Gu errian sartzerakoan, gazte bat, gurdi aurretik. Berrin bat galdetu nai nion, baiñan ariñ asko soro batean sartu zan. Lizaso'n giñan. Naiko istillu atera ditu erri onek. Nunbait bertako edantoki batean, baserritar batzuek arduaren inguruan, baita pixko bat berotuta ere zeuden. Baserritarrak maiz egiten duten bezala asi dira negarrez: «Lur asko ditugu, bei geiegi. Lana egiteko morroirik ezin dugu billatu. Lanpetuta, jai ta iganderik gabe bizi bear dugu il arteraiño. Orrela bizitzeak ez du geiago merezi. Lurretan sartua daukagun dirua beste lantoki batean euki ezker, lanik egin gabe biziko giñake. Onena, danak saldu ta Iruña'ra bizitzera joatea». Ixtillu galantakin, bero, bero zebiltzan. Batek ots aundiakin esaten du: «Goazen, Lizaso erria salgai aterako dugu?». Besteak arro arro: «Bai. Bai». Edantokiko beste mai batean izparringilaria zegoen. Ateratzen du patrikatik arkatza ta idazten asten da. Urrengo egunean izparringian or nun agertzen dan Lizaso, Ulzama'ko erria salgai dagola. Berri au zabaldu zan Europa osoan. Berealaxe agertu ziran Frantzi'tik erosleak. Egia berriz, bestela da. Lizaso Naparroa'ko erri aberatsenetako bat dugu, zelaiak eta belaze onak, etxe bakoitzean 30 bei esnedun; etxe sendoak. Lizaso ez da iñoiz salgai atera. Baserritarrak negar egin bear eta kaletar idazleak sinetsi; ez dago besterik. Langilleak ez du bein ere negarrik egiten, lanari eutsi baizik. Gizon langilleak egin zituzten Lizaso'ko etxe sendoak. Alperrak berriz, naiz aberatsak izan, beti jai ta beti negarrez. Orixe du; lana uzteko aitzakiren bat billatu bear. Gai onexegatik, abestiak azaldu dute, Lizaso'ko gertakizuna. Or dugu Etxamendi'ren negar abestia; «Lizaso alden, Lizaso alden zerdute... erria saldu omen dute». Doñu mikatz ori belarrietan nuela ta gainera ezin kendurik sartu giñan errian. Sarreran, etxe polit bat dago ta etxe aurrean euskaraz izena jarria «Etxeberri». Orain erri ontan ez da geiago euskaraz entzuten. Utzi zuten. Ez genuen errian gelditzeko astirik. Elizaraiño igo, aldapa ura jetxi ta azkeneko etxean bi emakume erderaz izketan. «Euskara galdu al da era bat emen» galdetu nien. Batek euskaraz erantzuna eman zidan. Albistur'koa (Gipuzkoa) zan, bestea erdalduna



Gerendiain'go ostatuan.

Anoziber'koa; ama Lizaso'koa zuen. «Ez, emen galdu zan» biyen erantzuna. «Euskaraz dakigunak ez dugu gure artean egiten». Erregebidea artu genuen ta gero ezkerreta jo, zubi bat igaro ta berealaxe pixko bat igota, *GERENDIAIN*'en giñan. Sarreran aitzurrakin bide ondoan bi mutil zar. «Nora zoazte» guri galdezka erderaz asten dira. «Euskaldunak al zerate?», nere erantzuna. «Bai guk bi anaien artean etxean euskaraz bakarrik egiten dugu. Gurasoak il zitzaizkigun eta gu biok gelditu gera».

Alkarizketa lasaiagoa nai zuten baiñan guk astirik ez. Goizetik asita ainbeste ibilli bearra. Gereindian'go sarreran etxe bat zearka ta orma zuri zurian egur landuan uztarri batetik txintxillik itz auk euskaraz: «Erriko Ostatua». Goruntz jo genuen. Toki eroso artan etxe apain batzuek egiten ari dira. Bizitzeko aukera ezin obea. Nai ta naiez, une batean begira gelditu bear. Ura edertazuna ta zoriona. Begipean Ulzama'ko zelaiak, zabal zabalean orlegiz jantziak, erri txuri txuriak bakanduak inguruan, mendiak margo illunekin, zeruan laño zuri batzuek eta eguzki indartsua ganean. Eskubi aldean ondo ikusten da Lizaso aurrean egin duten Iruña'ko «Golf» berria, ezker berriz antxen daude lur zoragarri oietan, lasai etzanda, Iraizoz aurrean ta Alkoz atzeago, bazter batean berriz Arraiz. Orrelako zelai ederrik ba al dago Naparroan?

Oraindala 10 urte zerbaitek deitzen ninduen Ulzama'ra! Lenengo aldiz etorri nintzala zoraturik gelditu nintzan. Euskara bizirik zegoela oraindik ikusi nuen. IRAIZOZ, ori erri lasaia! Enparantzak zoratzeko añeko edertasuna dauka. Bean iturria bi alderdietan etxe sendoak. Goien eliza. Apaiza ikustera joan giñan. Ba zekin euskaraz, bainan bere trebetasuna ekonomia zan; banka; bolsa. Euskaragatik axola gutxi. Euskara elizan era bat utzia zeukan. Ezin aztu inola ba erri ontakoa dala euskal idazle ona, Aita Polikarpo kaputxinoa, Agustin Zarranz. Emen jaio zan 1897 garren urtean. «Yesukristo gure Yaunaren bizia» 1934 garren urtean idatzi zuen. Ba ditu lan geiago. Erroman, urte asko egin ditu. Orain Lekaroz'en bizi da. Ementxen bildu zuen Aita Donostiak abesti bat «ITSASOETAN» izenekoa, 1917 garren urtean.


ALKOZ'EN berriz alkate gaztea ezagutu nuan Jose Maria Ziaurritz 24 urteko mutil gaztea ta euskaldun jatorra. Erri ontan pillota lekun mutil koxkor danak euskaraz, barra barra egiten zuten. Apeza berriz Elizondo'koa. Elizan erdera bakarrik erabiltzen zuen. Ala guztiz ere erriak, urtetan euskaraz egiten irau du. Ez da gutxi. Elizako itzaldia euskaraz, zailla dala ta utzi. Orrela elizaren mixiolariak jokatu izan ba lute ez genukean geiago Kristaurik;

ta erria ixillik, ta eliz gizonak lo, ta erria elizak poliki poliki zapaltzen eta inorrek itzik ez!

Euskal erriaren arnasa askotan elizan zapaldu dute Naparroan! Ixillean, otsik atera gabe, legun legun, poliki poliki, orrelaxe euskal erriari ebatsi diote anima. Gero bai entxungo dugu karrexika elizan; lapurketa txarra dala. Nork lapurtu dio erriari bere arnasa ta sena? Maitasuna! (nork maitatu du eliz asko tan ta askotan gure erria?) Artzai ona! (nun zeuden?) (gure erria zaintzeko gotzaiak eta erretorak?) Farisaismoa! (nork egin du obekiena paper ori?). Elizak erru asko ditula Naparroan garbi dago; len bezala, gaur ere fariseotarrak beti kristoren inguruan izaki; azariak artaldearen atzetik dabillen bezala.

Ulzama'n bi errixka genituen euskaldunak, bat Auza, bestea Alkoz. Jose Mari Ziaurritz'ekin euskaraz gogotik egin nuen eta Loidi jauregia ikustera eramane ninduen, egitazko Euskalerriko jauregia. Nik beste asmo neukan buruan. Udarako Gipuzkoa'ko ikastoletako aurrentzat etxe aundi bat billatzea. Euskal aurrak udaran alkarturik aste batzuek igarotzen dituztela asko irabasten dute ta udarako etxe oiek euskara oraindik bizirik dagon errixketan izan ezkerro, obe. Euskal aurren bitartez erri txikietak euskaldun aulak elizan eta enparantzan zein ederra dan gure izkuntza ikusten dute ta illa zeukaten zaletasuna pixten zaie. Euskarak ba du orrelako indar bat. Ulzamak bultzada baten bearra zeukan. Alkoz'en Arraiz'ko bidean dagon lekaimen etxe ederra ikustera joan giñan, baita zati bat udarako euskal aurrentzat utzi al zezaiguket galdetzera urbildu. Tokia gure asmorako ezin diteke ohea; zelai zabalak, pakea nabari, aize garbia, ikuspegi irikiak, ura naikoa ta gainera erri euskalduna. Ezezkoakin atzeratu giñan. Aita Zubiaga'kin izan nintzan baimena eskatzen. Orrela joan ziran nere asmoak errekarra.

Geroztik Ulzama'n euskararen alde gauzak aldatzen dijoazte; Zilbeti'ko semea, emengo idazkariak bira asko egin ditu Diputazioak euskara emen laguntze arren. Auza'ko apezka irrikatzen dabil eta azkena len esan dugun bezala Illarregi'ko Bakartxo Erbiti, Diputazioko euskara saillean dagona. Garrantzi aundia dauka Ulzama'n euskara zaintzeak, Naparroan indarra artu dezan. Muga onek ondo sendotu bear luke. Orain dala eun urte emendik zebillen Bonaparte printzea euskara indartu naitan. Bizpauru laguntzaille billatu zitun; Pedro Tornaria Iraizozkoa, Bizente Lazkoz beste Laguntzallea. Ementxen aipatu bearrak, len, ibar ontan egiten zituzten bi erromesak. Bat oso ezaguna Belate'ko Amabirginari. Belate mendian dago erdiaroko elizatxo bat ta en zegoen Andra Mari bat. Elizatxoa erori zan ta Mariaren iduria Alkoz'era ekarri zuten. Len arañ, danak onez zihoazten Agur Maria abestuaz. Otsaldi onen doñua gaur euskal mezetan abestutzen dan Gure Aitan ber bera zan. Aita Gureari Agur Mari onen donua igorri diote. Erromeslariak itzultzerakoan erriko eliz aurrean



Aurtxoa erriko iturrrian.

ogia, ardoa ta gasna ematen zizkieten. Orain berebillez dijoaz eta otoitzak danak erderaz.

Iraizoz ondoan Elso aldera dagon Santa Luzia'ren basilizara len ere erri danak urtean bein biltzen ziran. Aurten, egun ortan, meza euskaraz eman dute ta ondorean aizkolariak izan dituzte.

Aldapa gora goazela, ezkerreta jota, bi puxketan dagon errixka batean gaude, *ELSO* bere izena. Jauregi zabal eta aundi baten ondotik goaz, izena alaxekoa ere «Tolosaba», Urrutiago erriaren beste puxka elizakin batean ikusten da. Bi auzo oien tartetik goi aldera jotzen dugu berriz. Goian, mendian, ondo gordeta ikusten dugu *URRI-ZOLA*. Errixka zoko batean, gañean, txapel bezala, basoa ta azpian maldan belazeak, bean berriz Ulzama'ko zelai paregabea. Sagardi batean adiñako emakume bat bei zai: «putx, putx», eginaz. «Emengo beiak euskaraz al dakite», dio Mikelek. Berealaxe konturatzen gera euskalduna dala. «Bai bai, nere adiñakoak ez dakigu besterik». «Bizi al da apeza erri ontan?» nere galdera. «Bai, etxean izanen duzu. Euskalduna da». Bidetik bizpairu etxe bakarrik ikusten dira, elizaren aztarnik ez da ageri. Erriaren sarreran iturria ta aurtxo bat; gizontxo txiki bat, bera aineko botil bat urez betetzen, xorrotan ontziaren muturra sartzeko, arri baten gaiñean igota dago. Euskaraz ba daki, karrikaren buruan amona zai zeukan. Botilla bularrean bi eskukin artuta guri atzeraka begiratuaz ezkutatu da. Erri bertaraño sartu arte, ez da bat konturatzen nolakoa dan. Etxeak ederrak ditu, zarrak. Gainekeo aldiñ eliza erromaniko gotiko garaikoa. Erretoretxe eliz ondoan datza. Jotzen dugu atea ta berealaxen erretora eliz atarian genuen. Eliz aurrean zelaixo bat dauka lorez apaindua ta an itzalean giñan. Arri losa batzuen gaiñean eseritzen gera. Erria ikusita apaiza gurekin genula, ango giroa etzala nolanaikoa, oartu giñan. Apaiza gizon sendoa, sinismena bizikoa, egitazko euskalduna, Jose Maria Goierna izena, 1947 garren urtean apaiztu zan. Amaika sendiko errixka ontara bidali zuten ta ementxe dago azkeneko 27 urte auetan. Gazterik etorri zan eta zartzaroak ementxen bertan atzeman du; ta gizonak iraun! Onak ba dauka onbidea ta kemena. Beste aldetik zer pensatu gotzaiengandik? Apaiz gazte bat artzen dute bizitasunez betea ta lanik ez dagon errixka batera bidaltzen dute bere bizitzarako. Zertarako bear dute apaiz gazteak? Apaiztegian burua berotu ta gero zertarako? Ogei sendien artean bakarrik, arront aztuta bizi osoa igarotzeko. Apaiza izatea, lapa baten antzera mendi zuloan bizitza osoa eramatea, al da? Lanpernaren bizimodua eramateko itza eman al du apaizak nunbait?



Mielotxin Lantz'eko iñauterietan.

Ori orrela gertatzea uzten duten gotzaiek, nolako kristau kontzientzia daukaten jakin nai nuke. Orrelako apezan aurrean belaunikatzea merezi luke baiñan gertakizun auek miñ ematen digute...

Gure Don Jose Maria Goienak, egitazko gizon baten itxura du ta apiza benetakoa..., bainan beste gauza zail bat egin du; Ulzama'ko egoaldean, mutur ontan, inguruetakorrietan era bat galdu dan euskarari eustea. Ez da gutxi. Erri orren izena ez nuen bein ere entzun, askoz gutxiago jakin euskaraz egiten zalarik. Len itzaldiak eta kristauikasbidea dana euskaraz ematen zuen. Ulzama'n euskara era bat galtzen ari dala, inguruetakorriko gaztekin bertakoak erderaz bakarrik egiten dute, jolasetan alkarizketan, dantzan; etzaie gelditzen beste txostenik. Orrela gazteak beren artean Urrizola'n ere erderaz asi dira. Aurtxoak berriz danak artu ta Ulzama'ko ikastetxera daramazkite arratsaldearte. Aurrei euskaraz leitzen zailla egiten zaie. Orregatik orain gure apaiz onek itzaldia elizan illean bein euskaraz egiten die danei. Euskara maite du, «nerea dalakoz», dio berak. Inguruan euskararen aurka onelako eraso izan dala azkeneko mutur ontan oraindik irauteak eta eustek, mirari bat dirudi. Erri onen euskalzaletasunaz ez da iñortxo konturatu. Etzaio iñor Iruña'tik edo Diputaziotik laguntzarekin urbildu ta apaiz onek, ala dala, ere, gaur arte iraun. Principe de Viana ta Zeruko Argia artzen ditu, bitara arpidetua dago. Urte ontan Diputazioko euskal irakasleen ikasketara etortzeko deia nola jaso zuen, esan zidan. Zarra zelakoz eta bidea gazteie uztegatik etzan joan. Erriko alabak maestra diranei bidali zien, Diputazioko deia; Miñez zegoen erriko neska oiek, berandu xamar zala, esan ziotelako. Ez nuen uste orrelako gizonik eta euskalzale jatorrik nere bidean billatuko nuanik. Bide aundia genuen egun ontan egiteko, baiñan naigo apaiz onekin alkarizketan egin. Elizatxoa ikustera eramen ginduen. Txikia da bainan polita. Atzeko aldean ba ditu ilobietan «olak» ongi landuak, amabiren bat, danak ezberdinak, euskal museo batentzat egokiak izango lirakenak. Bakoitxa bitxi bat da, soillak bainan erri kutsu aundikoak. Belgika'ko gizaseme bat ibilli omen da, danei argazkiak ateratzen, iduri ta antza polita dituztelako. Errian etxe geienetan beiak dituzte, ikullu bakoitxean 30'en bat. Orain artzai bat ba dago; borda berri bat egin du ardientzat, mendian. Erri onek mendi asko du. Gure bidea nundik nora zijoan jakiteko bearra genuen. Erretorari galdetu genion, baita lagundu ere. Puska batean gurekin etorri zan. Edaria ta janaria eskeiñi zizkigun, baiñan berak emandako berriekin naikoa genuen. Biotz oneko gizona zala agertu zigun.

Gurdi bidea artu genuen, lokatza pixka bat zegoen. Gure gainean Epaizburu izeneko tontorra 834 metrokoa; aizea goxoa, eguzkia ederra, aritz tartean ostoa dantzan zeuden. Illerri txiki baten azpitik joan giñan ta beti igotzen, Olague'ko mugaraiño atera giñan. «Ara bide au erakutsi nai nizuen. Orain gaindik bera zoarte. Ez duzute galterik. Ikusi artio, ondo ibilli». Eskerrikasko ez nekin nola esan eta gutxiago nola eman; Jainkoaren izenean otoitz batekin eskertu bear, etzegoen beste irtenik.

Anue ibar estua

Anue ibarra gure aurrean genuen. Aurrez aurre *ARIZU* errixka, txuri txuria, gain batean, erne. Antxen bein izan nintzan txistulari baten berriak jaso nai nitun eta jeixterakoan, Olaguen, ikastola ikusi nuen.

Iruña'tik Belate'ra goazela eskui aldetik agertzen zaigu egi batean, alaitu, Arizu'ko erri txuria. Ezin gelditu begiratu gabe.

Erria berez ez da ezaguna baiñan bai Arizu'ko txistularia. Lanz'eko bazter oietara urbildu ezker, Arizu'ko txistularia zanaren izena besterik ez genuen entzuten. Erri guzti oiek, orain dala berrogei urte, berak alaitzen bai zituen euskal doñuz. Euskal giroak napar mendi alde ontan, zor aundiak dizkio txistulari oneri. Orra nun, txistulari onen aztarnen billa nenbillela, ezagutzen dudan errixka zoragarri au.

Gure txistulariaren izena Pedro Migel Arizkun zan, berez Esteribar'koa, Iragi'ko semea. Ezkonduta etorri ziran bizitzera. Beizaia, unaia bezala ateratzen zuen bere bizia. Uztegi ere egiten zituen eta San Urbano egunean saltzen ibiltzen zan. Txistua jotzen, erriz erri festetan zebillen. Ordaña bezala oblatak eta piper opillak ematen zizkioten. Ba dira ogeita bost urtetik gora il dala. Borda batean bizi zan eta orain utsik dago. Bertako illerri txikian obiratu zuten. Zer egin ote dute bere txistua ta tuntunakin?

Arzeki mendi egalean ezarria dugu errixka txuri au. Etxeak sendoak eta zabalak ditu. Amar sendi bizi dira. Ikullu ederrak dituzte. Len ba zeuden maisterak; batzuek bordetan zegozen. Bei batzuekin eta oyanetan lana egiñaz ateratzen zuten bizia. Aiek iri aundietara lanera joan ziran. Nagusiak artu dituzte maisterren lurrak eta orrela beren bizibidea indartu dute. Etxeak mendi lepoan egiñak daude ta eliza berriz egi batean. Parroki onek San Pedro'n izena dauka. Amazazpi garren gizaldiko aldare nagusia du. Bazterreko aldare batean

dago 16 garren gizaldiko irudia; Maria bere semea illa belaunetan daukala. Beste Amabirjiña zutik bere aurrekin, barrokoa ere ikusi nuen. Eliza au era bat berritua da.

Goi ortik ikusten dan ikuspegia ezin aztu. Izadia edertasunez jantzia agertzen zaigu ta tokia osasunarentzat ezin ohea. Baso galantak inguruan ikusten dira. Erri au oso aberatsa dugu. Urtero milloi erdi bat pezeta ateratzen dute egurrarekin.

Ba nuen euskara nola zebillen jakiteko gogoa. Aita Olazaran'ek noizbait esan zidan gure izkuntza eustearren ikaragarritzko borroka euki zutela apaizak eta maixuak. Berexitasun guzti oiek jaki nai nituen. 74 urteko gizon sendo batekin topo egin nuen, berez euskaldun garbia, izena Juan Migel Iraizoz dauka. Gizon jator oneri galdetu nion, nola galdu zan euskara. Garbi asko esan zidan: «Eskolan egitea debekatua zegoen. Gazteak ere euskarari irri egiten zioten. Orain dala 60 urte, Anue'ko Rafael Olabe apezak Kristau ikasbidea ta itzaldia danak euskaraz egiten zituen. Aren ondotik etorri zanak Jose Maria Lizaso Iraizoz'koa erdiz egiten zuen. Epifanio Santxo Zubieta'koa irugarrena ta au euskaraz asi zan ta gero dana erderaz. Ba dira bost edo sei urte il zala. Onen garaian, maisu aragonesa euskararen aurka asi zan ume guztiak bere alde jarri zituen. Umeek ere erderaz nai zuten kristau ikasbidea». Ara itz gutxitan esana ikaragarritzko ipui laburra ta gogorra, guretzat. Maixu onek il zuen gure izkuntza euskal erri zoragarri ontan. Gorriak ikusiko zituen apaiza gizajo arek. Ez naiz arritzen gizaseme bateri entzutea, maixu aragonesa ura deabrua baiñan gaixtoagoa zala. Deabruak bakarrik egin bai ditzazke orrelako lan txarrak.

Gaur oraindik zarrak beren artean euskaraz mintzatzen dira. Gazteak berriz ez dakite. Urrikituak daude baiñan beranduegi.

Nere aiton onek bere ikullu berria ikustera eraman ninduen. Ez da nola-naikoa. Baserritar onek milloi pezeta sartu ditu gauza eder ori egiten. Ba dauzka berrogei bei ta amar migak eta egunero ematen dizkiote bosteun litro esne. Gurelesa'ko batzordearen kide dugu. Ez da arritzekoa. Lurra aberatsa izaki, lana egin bear eta onen bitartez etekiña naikoa ateratzen dute beren ikullu oietatik. Gure aiton au, jauntxo bat dugu, euskalzale jatorra, jakintsua ta gazte oraindik.

Principe de Viana euskal aldizkariaren alen bat artzen dute Arizu'n. 1958 garren urtean sei aurtxo zeuden erri ontan, oietatik lau euskaldunak.

Zorionez iru kilometrora Olague daukatela eta bertan ikastola. Merezi luke Arizu'ko aur txiki guztiak egunero Olague'ko ikastolara eramatea. Orduan aur txiki oiek eta beren gurasoak ikasiko lukete Euskalerrian bizi direla.

Gorago errege bidetik eskubira LANZ dago. Egun zoragarriak igaro ditut erri ontan, ezin dut burutik kendu, ezta ere ixilik utzi.

Iñauteri garaian, geienetan otsaillean, naiz elurra, ekaitza edo izotza izan, maiz Lantz'eko bidea artu dugu. Erri txuri ta argi ortan sartzerakoan moxo-

rroak oiuka irrintzi ta lasterka ikusterakoan, orrelako gauzik arkitu bear dunik ez du iñork uste ere. Ematen du oso urrutiko oituren aurrean gaudela ta etxe ondoan izaki, Euskalerrri bertan.

Negu gorrian iduri du Euskalerrriak bere barneko muiñak agertzen dizkigula ta orduan gure artean euskal kutsua ta giroa berez azaltzen da.

Austerre aurreko igande ta asteartean Lantz'en jai dute. Eguardi inguruan gazte sailla mozorrotuta ostatutik ateratzen da. Aurretik perratzailleak dijoaz; auek zakuz jantziak perratzeko tresnekin daude. Kanean bizpauru tokitan zaldia perratzen dute. Auen atzetik mozorroak, erdian, bat zaldiz aldatua bere buztan ta guztikin daramate. Zaldia lasterka atzera ta aurrea egiten du. Ondotik Ziripot datorkie, jantzi lodi ta bigunak ditula, lastoz betea, makil bat eskuan daukala. Gizon galanta au atzera eroritzen zaie ta bizpaurun artean aldiro altxatzen dute. Atzetik bizkar gainean mutil batek, Mielotxin arpegi gaiztozko ponpa galanta darama. Ponpa au, aundia ta luzea da; bi makillekin gurutzea egin ondorean, antxe besozabalik, Mielotxin lapur gaistoa jazten dute. Azkenak txistulariak; aspaldiko urte auetan Arizkun'go Maurizio Elizalde, bere doñu alaiekin datorkie.

Igande ta astearte eguardian, bi aldiz kaleko ibilliardia egiten dute ta frontoian bertako zortzikoa dantzatzen. Zortziko au, bertakoak «aurre» izenekin ezagutzen dute. Astearte illunabarrean berriz, beyei bazka ekarri ondorean azkeneko agertaldia egiten dituan daude. Enparantzaren ertzera iristerakoan, mozorro batek bi tiro Mielotxin ponpari ematen dizkio ta lurrera botata, larrutu ondorean alaitasunean, gorriak esanez erretzen dute. Ondorean, bertako zortzikoa erriko gizonak eta mozorroak nastuta aspertu gabe dantzatzen, dabilza. Azkenean berandu arte ostatuan erromeria.

Egun ortan sekulako bazkaria egiten dute gazteak. Ezin duguna ain errez aztu, mozorroen jantzi argiak ta margo biziak, baita oiuk, disko batean beste iñun Euskalerrriko Egoaldean, emen bezalako iñauetik. Bizpauru gai ezberdiñak ikusten ditugu, gaur danak batean agertzen zaizkigunak; Euskalerrriko aintziña garaiko oitura berexi batzuek, nai ta naiez orduko gizonentzat esan nai aundia zeukatenak eta gureganaño jai arrigarri batean irauñ dutenak. Garai ezberdiñetako oiturak daude danak batean bilduta. Nunbaitetik ariari elduko diogu. Elurrak beratzen asten diranean, mozorroak agertzen dira baita arkumeak jaiotzen ta ardiak etxetik ateratzen. Aspaldiko garai zarretan artzaiak basoko indar guztiak bereganatzeko opari bat eskeintzen zien, orrekin bera pakean uztearren. Orrela, uste dugu mozorroen oitura jaioko zala.

Mutillak mozorroen antzera aldatuta, basoko indar izkutuei oparia eskeintzeko puskek biltzen asiko ziran. Mielotxin izan leike basoko indar txar guzti oien buru izatea, lendabizi bereganatu nai dutena ta azkenean ondo eutsita daukatenean, il ta sua ematen diotena.

Bigarren gaia agertzen zaigu. Zillegi da gogoan eukitzea, gure mendietan, aintziñako garaietan, gizona artzai bezala, bizi zala. Lurgintza sartu zanean, nai ta naiez artzaita nekazarien artean ikaragarritzko eztabaidak sortuko ziran. Artzaiak baserritarrari parra egingo zion. Giro ortan artu bear ditugu, perratzailleak ta zaldia menderatzea. Ziripot gizon galanta orrek; danak parra egiten diotena, gaizu orrek zer esan nai ote du? Izen orrekin griego zarrak gizonkiaren sasi jainkoa agertzen zuten. Indar berriak sortzen diran garaiak oraintxen dira bai, baiñan ain aundia arkitzen dugula, txikiratua dagolako ote? Orrela, berriz, artzaiak baserritarrari parra egiten diola, esan genezake. Auxe da garbi dakiguna; bizi bizirik dagon jai onen bitartez antziña garaiko gizo naren oiturak ta oroitzapenak ezagutzen ditugula. Orrengatik dira ain sakonak jai auk eta zer esan nai aundikoak. Ori ikusita guretzat, amets baten bitartez izan balitz bezala, aspaldiko garai aietako zati batean bizi gerala uste dugu. Orrengatik jakintsuak ain gogoan dauzkate Lantz'eko iñauterik. Euskalerrriak, erri txiki onen bitartez gure mendietako aritz zarren antzera bizirik dauzka bere enda zarraren zaiñak. Auxe da gure aberastasun aundia, ludiko jakintsuk bizirik eukitzea eskatzen digutena.

Danak dakiguna da, erri oneri bere iñauterik izen aundia eman diotela. Gure azkeneko anaiarteko guda aurretik bizirik zegoen oitura au ta inguruetako errietik ikaragarritzko gaztedia biltzen zan. Orduan Pedro Miguel Arizkun, Arizu'ko txistulari bikaiña zetorkien. Gerrate ondorean iñauterik debekatu zituzten. 1943 garren urtean baimena berexi batekin egin zituzten bakarrik Julio Karo Baroja gizon jakintsuaren bitartez; 1965 urtean berritu zuten. Urrengo urtean xeetasun guztiak ondo bildu ta, pelikula bat egin zuen. Ortaz ondo oroitzen naiz; antxen giñan gizon sailla, Jose Maria Iribarren, Maria Elena Arizmendi, Manuel Lekuona eta abar. Diputazioak ere amabost milla pezetakin laguntzen die. Gaur ludi osoan ezagutzen dute ta merezi du ikustea. Ia urtero ikusten dugula, aldiro ederragoa iduritzen zaigu. Lantz'eko iñauterik gauza ederra ta arrigarria dira, Euskalerrriarentzat. Gizaldietan oitura au gorde duten gizonak zerbait berexia dutela aitortu bearra dugu. Azkarrak, indartsuak, alaiak, langilleak eta gogorrak dira, baita arrotzari arrera ona egiten dakitenak. Izen batek, ez die asko lagundu, Lantz'eko lapurrak. Emen bizi ziran guarda batzuek, gizonak zaindu bearrean, ikaragarritzko eriotzak egin zituzten. Gertaera ura Iribarrenek erderaz jaso zuen; lapur aiek emengoak etzirala Lantz'ekoak diote.

Emengo gizonen izakeraz, bein erri ontan entzundakoak zerbait esan nai du. Orain urte mordoxka gotzaia etorri zitzaien eta joaterakoan zerebillan sartu zanean, alkateak bere laguntzailleari esan zion euskaraz «saldu diagu astoa».

Erria oso polita dugu. Belate'ko bidetik bizpairu kilometro egiten ditugula, eskubira dago. Zelai batean, landa ta soro ederrez betea arkitzen dugu. Aurrena, eliza agertzen zaigu gero kale luzea, bizpairu enparantza, beste aldera erreka



Perratzailleak Lantz'eko iñauterietan.

ta zubi zar bat gaiñean eta inguruan mendiak ipar aldera batez ere. Antxe zegoen naiko txuri Okilin tontorra, auntzaxeago Satoa. Len galtzara zarra bertatik zijoakion Belate'ko lepora. Gaur esan dugun bezala errege bidetik baztertua dago. ELGANBO burni urezko urak ditun iturria aipatu bearra dugu. Nunbait burni ugari izaki mendi oietan.

Eliza, dorre sendo luze batekin arrosa kolorezkoa da. Kornelio ta Zipriano santuen izena darama. Aldare nagusian Santa Barba'ren iduri barroko ona dago. Bataio ponte zarra erromaniko gotiko bitartekoa dauka ta koru azpian egurrezko illen etxolak oso politak daude.

Orain erri ontan 44 sendi bizi dira, 170 bizilagunekin. 1910 garren urtean 344 bizilagun zituen. Beti eltzetzo asko bizi ziran. Baserritarrak aberatsak ditugu; etxe bakoitzean 30 bei inguru. Ba daude 30 berebil berri berriak. Gaiñera baso aundiak dituzte. Gazte batzuek Ultzama ta Iruñan lanean dabilte.

Aspaldi Teobaldo II erregeak Iruña'ko San Fermin auzoaren lege berexiak eman zizkion 1264 garren urtean.

Emen erri ontan 55 urtean erretore bezala egondako apaiza, euskaldun idazlearen izena, aipatzea merezi du, Erasmo Garro Lekunberri'ko semea. 60 urte apaiz bezala bete zituen eta Lantz'en. 1965 garren urtean il zan. Argia ta Zeruko argia aldizkarietan euskaraz idazten zuen. Iruña'ko apaiztegrua euskara erakastera gerra aurretik eraman nai izan zuten. 1930 garren urtean takigrafian idazten ondo ikasi zuen. Eiztari ona genuen. Bere etxeko atean Jesusen irudia euskarazko egurrakin egiña ipiñi zuen, oraindik antxen dagona. idatzia. 1935 garren urtean elizkizunetan, goizean oraindik itzaldiak euskaraz egiten zitun; eltzetzo asko nola zeuden Meza nagusia erderaz izaten zan. Garizumako kristau-ikasbidea zarrei beti euskaraz ematen zien. Euskaraz elizan asko abestutzen zuten; aurak berriz erderaz. Azkozez geroago oraindik, Amabirjiñari euskaraz kantatzen zioten, baita gurutzbidea kalean; «Egizu zuk Maria» kanta, askok dakite gaur oraindik. Erretore onen illobak, Diputazioan goi maillan lana egiten duan gizonak, esaten zidan: «Nere osabak asko maite zuen bere erri au». Orrelako gizonak bai eman diotela bizi aberatsa erri txiki auei.

Eta euskara nola dago gaur? Urte txarrak nola izan ditugun, era bat makaldua. Emen, beti, 10 edo 12 eltzetzo zeuden ta aiek galdu dute euskara. Adiñako gizasemeak danak ba dakite. Zarrak musean euskara ibiltzen dute jolasten. Gazteak ikusten dituztenean, zerbait ulertzen dutenean, parra egiten diete. Principe de Biana aldizkaria batzuek artzen dute. Zarra oientzat euskarak indar aundia du. Pertikena etxeko Eusebio Inintak, bezperatara elizara joan ta lo artu ondorean, ametsetan ala omen zion: «lau enbido. Ordago, iduki». Ondoan danak parrez, jakiña.

Aurak ta gaztetxo geienak, euskaraz ez dakite ezertxorez. Gipuzkoar sendi gaztea bizi da ostatuan era bat euskaraz mintzatzen diranak. Gizona artzaia Egozkuen zegoen.

Bere inñauterik gordetzen ditula, erri onek, Olaguek ondoan egin duna, euskara berpiztutzen alegindu bear luke.

Goiko lepotik, piñudi gazte batetik, bide garbitik jetxi giñan. Gure aurrean sail aundian mendia larratu dute ta luberriak egin; arte saillak eta belar berexiak. Langilleak ikullu berria galanta bukatzen ari ziran. Burni sarek ondo itxiak zeuden lur zabal aiek. Erreka igarotzekoan, zubi gaiñean bi gizon zeuden izketan. Nor ari zan ikullua egiten, galdetu nien: «Amezketako Karrera izeneko Gipuzkoano bat». Oneraño etorri danean zerbaiten irabazia ikusiko zuen. Errian etzekiten oraindik nor ibilliko zan lur oien buru bezala. Alde egiterakoan, gizon aietako batek oiuka galdezka asten zaigu: «Pernando Amezketarra nor da?», «Bersolaria, ipuizalea, Gipuzkoa'n oso ezaguna»: esanta utzi genituen.

Olague bertan genuen. Lenagotik erretora ezagutzen nuen eta baezpare gure bidearen berriak galdetu nai nizkion. Atea jo bezin azkar goiko leyo luzean zen. Gelditzeko asmorik ez genula agertu genion baita gure naia azaldu. Egozkue'ko bidea artu arte lagundu ginduen. «Orko bidea erakutsiko dizuet. Ba dakit emengo artzaiak Esteribar'era ortik dabilzala. Burutain zuentzat oker gelditzen da...». «Urrengo arte esanaz» utzi genuen. Bero aundia egiten zuen. LEAZKUE, gure aurrean, gain batean; Eliza ta bizpauru etxe, besterik ez. Eskubi aldera berriz, Etxaide'ko gaztelua, aritz tartean mendi tontorrean, arranoen kabia dirudi. Ezker aldean berriz, an goien Usetxi'ko mendia, agiñan antzera arkaitza agirian daukala. Esteribar'en bazkaldu nai gendukean eta urrutixko oraindik, gainera bazter aiek ez nituen batere ezagutzen eta mapetan ez nuen ezertxore garbirik ikusten; mendi galantak bai, baso itsiak eta gure buruan illuntasuna. Goizetik ezer edan gabe geunden, eta egarriz itotzen. Gure errege bide luzearen muturrean elizpean etxe bat ederra, ate zabalekin. Bide txarrena, len bait len, egiteko. Arin ginjoazen. Zorionez etxearen atarian aita semea traktorea konpontzen, gizonak 40 bat urte, semeak 10 en bat. «Jaunak arratsaldeon» euskaraz guk. Gizonak irriparez «emen ez dakigu euskaraz, ez dut ulertzen». Erderaz Esteribar'ko bidea ta ura eskatu genizkion. «Ba al dago emendik bidea?», nik berriz. «Artzaia egunero ibiltzen da ta guk ere ardiak genituenean goi artaraño joan bear izaten genuen egunero. Zuek orain entzun eta iritsiko zerate. Begira, atzean,

ezker, traktorearen bidea duzute. Gero bidexiorra, gora lendabizi zuzenean eta geroxeago ezker aldera sartzen dana. Beti eutsi bidexiorrari. Pagadi ta arkaitzetara aterako zerate andik lepoa bertan duzute. Goitik beste aldean borda ageri da ta an dagon pixta artu ta Leranoz berealaxe daukazute». Semeak aitari esaten zion: «Aurreko baso ortan galduko dira, oso itsia dago ta bidaxkaren urratsak zaillak dira ikusten». Baezpare bizpairu aldiz berriro esan arazi nion gizonari gure bidea gogoan ondo artze arren. Aurra uran billa joan zan. Gu berriz eserita indarrak artzen. «Zuek euskaldunak?», dio aitak; guk ez dakigu zer dan euskara... Astia galdu nai ez ba duzute, «de bixkar en bixkar» aterako zerate goiko lepora». Erdaldunak izan ba giña, naiko lan «bixkar» izen ori ulertzen. Iturriko ur otza edan ondorean mendira berriz atera giñan. Bidea ezagutzen ez dun batentzat ainbeste ezker eskubi ta zuzen, gogoan artzen zailla da. Gauz bateri bakarrik eutsi nion «de bixkar en bixkar» esanari. Ara euskal itz jatorra erdaldun baten aoan.

Nai ta naiez mendi bizkarrari begirik kendu ezin. Eskerrak bi aldiz eman ez eguadiko 12'40 tan laster bidean giñan. Lendabizi aritz tartean, gero piñoak, ia goi xamar pagadia ta goien arkaitzak. Leporaino iru ordu laurdeneko bidea genula zigun gizonak. Ordu bat soillik sartu genuen. Pozik geunden. Giroa zegoen lepo artan! mendi saillak alderdi guztietan ikusten ziran, aizea goxoa, itxuraz eguzkiak etzuen jotzen. Gure gainean ezker Irunken bizkarra. Beste aldean, azpiko aldean, antxen genuen borda. Araño joan bear.

Esteribar'ko lur nabarretan

Jeixterakoan gorputz osoan min artzen genuen eta belaunen gainean zutik ezin egon. Mendiko belar zikiña igaro ta aritz bakan luze batzuek, tente ta sendo. Aien ondolik oraindik jetxi ta zelaitxo batean borda ederra, belazea ta basoa. Aritz zar lodi batzuek begira gelditu giñan. Ondoan bide zabala genuen. Eskubi aldera artu bearrean, ezker joan giñan. Putsu loitsuan il zan bidea ta andik aurrera bidaxka. Baso illunean sartu giñan, makurtuta ibilli bear elorrien arantzen-gatik, burni sarezo etsi bat igaro ta basoa zerbait argitzen zala ikusi ondorean, ertzeko bazterretik begiratu nuen eta baita oartu ere bordaren belazearen beste muturrean giñala. Nai gabe baso artan galdu giñan. Berriz atzera lokatzaraño; an goruntz igo ondorean, bidaxka bat arkitu genuen. Basotik atera ta mendian zear gora aldera jo bidaxka estu batetik. Olako batean, beko aldean piñu ugari lurrean botiak, eramateko prest ikusi nituen. Enbor aiek kamioian eramateko zai izango ziralakoan, bururatu zitzaidan. Goitik bera, al genuen bezala, anka, esku, makil eta ipurdi ganean jetxi giñan. Enbor aiek etziran nolanaikoak. Ondoan kamioiaren bidea genuen, zabal zijoan lendabizi goitik bera, gero erreka bazterretik eskubi aldera. «Emendik norabait aterako gera», nion nereko: erria ez dugu oso urrun izango». Orrelako batean erreka inguruan zelaia, putzuak, gero ta aundiagoak eta bertan gari soroak ebakiak. Bira batean bizpairu etxe ta eliza. Gure aurrean gurdia zaldiakin dator, mutil bat atzetik, gu ikusterakoan izkututzen da. Bide ondoan etxe zarra, erdiaro garaiko gazteluaren antzekoa. Sarrera arku borobillakin, arrizko dorrea mendi aldera ta erri aldera berriz leioak eta balkoi luzea. Gizon bat beor


egoki batekin dator. «Erri onen izena nola da?», nere jakin naia azalzen diot. «*INBULUZKETA*». Mapan begiratzan dut. Jakiña, ez genuen orrera sartzeko asmorik. Artu bear genuen bidea etzala ura oartu nintzan. Inpernu artatik atera giñalako, pozik nengoen. Geiago ibilli bear, jakiña, bañan mendian galduta gelditzea bañan obeto. Lerra botiak zeuden toki artan eskubira jo bearrean ezker artu bear genukean.

Ustegabeko gertakizun onengatik Leranoz errixka ezagutu gabe gelditu ginan. Alde batetik nai gabetuta nengoen, errixka ori oraindik euskalduna baita. Adiñako gizasemeak mintzatzan dute. Euskarari buruz errixka ortan berri politik jaso genezakean. Gaiñera ipar aldera ba daude ondoan beste bi erri txiki ta Usetxi euskara gorde dutenak eta orko berriak jakiteko asmoa neukan. Ezbearrak aginduta esku utsik, beste baztarretik alde egin genuen.

«Emen, euskaraz egiten al da?, beorzaleari galdetu nion. «Euskara emen gutxi» ango gizon arek ba daki Oskoz'koa da». Gure gizona Zamoranoa izaki: euskaldunaren morroi zarra. Eliza bazter batean murgilduta dago, dorre erromanikoa agerian daukala. Iturrira joan giñan egarria kentzera. Ura otza zan, guretzat gozoa. Arpegia ere ondo busti genuen, karreteraz errege bidera abiatu giñan. Urak loditzen zijoazten eta erreken bazterrean urritza. Bizpairu tokitan arrantzaleak zebiltzan gora ta bera ixilka, ezkutuan. Mendi tarte estu batera iritxita, berebil otsa entzuten genuen. Motorraren otsa bertan zan. Berealaxe Frantzi'ko errege bidean giñan. Guretzat uste baiño beranduago, bañan toki jakinean. Emen ezin ibilli geiago galduta bi orduz luzatu genuan bidea. Ez da atzeraka aundiegia. Antxen genuan Larrasoana'ko bidekruzea. Errixka au eskubi gelditzen zitzai-gun, guk ezker joan bear Zubiri'runtz; asieratik erri ontan bazkaltzeko asmoa nuen.

LARRASOÑA, ezker uzten dugun erriari buruz, merezi du bi itz esatea. Iruña'tik 15 kilometrorra dago; erri txikia baño luzea da. Karrika erditik dijoakio ta etxeak bi aldetara ditu. Ementxen zijoan Santigora bidea. Erri zarra da, erdiarokoa. Papera zarretan agertzen danez; 1072 urtean monastegi bat zegoen eta buruzagi Aznar aita nagusia. Eliz gizon onen gaiñ, Santxo IV garrenak, Naparroa'ko erregeak bere alabatxoa Urraka'ren eziketa utzi zuen. Gogoan eukitzekoa da, Urraka amaika garren gizaldiko izen au, Illaregi'ko etxearen berdiña dana.

Naparro zarreko iria genuen eta 1239 garren urtean, erresumaren erri batzar nagusia ementxen bildu zan, gaur txokolateroena dan etxean.



Imbuluzketa'ko erdiaroko etxea.

Erdiaroan gaxotegi ezaguna zeukan, toki ori, eliz ondoan dago. Eliza ere zarra da erromaniko gotiko bitarte ortakoa. Dorre sendoa dauka, atea arri landuzkoa ta barrenean San Nikolas'en irudi gotikoa eserita. Santu onen izena darama Parrokiak; 240 gizaseme bizi dira, nekazaritza ta Zubiri'ko olategi berria dauzkate bizi bidea.

Urtero erromeria maiatzean 15'an daukate, Basagaitz'ara Anue'ko ibarrakin batean. Len baso ta mendi asko zeuzkan. Oraindik noiztik bein egurra ESNOZ menditik ateratzen dute. Arga ibaia atzeko aldetik dijoakio. Berririk politena oraindik, gutxi gertatu dana: 1973 garren urtean, aurten bertan, ilbeltzan, ikastola iriki dutela. Zubiri'n gauza bera egin zutelako emen gutxiago ez izaki. Izan nintzan ikusten; 7 aur zeuden Orbaizeta'ko Arantxa andereñoakin. Aurrak pozik zebiltzan lurtean jolasten eta andereñoarekin euskaraz abesten. Ikastolako buru egiten duna Sueskun jauna da. Gurasoak illero 100'na pezeta ordaintzen dute. Gainerakoa Diputazioak ematen du. Euskalzaletasuna pixteko lenengo urratsa eman dute ta ez da gutxi. Zubiri'ko ikastola berritzen dutela emengo ikastola itxi ta aruntz eramango dituzte: ikastola batentzat aur gutxiegi daude ta.

Zubiri'runtz bidea artuta berealaxe errixka bat genuen, Urdaniz izenekoa. Berandu zan, bazkaldu gabe geunden ta arratzaldea aurrera zijoan. Egarriz berriz itotzen. Bide ondoan zegoen edantoki batean sartu giñan. Toki estua, amaika basa pixtien larruz eta buruz apaindua. Antxe zeuden erensuge, kokodrilo ta beste pixti. Edantokiaren izena «El Castellano». Nagusiak esan zigunez, Ameriketari ibillia, berez Zamoranoa noski. Ez dakit zergatik eltzetzo izandakoaren antza eman nion. Gainerakoan, zailla da ulertzen zer egiten dun emen, Naparroako ipar aldean Frantzi'ko bidean. Berriz garagarra limonadakin nastua edan genuen eta astirik galdu gabe aurrera. Beranduxko genbillen.

Magnesitas olategi berria kea dario gure aurrean. Luze egin zitzaigun ZUBIRI'raino; kilometro bat zegoen baiñan ematon zuen etzala bukatzen bidea.

Arratsaldeko 6'tan sartu giñan «Baserri» izeneko jantokian bazkaltzera. Nagusia euskaldun jatorra, gu ikusita arritu zan. Ezigun ezezkorik eman. Berealaxe ekarri zigun zerbait jateko; ensalada, urdai azpikoa tomatearekin eta meloia. Edaria betikoa, pitxer bat garagar-doa gaseosakin. Lasai bazkaltzen mai txiki batean ari giñala, EUGI'ko autobusa Iruñatik zetorren. Gazteak eta gizonak edatera jetxi ziran. Euskal kutsu aundiakin erderaz egiten zuten; itz bat bestea baño lodigoa botatzen zuten. Orain, basatia; gero izorratua. Dana potruen

kontua: Pitua gora ta bera. Gazte aundi bat geldirik ezin egonik, bateri besotik artzen zion, besteari urdallatik, beste bateri barrabillatik. Batek esan zuen erderaz, auxe duk Eugi'ko euskalduna. Auek dituk mendiko ixko basatiak nion nere baitan. Txoferra etorri zitzairen bazijoala esatera ta antxen joan ziran autobusean mendi aldera.

275 pezeta bien bazkariengatik ordaindu nuen eta berriz irten giñan.

Zubiri lenagotik ezagutzen nuen; egun osoa emengo euskal giroa ikustera etorri nintzan. Iruña'tik Orreaga'ko bidean 20 kilometrora dago. Esteribar baillarako erria da. Bi gauza ditu, deitzen nindutenak; bat Arga ibaiaren gainean zubi zarra gotikoa, bestea ikastola. Zubia lenagotik ezagutzen nuen, ikastola berriz mirari bat zeritzaidan. 1972 garren urtean azaroan 20 aur asi ziran, Maite San Roman Goikoetxea andereñoakin; berez Urdiango neska. Silberio Billanueva, Auritz berriko semea emen maisu-buru zebillena ibilli da euskararen alde lana egiñaz; gurasoak biltzen eta ikastola irikitzeke bidea atontzen. Azkenean lortu du ta SANTARNEA etxean iriki dute. Etxe zarra, egur eta buztin errez egiña, bainan bai garbia ta kutsu aundikoa. Andereñoarekin aurrak pozik eta alaitxu sartzen ikusi nitun. Orain ikastola eskola zarretan irikitxekotan dabiltz. Larrasoane'ko Arantxak, Iruña'ko Diputazioaren ikastaroa egin zuen eta orain Zubiri'ra aldatu da. Maite berriz ikasketak amaitzera joan zan. Gurasoen batzordeak bere gain artu ikastola ta zuzendarien artean, bizpauru erdeldun etorkiñak daude, beren aurrentzat euskara nai dutenak. Silberion bitartez iriki zuten Larrasoaña'ko ikastola. Aurrak, berebillez «baserri» jatetxeke nagusiak ekartzen ditu.

Mutil gazte au Ipar Ameriketari artzai ibillia, Erroko semea da, baserri batean jaioa ta euskara arront ongi dakina. Ikastoletako aurren gurasoak 125 pezeta illean ordaintzen dute, gainerakoa Iruñako Diputazioak. Esteribar'en orrela gauzak aldatzen ikusiz, egitazko mirari bat dalakoan nago. Erri onek 1910 garren urtean 138 biztanle zitun; 1934, 250 biztanle ta gaur 650. Orain dala 20 urte iriki zuten Iruña'ko bidean lantegi berria ta antxen dabiltz 300 langille. Eugi'n arria arrobotik ateratzen dute ta Zubiri'ko olategian txikitu ta autxa egin, kaira zuzenean eramateko.

Eliza berritu dute. Txikia da, 17 garren gizaldikoa. Amabirdaukate ta gizaldi berdinaro zillarezko gurutzeta, bataio ponte gotikoa. Erri inguruan aspaldiko etxe zarrak. Mugatik gatozela berriz etxe berriak bizpauru bizitzakoak egin dituzte lorategiz inguratuak eta aurrentzat jolastokiekin. Erri buruan bertan etxe aundin bat ikusten da.

Erretora agurtzera izan nintzan. Ibai onduan du etxea. Anka moztu diote ta gaxorik arkitu nuen. Berez euskalduna da Eugi'koa. Alde egiterakoan esan zidan «Ba zazi?» Bere aita Jose Iribarren Illaregi txistularia zan eta etxe ontara semearekin orain dala 20 urte bizitzera etorrita, 78 urtekin il zan.

Euskara aspaldi utzi ta aztu zuten errixka ontan. 1934 garren urtean, zerreri bat zegoen ta gipuzkoar euskaldun batzuek lana egiten zuten. Gaur inguruko euskal erritik, 7 sendi etorri dira bizitzera.

Asieran ikastolakin otz xamar zebiltzan, orain berriz ikastolan aurrak pozik joaten ikusten dituztela, ze balio aundia dun ikusten ari dira.

Erri ontara inguruetakoa 7 erriko aurrak nola eskoletara biltzen diran, ikastetxe berri ontan euskarak toki berexi bat euki lezake. Azia erein eta landarea jaiotzen asi da. Nork ikusi oraindala 20 urte gaurko euskal giroa? Zubiri'ko mendiak margoz garbi xamar ikusten dira.

Begi bateko arrizko zubia igarota, mendi aldeko galtzara zarra artu genuen. Arratsaldeko 7 ziran. Anakak berotu arte aldapa gora, gogor xamar egiten zitzaigun. Ebi erausiak gure galtzara, erabat alderdi guztietatik urratu du noizbait ta ondoan ezpatakin bezala, bizpairu ebaki luzeak egin ditu.

Egi batera igota, bidaxka, ongi xamar iraun dula ikusten da; zenbait tokitan larrak itxi du. Bira bat eginez goi xamar aterata, ez da zailla abiadura onean ibiltzea. Belaze batzuetara atera giñan ta tellatu bat zugaitz tartean ikusten zan. Ura «Benta Zarra» zala uste nuen. Orain dala amasei urte Donibane Garazitik Iruña'ra oñez nentorrela, errege bidea moztutzeko, emendik jetxi nintzan, gaiñera bazkal ondoan inguru ontan lo kuluxka ere egin nuen. Urte asko ziran eta oroitzapena erdi urratua nuen burutik. Borda utsik zegoen eta tellatua erdi eroria. Biderik ez genuen ikusten, guk artutakoa baizik. Berriz atzera egin bear eta jetxi bearrean ezkerreta gora zijoan, laster bidetik atera giñan. Erro'ko benta zarra bertan genuen; etxe galanta ta eder ura, ixillik, utsik eta ate leyoak irikita zegoen. Benta zar onek itz egingo ba lu, Naparroa'ko aizearen jira birak obeto ezagutuko genituzke. Alderdi danetik begiratu bat eman nion, bizpairu argazki atera ere. Eguzkia sartu zala ordu erdi bat izango zan. Argi motel arekin etxearen irudia illun xamar atera zitzaidan.

Erroibar'ko aize xuria

Gurdi bide ederra genuen, langa irikita pinudi batean ginjoazen. Oian artan illun. Andik Erro'ko lepota atera ginan. Begipe eder ura ikusteko zelai bat egiña dago; arri bat erdian, 801 metro jartzen duna. Sartaldetik itxaso bezala mendi tontorrek urdin illun, gure aurrean; ibar zuloan gaba. Zerua argiz beterik. Errege bidean giñan berriz. Nik, Erro'raiño bide motza zala uste, baña oso luze egin zitzaigun. Bide biurretan etzan ezertxore ikusten, linternak pixtu bear. Gainera berebillak abiadura aundian zetozen eta ustekabean, gañean genituen; gure eskuko argiarengatik gutaz nabarmentzen ziran. Noizbait ikusi genituen *ERRO*'ko argi bakar batzuek. Aldapa jeixten ari giñan. Gain batean, illuntasunatik, zeruko argiak eliz zarraren irudi autsia agertzen zigun. Eliza eroria ikusita min ematen zidan. Errian etzan tutik entzuten, denak etxetan zeuden, ziur asko afaltzen.

Ate bat ikusirik, morrolloa jo genuen eta apaizaren etxea. galdetu. Mutil koxkor batek lagundu ginduen. Apezetxea irikia zegoen, gizon moztaka bat atera zitzaigun, berez Gesalaz'koa, ez nuen ezagutzen; bi urte daramazki Erro'n. Gure jokabidea agertu nion eta meza emateko naia. Etzuan eragozpenik agertu. Elizara lagundu ginduen. Gabeko 9 laurden gutxitan eman nuen meza. Gorputzako alderdi guztietan min, etzuan nere soña zalarik asko ematen. Ostatur nion galdetu nion apaizari. Errege bide ondoko etxe batera eramandu ginduen. Erretoraren bidez etxe ura iriki zitzaigun. Guretzat ba zuten tokia. Bi gela eman zizkiguten; jantziak erantsi genituen eta garbi gela zuri ta otz batean urintza artu nuen. Espadadrupoak kendu ondorean oñak uran goxatzen euki nituen. Egia zanik etzitzaigun iduritzen; bigarren eguna egiña. Apaltzeko arroltzak prejituta urdai

azpiko gordiñakin, igalia ta kafesnea eman zizkiguten. Oi zabal batean etzanda, lo illik banintz bezala egin nuen.

Urrengo goizean goiz jeiki giñan. Egun ontan Artziber zeartu bear genuen eta mendi zakar aietan galtzeko beldurra burutik ezin kendu.

Aparia, lo egitea ta goizeko gosariarengatik, biyontzat, 200 pezeta kendu zizkiguten. Egitan sari merkea; 25 pezeta geiago eman nizkion.


Eguzkirik etzan oraindik ageri. Oñetako lodiak jantzi ta, irten aurretik, leyoetik erria begira egon nintzan. Ezker eliz zarra erromaniko garaikoa eroria, eskubi eliz berriaren dorre zorrotza. Askotan izan naiz erri au ikusten. Azkeneko aldian Apeztegia erretore zegola, gaur Lekaroz'en dagona, liturjizale amorratua. Eliz zarrak konponketa baten bearra zeukan eta enparantza ondoan berria pentsatu zuten egitea ta zarra erortzen uztea. Dirua errikoetxeak ugari euki ta ala erabakita egin dute. Eliz berria ez da bitxi berezia ta zarra betiko galdu.

Orain dala bizpairu urte euskararen alde etzegoen girorik. Zar batzuek egiten dute. Azkue ibilli zan emen kantu zarren billa ta baita bildu ere «Zorabiatu naiz» Pedro Elizalderi artua.

Guda aurretik Iruña'ko «euskeraren adiskideak» euskal jai bat egin zuten, baita aurrei sariak banatu. Gaur gaztedia asi da pixka bat kezkatzen. Menkiriz eta Linzoan'go txistulari gazteak ikusten dituzte ibar ontako jaietan eta alderdi ortatik datorkie berriz euskal sukarra. Ibarreko erriekin batean urteko Orreaga'ra erromeria egiten dute. Emengo biltoki ezagunena Orreaga da. Santiago'ko erromeslariak erdi aroan ere emendik zeukaten bidea. Erromatarren garaian emendik zijoan Frantzi'runtz galtzara zabala. Teobaldo I, Nafarroako erregeak 1248 Fuegoak eman zizkion. Ibar ontako erririk aundiena Erro da. Basoko egurrakin urtero dirua ateratzen dute ta erria apaintzen alegintzen dira. Gaur oso garbi, txukun eta ondo zaindua dago.

Goizeko 7,20 tan atera giñan etxetik, zerua zabal zabalik, urdin, argi, eguraldi garbia, aize otza, mendiak bertan ta aurrean zelai orlegia, ongi bakanduta erri txiki txuriak. Erri txiki oiek, asko, urruti xamar gelditzen dira. Len gazte sailla danetan biltzen zan; gaur aur gutxi ta zar asko. Urrutixko Loizu ageri, goi xamar, gaur bi sendi, orain dala 50 urte «Alki dantza» dantzatzen zan.

Mapa eskuan artuta goaz. Alderdi guztietara bidaskak ditugu. Guretzat, batek bakarrik baliu du; *ESNOZ'*ekoa. Esnezalearen kamioak aurreratzen gaitu. Mendi aldera urbiltzen goaz. Gure errixa



Erro'ko bi elizak.



Esnoz herria Erroibar'en.

ez dugu ikusten. Aldapa bat igo ta goraño joan bear gure aurrean erria agertu arte. Lañorik ez, oskarbi, beti aize otza, ibiltzeko girorik onena. «Lirain» mendi gaillurra erri gainean basoz betea. Erria toki erosoan datza. Eliza zarra erdian, bizitza bateko etxe zabalak inguruan. Erro'ko etxe auei, bekonaparrokin antza eman nien; zabalak, bizitza batekoak, orma txuriak, zurak gorri edo orlegiz margoztuak, 10 sendi bizi dira, goiz da ta baserritarrak soroetara ateratzeko traktoreak garbitzen ari dira. Amairun bat urteko mutiko koxkorra ikusten dugu. Agurtu ondorean, euskaraz ba ote dakin galdetzen diogu. Irriparra ezpañetik ezin du kendu, «Emengo gaztetxoak ez dakigu; nere amak bai, bainan ez da emengoa, Mezkiriz'koa». Mutillaren ama agurtu nai nuen eta bere etxera abiatu giñan. Ondoan atarian ama etxe barrendik gure zai; nunbait gure alkarizketa entzun zuen. «Egunon etxeko andre; ara emen euskaldun batzuek». Elias Agorreta, Mezkiriz'ko erretora dan Ureta'ko semearen arreba izaki. «Zure anaiaren adiskidea naiz» Gosaltzera eman nai zigun baiñan guk gelditzeko astirik ez. Esnoz'en bizpairu zar daude euskaraz dakitenak, emakume au ta kito. «Urtean bizpairu aldiz jaiotetxean senide danak alkartzen geranean orduntxe egiten dut euskaraz, gainerakoan inguru auetan ez da euskaldunik». Prinzearena baserriko etxeoandrea dugu Kontxa Agorreta. Errixka ontan, gizaseme langilleak dira ta lanerako ondo alkartzen direnak; ikulluak berritu dituzte, belar zuloak egin eta belardi onenetakoak sortu. Orain dala 20 urte mendiko abel gorriak zituzten, gaur bei esnedunak berreundik gora.

Lusarreta'ra joateko laster bidea galdetu genion. «Eraman itzak goiko mendi leporaiño» bere semetxoari esanaz utzi ginduen. Gas-tetxoa auntza bezala, arriz arri jauziaz zihoan gure aurretik. Ura poza nere; mendiko bideak asmatzen ibilli bear ez. Artzibar'ko mendiei beldur aundia nien.

Zernai gertatuta ere armas itxi batean galtzeko zorian beti. Gero andik ateratzen kontuak. Erriak bai ezagutzen nituen ongi, mendiak berriz ez. Mutil onen laguntza, zori aundia zan guretza. Galtzara igo, belaze batzuetara atera giñan, mendiko lepoa esku ondoan.

Artzibar'ko mendi zakarretan

Aurrean, Aitzibar'ko mendi illunak. Lusarreta errixkaren tellatuak azpiko aldean bertan. Amar duroko sosa eman nion gaztetxoari ta Karlos Migel lasterka itzuli zan.

Zerua estaltzen asi zitzaigun, laño illun ta beltz batzuek gainean, mendi gallurak eskutatu ziran. Artzibarren giñan. Aurrean lau errixka ikusten genituen. Gure aldetik asita, eskubi Saragueta, ondoan esandakoa Lusarreta, ta bertzaldean, aurrean Arrieta ta Iriberrri.

Berealaxe, goitik bera, *Lusarreta*'n sartu giñan. Mendiko abel gorriak estalpe batean eta mutilla bei bat jezten. Orreoaren ondotik igarota, elizaren atzeko aldean ginan. Koru azpiko egur landuak ikusteko gogoa nuen baiñan, etzegoen gelditzerik, len ikusiak nitun. Errixka au ondo ezagutzen dut.

Ipete mendi azpian daukagu, Artzibarko ipar aldeko mugan dagon errixka txiki au. Gaineko aldian mendia, azpian basoak ditu ta egutera aldera begiratzen du. Erria aldapan daukagu; azpian eliza, gainean cxeak. Gaur bi sendi bizi dira. Orain dala berrogei ta amar urte amalau. Lurgintzatic ateratzen dute bizitza; batez ere abel gorriak dituzte eta lur sagarrak. Diputazioakin eztabaidetan dabiliz; baso kont tuengatik zerga ez diote ordaintzen. Diputazioak berriz basoak errienak dircla, esaten du. Ixtillu onengatik, indar argirik gabe daude. Diputazioak bidaltzen du bere morroia argi aria, nundik nora joan bear duen markatzeko ta errikoak, beldurrez, ez diote uzten. Orregatik argia gaur gasezkoa daukate.

Erri ontan ikusi dugu, eliza galanta ta oso garbia. Dorre luze bat dauka gotikoa, sarrera erromaniko garbia. Elizak Donezteben

izena darama ta barrena erromaniko gotiko bitartekoa dauka. Ondoam erretore etxea dago, bi bizitzakoa, ederra, utsik; au bai dala toki egokia ta paketsua udarako ikastola batentzat. Erretoraren etxeari, bertakoak abadia deitzen diote. Aldare nagusian gurutze gotiko bat dago. Bataio pontearen erromanikoa du. Ba daude ere irudiak errenazimientokoak eta barrokoak ain txarrak ez diranak, batez ere Doneztebe erdian dagona. San Anton eta Santa Barbara: bazterreko aldarean Errosarioko Amabirgina, zutik bere aurrakin. Korua eusten duten egurrak, bukaeran aldare aldera, gizon eta abere buru batzuek daukate. Nere iritiz Euskalerrian erri artea ezagutzeko ikusgarriak diranak: batzuek katu antzekoak dira, besteak gizonezkoak, auk egin zituen artilaria etzan nola naikoa, arpegi oiei ikaragarriko indarra ematen jakin zuen. Inungo liburuetan altxatuak ez ditut ikusi; ta merezi luteke egotea. Ikusterakoan arrituta gelditu nintzan. Sakristian ere gordetzen dute zurezko kopoi bat oso ederra dana, gotikoa. Nunaiko museon batean izango luke bere lekua.

Erri onek ba du gainera frontoi eder bat, oso atsegina dana. Pizina bat euki balu ondoan, a ze tokia oportetako. Lusarretan, gizaldi onen asieran, danak euskaraz mintzatzen ziran. Bein 73 urteko gizona batekin topo egin nuen, euskaraz itz batzuek bakarrik zekizkin: «Nola zare?» izan ziran arrera egiteko itzak. Bere gurasoak ez omen zekiten euskaraz kantatzen eta bera txikia zala apaizak elizan itzaldiak danak erderaz egiten omen. «Berriz ikusi artio» itz oiekin eman zigun bere azken agurra. Aspaldi artan, gurasoak aurrei dana erderaz mintzatzen zitzairen. Euskaraz egitea atzera joatea zala zioten. Gaur bizi diranak euskaraz ez jakitearekin mina artzen dute, baina berandu. Gainera Erro ta Baztango euskaldunak, beiekin zetoztenean, alkarrekin ulertzen zaila izaten omen zan, emengoak erderaz eta besteak euskaraz ari ziralako. Lenago beiak, Auritz'eko (Burguete) perira eramaten zituzten ta ardiak Urrotz'era.

Gaur, orain gutxi arte zazpi sendi ziran. Eliza oso garbia idukitzen dute, ikusteko modukoa. Egunero bi sendiak elizan biltzen dira errosarioa errezatzeko. Urte barrenean egin bear diran nobenak eta elizkizunak, berak egiten dituzte. Egunero elizako kanpaiak ezkila jotzen du. Oraindik erria bizi da.

Eskubiko aldeko beste errixka ez da nolanaikoa. Astia izanik pozik joango nintzakean. Ain txikia izateko ba dauzka bitxi eder batzuek elizan. Prinzipe de Biana aldizkarian azaldu nitun lan batean eta geroztik Esteban Uranga ta Satrustegi jaunekin ibilli naiz erakusten. Etzituzten ezagutzen. Diputazio'ko

berebillan txapel gorri batek ekarri ginduen. Uranga antxen ibilli zan argazkiak atera ta atera. Len ibillia errixka au ikusten, baina ol margoztuak etzitun nabarmendu.

SARAGUETA, Sagardai mendi babesean, egutera arkitzen da. Garai batean, orai berrogeitamar urte 19 etxe zituen eta 71 bizilagun. Gaur, lau sendi edo famili gelditzen dira erri bertan ta erregebide ondoan, Arrietako Benta, Artze ballara osoko alkatea bizi dan etxea. Garai batean garrantzi aundia zeukan Benta onek. Naiz Arrieta izena eraman Saraguetako lurretan dago. Bentako nagusiak, Saraguetako Elbarren etxe sendoan sortuak dira. Gaur Elbarren etxea utsik dago, erdi erorian. Emendik gutxira botako dutela entzun dut.

Ba daukate eliz eder bat gotikoa eta ondoan apezetxea, utsik jakiña. Gaur Arrieta'ko apezak darabilki Parroki au. Eliza oso garbia dago. Bizi lagun gutxi errian bañan ikusten da maite dutela. San Juan izena daramaki; sarrera polit bat du, gotikoa, alde bakoitzean bi abe mee ditula kapitela asiera batzuekin burutuak.

Eliz barrenean berriz, ba daukate antziñako gauz zaar eder asko; Kristo gotiko bat gurutzean bai bikaina; Ama Birjina eserita bere aurrea belau baten gainean jarrita ta koroi bat buruan gotikoa oso polita, bataio pontearen borobila elizaren garaikoa ta atzeko aldean zurazko sepultura bat «fuesa» deitzen diotena. Baina gauzik ederrena nere iritiz, aldare nagusiko ol margoztu edo pintatu batzuek dira.

Saraguetako eliza ikusten ari nintzala, leendabizi Ama Birjina ta Kristo gotikoa begira gelditu nintzan. Aldare nagusia XVII-garren gizaldikoa da, aldare nagusi ilun artan galduta bezala ol margoztu edo pintatu batzuek oartu nintzan ba zeudela; beltzatuak, oso gaizki ikustem diranak. Arrietako apaizen laguntzarekin igo nintzan aldarera, eutsi nion zurazko abe bateri ta jarri nintzan pintura aiek ikusten. Leenik konturatu nintzan ez zerala aldare nagusiaren garaikoak; zaarragoak baizik; Renazimientu itxurakoak. Gero, oso esku oneko lanak zerala iruditu zitzaizkidan; ez nolanaikoa. Pintura aiek ikusten ez nintzan aspertzen. Gero ta poza geiago ematen zidaten.

Bake osoan begiratzen nitula, oartzen nintzan oso artista on baten lanak zerala; onenetako batenak. Aurpegiak indar aundia dute. Izketan bizirik dirala dirudi. Margo edo koloreak ezin obeak dira; Ondo zabalduak, oso ezberdinak gainera. Jantzi apainak dituzte. Ba dago an indarra, bizitasun eta edertasuna. Arpegi ziurtasuna, indarra ta margo aien apainduragatik aleman ederti eskolen batekoak zerala iduritu zitzaizkidan.

Ola margotu oietako batzuetan ikusten dira gainera jendekiak zatika agertzen dirala. Garrantzi aundienekoak aurrez aurre daude, besteak aruntxaxago ta azkenak urutiago.

Edertilan onen aurrean arrizkoa bezala gelditu nintzala ezin ukatu. Margo lana ezin ohea da; itxuraz aleman eskolakoa, Errenazimiento estilokoa, gainera. Orduan ara nun SARAGUETA-ko errixkan arkitutako ederti lan ezin obeak, ludiko museo oberenak pozik artuko lituzketenak! Baita berentzat bakarrik gela berexi bat eskeini ere.

Zortzi ol margoztuak daude. Gaia, Kristoren bizitza darabilkite. Ezkerrean goien Kristoren jaiotza ta Bataioa; beran Oliamendiko otoitza ta Arantzazko koroia. Eskubian goien, Mendiko itzaldia ta Juan Bataiatzalearen iltzea; beeran Kristoren zigorrada ta Gurutzea.

Ziur asko margo auek aurreneko aldarearenak izango ziran. Aldare nagusia berritu zutenean ez zituzten autsi nai izandu ta zortzi puska auek gutxinaz berrian jaso zituzten. Berriz altxatu zituztenean zerbaitengatik izango zan. Bainan nork ekarri ote zitun errixka onera? Etzan nolanaiko gizona.

Orren gauza ederra ikusita gero, baten baten margo oien berririk ote zeukan galdetu nun. Inork ez zidan erantzunik eman. BIURRUN-en liburua ere begiratu nuen eta etzidan argirik eman. SARAGUETA'ko margo lanak, ba, merezi dute ezagutu araztea, besteak ere izan dezaten neri emandako poza ta argia.


Naparroko Diputazioak ba dauka nun berritu ta edertu orrelako ederti zati ikusgarriak. Edertasun oien bidez Turismoa zabaldu dezake ARTZIBAR aldera, bizi berri bat emen dezaion lurralde galdu oneri.

1863 garren urtean, euskaldun utsa bezala agertzen zuen Bonapartek erri au. Gaur inork ez daki euskaraz. Zaarrak bai omen zekiten; bat bakarrik ere ez genuen arkitu bizirik. Gizaldi onen asieran oraindik, euskaraz bakarrik mintzatzen ziran denak.

Erri au iltzera dijoa; ala diote bertan bizi diranak. Leendabizi euskara zaarra utzi zuten. Orain lurak ere uztera dijoazte.

Artea zugaitza ugari bazter auctan. Goitik bera Urrobi ibaiaren gañetik dijoa gure bidea. Azpiko aldian errege bidea. Ura ikusten dugula ta ondoan nekazariak lanean, kamineroaren etxe politaren aurrean gaude; txuria, lorez inguratua. Zubia igaro ta Arrieta'ko bidea artzen dugu.

Ezker Iriberrri. Bein izan naiz Artzibar'ko euskaldun bakarraren billa. Ibar ontako seme euskalduna bizirik arkitu nai nuen. Erretorakin joan nintzan. Gizon zarra ta gorra larogeita zazpi urtekoa, ikustera joan giñan. Bakarrik zegoen etxean. Deitu ta nola etzuen inork erantzunik ematen, sukalderaño sartu giñan. Gure aitona eserita zegoen eta burua goiko suzko labe berriaren gainean zeukan etzanda. Era bat gorra zan ta burua nastutzen zitzaion. Franzisko Arbunies izena: «Euskara beñere etzen galdu bear; beiti ortan da nere sortetxea».



Arrietako loretegia

Noiz beinka burua nasten zitzaion. Otoitzak euskaraz ba ote zekizkin jakin nai nuen. «Jainko maite maitea. Buruko... Antziñako mandamentua... «Ikusi artio» esan zigun. Gizajoa nasten zan. Etzegola ezertxore egitekorik ikusi nuen eta itxuli giñan. Garai batean abel gorriak baztandarrak ekartzen zituzten; txistua jotzen eta bersotan ibiltzen ziran. Iriberrikoak pozik entzuten. Eliza San Andres izenekoa berria da, len frantzesak erre omenzuten. Erretaula barrokoa 17 garren gizaldikoa du. Garai berdiñako Amabirjiñaren irudi ta beste bi santuena S. Buenabentura ta Santo Tomas; Jantziak dauzkate zoragarriak. Ba dago gurutze gotiko 15 garren gizaldikoa. Bataio ponte, berriz, erromanikoa arrikozko batzuen irudiekin. Orain zazpi sendi bizi dira. Erretora etorri zanean amabost.

Mendiz al genuen guzitan errege bidea mozten alegintzen giñan. Gure aurrean traktorea baztertzen Nikolas, mutil sendoa, mardula, jatorra, biotz onekoa ta eiztari amorratua. «Aurten basurdi asko?» galdetu nion erderaz. «Aurten utsa» erantzuna. Aurten bi bakarrik gutxi izaki, orain arte 28 ditu illak. Erretoraren adiskide aundia da. Bein ala esaten omen zion: «Elizkizunak ez didate neri ezertxore esaten, bainan len gutxi gera errian eta alkatea ez ba da joaten, ez da elizan gizaseme askorik izango» Auxe dugu Nikolas gizona, jan eta edan, lana ta eizea. Ama bizi du ta andrea billatzea beti geroko uzten. Orrelaxen ugaritzen zaizkigu mutil zarrak gure errixketan. Zuzenean erretoretxera abiatu giñan. Berebilla atadian zegoen, erretora errian genuen. Goizeko 10 1/2 ziran. Erretoretxea aurrean, inun bezin lorategi polita dago. Emen bezalako loreak gutxitan ikusten dira. Atadi barrenean, txoriak ugari, margo guztietakoak kantari, danetara 120.

Pozik irten zitzaigun Luis erretora, parrez, alaitsu beti bezala. Bere ama pozik sukaldean arkitu genuen ta ondoan senarra eserita, gizon ona ta langillea. Jatera ta edatera eskeñi ziguten, baiñan alperrik. Agurtzeko asmoa agertu genien eta Oroz'ko mendi bidea nundik nora zijoan jakiteko bearra. Kosta zitzaigun etxe ura uztea. Gutxitan arkitzen da sendi bat ain irikia ta biotz zabala.

Erriari begiratu bat eman nion, lendik ondo ezagutzen nuen.

ARRIETA, erri polit au mendi egalean dago. Enzira-ko arkaitzak aurrean ditula. Urrobi aldean, Artze ballarako erririk aberatsena da.

Ballara gaineko aldean daukagu, 700 metrotik gora. Aezkoa'kin mugatzen da. Erria ondo eratua arkitzen dugu; gain batean eliza, azpian enparantza eroso bat, iturri eta aska eder batekin. Ezkerretara goraxeago auzo bat; beeraxeago enparantza inguruan beste auzoa

zabalian. Ura, Elizpe azpitik, «Latxurra» iturritik datorkie Garai batean, orain dela berrogei ta amar urte, 48 etxe zituen, 202 bizi-lagunekin. Gaur 14 famili bizi dira. Garai zaarretan, erria gudarako osatua zegoen. Etxeak ederrak, zabalak, orma lodikoak dira. Orduko guda arresietan gaur baserriak antolatuak dituzte. Eliz atzeko aldian Arotz izeneko etxeak sapaian arku gotiko aundi bat dauka. Ondoan guda tresna aretona, Martiarena etxea datza ta bukaeran Dorre luze bat zaarra dago. Erria inguratzen dun guda orma ortan dijoa Gardorena etxe zaarra ere.

Esan dezakegu eliza berria dala, 1826 garren urtean egiña. Ziur asko Napoleon gudatean, alderdi guzti au bezala, oso xeatua izango zan. Gudan ondatuko zuten eta ondorean altxatu. Urte asko ez dala berritu zuten, batez ere barrena, gero apaindu Misionera-ebanjelikaren aidean. San Lorentzoren izena darama ta saindu onen iduri berria aldare erdian jarrita dago. Ezkerreko aldean berriz, ambost garreneko Andra Mari eder bat eserita, aurrea belaun baten gainean dula, gotikoa. Andra Mari au irriparra ezpainetan, euskaldun andre baten antzekoa da. Eliz gutxi orren garbi, zurazko alki eder batzuek ba ditu ta bataio ponte berri bat eskubian. Sarreran ba dago eliz aterpe bat arri landukin egiña, iru leio zabal idekiekin. Aterpe aurrean lorategia, iri nagusietan gutxitan arkitzen dan bezalakoa. Erdian bataio ponte zarra lorez beteta, inguruan belar xea. Bataio ponteko arria, txerrien askatako zuten etxe batean, apaizak jaso du. Orma gainean jeranio landareak ontzi apañetan jarriak daude. Erretore etxetik enparantzara, bidea, dan dana, lorez betea dago ta eliz azpian ziren arri-tarteak, ondo garbituta landare ta zugaitz berriz apainguta utzi dute. Danetara 200 jeranio ta beste 200 landare dauzka. Daliak ba dituzte 60 zulo. Emengo lorezale berexia apaiza da. Lorategietarako buru eta esku onak ditu. Arrietako lorategi paregabekoa ikustera asko datozte. On Luis Garzia saritua izan da; Naparroako Diputazioak 20.000 pezeta eman dizkio. Dirua ezin leike obeto zabaldu.

On Luisek euskara ulertzen du. Gurasoekin bizi da. Bere ama Frantziska Etxenike, euskaldun utsa, Urdazubikoa, eltzetzo erdaldun batekin ezkondua. Andre au ez da nolanaikoa, jatorra eta izkuntza berexia duna, Baztan aldekoa. Euskara maite du. Berak dionez «gotik nere errira joaten naiz, an euskaraz egiteko. An ez naiz gelditzen, etxeakoak erraten dute, norbaitek neregatik galdetzian, eleketan egonen da». Gipuzkoako euskara ederra da, naparra berriz polita».

Erria lurgintzatik bizi da ta oso ongi gañera. Ba dituzte baso galantak, eta egurrakin erria edertzen dijoazte. Garai zaarretan lurak

lantzen zituzten eta danetik egiten zuten. Orduan oso estu bizi ziran. Gaur belarra ta patata bakarrik egiten dute. Patata bakarrekin ba dira familiak urtero milloi erdi bat pezeta ateratzen dutenak. Ezin liteke geiago eskatu.

Euskal giroa galdu zan. Lurrak eta etxeak euskal izenak dituzte; batek izen zarra du «txantxo» gaurko Santxo. Iñork ez daki euskaraz. Aitonak alkarrekin euskaraz mintzatzen ziran. Bakarrik 74 urteko gizon batek ulertzen du pixka bat eta egiten ditu esakerak. Basurde eiztari ospatua da. Bere izena Esteban Erro Elkano. Garaia dato- rrenian danak utzi, ta basurde arrastoak artu ezker, egunak igarotzen ditu basoan. Erriko txistularia ezagutu zun. Bera gazte zalarik, jotak kantatzen zituzten. Abestiren bat erdizka ba daki euskaraz.

«Lilia ikusi dut baratze batean, ez du galtzen negian, geiago nai nuke bere saetsian».


Errian, txikia zala gertatutako gauz batez oroitzen da. Apaiza elizan euskaraz mintzatzen zan eta meza bukaeran elurra ari zala negu beltz batean, «Dominus Vobiscum» ondorean, auntz artaldeaz oroituaz, ala omen zion, «Aurten ez da geldituko buztanik ere».

Urako tokia ezin ohea da. Geienetan iduzkia, aizea legorra, mendi ederrez dana inguratua, beran Urrobi erreka amurraietarako ezin ohea. Orreaga aldetik lainoa sartzan dala, mendiak eusten diote ta erriraino ez da etortzen. Au erri zoriontsua!

Mutil gazteak gaitz bat bakarrik, berak diotenez, ezin omen dira ezkondu. Neska mutillak ez dituzte lurgintzako eskoletara eramaten ta au bai dala erri auetako gaitzen oinarria.

Mendi bidea bear bezala artzeko, Erretorak lagundu ginduen. Oñetako lodiak jantzi zitun eta baita esan ere «Zuekin beteko dut gaurko eguardia. Ez daukat gauz aundirik egiteko. Gaurko egunaren orde, biar izango balitz gaizki ibiliko nintzake. Diputazioara joan bear bait dut.

Telefono madarikatu ori jarri naian gabiltz. Basoko diruakin eta jasotzen dugun laguntzakin etxe guzitan utsik telefonoa euki dezakegu. Buru auste bat bakarrik; 13 sendi gera ta gutxinez 20 telefono bear genituzke, eskubideak gure aldetik izateko. Gauza konpontzearren nere aldetik iru eskatzeko asmotan nabil; tokia billatu diet, bat sakristin, bestea langelan eta irugarrena etxe sarreran». Zorionak eman nizzkion erretora argi oneri. Ziur nago Suezia'n neurri berdinean ez dala inun ainbeste telefono izango.



Uriz'ko zaldunen etxeak.

Erritik aterata eskubi aldera jo genuen. Aldapa aundia zan gure aurrean. Mendia itxia ta zakarrez betea zegoen. «Au dugu basurdi toki egokia, esan zigun Erretorak; ementxen botatzen ditugu geienak».

Mendi ura eskua bezala ezagutzen zuen On Luisek; laster bi-deak utzita, zear, egiz egi, goiko gainera atera giñan. Te landare ugari zegoen. Eskuan artuta erakutsi zigun. Usai goxoa ta irudi polita ditu.

Gorraiz'ko mugara eramanez ginduen; Elke 1297 metrokin eskubi ta Juan Patxego 1240 mtr. ezker mendi tarte ortan dagon lepora. Ibili aldi osoan, Artzibar'ren, alkarrekin egindako ateraldiak berritzen asi giñan. Naparroa ondo ezagutzeko, zaletasuna sortu zitzaidanean, ibar bat artu ta ura ondo ikustea zala onena zeritzaidan. Artzibar aukeratu nuen. Gaztetxo nintzalarik bein emendik Orreagara joan nintzan ta mendi lepotan ikusten nitun errikkak betiko gelditu zitzaizkidan oroitzapenean. Alemania'n gaixorik nengola, astirik larrinetan Artze'ko lepo aiek burura ekartzen nitun eta ikaragarritzko goxotasuna ta pakea ematen zidaten; margoa, alaitasuna ta indar aundiko toki izkutuak zeritzaizkidan. Gero lasaiago bazter aiek nere larrua bezala ezagutu nai nituen. Orduntxe ezagutu nuen Don Luis eta gauz asko erakutsi zizkidan, baita ate ugari iriki ere.

Bi urtez, udaran nere oporrak Artzibar ezagutzen igaro nituen, baita 22 erriak ikusi. Ibar ontako seme gutxi izango dira beste ainbeste ezagutzen dutenak. Oñez nenbillen batetik bestera. Emen urte batean 120 kilometro oñez egin nitun. Danera askoz geiago. Orrela bakarrik ezagutzen da «gure amalurraren» larrua.

IMIŹKOŹ errizkaren gainean geunden ta errikkaren aurrean Artzibar'ko Urrobi alderdia, ego aldera. Artzibar'ek bi zati ditu, batetik Urrobi ibaia dijoa Auriz'tik asita Itoiz'arte. Bestetik berriz Irati ibaia Aezkoa'tik asita Aoitze'raiño.

Imizkoz, ibai ondoko errege bidetik ikusita, antxen egi batean belazez inguratua txuri txuri ageri da. An goien norbait bizi ote dan galdetzen du batek. Bein izan naiz oñez. Uriz'ko mutil gazte batek eramanez ginduen. Aldapa ikaragarria igo bear; traktoreak bidea erditik iriki du. Malda orren egalean lur gorriak, etxe batzuek erdi eroriak. Noizbait meatz bat zan emen eta lanean zebiltzen langilleen etxeak izaki. Gero goraxeago lurak belarrez betetzen dira. Erri txuria, bizpairu etxe ta elizatxo erromaniko gotiko garaikoa. Erri au balkoi baten antzekoa dugu. Sendi bat bizi da. Nagusia, Agustin gizon ona, emaztea berriz gozoa. Eman ziguten urdai azpikoa ezin dut aztu. Alabakin

eliza ikustera joan giñan; San Pedro gotikoa, bataio ponte erromanikoa. Aldare erdian Errosarioko amabirjina barrokoa. Beste amabirjina, eserita gotikoa oso polita daukate. Juan de Sako gainean Santiago'n baseliza omen zan eta len emen ibarreko erri danak biltzen omen ziran urtean bein.

Erri ontan zazpi sendi bizitzen ezagutu dituzte. Orain bat bakarrik. Len bi ziran eta alkar ezin ikusi. Emen gertatu zana ere ez da makala. Bi sendi oien artean ikaragarritzko gorrotoa zegoen. Ezin eraman aundia.

Beste sendiak alde egin zuen. Bearrezkoa. Nunbait zer egin dute? Agustin'en borda erre nai ta artu du bertze nagusiak morroia ta gasolina. Esan dio morroiari, gasolina bordan zegoen belar gainean ixuritzeko ta sua pixteko. Joan da morroi gaztea, sartzen da bordan, sua ematen dio belarrari ta nagusiak landatik atea ixten dio giltzakin. Mutillak sua eman ondorean ateratzera dijoa ta atea itxia, ke tartean, negarrez, erdi erotua jauzi batean goruntz jotzen du ta zoionez tellatuari eusten dio. Zulo bat egin ta goitik bera botatzen du bere burua jantziak erdi errete ditula. Erortzerakoan besoa puxkatzen du. Ala guztiz ere Aoitze'raiño iristen da al dun bezala, ertzañei gertatua salatzeke. Urrengo egunean nagusia espetxera daramate.

Erri txikiak inpernu aundiak, ala dio esaera zarra. Guk beinpen Agustin'en etxean atsalde ederra genuen. Emaztea zan etxeko alaba. «Gurasoak ba zekiten euskaraz. Euren artean euskaraz egiten zuten, esandako itzak guk ez jakiteko». Sukaldeko alkiari eskaño deitzen diote. Egunero arratsaldeko eskila jotzen dute.

Imizkoz'en aurrean, berago gain batean mendiz ondo inguratua URDIROŹ errika ikusten da; utsa dago, ez da inor bizi. Eliza goien erromanikoa, bean enparantza, iturria aska luzeakin eta bizpairu etxe. Azkeneko sendia, errege bide ondoko bentara joan da bizitzera. Beraxeago URIŹ daukagu, Labia mendia magalean. Erri txuri au eliza ta bizpairu arrizko dorre zarrakin aldapan dago. Errege bidetik ikusita itxura polita du, zoragarria, betiko buruan gelditzen dana. Eliza erromanikoa goien, izena San Saturnino; Andra Mari bat eserita gotikoa ederra, bataio ponte erromanikoa. Amar sendi bizi dira; gizaseme bakarrek etxeak batzuek, oietan mutil zarrak. Apezak erriari eustako lan asko egin du; argia erriarentzat ekarri, traktore bat lanerako, edan-tokia, garia jotzeko tresna belarra ebakitzekoa, bañan alperrik. Gurasoak seme alabak iri aundietara bultzaten dituzte. Etxeak geienak erri ontan arrizkoak, gotikoak dira. Aiton billobak ikusi nitun atarian. Aitona jaiotzez, Linzoin'goa 83 urte. Bere amak etzekin erderaz. «Zergaitik etzenun euskaraz ikasi?» nere galdera. «Maite ez nulako», erantzuna. Esaldi batzuek egiten zitun «Zer diozu» Zer ari zerate». Beste gizon bat euskalduna ba dago Esnoz'koa, emen bizi dana 65 urte Fermin. Oroitzak euskaraz ikasi ote zitun galdetu nion. «Danak erderaz, uskaraz baterez. Euskal itzak Euskaldunak diranik jakin gabe erabiltzen dituzte emengo gizasemeak; «Lagarra; kazkaragarra, kaskabarran orde»; Zumainka,

guk zurnitza eta abar». Atsaldean billobakin Espoz'era joan nintzan; nere gidaria mutil gaztea, Zaragozako ikastetxean kimika ikasten dabillena.

Uriz'tik Ipar aldera artzen da bidea, aldapa zakarra, gero piñudian sartu bear; zugaitzak lodiak daude. Lepo batean dago oso goien ESPOZ errixka, aizeak ondo jotzen du Sartaldera mendiak urrutiraino ikusten dira, Aralar adibidez. Sortalderuntz aurrean Uli'ko bordak.

Garia ebakitzen zebillen gizon begi okerra nerekin zijoan gazteak eza-gutzen zuen. Len lau sendi bizi ziran, orain bat bakarra, ama lau seme mutil zarrekin. Atea jo genuen eta larogei urtetik gorako amona agertzen zaigu. «Atsaldeon etzeko andre», nik. «Eskuara atsendu zait dena» amonak. Egozkue'ko alaba dugu, Anue ibarrean. Etxean izena «Fangorri». Gora eramaten gaituzte. Argi indarra bertan gasakin egiten dute. Kafesnea eskeintzen digu. Nolako euskara zeukan jakin nai nuen baña alperrik. Etzidan ezertxore esaten, kantu zarren bat ote zekin ikusi nai nukean. Asiera emateko asi nintzan euskaraz abesten, amona berriz parrez eta ixillik. Nekizkin danak abestu nizekion... amona etzan asten. Ezer galdetzea alperrik zala ikusita, eliza ikustera joan giñan. «Etxandia» izeneko jauregi zar baten arri landuak begiratu ondorean, eliz atarian giñan. Zikin xamarra arkitu genuen. San Millan izena du, Amabirjin barrokoa, erre-
taula 16 garren gizaldiko asierakoa, San Millan'en irudia saindua sosak bear-tzuei banatzen), bataio ponteak erromanikoa, sakristin gurutze gotikoa oso polita. Eliz atarian illerri zarra ta ormaren gainean, arri diskoidala txikia, buru zabalakin erdi koloka, pillan beste arriekin batean. Amonari azken agurra ematera berriz sukaldera igo ginan, «Mandarre onekin ez nago oso ondo» itzak esaten zitula utzi genuen.

Eguraldi garbia, aize gozoa, toki eroso, berriz aldapa bera artu genuen. Nere laguntzalleak dio «sendi onek txekorrak azitzen ditu ta saltzen dituzte-nean, irurogei gutxi gora bera jeixten dituzte batean, lasterka autsa arrotuaz; baño zikin bat altxatzen da erreka ontan. Ameriketako rantxoan gaudela dirudi. Erri ontako kobak ez genituen ikusi, oso ederrak omen; estalaktita ugari, sarrera irikia dago ta etortzen diranak puxkekin ateratzen dira. Orregatik ondo ondatuak daudela jakin dut. Diputazioak itxi bear lituzke.

Errege bidetik aurreraxeago ZANDUETA errixka. Jauregia bide gainean, goraxeago elizatxoa ta bide ondoan zelaiak zugaitzez beteak. Errixka onek Uroz mendi magalean baso aundiak ditu, batez ere piñuak, diputazioarena da orain. Sendi bat bizi zan Ilarraz izena zutenak, gurasoak bakarrik gelditu ziran. Semeak mixiolari ta apaiz joan zitzaizkien eta alaba lekaime. Diputazioak 2.800.000 pezetan erosi zuen etxea, lurrak, basoak eta mendiak. Elizatxoan nunai xagu zarrak txintxillik lotan arkitzen nituen. Ikuituta ere kostatzen zaie esnatzen. Sarrera errenazimientokoa du, baita San Esteban'en irudia; San Fermin eta Amabirjinak berriz barrokoak.



Nagoren etxeak erdi eroriak.

Kilometro pare bat beraxeago, ibaiaren eskubi aldetik ARZE izeneko errixka. Gaiñean-eliza bakarrik, erromanikoa, Naparroan eliz txikietan politenakoa. Zelaian erdiaroko gaztelu zarra. Ez da orain inor bizi, nunbait 9 etxe erre ziran eta dana saldu ta alde egin zuten; bi nagusia da, bat Buñuel eta bestea Garaioz'koa. Ibai ondoan baso ederra, txopoak ugari, meak, lirañak, beti zalantzan. Len sei sendi bizi ziran.

Eliza da ikusgarria ta Naparroan ezaguna. Sarrera landua dauka bi abetxo ta lau abe buruekin, irudi askokin eta eliz atzea borobilla, tellatu azpian irudiak, dorre aurrean lau alderdi berdinekoa. Barrena, sapaia erdi borobillakin. Ba dago Andra Mari ederra-gotikoa, Gindano'tik ekarria. Emen zegoen erretaula nunbait Burlada'ko parroki berrira eraman zuten. Emendik begiratuta mendiko mutur luzeak urrutixko gelditzen dira, lurra erre xamarra ikusten da, arrea margoa, euri gutxiago egiten du, ibai ondoan ezexeago. Berago NAGORE, errege bidetik gaineko aldean ikusten da, Arzibar'ko iri nagusia zan len. Orain etxe geienak lurrean ditula, orma zulatuak eta tellatu eroriak besteriz ez da ikusten. Ematen du Vietnam'era zijoazten egazkiñetik bomba bat emen erori dala. Itxura negargarria errixka polit ontan. Berrogeitasei su ezagutu dituzte egiten, orain zortzi bakarrik.


Emen emakume guztiz argia ezagutu dut, Felisa Illarraz. Ibar ontako goraberak eramaten zitun, denda zeukan eta zerga ordainketa erabiltzen zuen. Orain danak utzita udaran onera dator bere etxera ta neguan Iruñan egoten da. Semea izparringilaria du, «Pensamiento Navarro» egunkarian egiten du lana. Baztar ontako goraberak ondo dakizki emakume onek. Franziskotxo etxeko etxeoandria berez. Berri ugari eman zizkidan: «Ibar au era bat ustuko zaigu, 22 errixkatik, 10 utsik daude. Besteak ustutzen. Iruña'ko bidea artu nai dute danak. Orain emen ondo bizi dira. Ala guztiz ere alde danak».

Indar tresnekin beso gutxiago bear dira lana egiteko ta artzai ez du inor ibilli nai.

Errixka danak billeretako ta zerga ordaintzeko onera datoz. Orreaga'ra joateko, baita, alkartzen gera. Erromeria Pentekostes aurreko asteazkenean egiten zan, emendik aurrera igandean. Len 22 gurutzekin ateratzen giñan gaur 12 bakarrik.

Tokia ona da osasunarentzat, ura ere naikoa dugu. Urrobi'ko amurraiak danetan xienak. Ba daude emen batzuek egunero lau kilo eramateko agindua dutenak.

Erri onek izena «Nagore», belarriarentzat politenetakoa, entzuteko gozoa. Eliza ere alaxekoa da, arrizkoa ta barrenean bitxi ederrak ditu; Andra Mari gotikoa, 14 garren gizaldikoa, batez ere ol margoztu batzuek 16 garren gizaldikoak. Orain, eliza, sendi bakoitzak illero zaintzen eta garbitzen dute.



Iñarbe'ko zuloa ur bazterrean.

Euskaraz ez dakite. Felisa'ren etxeko aitonak ez omen zekin. Aspaldi galdua nunbait. Aiton onek kontatzen omen zuen nola mayorazgoak neskekin Nagore'n biltzen zirela lendabizi jota dantzatzen zuten eta ondorean Larrain dantza musuzapiakin Lizarra'n antzera. Nagorek ba dauka seme ospetsu bat, Joakin Jamar Domenech (1832-1898) idazlea ta diputadu Donostin, Gipuzkoa'ko kaien alde lan asko egin zuna.

Aezkoa'rrak ondo ezagutzen dituzte Nagore'n. Emendik zihoan Aezkoa'tik asita Iruña'raiño galtzara zarra; Mendioroz, Uarte, Iruña. Aezkoa'rrei buruz, ipui asko dakizkite. Gizaseme biurriak bezala agertzen dituzte, zaillak. «Aezkoarrak Zerura igo nai omen zuten atzeko atetik ta danak berriz lurrera erori ziran».

Galtzara zarra au ezagutzeko gogoia nola nuen, goiz batean meza ondorean atera nintzan Gurpegi beste errixka bat ezagutu bear nuela ta. Aldapa aundia, piñutegia ta goiko lepoan Iruña'ko galtzara Urroz aldera ezkerretik dijona; nik eskubikoa artu nuen; eperrak, muskerra ta katagorria antxen ikusi nitun. Gero errekarra jetxi nintzan. Galdu ondorean, bidea ezin billaturik gora ta bera ibilli nintzan. Gain batean OLORIZ'ko bordak ikusi nitun; orma eroriak, arria zabaldua nunai. Nagore oneraño sartzen da: Betixoak bero ikaragarri arekin itzalean zeuden. Beruntz errekatik joan da eskubira goi xamar GURPEGI'ko eliza ikusi nuen. Erreka ondotik igo nintzan. Erria utsik. Eliza 16 garren gizaldikoa iduritu zitzaidan, ederra. Oriotarrak (Gipuzkoa) eizerako erosi dute. Jauregi galanta, zarra, itxia zegoen, baita bertan iturri ederra. Orain 16 urte joan zan azkeneko sendia, senar emazteak 7 aurrekin igandero Nagore'ra zetozten mezetara oñez. Erri ontan Felisak 5 sendi ezagutu ditu bizitzen. Berago ZAZPE izeneko errixka Longida'n sartua. Aldi ontan ez nintzan joan, berebillez beste batean baizik; Erria dana eroria, eliza erromanikoa, jauregiak, bordak. Erre ta alde; gaur diputazioarena da. Nagore'ra itzultzerakoan uste nuen beroakin ito bear nuala; burua gorritu zitzaidan ongi. Asnoz errixka zanaren ondotik jetxi nintzan, orain etxeak eta eliza eroriak daude. Artzaiak bizi ziran eta 30 urte ba dira alde egin zutela. Nagore'ko bazter onek ba du indar berexi bat, naiz basorik ez izan ta mendiak larrutuak ageri. Emendik bera jetxi ezkerreko beste ballara batean sartzen gera. LONGIDA'N. Muga mendi tarte estu batean dago. Ibaiak ebaki ikaragarriak ematen dio arkaitzari ta bidea zulo estu ortik dijoa. Ikusteko arrigarria eta oso polita. Izena ere alaxekoa du «Txintxurmear»; euskal itz garbia. Askotan nenbillen pensatzen nola esaten ote zuten, euskaraz, euskaldun zar aiek, menditarteko ebaki oiek. Ortzen nuen ba izen zarra euskara garbian, ain egokia «Txintxurmear». Ezkerretan ebakiaren gaineko aldean dago OSA errixka usturik, bakar bakarrik leyo ta ate irikiakin, aizearen aurka babesik gabe, arnasik gabe, usteltzeko garaia itxoiten.

Tokia ezin liteke politagoa izan. Ezkizun mendi egalean datza, egi batean eguteraan. Txintxurmear arkaitzartek bertan dauzka, eskubian. Beko aldean Urrobi ta Irati ibaiak alkartzen ikusten dira. Izaga ta Monreal mendiak ageri daude. Aizea osasunarentzan ezin ohea, eguzkia naikoa.

Orain dala berrogei ta amar urte bost sendi bizi ziran. Eliza erromanikoa da, arri landuz egiña. San Erromanen izena jarri zioten. Bataio ponteare erromanikoa du.

Orain dala eun urte Luis Luziano Bonapartek bere mapan dionez, erri ontan zarrak bakarrik egiten zuten euskaraz. Gauz askoren izenak, euskaraz daude. Etxe bateri oraindik Garaiko deitzen diote.

Ba nun erri au ezagutzeko gogoia. Nagore'n nintzala, jakin nuen bertan bizi zan Nabaskoitzeko artzai batek, Osa'n ardiak zitula. Goizeko lauterdietan altxa ta berakin oñez Osa'runtz joan nintzan. Aizea iparra zan, etzegoen lañorik. Egun sentiarekin Osa'n giñan. Lenengo egunaren argiarekin iritsi giñan. Giroa oso atsegiña zan.

Erria utsik zegoen, etxe guztik irikita; gurdi bat ate aurrean, azken joanak utzi zuten bezelaxe. Jauregi zarra, eder eta sendoa, leioa ta ate gotikoakin, arri landuakin egiña, urare irikia ta eroritzen asia. Artzai zakur bat il berri ate ondoan. Urbildu nintzan elizara. Atea zabalik arkitu nuen, zola altzatu, illen ezurrak agirian, Erretaula osoaren egurrak berriz lurrean milla pusketan. Artearen aldetik aldare au oso ona zan plateresko garaikoa. Bizpairu ol margoituak, betez ere bat oso ederra, Amabirgina bere semea eskutan zeukana, jakin dugunez ostu dute. Sakristin apaiz eliz jantziak lurrean nola nai eratuak ta saguak kabia egiña. Orduan nik ikusia negargarria ta mingarria. Iduri zuen gudatean edo basamortuan giñala, baiñan ez Naparroa'ko lurralde aberatsetan. Zer esan olako erri ustuetaz? Etxe oietako nagusiak nola utzi zituzten asaba zarren illobiak eta ezurrak eta aiek egindako lanak? Erri onek ba zeukan argia ta ura.

Ta Elizak edo Diputazioak nola ez dituzte orrelako arte lan egokiak obeto jasotzen? Lenagoko zar aiek egindako lanak, lurrean erortzen utzita aztu egin bear al ditugu ta begi aurretik galdu? Gaurko gizonak ajola gabeak ote? Erri au Irundar batek erosi ta Irati ibai ondoan borda bat altxa du.

Imizkoz gainetik Urrobi'ko ibar luzea urrutiraiño ageri da ta begiak ezin kendu, ezta ere burutik oroitzenenak. Gorraiz'ko leporaiño ateratzen gaitu Arrieta'ko erretorak. Mesede ederra egin digu. Toki zabal artan ditugu azkeneko itzak; eskorteak gure ondoan daude: «Urrengo arte», nik. «Beste batean lasaiago etorri» berak.

Goiko gain artan GORRAIZ ondoan daukagula nere barrengo estutasunak alde egiten dute; Artze'ko mendiei nien beldurrik aun-

diena. Ekaitz, lano edo beste zerbaiten okerkeriengatik galdu ezker, zernai gertatu dakiguke. Batez ere Iñarbe'ko zuloak ematen zidan beldurra. Ikusi ditudan bazter beltz eta illunetik begi itxusienetakoa izan da neretzat. Ango arkaitz zuloetan edo malkorretan galdu ezker, kito betirako eta onenian estutasun ikaragarriak. Errege bidetik ezagutzen dut, berebillez eta oñez askotan ibilli naizelako. Gutxitan bezalako arpegi illuna dago bazter artan. Inguruetakoko erriak eta bertan ibiltzen diran gizonak beldur aundia diote. Alaxeko izenak ematen dizkiote: IÑARBE - BATRON - IÑARBELTZA. Bi toki daude ibiltzeko itxusiak, bat esan dugun Iñarbe, Oroztik berago; bestea Artozki'ko urgeldia dagon beko aldea. Biek txarrak eta beldurgarriak.

Elke ta Lakarri Mendi tarte ortan galduta Iñarbe'n sartu ezker, naiko lanak ateratzen. Erreka zulo ori Artozki ta Oroz bitartean dago. Irati ibai lodia ta sakona azpitik dioa. Bi alderditan arkaitz aundiak ekabi zorrotzakin. Errege bidea estua. Bi alderditik berebilla etorri ezker, baten bat aurreratzeotan baztatu ta gelditu bear. Irristatu ezker, errekarano zuzenean eta bat batean amildu bear; gainera amildegi txarra. Ura lodi lodia dioa, musker margozkoa. Goitik begiratuta, arrai aundiak pillaka batean «sumarinoen» antzera dioaz. Erreka ta arkaitzak estutzen diran toki batean, zulo aundia dago ibai ondoan ta uraren neurri berdinean, bidearen beste aldetik; sorgiñen jauregiaren antzekoa da. Kamiozalezak eta arrantzaleak udaran ementxen errege bidean edo ur basterretan iltzen oi dituzte sube betz ikaragarriak. Baten bat lau metrokoa il dute. Bidean orrelako pixti bat kamioaren gupillakin arrapatuta, subea gira biran ikusten zula, gizona xuri xuri egin gelditu zan. Il ondorean kamioan sartu ta Oroz'en erakusten ibilli omen. Bazter txar auk subearen erresuma, azkaitza ta ura. Ibaian 5 kiloko amurraiak ere ba dabiltz. Arraia gainera ugari, 1.000 kilo kilometroan. Ostoa tartean arrano sube arrapatzallea zai egoten da ta sube koxkor edo metro batekoak diranean atzaparrakin il ta mokuan artuta eramaten ditu. Aundiakin ez da ausartzen. Zeruan berriz beti putreak egatzez.

Gizonak esaten zidaten, langilleak Artozkiko kanala konpontzen udaran zebiltzala, Gaztelu izeneko arkaitzen ondoan, nola ziztu bat mendi aldetik entzun zuten. Begiratu ta tente subea izaki. Iru metroko kanala igaro ta beste iru metroko orma igo ta arkaitz tartean izkutatu omen zan. Argi enbor bat bezin lodia, zutik ziztuka ikusi zutenean, lan tresnak utzita alde egin omen zuten. Gertaera onetxek agertzen digu bazter onen illuntasuna ta basaitxura. Bide zuzenak eta garbiak artzeakin, Artzibar'ko beldurrak gure laguntzailleri ezkerrik

aldendu nitun. Gorraiz'ko zelai aiek garbiak dira, larre tokiak ta piñu landarea oraindik txikia, burnizko arantzadun etsiak.

Mendiko zaldiak zebiltzan larratzen. Aiek bai zirela gure zaldiak. Pottoka izenarekin ezagutzen dituzte Euskal Erriko toki askotan batez ere ipar Euskalerrian ta Bidaso inguruan. Euskalerriko larre tokiko erregea, gure pottoka izaki. Ia akatu ziran. Jaunari ezker ta euskaldun argi ta jator bateri esker, berriz ugaritzen dijoaz eta gure mendiak alaitzen. Kontu onek merezi du ezagutzea.

IPUI POLIT BAT: Ba nuen Donibane Lohitzu'n adiskide benetakoa ta euskalzale jatorra. Arekin batean, Ipar Euskalerrian barrena ibillia nago. Maite zuen bere lurra ta gure gauzetaz mintzatzen etzan aspertzen. Batez ere bere Xiberoa mina zeukan. Makila bat artuta, oñez ibiltzen zan batzuetan Irati'ko basoan, iturri guztietako urak edanez: atsegiñena OSKIA'koa zeukan.

Bein esan zidan SARA'ko alkatea ta pottoka gure zaldiaikin gertatutako egitazko ipuia. Zoragarria iduritu zitzaidan. Gelditu giñan len bai len, nik gizon ori ezagutzekotan. Bañan gure Joakin ARA jatorra, bat batean il zaigu oso gazterik.

Dana dala, gaia oneri buruz lana bat egiteko asmotan nenbillen, SARA'ko alkateari eskutitz bat egin nion. Eta or nun bera agertzen zaiten OREXA'n larunbat atsalde batean: gizon sendoa, alaia, azkarra ta begi urdiñekin: bere euskara garbia da. Ez dugu nolanaiko gizona. Frantziako telebistan amabi aldiz agertu da. Ogeitasei urte egin ditu SARA'ko alkate bezala.

Maite du benetan bere erria eta euskara. «Euskalzalen Biltzarra» ren bigarren lendakaria dugu. SARA'ko errikoetxean egindako billeretan beti euskara erabilli du. Ba dauka idatzita libuxka bat «SARA'ko ERREPUBLIKA» izenekoa. Bein baiño geiagotan bere erri zoragarri onen alde, lana egiten saiatu da. Bere asmo oiek ezagunak dira. Bein gauazko lanean zebiltzen txapelketa asmatu zuen, kontrabandisten saria alegia. Erri onek ba du ogeita amar kilometroko muga.

Orain berriz, denetan ederrena; pottoka, gure mendietako zaldien alde egin duan lana. Txikia zala, oitua zegoen, pottoka gainean ibiltzen, nunai ta nolana. Erriko festetan ere «antzara jokua» egitera pottoka gainean joaten ziran gazteak. Oraindik gaur, erretora berria ta gotzaia agurtzera, pottoka gainean ateratzen zaizkiete erritarrak.

1937 garren urtean «Ramuntcho» film egin zutenean, berak ere eskatu zuen, mendiko pottoka tartean sartzea.

Pottoka abere bikaina ta polita da, bizarduna, azkarra ta basatia. Arrazoiakin zion esaera zarrak «Nai al duzu pottoka arrapatu?, sartu iozu buzta-

nean gatz». Larun'go larretan ikusi bear dira zaldi auek askatasun osoan bizitzen, multzoka. Azkenean berri mingarria eman zioten SARA'ko alkateari. Zaldi erosleak zetoztela ta txorixuetara Italia'ra eramaten zituztela. Len, beti San Ferminetan saltzen zituzten: Valenzia'ra eramateko ta an naranjategiak jorratzeko. Gure mendietako euskaldunak, egur ikatza ta pottoka zaldiak San Ferminetara saltzera joaten ziran eta artutako diruarekin festa egiten zuten. Bainan indarrezko tresnak agertu ondorean txorixua egiteko bakarrik gelditzen ziran.

Zaldi auen alde zerbait egin naian etorri zaizkio asmoak burura, gure SARA'ko alkateari. Lendabizi «ELLE» frantses aldizkarian, Ana Maria Casails idazlearen bitartez, pottoka saltzeko iragarkia jarri zuen; lareun franko berri urte betetako zaldi ale bakoitzentzat ezkatzen du. Txorixua egiteko berreun frankotan saltzen zituzten.

Orren ondorean, pottoka zaldiak agertuaz, tarjetak egin arazten ditu millaka. SARA'ko festetan, Amerikako gisan, zaldi «rodeo» bat zuzentzen du. Ortarako Larun'go pottoka guztiak batean errira jeixten ditu.

Ponpidou, Baiona'ra datorrela 1970 garren urtean ekainaren amabian; pottoka eskeintzen dio. Geroago beste bat Monako'ko Prinzipearentzat dauka. Onek berriz ludiko aberazalen lendakari dalako, 0,40 frankoko sello bat argitaratzen du pottoka bat agirian dula ta onen atzean Larun mendi zabala ikusten dala.

Pottoka zaldien alde egindako lanaren ondorean, ara, nun agertzen zaizkion etxean bost milla eskutitza. Bi urte terdi bear izan zuen danei erantzuna emateko.

Pottoka zaldiak ikustearren SARA'ko bidea aberezaleak artzen dute. Jakina abereak mendian izaki ta ikusteko ez daude errex. Orduan gure Paul Dutournier jaunak, 42 ektareako itxitoki bat edo «etsi bat» antolatu du, Larun azpiko mendi batean nai dutenak ikusi dezaten.

Maite zitulako ta Euskalerraren alde propaganda egitearren, pottoka zaldien alde lana egiten asi zan SARA'ko alkatea. Bainan orain, diru aldetik onugarria, izan da bere lana. Nunaitik eskatzen dizkiote pottoka zaldiak.

Pasteur Institutoko erakasle ospetsua Calas jauna oartu da, biotzak aldatzeko orain egiten dituzten ebakuntzetan edo operaziotan, aberetan dan odoletik oberena, pottoka zaldiena dala. Orduan «serun antilymphocytaire» egiteko gure pottoka bear. Ortarako Barnard erakasle ospetsua, Paul Dutournier'ekin egona da.

Aurten gainera Paris'ko izen aundiko etxeak, Eguberriko opari bezala, pottoka zaldiak eskeintzen zituzten.

Frantziko zaldi lastertokietan asiak dira pottokak agertzen. Lenengo saria ere irabazita dauka gizon batek pottoka gainean. Mendian dagon zaldi ori, Paris'ko Autteil lasterketegian ikusi leike.



Pottokak Euskalerriko zaldiak.

Eskoletako erakasle batzuek, Bretaña'n pottoka zaldia ibiltzen dituzte beren ikaslen jolasetan. Ia noraino joan dan Larun'dik gure zaldia. Rossif zine egilleak, film bat Euskalerrinari buruz antolatzen ari da. Bere film ortan ikusi dezaten, nun bizi dan zaldi berexi bat askatasun osoan, Euskalerritako pottoka zaldia agertuaz, asiera eman nai lioke.

Zaldi ori euskaldunaren antzekoa bai da.

1972 garren urtean gure pottoka lurgintzaren Paris'ko perian agertu dute. Frantziako lurgintza ministroak ontzaz ta ofizialki artu du gure zaldia.

Nunaitik eskatzen dituzte pottoka zaldia. Batzuek loretegiatan jartzeko, besteak gasolinetegetan, besteak berriz jatetxe inguruetan eta abar. Azkeneko lau urte auetan 1.600 pottoka saldu dituzte. Urteko zaldia seireun franko berrietan ta beorak zortzireun frankotan.

Danetara Ipar aldeko Euskalerrian ba omen daude 4.600 pottoka. Frantziko toki askotan asi dira pottoka azitzen ta sortu dute pottokazalen elkarte bat. Danen buru, Paul Dutournier daukagu. Europa'ko saleroste batasanean, ate berriak irikitzen zaizkio gure pottokari. Euskaldunak ba dauka esnatzeko garaia ta ikusteko zenen gauza ederrak dauden bere Euskalerrian. Noiz ardeteko zenen ote da bere gauzetaz? Begiak irikitzeko garaia da. Paul Dutournier'ek esaten zidan «Naparroak zaindu ta ugaritu bear lituzke bere pottoka zaldia». Naparroa ta Euskalerria maite ditu benetan gure gizon onek. Euskalerriko pottoka zaldia ezagutu arazi du ludi zabalean.

Lana ori berak egin du ta asko da. Alaxekoa izaki ere gure-mendietako zaldia; kuaternario garaikoa, ludian zarrenetakoa gure leitzetan margoztua ikusten duguna. Siberian bakarrik dago onen berdiña...

Len, Tillac artilaria egin zuen idazti bat pottokari buruz. Ura ezik beste denak lo zeuden. Gaur berriz pottokaren alde ta pottokaren bitartez, Euskalerraren alde, Paul Dutournier'ek egindako lana zoragarria da. Euskalerriak gauza bat bakarrik bear du altxatzeko, gizonak.

Errekatxo baten ondotik, gurdi bidea artu genuen eta **GORRAIZ** errixka gure begi aurrean zan: bizpairu etxe ta eliza; laño beltzak estali zuten zerua; noiz beinka tarten batetik agertzen zan eguzkia.

Lenengo etxearen atarian aurrak jolasten. Bein izan naiz erri ontan eta aur auen ama ezagutu nuen. Emakume ona ta alaia. Ez dira geiago emen bizi. Iruña'ra joan ziran baiñan udaretan eta jai egunetan etortzen dira. «Pozik al zaudete Iruña'ko auzo batean?» nere galdera. «Nere senarra ez da beinere laketu. Len osasun aldetik ondo ibiltzen giñan baiñan orain erdi eri maiz»; emakumeak. Ixildu zan eta lurrera begiratu ondorean, negarrez asi zan, «etorri zaitez gora» esanaz. Gela bat irikita, mutiko txoro antzekoa aotik lerdena



Gorraiz ustuta bakardadean.

dario erakutsiaz, «onengatik joan gera, gaxo au obeto zaintzeagatik; nere senarra berez etzan beinere joango». Ama arek ba zeukan miña biotzean. «Auxe bidali zigun jainkoak. Zerbaitengatik izango zan. Gaztetan lekaima joan nintzan, gero andik aterata ezkondu ondorean Jainkoak ondo probatu nau». Malkoak igurtziaz esan zizkidan itz mikatz oiek. Geroztik Gorraiz'ko emakume ontaz eta bere seme ortaz, askotan ta askotan oroitu naiz. Emakume onen negarra oso barrenean gelditu zitzaidan.

Atadiko aurrei galdetu nien: «Zer dio zuen anai gaixoak?». «Orain dala bost illabete il zan». A ze atsedena amarentzat, nion nere baitan. Sartu atera motza egin genuen. «Zuen agurratik ezker mila» esan zigun alde egitarakoan neska zarrenak. Eliza txikia da ta orain amarren bat urte herritua. Atea erromanikoa ta espadaña zarrak gorde ditu. 800 metro goien dago Elke azpian, bertan Pausaran ta Orozkua aurrean.

Orain dala amabi urte eliza berritu ondorean danak alde egin zuten. Batzuek damututa daude. Iri aundietako auzoko kaiolen antzeko etxetan estu bizi bear, lasaitasunik geiago ez, lantegiko txirrina beti zorrotz eta epaille... Gu joan ondotik, lurgintza ta aragia garestitu ziran» esaten zidan len aipaturako ama onek, Esnoz'ko alabak. Euskaraz etzekin eta euskaldunik etzuen erri ontan ezagutu. «Miña aundia artzen dut euskaraz ez jakiteakin. Etziguten erakutsi, gizonak musean», pariak bai, «esanaz».

Etxeen izenak zerbait esan nai dute: Mitxelena. Pelloarena. Beitikoetxea, Etxetxikia, Maya. Soroen izenak ere ba dute euskal giarra; Murdia, Aranekua, Iturralde, Tipulatea. Erriko iturriaren izena «Iturriotz».

Gorraiz'tik aterata... Patategiak, soro igartu batzuek eta aldapa bera mendi bidea. Gure atzetik euri erauntsia asi zan. Gu aurretik, euria atzetik: Lasterka ginkoazen. Inguruetako mendietan etzegoen girorik; lañopean zeuden.

Ixtanpa batean OROZ'on giñan. Eguardiko ordu bata laurden gutxi Zuzenean Karle Garmendia'rengana joan giñan. Etxekoandre argi margolari bikaina ta euskotar zinezko au adiskidea dut. Askotan deitu nau ementxe lasaitasunean bizpauru egun igarotzeko. Oraintxe da garaia azpergabeko alkarisketa egiteko, alkarrekin bazkaltzen dugula. Ateko burnia jotzen dugu. Antxen datorkigu irriparez, pozik gure Karle, larogei urte inguru bainan beti gazte ta otsa abestiaren antzekoa: «Sartu, sartu» esanaz; eramaten gaitu goiko gela zabalara. Senarra Blat margolaria, sutondoan dago egurra astintzen. Dagonilla



Artozki'ko etxe barrena.

da, bainan Oroz'en euria egin ezkerotza: mendi zokoan gelditzen bait da. Bakoitxa txanda ezin arturik gabiltz, ainbeste gauza ditugu esateko ta... Gaiñera Mirentxu beste aizpa Mexiko'n bizidana etxean dauka... Gure alkarizketako gaia, beti euskal giroa gora ta bera, orain eta len, Naparroan eta Mexiko'n. Itzak, abestiak, parra, poza..., jai egun ortan Oroz'ko Garmendia etxean. Karle beti bezala Naparroa'ko edestiarekin dabil lauki berriak eginaz ta gure erriaren sena agertuaz. Euskal sukarra bizirik dauka Karlek. Alai dago Mirentxu'rekin «Iruten ari nuzu» gaztetan ikasitako leloa abesten didate. San Agustin eguna da eliztarrentzat eta meza eman nai nuen. Parrokira urbildu nintzan. Benito Urtasun erretora adiskidea dut. Erretoretzeko atea jo bezin aguro atean nuen besoak zabalik: «gurekin bazkalduko duzu. Zerbait artu. Ba nuen zu ikusteko gogoia, lan berriak egiten ari naiz. Oroz-Beteluko toponimia bukatu dut». Txanda artu ezinik genbillen.

Eliza gotikoa beti bezala garbi ta txukun zeukan. Kafea artzera etorriko zala agindu zidan. Azparren'dik Abaurregaine'rako bidearen berriak galdetu nizkion. «Lagunduko zaituet» esaten zidala utsi nuen.

Garmedia'ren etxean oñak garbitzeko ontzia prest neukan. Ondorean Mikel eta neretzat bazkaria. Garmendiatarrak oitura zarrakin jarraitzen dute ta 12'etan bazkaldu zuten. Gure otordua, zopa, tortilla, arraya, igaliak. Gurekin kafea artzera Don Benito zetorkigun. Karlek, GORRIZ'ko berriak eman zizkidan. Errixka au sendi onena da ta orain nunbait anaia saltzeko asmotan dabil.

Gudari erne baten antzekoa iduritzen zaigu errixka au. Iraty ibaia zaintzen dago. Bizkar baten gainean erri onek eliza oso ederra du; katedrala dirudi, dan dana arri landuz egin. Dorrea, atea ta bataio pontearen erromanikoak ditu. Oroz-Betelu'ko bidea artzean, Artzibar'ren eta Aoitze'ko bide zaindari bezala jarria dagola ematen du. Bertara urbiltzean, aurrerago joaterakoan, iduritzen zaigu Gorritze'ko erriari baimena eskatu bear zaiola.

Udarako egun bero batean OSA ikustetik gendozen. Iraty ibaia oinez igaro genuen. Atsaldeko lauak ziran. Erria utsik billatu genun, etxeak erdi erorian, atea irikita zeuden. Antxe zegoen jauregi zarra, bere armari ta gusti inguruan giza ezurrek zabaldua botiak zeuden. Elizari erantsia, illobi eder bat dago, elizatxo baten antzekoa, ate gainean itz auek ditu: «Panteon de Joaquín Aldaz y herederos». Illobiak irikita ikusi genituen. Elizaren atea ere puskatuta zegoen eta barrena arrot urratua zeukan; lurra altxatua. Bataio pontearen ontzia lurrean, abetxoak bakarrik zutik: aldare nagusia xeatuta, gainean zitun arri landu batzuek ebakiak eta eramana. Iduri zun moruak sartu ondorean etorri giñala. Ura ala ikusita otz ikara ematen zun. Eliza artatik oso asarre

atera giñan esanez etzegola eskubiderik orrelako lan txarrak gaurko egunean egiteko. Ibai ondoan lanean ari ziran langille batzueri galdetu genien zer gertatu zan Gorritze'en? Bai erantzuna eman ere eta gu arrituta galditu. Orain dala bost urte bakarrik egin omen zituzten txarkeri oiek. Erri onen nagusiak, euskaldun naparrak oso jatorrak omen eta aien etsaiak ote zituzten susmurroa zabaldu zala jakin genuen. Noraino iraun dezaken barrengo ustelkeriak eta gorroto txarrak! Urte batzuek dirala oraindik, unai mazter bat bizi zan erri ontan eta urtero Izaga'ko San Miguel'en elizatzora erromesa egitera, Longida'ko erriekin batean joaten zan. Berak erriko gurutzea artu eta etxeko andrekin Karle Garmendiarekin batean oñez, Aoitze'ko kaletik barrena joaten omen ziran.

Orain eliza oso berritzera dijoazte ta erriari lan giro berria ematera. Piñudi landare ugari sartzen ari dira ta mendi bideak egiten. Zaindariantzat etxe bezala gaztelu zarra berritzera dijoaztela entzun dugu. Eliza ere ondo jartzean, altxatuta dauzkaten gauza eder batzuek jarriko dituzte bertan berriz; amabi garren gizaldikoa eserita dagon Amabirjina eder bat, zurazko gotiko kopoi bikain bat ere bai. Kanpaiak ez dira ostera atzera etorriko ostu egin zituzten zoritxarrez.

Erri au berritzen dutenean, zeinen ederra geldituko dan bazter au! Iraty ibaia poztuko da berriz.

Altxa giñan eta Garmendiarrei ezkerak eman ondorean atadira atera... Erretorak Azparren'eraino berebillez eramana nai ginduen; «Orrela 5 kilometro oiek bereala egingo ditugu ta azkarrago sartuko zerate Aezkoa'n. «Gure asmoari eutsi genion. Etxera lagundu genuen erretora. Galtzak eta oñetakoak aldatu nai zitun. Bere asmoa bestea zan. Azparren'go bidea guk oñez egiten genula, Don Benitok lo kuluxka egin nai zuen. Bidezkoa gainera. Gizon au osasunarekin erdi purdi dabil eta bere burua asko zaindu bear du. Bere etxera, beste kafe bat artzera eramana ginduen. Ezezkoa ezin eman eta arreba agurtzeko aitzaki ona. Alaxe joan ginan ixtanpa batean. On Benito adiskide miñari ezezkerik ezin nion eman. Izketan asi ezker ezin gelditu. Adiskide jator oneri esker Irati aldeko Artzibar'ko lurra, errixkak eta mendiak ezagutu nitun. Ba ditugu alkarrekin ateraldi jakingarriak eginak, maiz gogoan berritzen ditudanak. Oroitzapen guzti oiek, une ortan bururatu zintzaizkidan.

Bein ikaragarria egin genuen. Artzibar'ko erri basatienak ezagutu nai nitun. Benitori bidea galdetu nion. Eragozpen aundiak jarri zizkidan. Ikusi zuen nere asmoa, bakarrik eta nolana joateko aiña nintzala. Aitortza polita egin zidan: «Artzibar'eri buruz liburuxka bat egiten ari naiz eta errixka oiek

bear bezala agertzeko ezagutu bear nituzte. Zurekin, ori egiteko aukera dut. Lagunduko zaitut». Naparroan dagon basamorturik aundiena ezagutzera, orrela alkarrekin joan giñan. Gure asmo au orain dala 4 urte bete genuen. AR-TOZKI'raino berebillez joan giñan. Erri au Artziberko egoaldera dago. Agoiz'ko bidean. Iñarbe igaro, zelai batera ateratzen da, zubi batetik errixka bertan, toki patxara ederrakoan. Eliza erromaniko gotiko garaikoa, bazter batean gaineko aldean; errenazimientoko gurutzeta, Amabirjina barrokoa ederra; Santa Luzia gotikoa. Apaizaren etxea utsik, 26 sendi bizi ziran. Bat batean 10 sendik alde egin dute. Gelditu diranak zalantzan. Ez dakite zer egin ala diote, «Ez dugu ez sendagillerik, ez apaizarik, ez eskolik. Emengo aurrak Iruña'ko ikastetxean ditugu». Tokia berriz zoragarria da; ura ondoan, Irati ibaia lodi egiña, aize osasuntsua, eguzki garbia, lur zabalak. Turismoarentzat tokia ezin ohea. Benito Urtasun'ek, 92 urteko aitona zar bat ikustera eraman ninduen. Kalixto Legasa gizon zarra azkenekotan zegoen, il zorian oro gaxorik. Aezkoako errañak zaintzen zuen. Ala esaten zidan euskaraz emakume otz onek «Aitakin euskaraz elekatzen naiz». Goiko gelara igo giñan. Baina gure aiton zarrak etzuen ikusten, eztare entzuten eta arnasa ezin arturik zegoen. Ain gaizki ikusita pake santuan utzi genuen.

Etxeak, batzuek oso zarrak dira, bat gotikoa eta barrenean enparantxatxo batekin inguruan balkoia dula. Izenak kutxu aundikoak; Ayantx, Ezpeleta, Junazuri, Arrotxa, Xuriko, Lutzea, Elizazar. Erri ontan masti batzuek erdi utsak, kaxkar xamarrek ikusten dira. Len txakoli goxoa egiten omen zuten.

Ementxen ezagun batzuen etxean, On Benitok mando bat artu nai zuen egun ontako bide luzea egiteko. Eman ziguten mandoa erdi oroa. Igo zan gainera Erretora. San Migelen baselizako bidea artu genuen. Bero aundia egiten zuen. Erritarrak arratsaldian ekaitzaren beldurra zeukaten batez ere arriarena eta elizatxoaren ondoan karburuzko kañoi batekin deskarga egiteko gaiak prestatzen zebillen gizon bat. Nunbait laño beltza sortzen danean kimikako autsa bat botatzen dute lañoa garai desegiteko. Agustín genuen kañoiaren zaindaria ta gu aurrera. Orrelako batean, zauliak edo odol txarrak nastu zuen mandoa, asi zan txorakeriak egiten eta biurritzen. Erretora gainean gogor. Eroaldia eman zion mandoari, bi pullanka bota zitun, erretora okertzen da zaldi gainean eta arkaitz tartera botatzen du. «Akabo gure erretore ta gure basamortua», nion nere baitan, erretora aidean arkaitzetara erortzen ikusi nuanian: lasterka joan nintzaion. Zuri Zuri egiña zegoen, eskuekin saieskiak artzen zitula, «Mando madarikatua» esaten zuen. Pixkanaka asi zan arnasa artzen. Altxatzen lagundu nuen. Buruan etzuen miñik artu, odolik ez genuen ikusten. Zutik bero bero zegoen nere adiskidea, «ez da ezer» esan zidan; «Goazen errira beste mando baten billa». Gure aurretik zihoan bakarrik mando ustela etxe aldera. «Ez gera ondo asi», nion nere baitan. Errian gizasemeak parrez gure zai. Beste mando



Arizkuren'go eliza larrapean.

gozo bat eman zioten erretorari. «Banekin naiko lan emango zizula abere txar onek. Ondo ezagutu bear du», mandozaleak. Ixillik nijoen mandoaren atzetik. «Gaiarki arkitzen ba dut nere burua esango dizut» erretoraren itzak. Goizeko amaika terdietan antxen ginjoazen gure basamortura. Lendabizi urgeldiaren gaiñeko aldetik artu genuen bidea. Gero malkarra ta aldapa; mendia garbia zegoen. Piñu batzuen ondolik sartu giñan. Batere aizerik gabe, malloak bezala jotzen zuen eguzkiak. Lepo batera aterata esan zidan On Benitok «Uste dut emendik dagola ULOZI'ko bidea» Beruntz artu ta ondo ikusten ziran etxe eroriak. Eliza, larrak artua, alderdi guzitik lertzen; 18 garren gizaldiko erre- taula baten aztarnak ikusten ziran. Inguruan etxeen ormak txintxilik eta biz- pairu zugaitz. Lur erre arek etzuen itxura onik. Azkeneko sendiak orain dala 30 urte alde egin zun. Erri onen nagusia Jauregizar'ko markesa omen. Erri oneri buruz esaera bat da dago «Ulozira, erria emanta ere ez diteke bat joan». Ango itxura txarra ikusita, biotza oztuta gelditu zitzaigun. Erreka aldera abiatu giñan sartalderuntz. Ura bera ta gu ondolik gora: sasiak eta baso itxia ondoan. Ezker aldetik gaineko aldean mendi magalean ULI-GOIKOA ikusi genuen. Orain dala 7 urte sendi bat bizi zan eta Benito Urtasun oroitzen da nola iru apaiz illetara oñez etorri ziran. Eliza erromanikoa da, sarrera arku erdi boro- billakin. Dorreko kanpaiak ijituak ostu dituzte. Elizaren ezker aldetik biz- pairu etxe oraindik zutik. Ikullu bat ate irekiakin, abel gorriz betea zegoen. Bero aundi arekin itzala nai zuten nunbait. Orain ez da iñor bizi, noiz beinka unaia dator. Elizaren gaiñeko aldian zelaitxo batean itzalean bazkaldu genuen; urdai azpikoa, gazta, ta igaliak. Mandoa, ondoan, belarra jaten. Luzatu gabe altxa giñan eta erreka aldera, alde. Betik ain izen politako erri illari begiratu bat eman nion eta Izaga ondoko nekazari batek esana bururatu zitzaidan: «Gu gazteak giñala, txolarte aundiena Uligoiko'an egiten genuen. Erri ortako fes- tetan, iru eguneko jaia izaten zan. Aizesonuakin, gaba ta egun, dantzan, lertu arte».

Erreka ondolik ginjoazen eta bi alderditik mendi zikiña ta itxia. Ariz- kuren'era joan nai genuen bainan Erretorak etzekin ziur nun zegoen. Goiko mal- kar batean eskubi aldera borda ikusten zan. Putzu aundi bat igarotzerakoan subea igeri. Pixti txar ura joan bezin azkar igaro ginan; basoa itxia ta zikiña. Piñu batzuetan txintxilik gatza goxokien antzera aberentzat. Mendi bidea ikusi genuen eta andik gora; larra, sasia, arantza, sastraka; an zeuden eragozpen danak ibiltzeko. Goiko mendi arkaitzperaño atera giñan, gero bordara jetxi bainan erririk etzan ageri. «Emen izan bear luke, an ote da?», zion Benitok, «galdu gera, geroxeago». «Goazen atzera berriz errekarano. Beste mendi artan izan bear du». Atzera berriz, mandauliak bidali eziñik eta zaztaka ederrak ematen zizkigutela. Egarria. Aoa legorra, paperan antzera biurtua. Beko erre- karano jetxi eta ezker aldetik mendixior estua artu ta goruntz poliki poliki. Nere



Erdiario'ko jauregia Ekizan.

soña arrizkoa nula zirudin. Otaka ta sasi zikin zakarra erditik igaro ta goiko ariztegira atera bear. Orduntxe aritz batzuen atzetik gure errixka goien, goiko mendiaren magalean ikusi nuen. Ariztegi artaraiño ateratzen kostatuta zitzagun. Zugaitz aundiak, baso galanta alderdi artan. Gure atzeko aldean, gu ibillitako mendia basoz josia ikusten zan. Antxen egin genitun gutxinaz iru ordu galduta. ARIZKUREN gure aurrean usturik, illa, Araxamendi mendi magalean. Etxe danak ia lurrean. Etzan nolanaiko erria. Elizaren aurrean illerria sasiak dana artua. Eliza erromanikoa, arri landuzkoa, ategainean krismoia. Sarreran sasi zuztar lodia. Bidea garbitzen naiko lan, eskuak eta soña urratu genitun, larrutu zitzagun azala. Eliza barrenean zola altxatua ezurak bazterretan. Bataio Pontea erromanikoa autsia, urbedeinkatuen ontzia lurrean. Ura zan erri baten eriotzaren itxura txarra. Elizaren ondotik goruntz etxe batzuen artetik igo giñan. Bi alderdietan ziran etxeen aurreak zutik zeuden; arrilandazkoak jauregin antzekoak, sarrera zabalekin. Azkeneko sendiaren burua, tratantea omen eta edan egiten nunbait, zerbait gaizki atera zitzaiola ta anka. Diputazioak erosi du erria ta zugaitzat aldatu ditu. Emendik urte batzuetara, Ulozi, Uli ta Arizkuren'go baztar ontan baso galanta azi ondorean lur basati beldurgarria bihurtuko da. Emengo mendien beste aldean Urraul goikoa ibarra gelditzen zaigu. Erretorak dionez, emengo errixka auen antzera, an ere usturik daude ta ikaragarritzko basamortua izango da emengo basoak Urraulkoakin bat egiten dula. Izan leike emen egotea Naparroak daukan basamorturik aundiena ta basatiena. Ala diote inguruetako gizasemeak.

Arizkuren'dik Ekiza'rako bidea artu genuen. Lengo galtzara zarra da. Galtzara edo gurdi bide onek mendia zear artzen du ipar aldera. Lepo batera atera giñan; borda, belazea ta burnizko arantzakin etsia. Illunabarra sartu zitzagun. Benito mando ganean, ni atzetik motel, oso motel gaiñera. Orduterdiko bidea eginda egi batetik, baso bat igaro ondorean magal zabal batean EKIZA jauregia. Erreka bat azpitik eta gaiñeko aldean errixka. Don Beniton eliztarrak dira. Lendabizi morroia beiak edanarazten ikusi genuen, gero etxeoandreairen aita, biyek euskaldunak. Jauregira eraman ginduzten. Sukalde berri ta eroso batean sartu bezin aguro alki batean etzanda gelditu nintzan burua mai ganean nula. Ez nuen ezer entzuten, ezta ere ikusten: egarria bakarrik nabari. «Lertuta dago», zion etxeoandreak. Apaltzen eman nai ziguten, nik ezin. Pixko bat lasaitu ondorean eguneko azkeneko argiak eliza ikusi nai nuen. Jauregi ondoan larreak. Nunai zaldiak eta beiak. Azpian erreka garbia, bizpairu tokietan putzu aundiak ditula.

Ekiza toki irikian gelditzen da, bakardade aundian. Lenengo erria bost kilometrorra dauka. Eguteran dago: eguzkiak ondo gozatzen dula. Osasunarentzat toki gutxi izango dira ain onak. Txoriaren otsa ta aberearen yoareak, ez da besterik entzuten. Tokia basatia ta eizearentzat egokia.



Saraitsun erdiaroko eliza.

Ekiza, Artze baillarako lurra da, Urraul ondoan dagona. Gaur bidez Artozki'kin lotua arkitzen dugu. Lasaitasunaren billa dabilzanentzat bikaiña.

Ez da beñ ere erria edo errixka izan. Emen jauregian zalduna bizitu da. Gaur sendi bat dago. Inguruetako lurralde, mendi ta basoen nagusiak dira.

Etxe barrena, ain urruti bizitzeko oso ondo apaindua daukate ta erosotasun aundiak dituzte. Argia ere berez sortzen dute.

Senar emazteak bizi dira. Ez daukate aurrik. Gaiñera emaztearen aita ikusi nuen, berez aezkorra; Basaburua'ko morroi bat daukate. Eun abere buru zaintzeko norbait bear. Nere ezustea aundia izan zan bi euskaldunekin topo egin nuanean. Aezkoa'ko aitonak eta Basaburu'ko gazteak euskaraz ondo zekiten. Lasai gure izkuntzan mintzatu giñan. Orain eun urte Bonapartek dionez, emen, Artze baillaran, euskaraz egiten zan, gaur ez.

Ezkil dorre luze batekin ageri zegoen eliza; ikusteko gogoia neukan. Oso garbia arkitu nuen. Ba dauka erromanikoa bataio ponteia, ikusteko ainekua; zabala, borobilla, arrizkoa, pelota antzeko irudiakin. Gaiñerako gauzak etzaizkidan ain ederrak iduritu. Ba daude ol margotuak, baiñan asko balio ez dutenak eta ondatuak daudenak.

Geroago jakin dut, eliza ta aurrean daukan illerri txikia berritzekotan dabilzala. Nunbait oraingo nagusiak beren osabengatik daukate jauregia eta aiek beren azken itzan agertzen zieten, beren ondasunen jabe izatekotan emengo eliza ta illerria berritu ta zaindu bearko luketela.

Berritzekotan zebiltzala jakin nuanean poztu nintzan. Aintziñakoen itza betetzea gauza ederra da ta aien naia aurrera eramatea ohea. Eliza ta illerria toki santuak dira ta geroagoko bizitza ta aintziñako gizonetaz oroitu arazten digute. Toki oiek guztiz berexiak ditugu ta merezi dute beti apainduta eukitzea. Gaiñera emengo eliza berritzea bidezkoa da; sendoa, arrizkoa, antziñako kutsu aundikoa ta toki egokia.

Eliza au berritzea, lengo zarren gogoan zegoen ta aien naia egitea, legea betetzea da. Entzun det ia 600.000 pezeta kostako zaiela bear bezala berritzen. Arri zar oiek balio aundia daukate, sisismenaren ezaugarri ta gure arbasoen ametsak edergallu biurtuak dira.

Jauregian jaten eta edaten ugari eman ziguten. Gorputza arindu genuen eta gaba gaiñean sartu zitzaigula Artozki'ko bidean jarri giñan. Gaba illuna, erreka azpian, arkaitzak ugari bide bazterrean. Ematen zuen ludiko azken muturretik gentozela.

Gazteluko nagusiak lasai zeuden erretorakin izketan ta guk ikusitako errien berriak jakin naian. Erri oni buruz esaldi politikak entzun genitun: «Ekiza'n eguzkia ateratzen da, Arizkuren'en illargia, Uli goikoan izarrak eta Azparre'en aberastasuna». Beste esaera zarrak ala dio: «Azparren paraisoa, Ekiza bigarren



Etxo'ko eliza.



Eliz inguruan Bidangozen.

zerua, Uli goikoa purgatoria ta Arizkuren inpernuua». Aspaldiko asaera oiek zerbait esan nai dute.

Illunduta bide eder batetik Artozki'runtz abiatu giñan. Mando gainean oraingoan ni joan nintzan eta erretora oñez atzetik.

Ibillialdi ontako eragozpenak ikusita, normaik ulertuko du zerengatik artu nuen, Naparroan zear ain goitik bidea. Errege bide ondolik ez nuen ibilli nai ta Arizkuren ta Urraulgoi'ko mendi zulotan ez sartzegatik zernai emango nuke; mendi illunak, baso zikiñak, bideak urratuak edo galduak. Orduan goigotik ibilli bear.

Artozki inguruan, utsik dauden iru errixkak, ere ezagutzen ditut. MUNIAIN' Artozki aurrean errege bidearen gaiñeko aldean aldapan. Buruzokoa mendipean eguteraan. Eliza ganean, txikia erdiarokoa ta etxe galanta, jauregi zarra bean; bataio ponte gotikoa dago ta Santa Zezilia barrokoa. Artozki'ko zubia igarota ezkerreta mendi bidea artzen da. Aldapa igo ta errixka, gain batean dago egutera aldera USOZ izena du; Eliza erromanikoa, txikia, bataio pontearekin. Barrengo iduriak eraman dituzte gotzaitegira. Etxeak zarrak dira ta 15 garren gizaldiko bizpairu leyo gotikoak ageri daude. Eliza ta etxeak irikiak zeuden. Erri inguruan mendi garbia, bainan legorra ta belarrik gabe, arrixka ta iñarra.

LAKABE'ko bidea, Oroz'ko karreteratik ezkerreta artzen da Iñarbe'ra iritsi aurretik. Mendi bide aldapatsua, orregatik goiko leporaño igo bear. Errixka au Lakarri mendipean dago. Eliza alde batean egutera aldera bakarrik eta erria auntxaxeago. Eliza sarreran, goiko aterpetik eroritako engor luzea dago txintxilik. Emengo 16 garren gizaldiko zillarrezko gurutzea Oroz'ko parrokiarian daukate ta irudiak Iruña'ko museoan. Erri ontakoa san Ibarra Kalonjea, Orreaga'ri buruz liburu mardula ta sendoa gizaldi ontan idatzi zuna. Euskaraz ba omen zekin. Erri au ustu aurretik, bertan zeuden zarrak euskaraz ba zekiten.

Berebillez igotzeko bidea euki izan ba lute, ez lirakela danak joango, entzun nuen. Zoritxarrez ikusi ditugu erriak erregebide ondoan, toki zoragarrietan, aurrerapen aundiekin, argia ta ura jarri ondorean usturik gelditu diranak. Gaitzaren zuztarra urrutirago billatu bearko da. Buruauste ikaragarri oneri buruz, len ere bizpairu lantxotan agertu dut nere ustez oñarria. Eziketaren aldetik askatu bear litzake korapillua. Erri txikitan lan egin eta bizitzeko gaur giza-semeak eziketa berexi bat artu bear dute gaztarooan. Soroa lantzen ez danean, dan dana larrak itotzen dute. Erri txikietan berdin gertatzen da.

Atertu zuen eta eguzkia gurekin genuen. Oñez AZPARREN'era errege bidetik abiatu giñan. 3 kilometro daude Oroz'tik. Aldapa pixkana gora dijoa. Lendik ezagutzen nuen errixka polit au. Benito Urtasun Oroz'ko erretoraren sorterria da. Bein ikustera eraman ninduen.

Oraingo ontan batez ere, Abaurregaine'ra zijoan mendibide ondoko bazterrak ezagutu nai nituen. Ez dakit zerengatik nai onek edo mendi bazter oiek deitzen ninduten. Batez ere Azparren'goak Aezkoa' koekin zeuzkaten artuemanetan, nundik nora jotzen zuten jakiteko; aberezaleak, basamutillak, artzaiak, festetan eta abar.

Azparren ikusten genula Benitok berebillez aurreratu ginduen otsa turutari eragiñaz. Geroxeago enparantzan gure zai genuen. Anaia-
ren etxera kafe bat artzera eraman ginduen. Sendi zoragarri ura agurtu, erriko berriak jakin eta Eliza begira gelditu giñan. Errixka au ez da nolanaikoa.

Erria ta inguruak politak dira. Baigura mendia andik bertan dago, bere 1472 metroekin. Mendiz bidea dute Abaurrea gaiñera joateko. Garai batean gizarteko artuemanak bide ortik egiten ziran.

Eliza, oso ederra; arrizkoa, amairu garren gizaldikoa. San Martin izena darama. Bataio ponte ederra du, erromanikoa, indar aundikoa, arrizko pelota batzuen antzekoak ba ditu. Baita gurutzea zillarrezkoa oso ona dauka eliz onek, amasei garren gizaldikoa.

Parroki onek ba ditu bitxi ederrak, ugari ta oso onak. Nunbait, obispadokoak Iruña'ra eramateko beldurra zuten ta erretore etxean museo baten antzera gela bat antolatu dute bitxi guztiekin; amabirgina bat gotikoa; beste bi amabirginak amasei garrengoak, bestea gotikoa, baita ere San Migel bat emezortzi garren gizaldikoa.

Ain ondo antolatuta dagon gela erretore etxean arkitzen da. Apaiza ez da errian bizi ta etxe au utsik daukate. Tokia bai dala egokia ikastola baten aurrentzat udarako lekua antolatze.

Etxe ortan ere, erritar guztientzat jarria daukate edantoki bat. Bakoitzak bere giltza dauka ta artzen du bear duna bertan ordaña utziaz.

Erri ingurua, basoz josita dago. Errixka onek ia urtero mendiko egurrakin 300.000 pezeta biltzen ditu. Diru orrekin erri osoa apaindua daukate ta bear dituzten tresna guztiak baia erosten. Orain berriz beldurtuta daude. Zortzi sendi bizi dira ta urtero erria ustutzen dijoa. Etxe batzuetan guraso zarrak bakarrik gelditzen dira. Iru sendi edo famili baino gutxiago izan ezker, erriak bertako basoaren eskubideak galtzen dituzte ta orduan Diputazioak artzen ditu bere gain. Ori ez gertatze arren ta basoak diru asko ematen dualako pentsatzen asi dira ez ote litzaken bidezkoa, Andaluziatik sendi batzuek errira bizitzera ekartzea. Ez dago gaizki pentsatua. Gaur Naparroa'ko errixketan gertatzen ari dana ikusita, gogoia ematen du Afrika'tik beltzak ekartzea,



Azparren Artzibar'en.

gainerakoan Naparroako baillara sailak basamortuak biurtuko zaizkigu.

Etxeen izenak ere alakoak, ederrak eta oso euskaldunak; Ramonena, Paskualena, Semetxiki, Iriarte, Irigoien, Iturri, ta Beroki.

Oso gutxi arte egiten zan euskaraz. Gaurko gizon ta emakumeak aurtzaroak etxe guztietan entzuten zuten. Oraindik esaera ta itz asko dituzte gogoan.

Oraindala ogeita amar urte erriko artzaiari entzuten omen zioten oiuka asten zanean: «ABREAK, ABREAK... EKIZA bidera edo ERREKA bidera...»

Garai berdintsuan, Garizuma igandetan mutillak etxez etxe eske zebiltzan eta «ITXAUSAGA» esaten zuten ta intxaurrak biltzen zituzten.

Erri auek, naiz aberatsak izan, oso gutxi beren alde egin dalako, iltzera dijoaz.

Berealaxe goiko azkeneko etxeraño aterata Abaurreko errekaruntz joan ginan. Erreka ondoan dijoan gurdi bidea artu genuen. Laño zuriak genituen gure ganean. Errekan otza ta inguruak bustiak. Ur garbia kantari, gorondilloz bildutako arri borobil en tartean egindako bidetik zijoan. Noizbeinka putzu aundiak, bestetan jauziak ematen zitun, bestean berriz zabaltzen zan ta xorrot me ta tantotan zijoan. Bi alderditara baso illuna ta galanta, pago liranak, zuzenak, luzeak, ostajea zabala, betea. Basopera ateratzen asi giñala, orbela usteltzen ankapean. Lerra ere goi aldera ugari zegoen ta tarteka txopo makala ostoak margoz aldatzen, muskerra uzten ta gorrixtak artzen. Ibilli ta ibilli, erreka, arria ta basoa. Soñarentzat ibiltzeko girorik onena. Gañera gidaria ezin ohea genuen bertako semea, gaztetxo garaian artzai ibillia ta bazterrak eskua bezin ondo ezagutzen zituna. Guretzat ez nolanaiko zoria. Bazter arrotz aietan Baigura (1477 mtr.) eskubi... Mizkiluz (1318 mtr.) ezker genituela gu bi mendi oien magalpean bakarrik ibiltzeak beldurra ematen zuen. Izketan ta oñez gelditu gabe ginjoazen, gure itzak; idaz lanak; Oroz eta Artzibar'ko goraberak. Orduntxe jakin nuen Simeon Oroz'ko maixu euskalzale jatorrak gaztetxoei txistua erakasten zebillela. Bizpairu urterako ba zituzten orrela, Oroz-Betelu'n txistulariak; egitazko eziketa orrekin berpizten da euskal sena. Gañera neska talde bateri Beniton arrebak, euskal dantza errex batzuek, erakasten asia daukagu... Urte gutxitan orra Oroz aldatua arkituko genuke. Euskalerriko izarra Naparroko zulo illunenak argitzen zebillen.

Azkenean oso gora atera giñan, putxuak zeuden ta gure bidea lokatzez betea. Bazterretik al zala ibilli bear. Gizon bat ikusi genuen beien billa. Bi itz euskaraz egin genituen. Abaurregaine'koa zan. Basoa garbitzen zijoan ta belar xea zelaitxo batzuetan agertzen asten zan. Zugaitzen tartetik urruti bañan gure aurrean Auñamendi ageri; arkaitz zorrotzak, itsaso arrotuaren antzera, urdin illunez jantziak. Antxen euki genituen Benito'kin azken solasak; «Jarrai bide oneri ta Abaurrean zerate». Orduterdiko bidean lagundu ginduen Benitok, ura zan adiskidearen biotz zabala. Aldapa bera otoitzean joango zan gure apaiz ona. Noiz beinka nere ustez berrituko zitzaion mandoak Ulozi'ko bidean emandako ostikoaren oroitzapena.

Aezkoa'ko ibarra basoz josia

Basotik atera giñan. Eguzkia joan zan, baiñan argi zegoen oraindik, zeruan laño zuriak gorritzen. Gure aurrean patata sailla zelai zabalean ta Mendizorrotz (1152 mtr.) mendixka zugaitzez jantzia. Zelaitik bidea artu bearrean mendixkaren ezkerretik zear aurreratu genuen. Gurdi bidea, traktoreak irikia zegoen, erdian putzua ta bi alderditarā lokatza guri guria ondo bustia. Galtzak zikindu gabe ibiltzen zailla. Emen irristatu, an larrak edo arantzak zulatu, ustekabean belaunaraño putzuan sartu. Etzan errexā ibiltzen. Abaurrepea errixkaren gaiñeko aldean ginjoazela, ezkerreta Aezkoa ibarra genuen, mendi, baso, belardi, arkaitz, errixkak ageri zeudela. Begientzat gauza politagorik billatzen zailla. Burua berriz ametsetan.

Aezkoan barrena oñez asko ibilli naiz, gainera emengo euskarak ba du goxotasuna; xamurra da.

Lenengo aldiz Orreaga'tik Erronkari'ra oñez egin nuen bidea: Ariztegi ta pagadietan barrena, zugaitz bat otsalizar delakoa aritz zar baten barrerrik jaioa ikusten ibilli giñan. Andik pinudi batera atera ta Nabala baserriko atadiaño jo genuen; nunbait, Irati'ko bidea nun zegoen galdetu bear. Nabala'ko etxeakoandreak ederki egiten zuen euskaraz.

ORBAIZETA'KO oategira joan giñan eta Orion'ondotik Irati'ko zingira'ra jetxi. Ur bazterrean lo egin eta Abodi'tik Otsagi'ra atera. Ementxe Aezkoa gainean ditugu mugaldera, izan ditezken basorik galantenak. Irati basoaren izena artu dute. Baso ikaragarri au Azkoa'ko menditik Saraitsu'ko lurretaraño zabaltzen da. Auñamendi ego aldean zati bat, Aezkoa ibarra'koa

da ta bestea Saraitsu'koa ta oraindik mugatik beste aldera Baxanabarra ba Xibero'raiño edatzen zaie.

Aezkoa menditako irabaziak Estaduak biltzen ditu, baita Saraitsu'ko «La Question» delakoa ere. Baiñan Saraitsu'ko ibarrak Irati'ko basotik irabazi aundiak jasotzen ditu.

Egun, Aezkoan beren mendiekin buruauste aundi bat daukate. Estaduak ontasun danak eramatea ez dute ontzaz artzen. Alderdi ortan lur aundiak daude. Izenak ezagutzea merezi dute; Auritzeko mugatik asten dira ta Saraitsu'raiño dijoaz: Nabala, Murukoa, Itolaz, Bago, Urdiñeta, Azpegi, Mendilatz, Iraun Orion, Erlan, Mozoloak, Morate, Aritxilatz, Gibealea. Azkena dugu onena ta aberatsena. Egurretan, Estaduak urtero bederatzi milla metro kubiko egur ateratzen ditu, amar milloi pezeta. Egur ori oso ona da, geiena pagoa. Artu ta Valencia'ra eramaten dute. Bertan gelditu bearrean ta bertako semei lana eman, urrutira daramate. Noiztik dator gaitz au? Aspaldikoa da. Orbaizeta'ko burni ola berritu ta berea laxe, 1784 garren urtean erregearen izenean Estadua'ri eman zioten; bein eta betiko bi arrazoiengatik. Alde batetik guda olategi onek egur asko bear zualako ta gaiñera Estadua'ri egur guztia eman ezker, Aezkoarrak ango larreak, bein ere impuesto edo zergarik ordaindu gabe artzekotan gelditu ziran. Egurrari nunbait orduan etziotan baliorik ematen. Gaiñera orrela bertako semeak lanerako ba zuten lantegia, ta Estadua'ri etzioten zergarik ordaindu bear. Orduko aezkoarrak gaurkoak bezala erneak izaki. Asiera onak baiñan ondorengo txar-rak.

Estadua'ri mendiak uztea, etzan ain arin joan. Bizpairu asteko lana izan zuten. Lenengo, Aezkoa'ko erri bakotxetan, nagusiak beren eskubideak, banaka alkatei eman zizkien; ondorean alkateak erregearen ordezkariari. Azkenean, erregearen ordezkaria, mendi oien jabetza eskuratzera etorri zan. Bere lan ori ondo azaltzeko, basoetan sartu zan, adar muturrak puskatuz eta arreketan anakak bustiz.

Garai zarretan, Naparroa'ko erregearenak omen ziran baso ta mendi oiek. Zerga baten bidez, Santxo Azkarrak Aezkoarrei utzi zizkien. Orain, ordain ori ez emate arren berriz Erregeari itzultzen dizkiote.

Eskuratze orretik gutxira, 1834 garren urtean, Aezkoarrak kontratua salatu zuten, beste aldetik baldintza batzuek bear bezala bete etzituztelako. Adibidez, Estaduaren ordezkariak, bertako gizasemeak gaizki artzen zitula esaten zuten baita gogorregi egiten; frantsesak obeto erabiltzen zituztela. Gero Karlisten gerrate ondorean olategia itsi zuten eta bertako sendi asko bizibiderik gabe gelditu ziran.

Aezkoarraz irabaztera zijoaztela uste bainan azkenean beren baso galantak eta ederrak galdu egin zituzten.

Berriz Primo de Rivera'ren garaian, basoen nagusitza jasotzeko asmoakin asi ziran ta agintari onek zerbait agindu zien. Orduan ere erregearen izenpea tear ta bitartean Militarren buruzagiak agintaritza utzi zuen... gaur arte. Itz onak bai, azken erabakirik ez.

Aezkoa'ko etxegaraiko nagusiak, miña aundiakin garai zar aietako kontratuaren agiriak erakusten dituzte.

Basoak Estadua'ri utzi zizkioten 1784 garren urtean ta orduntxe bertan Aezkoa'ko ibarraren batasuna autsi zuten ta erri bakoitxak bere askatasuna lortu zuen eta ekintza orren ezaugarri bezala Errikoetxeak eraiki zituzten.

Beste batean Orbaizeta'tik muga aldera ibilli nintzan, oñez egin nuen joan etorria bakarrik. Urkulu mendi tontorrean gaztelu zar bat ikusteko gogoa izaki; gaztelu au erromatarren garaikoa dala diote batzuek. Urkulu tontorran (1404 mtr.) orma galanta arri lodiekin egiña ageri da. Batzuek Ponpeiok erromatar buruzagiak eraikitako gazteluaren oñarriak dirala esaten dute. Besteak Erkules'en (Urkulu) eliza. Beste batzuek aintziñagokoak dirala oraindik. Nolakoa zan ikusi nai nuen. Gero andik jexita, Azpegi ta Iropil larretokietara urbildu nintzan; jentillen barratzez, treku arriz (dolmen) eta kromelez betea dago mugaraiño, ainbeste batean ez ditut iñun ikusi. Artzantza toki ederra bai ura. Belar gaiñean oñez ibilli leike lasai.

Olategi zarraren ondoan dauden etxetan euskaldunekin euskaraz mintzatu nintzan. Larrau'ko baserrietan berdin. Lorentxo etxean ezagutu nuen Arantxa neska gaztea euskaraz ondo egiten zuna. Zabalegi Gipuzkoa'ko nekazari eskolan bi urte ikasten ibillia: Principe de Viana euskal aldiskarian lantxo bat agertu nuen neska oneri buruz eta garbi asko esaten orrelako euskaldun jatorra ta gaztea ezin genula basetxean utzi.

Ikastola batean merezi zula artzea biarko egunean mendi aietako errien euskara zuzpertzeko. Neska onen ama Gipuzkoarra da. Arantxa'ren amaren aizpa onera maestra bezala etorri zan eta aizpa berekin batean bizitzeko deitu zuen guda aurretik. Emendik Gipuzkoa'ra aldatu ziran. Geroago Lorentxo etxeko mayorazgoak ezkontzea oldoztu zuen eta maestraren aizparen billa Gipuzkoa'ra joan zan. Orrela dira kontuak.

Gaur Arantxa andereño bezala dabil. Larrasoain'en asi zan, Iruña'ko Diputazioaren ikastaroa egin zuen eta orain Zubiri'n dago.

Orbaizetan euskal zaletasuna pixten ari da, indarra ta gogoa Aezkoa'ko azpiko erritik datorkio batez ere Garralda'tik. Emen orain dala zortzi urte ekintza polita egin zan; Aezkoa'ko eskulanean agerketa ta erretoretxean tolestatu zuten. Zer esanik ez arrakasta aundia jaso zutela. Aezkoan aspalditik eskulanetarako bai egur edo liñu gauzetan trebetasun aundia agertu dute. Merezi luke bide ontan lan sakona egitea edo museo txiki bat emen irikitzea.

Orbaizetatik bizpairu kilometrora ORBARA izeneko errixka, Muti ta Aize azpian dago; 16 sendi ditu. Orain euskara era bat galdu da. Mateo Maisterra maisuak euskaraz etzuen nai itz egin. Apaizak utzi zuen. 87 urteko gizonak, Franzisko Arostegi'k esaten zidan gaztea zalarik, Aste Santuan «Kruzeak» euskaraz egiten zituztela ta Eguberritan etxez etxe euskaraz kantatzen ibiltzen ziralara. Festetan ere Linzoan'dik txistularia ekartzen zuten. Inguruka ibiltzen ziran dantzan.

Eliza erromanikoa dute ta atarian ilarri diskoidalak orman sartuak. Basotik ateratako diruakin Aiza goien dagon larretokira bide ederra egin dute.

Erri au oso ezaguna da Aezkoan, Orbara'ko ipuilariarengatik; gizonaren izena Juan Iriarte'koa. Ba daude esaera zar asko euskaraz biltzea merezi luketenak. Orain asko erdaraz itzuliak dauzkate; azeria, satorra, alkatea ta beste olako gaiiei buruz.

ARIA erria ez dago urruti. Aribe'ra goazela eskubi aldera goien gelditzen da, etxetan danak euskaraz egiten dute. Emengo erretore zana Martin Olabe, Bonaparte Printzearen laguntzalea genuen. Principe de Viana euskal elkarteak 1960-11-13 an, euskal jai bat egin zuen. Sebastian Retegi 13 urteko erriko mutikuk agurtu zitun. Aurrak Eguberri kanta egin zuten. Orain Intxausti'tar bi aizpak azkeneko bost urte auetan erri ontako berri guztiak jasotzen ari dira eta bizpairu lan sakonak Diputazioaren aldizkarian agertu dituzte.


Bean ibai gainean ARIBE errixka gelditzen da. Gaur euskaraz oso gutxit dakite, orain eun urte 1869'garren urten Bonaparte Prinzea etorri zan eta Martin Elizondo ostalariakin arremanak euki zituen. Astete Kristau ikasbidea eta 50 eresi euskaraz itzulita, Londres'en argitaratuak daude. Len ingurutzua ere dantzatzen zuten baita ere San Joakiñen baselizan.

Beste batean Orbaizeta'tik IRIBERRI'ra joan nintzan. Irati ibaia igaro, aldapa luze batetik goiko zelaira atera.

Arrondoa aitz aundia, alde batean dula ta bestean mendia, lepoan datza erri alai au, bakardadean, zeruari begira zorutzen. Bertakoak euskaraz IRIBERRI deitzen diote.

Errian sartzerakoan, sendi geienak, atarian zeuden garia jotzen. Etxe inguruetan, barra barra, euskaraz mintzatzen geianak' Ta ori nun? Auñamendi'ko lepo artan. Mirari bat iduritzen zitzaidan. Aurrak berriz eskolan erdaraz ari ziran. Etxetan txikiei euskaraz mintzatzen zaizkie, eskolan asten dirala gure izkuntzan egiten lotzatzen dira ta erderaz bakarrik ematen dituzte erantzunak.

Elizan berriz zer esanik ez. Jeronimo Burusko, 62 urteko gizonak, berak ez dula bein ere euskaraz predikatzen entzun esan zidan; ezta euskal kantarik.



Aribe'ko zubia.

Zarrak arakatsita, gazteak ez diote utzi oitura eder bateri, urtero berritzen dutena. Gabonetan Xubelare egunean, gaztetxoak etxez ibiltzen dira Eguberriko kanta zar bat kantari. Kanta onen itzak Jose Inazio Juanperez'ek eman zizkidan; Agesta etxeokak, berak oraindik kantatzen duten bezala.

Umeen Deia liburuak, Ismael Torres'ek antolatuak ba dakar kanta bat ia berdintsua, Iriarte'ko Juana Mari Juandeaburrek amabi urte zitula bialdua. Emen azaltzen dudan kantu onek ba ditu aldaketa batzuek eta orregatik argitaratzen dugu, ikusi dezagun bartako euskara nolakoa dan:

- | | |
|--|---|
| 1) Eridenen degu eridenen
guzien Jauna Belen'en
gazen guziek Belen'era
Jauna an adoratzera. | 7) Gaberdikoan argitzen du
Eguardikoan bezala
Orduntxe ortan atratzen da
iduzki jutziziakoa |
| 2) Eguberri, Eguberri
Gaur dela Eguberri
Guzien Jauna jaiio beize
Dugun alegirian | 8) Aingeru ederrak sausten dira
zerutikan lurrera
bere bereala faten dira
Judeako errira |
| 3) Eguberri gabea, Gaberdiko
;berean
Mutiko eder bat jaiio beize
Belen'eko irian | 9) Galde agunez, galde egiñez
zer ote den, nor ote den,
Malar errege sortu da |
| 4) Belen'eko irian
Zure doiaren andia
Zaren xin baitze, jaiio baitze
Jaungoikoaren semea | 10) Izar eder bat atratzen du
Ara goiti gartarik
Arratzean xuxen giatueren du
Errege malar Belena. |
| 5) Amari dezi Maria
beti Birgiñik ardia
eta Jesus seme ori
zeruan izen emana | 11) Presente ederrak ba dramakota
Iru Erregeak Jesus'i
Bate urreak, bertzen mirra
Beleneko intzentsasuna |
| 6) Egundeño eztute entzun
Mezen zunen guargoitik
Gaurko gabea gure Jesus
beti gizon einik | 12) Ofrenda onik badramakote
Belen'go portalera
Guziok junto sartu dira
Jerusalen barrena |



Iriberry'ko garia.

- 13) *Zartzai onak (administre)*
Berri on batengatiskan
Nola beite gure Jauna
Liberal pagazalea
- 14) *Eman dagu pagua*
paguarekin grazia
graziarekin gloria
Amen Jesus Maria
- 15) *Kantatu dut ederki*
Entzun ba nuzian obeki
Baradisuan sar zaitezela
Zek zauren konpañerakin
Ni ere naure onekin
- 16) *Zazpi tortxa argirekin*
Amabi irurekin
Doze pares biekin
Jesukristo iltzeko orduan
Zuekin eta gurekin
- 17) *Baratzean belar on*
Gabak eman du laur oron
Gu bagaza gemendik eta
Jaungoikoa diziela GABA-ON
- 18) *Etxe ontan laur ardi*
Laurek tuzte zortzi bearri
Etxe ontan ez ota da
nitaz oroitzen deni
egundeño exte ontan
eniz izan orei bezain egarri

Iriberrin'n 44 sendi bizi dira. Abelgorri ta lursagarrekin ateratzen dute bizibidea. Amar milla kilotik gora lursagar ereiten dituzte etxe bakoitzean. 40 abelgorri ba dituzte amabi etxetan; bestetan zortzi inguru ta iru etxetan artaldeak 400 ardikin.

Elurra aunitz nola egiten duen, azindak bazkatzeko udaran lana egin bear urte guztirako. Neguan berriz, esku lanak egiten zituzten etxe danetan. Oraindik etxe geienetan erakusten dituzte zarrak egindako bitxiak.

Errikoetxeat 700.000 pezetako egur lotea ateratzen du urtero. Diru orrekin gauza asko egiten dituzte; bideak konpondu, eskola ta apezetxea berritu, elizari txamiña berria jarri. Sendagillea ere diru orrekin ordaintzen dute. Gaiñera, Errikoetxeak, euskarazko Principe de Viana aldizkariaren aleak banatzen ditu ta ale bakoitxagatik urtero bost pezeta ordaintzen.

Ura ere oso ona dakarkiete, Itxurtziluetako iturritik. Urte ontan ere asiak daude etxeak konpontzen. Ba daude batzuek oso ederrak; arbelazko tellatu luzeak dituzte geienak, bakanen batzuek oraindik egurrezkoak. Orreo asko, «garia» izena euskaraz dutenak ba dauzkate erri txiki ontan; arrizko abeakin. Merezi lukete ondo apaintzea.

Eliza barrendik oso illuna ta zarpildua arkitu nuen. Merezi luke berritzea. Arrizkoa da, gotikoa, amairugarren gizaldikoa gutxi gora bera. Barrenean ba du aldare negusia oso ederra, ikusgarria, benetakoa, Ambrosio de Bengoetxeak egiña. Artilari au, Juan Antxieta'ren ikaslea dugu. Erretaula goian egertzen dira Gurutzea ta San Juan Mariarekin, oso lan egokia. Gurutze azpian berriz Maria'



Iriberrí mendian goien.

ren zeruratze zoragarria ta liraña, oso onak. Eskubi ezker, Maria'ren igarokun-dea ta Jesus'en jaiotza. Azpian, apostoluak, gotzaiak eta birjiñak, itxura aundi-koak. Bazterreko bi aldareak ere onak dira, bat platereskua ta bestea errenazi-mientokoa.

Korua berriz oso egokia; zati bat gotikoa, bestea amaseigarren gizaldikoa. Ara nun arkitzen diran ustekabeak, askotan, iri aundietan ez dauden bitxi arri-garriak. Aldare nagusi ori ikusteko merezi du erri ontaraño urbiltzea. Orrekin ibilli aldia ez dago galduta.

Garai batean etorri zan ba Bengotxea, gure artileri trebea Gipuzkoa'ko Asteasu'tik oneraño lana eder au emen uztera?

Euskal giroak, neurri berdinean merezi luke laguntzea. Lana ez litzake utsean galduko. Arretxe etxeko gizonak zion bezala: «Lendebiziko izkuntza mendi auetan gure euskara da. Mingarria izango litzake galtzea».

Jakin dut ni izan geroztik, Aita Odriozola azpeitiarra Jesusen laguna, Aribe'n zegola, bizpauru aldiz igo dala meza ematera. Itzaldiak bi izkuntzetan egin ditu ta azken agurra ematerakoan malkoekin begietan atera omen zitzaizkion gizasemeak agurtzera. Nunbait euskara oso maitea izaki. Gero bizpauru urte egin ditu erri ontan Rikardo Arratibel sakramentino gipuzkoarrak. Elizan asi zan euskara sartzen eta eskola ondotik aurrei gure izkuntza erakasten zien. Orain gutxi Mezkiriz'era aldatu dute. Berriz, egun batzuek dirala, beste euskal apeza bidali diete.

Beste berri bat. Maria Bitoria Burusko erri ontako neska jatorra, maestra, Diputazioaren ikastarora etorri ondotik andereño bezala Iruña'ko Ikastola'n asi zan.

Aezkoa'n jaunari esker aizea erabat aldatzen ikusi dugu euskararen alde, gutxinaz berpixteko alegintzen.

Aipatu bearra GARRALDA'ko giro berri ori. Erri eder au Auritz'ko bide ondoan dago. 1972-1973 ikastaroan ikastola iriki zuten eta Kontxita Otxotorena andereño bezala ibilli zan. Giro txarra zegoen errian, euskalzaletasuna ez geigi eldua ta eragozpen asko. Zoritxarrez urrengo urtean gauzak biurritu ziran eta ikastola etzan iriki, gazten artean euskal sukarra dago ta ez dugu uste itzaliko danik, indar aundiagoakin pixtu baizik; auxe da gure ustea.

Ikuspegia begientzat zoratzeko añekoa ba zan, ango euskal biziaren esnatzea ez da gutxiagoa. Aezkoa'k ikaragarritzko nortasuna dauka ta indar aundia, baiñan ezin aztu estutasun aundiak igaro ditula ta gauz eder asko iltzen utzi. Ara, eredu bat gure aurrean, urrutixko txuri ageri da, Aribe aurrean San Joakinen Elizatxoa. Len, urtean bein, Aezkoa'ko erri danak erromeria egiten zuten, gaur erdi eroria dago, tellatua zulatua dauka ta ez dira geiago joaten.

Len, Pazko'tik amabost egunera biltzen ziran. Erri bakoitzean kanpaia jotzen zuten eta gizaseme danak alkartzen ziran. Gurutzearen atzetik zijoazten.

Meza nagusia eukitzen zuten San Joakinen baselizan eta ondorean bazkaria; amurraiak eta perretxikuak. Errikoetxeak ardoa jartzen zuten. Ondorean erro-meria; aipatu dugun bezala ingurutxoa.

Ituzurak zeudela ta etzeudela asi ziran ta joateari utzi zioten. Ori aitzaki bat dala diote zeinbatzuk; apaizak motoan goraiño igo nai zutela ta setakeriz utzi.

Gaur Pentekostes Igandean erri danak Orrega'ra joaten dira. Oitura zar oneri eusten diote, gauza ederra da gañera. Auritz'en igarotzen ikusi ditut; gizonak eta emakumeak bertako jantzi berexiak, beste batzuek oñutxik eta bes-teak kateak anketik txintxillik.

Gizon asko ta asko, txamarra belzarekin; arpegia estalia eta gurutze aundi batzuek bizkarrean, asko abestutzen dute ta orain baita lelo errez batzuek euskaraz, gazteak euskal kanta asko ikasi dituzte.

Gure oin azpian «jaiotza» bat bezala ABAURREBEKOA ageri da. Erri txikia baiñan bitxi aundiekin, eliza batez ere; gotikoa, sarrera zoraga-riakin, lau abetxo ditu ta absidean leioa liraña arrizkoa, lana aundiakin, bi burni zar amabost garren gizaldikoak. Korua arrizkoa, gotikoa; bataio ponteak 14 garren gizaldikoa. Eliz barrenean abe buruak gotikoak. Gurutzea zillarrezkoa ezin ohea flamandarren lana, 15 garren gizaldikoa. Erretaula amaseigarren gizaldikoa, Juan de la Era'k egiña. 12 sendientzat bitxi asko dira.

Azkue emen asko ibilli zan, lelo zarrak biltzen, ba dauzka bizpauru erri ontakoak bilduak; «Eguen Gurenez» Esteban Enekoiz'eri eta «Kristi on bat iltzen denean» Zelestina Bidondo'k.

Altadil, Aezkoa'ko izadia ta landareak ikusita txoratuta ibilli zan. «Geo-grafia general» liburuan Naparroa'ri buruz egin zuten lanean mendi, basota landaren ugaritasuna agertzen digu, baita pixtien izenak euskaraz; sagarroi, Urtxaintx (katagorria), andereiger (comadreja), urian (nutria), itarakon (azkanarra), erbi, basurde, orkaitz, basaintz, orein. Bai txori arrapalarienak ere huntz, arrano, kuoli, autore—.

Aezkoak ba dauka bere aldetik alderdi aberats asko, izadia, basoak, men-diak, gizonak, edestia, euskara ta lege zarrak. Atzoko emaitz ori berritu bearra; autsa geiegi gainean. Gauzak bat batean egiten nola ez dan errexa, pixkanaka aurreratu bear. Euskal zaletasunak erriaren maitasuna zuzpurtuko du. Euska-raren bidez, enda ta lurra gogoz maitatuko dute ta aintziñakoen aberastasuna zein aundia dan ikusiko. Aezkoa oro bitxi berexi bat da ta ondo zaintzea me-rezi luke. Nere ustez euskal kulturari buruz iturri indartsua bear luke izan. Orain iturri ori askotan udaran gertatzen dan bezala ia agortzen da, bainan neguko elurrakin indar aundia artzen du berriz. Aezkoa'ko mendiko elurrak ibaiak loditzen dituzten bezala, alaxe aberastu bear luke emengo abenda sendoak, Eus-kalerriko kultura. Aezkoa'tik asko itxaro dut. Gaurko gazteak etxeko euskal

iturriari bide egokia irikitzeke bertako euskal lanak eta euskal oiturak bear litzukete ondo ezagutu. Emendik gutxira baten batek argitaratuko du liburun batean Aezkoa'ko euskaran orain arte egindako lan guztiak eta arrituta geldituko giñake; Liburu lodi bat jaioko litzake, ori egiten dun gizasemeak emaitz ederra utziko lioke Euskalerra'ri ta orduntxe ikusiko genuke Aezkoako erri yakintza zeiñen sakona, berexia ta aberatsa dan.

Ezin dugu aztu zerbaitengatik ibilliko zala mendi auetan bai Bonaparte printzea gizon ospetsua ta Azkue guztiz argia. Albar Madrid'ko erakasle ospetsuak, orain dala 20 urte ibar onen euskal izkuntzari buruz liburu polit bat argitaratu zuen, orain berritu dutena. Aezkoa ibarra zuzpertzekin Naparroak irabaziko luke ta Euskalerra ederragoa izango litzake.

Arratsaldeko zazpitan Abaurre gaiñean sartzten giñan. Etxeko ikullutan gizonak lana amaitzen, atadi askotan landatik sapaira argindarrez, berez igotzen diran mallak ikusten ziran; batez ere belarra sartzeko. Erri ontan dagon aberastasuna Naparroan ez da beste iñun ikusten; arrazoiakin beste liburuan agertu nuen las batean. «Naparroa'ko Fart West» izendatu nuen. Obe izango litzake euskararentzat gogo berdiña agertuko ba lute, baiñan pixkanaka etorriko zaio bere garaia.

Jaunari esker kalea utsik zegoen, berandu zan eta ezin giñan atzeratu, gelditu gabe igaro genuen erri eder au. Azkeneko etxea atzean utzita izadi irikia, zabala gure aurrean.



Abaurrepekoa ta Aezkoa ibarra.

Saraitsu'ko ibarra Orhi pean

Orhi mendi tontorra lañoz estalia, Jaka'ko portuak aurrez aurre begiak kendu gabe genitula aurreratu giñan. Naiz gorputza larri izan izadi zoragarri arek alaitasuna ta bizitasun aundia ematen zion gure barrenari. Pinudi artan sartuta zegoen ixiltasunak eta lasaitasunak goxatzen zituen gure erraiak. Zatoya ibai gainetik, zubi berria ta aldapa igota *EAUARTA'ko (JAURRIETA)* lepoan giñan, nai ta naiz gelditu bear, atzera begiratzeko. Andik, txuri txuri, zabalean eratu ikusten da Abaurregaina, mendi gain aietatik izadiari begiratzeakin biziak beste esanaia artzen du. Izadia edertasunez jantzi berria bezala, bere soña zeru garbiari agertzen diola dirudi. Sortaldera Jaka'ko portuak gero ta bertago. Lepo ortan illundu zitzaigun eguna; illunduta ta arront nekatuak nola giñan ez genuen ezertxore ikusten.

Errege bideko bazterretik aldapa jeixten asi giñan. Orain arte beti berebillez ixtanpa batean egiten genuen zati ori, ustekabean. Oraingoan bide luzegia iduritu zitzaidan, lenengo etxea berealaxe genuala uste; naiz gelditu gabe ibillita etzan ageri, oso luze joan zitzaigun bide ori. Azkenean beko auzoan sartu giñan. Eliza ondora iristeko malladiak banaka poliki poliki igo genituen. Azkeneko 7 kilometroak egiteko bi ordu ondo beteak bear.

Arratseko 9'tan erretoretzeko atea jotzen. Erretorea Abaurregainen'an meza ematen zegola ta itxoiteko esan zigun aren arrebak.

Erretoren arrebak berealaxe egin zigun aparta. Guk ezertxore eskatu gabe; baratxuri zopa, tortilla, igaliak eta kafesnea. Bitartean garbigela gertu zigun ta soña bustitzera, batez ere anak goxatzera igo nintzan. Jantzi garbiak eman zizkigun aldatzeko, afaltzen ari giñala Julio Esandi erretora zetorkigun. Gu ikusteakin poztu zan,

aspaldiko adiskidea dut. Itz gutxiko gizona, langille amorratua, sinis-
men aundikoa, gizon gutxi bera bezin ziñezkoak. Atea joka aurtxoan
gurasoak asi zitzaizkion; «nere neska dantzariaren gonak, ze neurri-
koak bear ditut» galdezka. Etzuten pakean uzten; geroxeago txistuaren
otsa. Aurtxo taldea gabeko sayoa egitera zetorkion, gure aurrean
lotsatuta zeuden bost mutil koxkorrak, zerbait jotzeko esan nien. «Uso
txuriakin» asi ziran. Doñu ori mendi oietan urretxinolaren kanta baiña
ederragoa izaki. Erriko gaztetxoak eta apaizak eutsi zioten euskal
doñuari; batez ere txistuaren bitartez. Ametsa dirudi. Zeñek esan
bear ori, bi urte aurretik. Euskal kulturari buruz erri au era bat illa
ta erdalduna ezagutu nuen. Ez genuen asko uste berriz pixtuko zanik,
baiñan apaizak, naiz Beire'koa, erribera bateko errikoa izan, euskal
deia izaki barreneraño sartua. Ikusi du gaiñera txistua eta gure dantzak
oso onak direla gaztentzat. Ori, eziketa'ko gauza egokia dala buruan
sartzen zaiela, eusten diote.

Ustekabe aundiagoa ba zeukan Juliok guretzat; urrengo ikas-
taroan ikastola irikitzeke asmoa. Orain dala bi urte Abaurregaiña'ko
Rikarda asi zitzaion eskolan; orduetik alde euskara ematera «Jeep»,
batean etortzen zan egunero. Joan dan urtean utzi zuen eta Julio
bakarrik gelditu zan bainan urrengo ikastaroako ba zuen ikastola
irikitzeke gogoia. Diputazioren babesean, gaiñera guraso taldea berekin
zeukan asmo au aurrera eramateko. Erriberako apaiz batek ainbeste
egingo zuanik ez genuen uste ba.

Lendabizi dantzariekin asi zan; bertan ba dute dantza berexi
bat «Axuribeltza» izenekoa. Naparroa'ko erri askotan agertzen dute,
arrakasta aundiakin gaiñera.

Pedro Jose Senper, Eauarta'ko erretora zarrak, bere erria orain
ikusiko balu, poztuko litzake ederki. Joan dan gizaldiko gizona dugu
ta Bonaparte printzearen laguntzallea. Gure prinzeak euki zuen beste
laguntzalle bat erri ontan, Frantzisko Remondegi.

Naiz orrelako gizon jatorrak ta euskalzale bikañak euki, erri onek
bere euskal gogoia ongiasko galdua zeukan, baiñan euskal sena nunbait
oraindik bizirik izaki.

Apal ondo artan, Eauarta'ko euskal giroakin, gu zoraturik gelditzea
etzan arritzekoa. Ametsa ederrena baño gozogoia gure begiak ikusten
zutena. Oieratzeko, gela berriak, oi garbiak, ixiltasuna, gure barre-
nean pakea ta biotzan poza.

Urrengo goizean goiz jeikita 8'tan Meza eman nuen, «Amabir-
jiñ Xuria» agurtu nuen eta erretoraren arrebak, gosaria eman zigun



Otsagabia ta Orhi.

bakallua patatakin oso goxua ta kafesnea. Esker onenak emanaz atera giñan goizeko bederatzi ta laurdenetan.

Azkeneko iru egun auetan bide aundia egin genuen eta naiz ankak ondatu xamarrak euki zerbait berririk ez gertatzekotan, gero ta garbiago ikusten nuen larunbatarako Jaka'raiño iritsiko giñala. Goiz garbia, argi ederra zeruan lañorik ez ta eguzkia indar geiegi gabe. Erriko gañeko aldera atera giñan; azkeneko etxetan, Ezparza'ko bidea galdetu genuen. Emakume ta neska gazte bat argibidea ematen ari zitzaizkigula etxeko atarian, erretoraren arreba ara nun agertzen zai-gun, Mikel'en elastikoa eskuan txintxillik nunbait etxean aztuta utzi zuen; «agur ikusi artio» itzekin alde egin genuen. Bide zabala, mendi garbia, giro ona ibiltzeko; gero ta gorago, gero ta zabalagoa mendia- ren bularra. Gaintetik, Orhi aldera begira gelditu giñan; gure azpian basoa; *OTSAGI*, Muskilda'ko mendi magalian ibai ondoan, gorago Abodi ta danez gain Orhi mendi bulartsua. Otsagi ta Orhi mendia biyek batean argazkian artu nai nitun. Otsagi izenarekin batean, Etxemendi'ren leloa zetorkidan belarrira, lelo sakona, samiña, baiñan itzak etzaizkit atsegin. Iruñako egunkarietan lantxo bat agertu nuen lelo oneri buruz eta orduko itzak ez dute garrantzirik galdu. Danak ba dakigu Etxamendi Ipar Euskalerriko abeslari onenetakoa dugula. Asko abestutzen du ta oso ongi, pozaren pozik alboetako egunotan bere azkeneko abestiak entzun nituen. Ezin aztu ta belarritik ezin kendu; «Otsagabia» izenekoa. Negar giroan entzun dutenetikan min-garriena. Entzuterakoan negar egin bear. Jeremias igarlearen mailla-koak ditugu. Izena alaxekoa ere Naparroa'n dagon erririk politene-tako bat. Gaia berriz ondo aukeratua. Otsagabia'n gertatutakoa ne-gargarria bai da, Saraitsu'ko biotzean euskal arnasa era bat galtzen.

Iruña'n abesti au agertu nien napartar guztiek negar egin bear. Azkonaren antzera biotza urratzen bait du; biotza urraturik lertu egin bear. Orain itzen aldetik, kezka nagusiak agertu nai ditut. Esan bear Etxamendik gaurko Naparroa ez dula ezagutzen. Bere itz oiek ez dute egia aitortzen.

Otsagabia'ko gaia alaxekoa da, baiñan zergatik Naparroarekin nastu? Zergatik biak batean agertu?

Gaur Naparroa'n arkitzen duguna ez da beste euskalkietan ikus-ten. Gaizki mintzo ba gera zuzendu. «Naparroa arrotzturikan» dio Etxamendik. Naparroak oso ondo gorde du bere arnasa. Ikus gaur Diputazioak daukan nortasuna ta ematen ditun urratsak. Bere eskuz, bere buruaren jabe dalako Naparroa'ren alde beti jokutzen ari da.

Orain Naparroa'ko lege zarren alde; beti bere nortasunari asko be-girutzen dio.

«Arrotzturikan» nundik? Naparrak napar zaletasuna odolean gorririk daramakite, nai dezuten muturrekoak gaiñera. Beste gauza bat ezin dana esan: «Baiñan primaderarik Naparroan ez eldu». Urbildu zaitez Iruña'ra, begiak zabalik ikus, eunka aur ikastoletara, millaka txistulari gazte, dantzariak multzoka. Naparroa'ko agintariak bere gain ikastolak artzen dituztela; artzen, indartzen, zuzperten. Berreun biztanleko erriak ba ditugu bere ikastolakin. Nun beste ainbeste Eus-kalerrian? Diputazioak bere aldizkaria euskaraz bakarrik egiña ba dauka ta utsean banatzen diena euskal sendi guztiei. Nola esan leike ain arin «Bainan primaderarik Naparroarat ez eldu».

Orain beste euskalkietan ezin dana egin naparrak Naparroa'n egin dezakete; Naparroa'ko legeak zuzentzen dutela bizi. Ipar Eus-kalerrian nai lukete gogotik beste ainbeste ta Naparroan gaur dagon giroa euki! Ortarako lana asko egin bear alajaña: ta ez mingañarekin bakarrik. Dakiguna da naparra Naparroa'ren alde beti gartsu joka-tzen dala. Gaiñera Naparroak bere bidea artzerakoan, bigote beltzakin edo txapel gorriarekin asmatu du ta bereari eutsi dio. Euskalerriko itxaropena alderdi askotik ta agertuko dugu bere garaian, Naparroan daukagu.

Etxamendik egin dezakena da, begiak zabalik ditula, Naparroako giroa ikustera urbildu ta orduan beste abesti berri bat egin. Ba dakit beste aldetik Diputazioa ta Eliza Otsagi'ko euskara berpiztu naian dabilzala. Gizaseme askok astutzen dutena da; Naparroak dauzkan eskubideak, beren aldetik erriak berdiñak dituztela. Askatasunak bere mugak izaki.

Orregatik Otsagi abestiaren doñua zoragarria; baiñan itzak zu-zendu ta obeto esan.

Aita Donostik, emen 1944 urtean jasotako lelo zarra zetorkidan belarrira «Arri arri mandoko»... Bai Otsagabiak ba du indar berexi bat, euskal nortasun jatorra noizbait esnatuko dana ta orduan bi aldiz zoragarria deituko dugu, ba dago zenbait etxetan kezka ta euskal zaletasuna. Ezin dut aztu Luis Kanbra'ren alaba «Pilartxo» nola etorri zitzaigun Oresa'ra euskara ikastera, oso aste gutxitan ikasi zuen eta etxera euskaraz mintzatzen itzuli zan. Maestra izateko asmoa zeukan eta andereño bezala ikastola batean lana egitea; au bai zala neska jatorra, garbia, argia, ta benetakoa, emendik gutxira orrelako geiago izango ditugu Otsagi aldetik.

1974-1975 garren urteko ikastaroan, euskal sukarra sortu da Otsagi'n. Diputazio'ko euskal arduraduna Bakartxo Erbiti, Illarregi'ko neska jatorra Otsagi'ra joan zaie, baita erriko erdal idazkariari esan ere: «Ikastolik ez ba duzu erri ontan jartzen, arpegira etzaitut begiratuko». Andik zortzi egunera, Iruña'ko Diputazioan, idazkariaren eskutitza zegoen; ikastola Otsagi'n jartzeko eskatzen zuen. Bakartxo eskutitz orrekin zeruan. Ortarako Bakartxok, erriko aurren gurasoekin bi billera egin zitun. Errikoetxeko gela batean iriki dute ikastola; Etxaleku'ko Maria Jose Moreno andereño bezala asi da. Goiz ta arratsalde aurrak ditu ta gabero gazteak; emezortzi etortzen zaizkio. Ez da asiera txarra.

Otsagi'tik mugaldera beste erri txiki bat dago; IZALZU Orhi'pean. Arturo Kanpion napar euskalzale argiak idatzitako ipui batek, erri onen izena asko zabaldu du. Gure idazle onen, erderaz idatzitako lanaren izen burua, «Izalzu'ko bersolaria» da. Naparroa'n dauzkaten ipuetik politenetako bat dugu. Arturo Kanpion negu batean, basurde eizera erri ontara datorrela, elurte aundi bat sortu ondorean, etxe bateko sukaldera biltzen da; Gabriel Berradre'n etxera ain zuzen. Etxe ontako neskameari itz arrotzak entzuten dizkio: «Elkorreta'n dagon Gartxot gizajoari jatera ematera usoak ba datorzkio». Abodi'ko mendia elurrak zuritzen duanean ateraldi ori esaten dute. Kanpion idazlea, itz oietatik aria biltzen asten da ta gertaera zar baten aztarnak arkitzen ditu. Euskalzale jator au, Naparroa'ko errietan barrena kondaira zarren billa zebillen beti. Bateri ta besteri galdetuz, batez ere Andresa amonari; onek bide zabala irikitzen dio ta berak ezagutzen zuen ipuia esaten. Gero papera zarretan, Iruña'n eta Orreaga'n billa zebillela, ipui onen oñarriak arkitzen ditu, aintzina garaiko Izalzu'ko bersolari baten goraberak eta euskararengatik eraman zuen ikaragarritzko nekaldia. Euskalzalea gaizki ikusia izatea ez bait da gaurkoa. Galdera bat egin bearra daukagu: «Noiz egingo ote diote bere erri ontan oroigarri bat Gartxot Izalzu'ko bersolariari?».

Erri ontan, Arturo Kanpion'ek kondaira zarrenetako bat nola jaso zuen ikustea gauza polita da. Garai aietaz idazten ditun lerroak benetan zoragarriak dira ta euskal kultura gaietan lanean dabiltzan guztientzat eredu bat, baita bidea ere erakusten digu.

Arturo Kanpion'ek, 1917 garren urtean, bere ipui ortan esaten digunez, Izalzu'n gizasemeak beren artean euskaraz mintzatzen omen ziran, gaiñera beren euskara berexian. Gaur berriz euskaraz ez da geiago egiten. Zar batzuek bakarrik dakite. Bitoriano Izal, bertako semea dan 87 urteko apaizakin mintzatu nintzan. Esan zidanenez, bera zortzi urteko aurre zala Garizumako kristauikasbidea euskaraz ematen zieten erreterak. Amairu urtekin, eskuz bizpairu ale idatzi omen zitun. Garai artako erreterora, Fernando Konpains bertako semea meza nagusian



Saraitsu'ko gazteak.

erderaz mintzatzen asi omen zan, eltzetzuak etzutelako euskaraz ulertzen. Euskara geroztik Izalzu'n galtzen asi zan.

Orduan aurrak Eguberritan euskaraz abesten zuten, gaur geiago ez. Mutillak amar urtekin Naparroa'ko Erribera'ra artzai eramaten zituzten eta an erderaz ikasten zuten.

Saraitsu'n erri au omen dugu euskara lenengoa galdu duana. Aitzakia, eltzetzuak omen.

Erria bezala polita ta alaia da. Eliza Salbatore izenekoak, zati batzuek erromaniko gotiko tarte ortako garaikoak ditu. Zurezko amabost garren gizaldiko Andra Mari bat daukate, baita bi ol margoztuak amasei garren gizaldikoak. Aldare nagusia barrokoa da. Eliz atarian, arrilandu borobil batzuek dauzkate jarrita, oso politak diranak gaiñera.


Erri erditik, Betzula'n jaiotako Anduña ibaia dijoakie.

Inguruetako beste guztiak bezala, erri au Muskilda'ko baselizan urtero biltzen da. An, oraindik bizirik dauzkaten euskal dantzak ez ote dituzte erri ontakoak ere kutsatuko?

Sortaldera Auñamendiko Malloak ageri, goizeko argi zuriakin etziran geiegi nabarmentzen. Arratsian urdin illun biurtzen dirala, orduan osorik eta indar aundiakin agertzen zaizkigu. Lur sagar sail ederrak ikusten genitun gure ondoan. Gure bidea gero ta geiago estutzen asi zitzaigun eta mendia zikintzen. Txatxa'ko bordetan ginan, ba zeuden egutera aldera gari soroak. Eper lodi batzuek egatzez gure aurretik joan ziran.

Bide xior estua artu bear oraingoan aldapa bera. Malkar itsusia genuen, zakarra, zuloak, eta arria, olaxe oiana batean sartuta errekal-detik, *ESPARZA*'n giñan. Goiko baratzetik sartuta, arrizko etxe zar baten ondoan bi emakume itzalean izketan. Euskaraz agurtu genitun, baita gure izkuntzan erantzuna eman ere. Beraxeago baratza ondo batean senar emaztea atzurrak bizkarrean zituztela Esparza'n euskaraz egiten ote zan galdetu nien; «emen guti» erantzuna. Senar begi erneak berealaxen lotzen digu; «patatak aterako ba zenituzte bazkaria emango nizueke... mendian ibilli bearrean zatozte gurekin lanera». Saraitsu'n giñala etzegon ukatzerik; ala bait dio esaera zarrak erderaz: «Saraitsu'n saraitsuarrak ikusiko dituzu, etzera aberastuko, baiñan erne ibiltzen ikasiko duzu».

Egon aldi luzerik egiterik ez genula berealaxe ikusi zuten eta erriko enparantzan erriko jantzi ederrak erakusten ari zirala Irunseme talde bateri esan ziguten. Alaxe azkar enparantzara urbildu giñani. Ustekabean sei gazte, lau mutil eta bi neska zeuden errenkan, erriko



Aurrak erriko askan (Guesa).

aspaldiko jantxi berexiekin lasai, zuzen eta egoki, ta aurrean gizon eta emakume taldea argazkiak ateratzen. Danen buru Simeon Oroz Betelu'ko maixu euskalzale jatorra, aurrei txistua jotzen irakasten asi dana. «Zer moduz Simeon» esan nion danen aurrean, etzan konaturatzen nor nintzan, mendiko jantziekin eta betaurreko beltzekin bai nengoen. Poztu zan, nunbait Naparroa'ko jantzi zarrak biltzen zebillen. Gure zoria etzan makala. Gu errian sartzen eta besteak jantzi en argazkiak ateratzen. Ixtanpa ortan gu danen erdian erori!

Erri koxkorra da Esparza. Eguteraan dago ibaiaren gaineko aldian. 320 gizaseme bizi dira. 1910 garren urtean euskara erdera baiño geiago egiten zan. 1933 urtean «Euskereren adiskideak» izeneko Iruña'ko elkartek euskal jai ederra egin zuen; Meza, dantzak eta euskararen azterketa aurrentzat, 103 aur sarituak izan ziran Aurrezki kutxan kartilla batekin, arratsaldian txistulariak eta erromeria.

Saraitsu'n euskaraz geiena egiten dan tokiak, Otsagabia ta Esparza dira. Zoritxarrez Iruña'tik urrutixko gelditzen da, bear bezala laguntzeko; dana dala gaur aurrerabide aundiak daude.

Azkar ibilli giñan Esparza'n eta berealaxe alde egin genuen. Errege bidetik Saraitsu izeneko ibaiaren ondolik abiatu giñan.

Eguzkiak ibar zuloan ondo jotzen zuen, 2 kilometrora eskubi, ibaiaren gaineko aldian, *IBILZETA* errixka. Eliza berri berria egin dute ta dorre luzea ageri da tente asko. Gaineko aldetik basoz josia dago. Berealaxe ezker aldetik Sarries, amarren bat sendi bizi dira. Eliza erromanikoa soilla du; Argilain izeneko baselizatxo bat daukate, Andra Mari baten iduri erromanikoarekin.

Mendiak estutzen dira ta arkaitz gorriak agertzen dituzte. Bide gainean arkaitz luzea beatz baten antzera zerura begira lodi xamarra, zuzena, beldurgarria, mendi tarte estua zabaltzen da ta soroak daude zelaitxoetan. Ikuspegia era bat bestelakoa arkitzen dugu, lurra arrea, legorra, mendiak garbiak, musker margoa gorago gelditu da, aizea bai osasunagarria, ezetasunaren eza.

Bide ondoan makalak, noiz beinka intxaurrak, guk artutako erregebide nagusia *IRUNBERRI*'ra dijoa. Oraindik Saraitsu'ko erritxiki batzuek beko alde ortan bide onen ondolik daude. Gero Almiradio izeneko lurrak, aundiena, Nabaskoitze. Orkoa dugu Amadeo Marko Naparroa'ko agintaria.

Beraxeago Azpurz gelditzen da. Erri ontako erretorakin arremanak zitun, Bonapartek.

GUESA errixka ezker; bazterretik erreka dijoakio. Or erregebide nagusia utzita beste bidea artu bear, gain batean gelditzen da errixka.



Igal errixka paketsua.

Eliza ibar ontako geientzuen antzekoa erromaniko gotiko bitartekoa. Elizaren atzeko aldean frontoia ta ondoan enparantzaxo batean iturria, arrizko aska luzearekin. Mutikoa, bakarrik, uran, jolasten ta ondoan seaskan aurtxo. Ortik sartalderuntz begiratuta, erriaren aurrean mendi aundia dago basoz inguratua ta gañean, goien Alburua'ko baseliza txuria ageri da. Agorraren 8'an erriko gizasemeak igotzen dira. Andra Mari gotiko baten iduria daukate goien. Bide xiurra, biurria ta estua dago gorano, aldapa berriz ikaragarria, orrelako elizatxoak milla metro goien ikusita bearrezkoak direla iduritzen zait, batez ere sinismena sendotzeko.

Gure erriaren sinismena, ibilliaz, baselizetara igoaz, gorputza estutuaz, sendotu da; ortan ez dago zalantzarik. Ibilaldi gogor oietan, otoitzean gure gizasemeen sinismena zuzpeltu da. Une oietan soña bortxatuz, buruak argitasuna eskuratzen du. Gainera gora atera ezker, ango garbitasuna ikusiaz, ez al da ba sinismenaren iduri argiena? Jaunarekin bat egiñaz alkartasun aundian obeak izateko naia sortzen da. Zerbaitengatik egin zituzten goien, toki zailletan baselizak. Gizaldiak etorri ta gizaldiak joan, bide zail aiek egiñaz gure erriak sinismena zaindu ta zuzpeltu du. Sinismena errexegi eskeni ezker, berealaxe galtzen da. Zailtasuna eskatuta orduan eta geiago alegintzen da gizona. Gurutzeraz ezin da eragozpenik gabe iritsi. Baseliza oiek ondo zaindu ezker erriak daukaten nortasunari eusten diote ta gizatasauna dute; danez gain sinismena emaitzarik aundiena bezala gordetzen alegintzen dira.

Arburu'ko Amabirjiñaren baselizara ez giñala igo ezin ukatu, guretzat oker gelditez zan, baiñan len bait len gorano igotzeko irrika daukat. Egunen batean beteko dut nere asmoa, goiko elizatxo orrek deitzen nau.

Arburu'ko mendiaren atzeko aldean, IZAL errixka dago, berez baseliza errixka onen lurretan gelditzen da. Izal'en atzeko aldean berriz Urraul goiko ibarra daukagu. Izal, Urraul goikoaren ADOAIN errixkarekin mugatzen da, bi erri oiek arreman aundiak izan dituzte beti, batetik bestera mendi bidea daukate. Adoain'eri buruz bi itz esatea merezi du; gaur errixka au nola dagon ikusi ezker negarra egiteko gogo ematen du. Eriotza nabaritzen da ta biotza estutzen, orrelako gauza bat ikusi ezker erri txikiak, batek, betiko, madarikatzen ditu. Santa-Kruz izeneko mendipean dago, gora begiratuta arkaitz zuri zuri aundi bat ikusten da, lepoan basoa itxia, bean erreka, ondoan errixka, zarra, oso zarra gañera, errixka gainean eliza erromanikoa. Elizari eusten dion orma erori da; zulatua zegoen nunbait. Elizaren sarreran ola ustelduak daude, zu-

lotik anka sartu ezker joan leike eztaikit norano. Elizara igotzeko arrizko malladia, bainan ez nolanaikoa, maillak orman banaka sartuak daude, batetik bestera zuloa dago ta beko aldera ezertxore eskuekin eusteko.

Batek-pentsatzen duenean, erri au basoz oso aberatsa dala, emen dagon txirotasuna ikusita lotsatuta gelditzen da. Orain dala gutxi bi milloiterdi jaso zituzten basotik. Erriko kaleak lokatzez beteak, enparantzan argirik gabe, elizako malladiak zintzillik, orma lertuta eta abar eta abar. Motela izatea txarra, eta erri ontan ikusten dana ze ote da? Dirua izaki ta erria usteltzen utzi bear, arrika atera bear lituzkete erri ontatik, orrelako umeak eta Iruña'ko Diputazioak zer? Errudun da; dauzkaten buru austeri ez diote bear bezala arpegirik eman. Erri txiki asko daude orrela, gizasemeak biurrituta, basatiak biurtu diranak, besten ona ezin ikusirik, auzokoa erosoago ez ikustegatik argirik gabe ibiltzea naiago dute. Ortarano biurritu dira toki batzuetan, orain okertasunaren aldetik, emengo neurria ez dut bein ere ikusi.

Beste aldetik egitazko bitxiak orain arte zeuzkaten; Eliza erromanikoa arrianduan egiña, kanpaiak donu zar sakona ta alaia; bi irudi, amabirjinak gotikoak joan dan urtean ostu dituzte, Gurutzea zillarrezkoa gotikoa flamenkoen lana, beste gurutze bat gotikoa ezin politagoa, bataio ponte erromanikoa.

Gaur ez dago sendi bat bakarrik aurrekin, danak mutil, neska zarrak erdi ñañoak. Bein eman dut meza, Eguarri egunean; nere aurrean nitun arpegiak ikusita parra edo negarra zer egin ez nekin; musu gorriak, ao zabalak, begi okerrak, arpegi meak, danetik zeuden.

Andre batzuen begiratuak sorgiñenak zirudin ta gizonenak akerrenak. Meza ondorean danak tximista bezala aldegin zuten; egunez bakarrik eizean, gabaz mozkorra, ardoa emakumeak ere lasai edaten dute.

Erria zoragarria, aberatsa, basoak, mendiak, erregebidea, argia, urrutizkiña ta gizasemeak era bat biurrituak, utziak. Zerua izan bearrean inpernura aldatu.

Biarko gizarteak gaurkoari Naparroan oso gogor egindo diola ez dago zalantzarik. Diputazioko ordezkariak ez dute ikusten Naparroa'ko gaitza. Lurrak aberatsak eta erriak biurritzen eta era bat usteltzen. Orrelako buruasten korapilloak len bait len askatu bearrak daude, bide bakarra ikusten dut ortarako, len ere askotan aipatua, nekazariantzat ikastetxe berexiak, nekazariantzat eskolak, Europako lurralde guztietan dauzkaten bezala. Eskola berexi oiekin aberastan aundia aterako liokete mendiari ta erriei bizitasuna emango liekete. Eskolarik-gabe danak ondatu, lertu ta ustelduta alde egingo dute, atzetik beste inor etortzeko gogorik gabe uzten dituztela bazterrak. Lotsa aundia da Naparroarentzat ikusten danean, ainbeste urtetan nola nekazariantzat eskola bat bakarra, euki duten eta ura Gipuzkoar batek egiña; Leitzan Naparroa'ko ertzean. Giro au bear bezala moldatu arte ez dugu egitazko etorkizunik ikusten.

Adoain dagon bezala ikustera obe iñor ez etortzea, nik ikusi dudana bezala miña eman dit, ez nolanaikoa, sendatzen zailla. Orrelako erri bat ikusita ezin siñetsi orain esango dutena. Ara beste berri bat, gaur iñork ez daki euskaraz jakiña, baiña emengoa dugu aita Esteban joan dan gizaldiko kaputxino mixiolari aundia ta euskaldun garbia. Ementxe 1808 garren urtean jaio zan. Bere jaiote-txean arri losa bat idatzita ipiñi dute. Gazterik artzai ibilli zan, euskaraz ba-karrrik zekin. Bonaparten mañan orain eun urte erri euskaldun garbia bezala agertzen zaigu. Kaputxinoen lekaidetxean sartu zan eta mixiolari bezala Ameriketara ibilli ta, lurralde askotan mixio saillak eman zitun. 1873 garren urtean Ameriketatik etorrira Baionan egiten ditu bizpairu urte. Or dagola esaten digu: «Joan dan astelenean Hasparnetik itzuli naiz or predikuak emanaz bai españolez gazteri, bai euskeraz emengo gazteri». 1875 urtean urtarrillaren 16'an idazten du: «Eguberri antzineko egunetan misione bat eman diotet Baiona'ko euskalduneri, Eliz nagusian eta fruitu anitz ekarri du». Ezpeletan ere ibilli zan misioneak euskeraz ematen.


Euskal gramatika bat idatzi zuen, Iruña'ko kaputxinoen lekaidetxean zegona. Españ'ra etorrira 1880 garren urtean il zan. Eliz gizon misiolari azkarra ta euskalzale benetakoa izan genuen.

Adoain'go aita Estebe ara nola diran gauzak, nork esango luke gaur ikusten dugun erri negargarrietik orrelako gizona aterako zanik, ta ze esango luke Aita Estebek bere erria ikusiko balu? Bai, Adoain'go arri zar eder oiek naitz gabeturik daude nai ta naiez.

Erri ontako erretora Marzelino Garde dugu, beste bederatzi erri txiki dauzka. Onera astero meza ematera etortzen ikusten nula, esaten nuen nere baitan, «barrena bear du gizon onek». Geroxeago bere garaia etortzen danean apaiz onen berriak emango ditugu. Euskalzaletasunagatik, Urraul'go basamortura, azken zokora bezala bidali zuen gotzaiak apaiz gazte au; emen erraiak lertzeko asmoakin bidali zutela ziur gaude. Alaxeko eliza euki dugu.

Poliki, poliki zugaitz pean arkaitz ondolik gora dijoa gure errege bide polita. Larraia'ko erreka ezkerretik daukagu, ondoan bi mendi mutil lanako tresnak antolatzen, ezker eskubi mendia ta pinudi galantak. Estutasunatik ateratzen gera ta errixka benetan ara gure aurrean. Etxe batzuek eta atzeko aldean, azkena, eliza erromanikoa. Naparroa'ko errietan zarrenetakoa dugu; *IGAL* bere izena, erreka ondolik dijoakio beruntz. Eliza txikia da, dorre zabala ta motza du, ta abside ederra borobilla. Sarreran aterpea ta orman zutik illari buru borobillak ipini dituzte.

Emen, aspaldi, IX garren gizaldian monastegia omen zegoen, San Eulogiok Naparroan egindako ibilli aldian aipatzen duana. Xeta-




Erdiaroko eliza (Igal).

sun onek esan nai digu, garai artan, IX garren gizaldian kristautasuna ondo sartua zegoela bazter izkutu auetan; ikusten dugunez, Euskalerrian oso goien, artzaiak bizi ziran tokien inguruetan, beste monastegi batzuen izenak ematen dizkigu, San Eulogiok Naparroan, «Urdaspal Erronkarin, San Zakarias Zilbeti'n, Leyre danetan aundiena jakintza aundiko lekaidekin». Monastegi auek mozarabe ritoa zuten, Toledo'n erabiltzen zana. Orrek kristautasuna betik gora sartu zala esan nai digu. Gotzaitza aldetik ere Iruna ta Kalagurri, Tarragona'ko gotzaiakin lotuak zeuden aspalditik. Mairuak sartu ondotik, orduan, «Auch» Frantzian, daukate Goigotzaia. Gaurko Naparroako iparaldean gelditzen da zati bat, Gipuzkoan bezala 16 garren gizaldi arte Bayona'ko gotzaitzegira egokitzen dana; asi Baztan'dik Ondarrabi'raino, onek agertzen digu asieran nundik sartu zan Kristautasuna. Alde batean betik, bestean goitik. Alde batean Espaini'ko elizatik, bestean Frantzikotik. Batean Toledo'ko ritoa zuten, bestean Gallia'koa Erromako kutsu aundiakin.

Beste zerbait esan bearra, Igal'en 1935 garren urtean, euskaraz oraindik entzuten zan. Elizan begiratu bat eman eta alde egin genuen. Aldapa gero ta geiago gogortzen ari zitzaigun, gure aurrean mendi lepoa genuen, urrutitik ikusten zan nundik nora zijoan errege-bidea. Mendia pinuz josia, errege bideak bira aundi bat, M baten antzekoa ematen zuen. Gure eskubitik laster bidea, baiñan arkaitz tartean eta basoan sartzen zan eta an barrenera iritsi ezker, nundik nora atera, ez genukela asmatuko zeritzaidan; gainean mendi magal artan anken gainean etzegoen zutik egoterik. Erregebideetik igotzea erabaki genuen, bide luzegoa bainan ibiltzeko lasaiago ta ikuspegia ibar aldera zoragarria. Eskubitik erreka lodia zijoan eta putxu ederrak ikusten genituen, an busti aldi bat artzeko astirik ez izaki zoritxarrez.

Eguzkiak indarra zeukan eta kiskaltzen ginduen; etzebillen aizerik. Guesa ezkeretik ez genuen urik edan eta aoa legorturik genukan. Arpegia izerdiz bustia, azkenean musuzapi txuria buruan jarri bear, eguzkiak gure azala erretzen bait zuen. Gu berriz gora ta gora, zoko aietan lurra legorra zegoen. Mendi lepoa gero ta urbillago ikusten zan, ikuspegia ere urrutiraño zabaltzen zitzaigun mendi gallur ugari ageri ziran. Olako batean mendi aldetik askatsoa ta iturria, gure zoria etzan makala. Larrua kixkalia, barrena legortuta, zati danak erantsiak, mingañoak aotik alde egin naian, apar zuria dario. Zuzenean iturrira urbildu giñan; zoko batetik ateratzen zan eta txurruta tantoka jario. Gorago barrenean putxu txiki bat zegola ikusirik eskuakin ura artzen asi giñan banaka. Ura zan korapilloa, ura berealaxe aora eraman nai;



Arri diskoidalak Erronkari'n.

urak eskuak izoztutzen zitun. Gorputza erretzen eta uran beatza ezin sartu. Ura izoztuta zegoen, ala guztiz ere pixkanaka iturriaren ondoan eserita egarria al genun bezala kendu arte, antxen egon ginan.

Mendi barrenean dagon ur zulo txiki ura begiratzten luzatu genuen astia, ura geldirik, bizi bizirik zegoen eta inguruan belar xe, txiki, ostu buru zabal batzuekin. Belar ostu txiki aiek zeukaten margo musker polita.

Estozi zan gure iturriaren izena; zartutakoan ere, ur artaz oroituko giñala baita berriz etorrita, oroitarribat altxa bear geniola esaten ibilli giñan. Nunbait, iturrian bearra izatekotan, uraxe zan toki berexi bat. Alaxe, urari kantari genbillen, gure esker ona aspertu gabe emanaz. Baiñan ondo oldoztu ezkeru, ez du iturri batek bakarrik oroitarrria merezi, danak baizik. Iturri bat gizonak euki lezaken aberastasunik aundienetakoa da. Euskalerrian geiegi dauzkagu ta bear bezala ez ditugu zaintzen. Gai ontaz, geroago, gizartea gogor mintzatuko da gutaz.

Erritxiki askok ikaragarrizko aberastasuna daukate iturrietan eta urak ez dula balio uste dute. Ori da itxua ta gizajoa izatea. Gure artean eta euskaldunen artean gizajo asko dala, garbi dago.

Abiatu aurretik, iturriko urakin arpegia igurtzi genuen eta bi eskukin artuta, alde joan giñan. Ur otz arekin eskuak ubel itxura artzen zuten eta berealaxe ustu bear. Iturriko ura bidean zabaltzen festa zan guretzat. Urrutixego joan ta, begiratu bat eman genion begitik galdu aurretik. Naiko goien gengoazen eta lepora berealaxe atera giñan.



Bidangoz Erronkari'n.

Erronkari izen aundiko ibarra

Ementxen arri losan jarri bearrak Jose Estornes'en itzak «Naparroako ipar altian Erronkari ibaxa, mendi andi lerren artian daude zazpi iriak».

Ate bat bezala egiten du bideak mendian, iragarki aundi bat dago erderaz idatzita «Erronkari'ko Ibarra». Ez du esaten alderdi batean Saraitsu'ko ibarra dagonik. Ez, Erronkari'ko ibarra bakarrik idatzita daukate.

Orrek zerbait esan nai du; Erronkariko ibarra dugula lur berexi bat, nortasun aundikoa. Esan dezakeguna, or, gutxinaz, lurak nortasuna badula. Erronkariko mendi lepo onen izena AKANPAREA da. Gero goitik bera zijoan errege bidea. Berebillik ez genuen, zati luze ontan, bat bakarrik ere ikusi, anak arin zijoazten aldapa bera. Mendi saillak genituen aurrean; jeixten ginjoazela gero ta geiago mendi tartean sartzen ari giñan. Mendi arkaitz bat, gero ta urbillago ikusten genuen. Telleri bat, lenengo etxea basamortu luze artan, gero errota, ezkerreta bide biurrean *BIDANGOZ*'ko lenengo auzoa. Berealaxe, San Miguel'en baseliza ondoan giñan; inguruan bizpairu etxe, aiton bat eserita Masterratxea izeneko bizitzaren atarian. Kaxko batean geunden, aurrez aurre erria aldapan; gainean eliza ta beruntz etxeak errekarano eratuak, Binies ibaitxoren urekin ezkerreta zingira egiña. Lenengo aldiz nereztat Bidangoz ikusten nula. Bi laguntzalle bikañak euki zitun ba, emen, Bonaparte Printzeak, bat erretora Prudenziio Ualde, bestea Mariano Mendigatxa erronkaritar benetakoa. Gaur ez dago bat bakarrik euskaraz dakinik. Lendabizi ibairano jetxi giñan eta gero errira igo erretoetxeraino. Erretora bazkaltzen zegoen eta gurekin kafea artzera deitu genun. Erriko jaiak ziran; mutillak arro arro frontoain pelotan

jolasten, zapi gorriak lepoan zituztela. Beroa bai aundia. Zarrak itzalean. Gizonak edantokian. Eguardiko ordu biterdiak ziran.

Jantokira sartu giñan; gela txikia, orma xuriak, bizpairu mai ta alki motzak. Gure bazkaria; tipulan ensalada, arkumearen saieskiak eta igaliak. Gizon me igarrak zutik ardoa edaten; zalaparta eta ezin egona. Nagusia gurekin solasean asi zan: «Emen ez dago etorkizunik. Gaztea izan ba nintz aspaldi anka egin nukean». Belagua zertan gelditu ote zan galdetu nion. «Erronkari bizpairun eskuetan dago, nai dutena egiten dute. Gu aien mende bizi bear. Gizon zarpail batzuen artean ibar au galdu dute. Nere eskubidengatik bi milloi emango ba lizkidate bizitza eder bat erosi ta Iruña'ra joango nintzake ezereen zalantzarik gabe» erantzuna. Itz oiekin irakiten jarri nintzan eta berealaxe atera zitzaidan bat batean: «Bai zuk bezala danak egingo ba lute, azkenean Erronkari arrotz aberatsez beteko litzake ta zuen semealabentzat etorkizun bikaiña, neskak larrua ematen eta mutillak aker jolasetan». Ixildu zan eta berriz jarraitu: «Gaur emen artzai ez du iñork gelditu nai ta morroiak billatzen zailla». Orrelako gizon kaxkarrakin ez dirala oso urruti joango ibai ontan aitortu bear.

Apaizarekin kafea artu genuen; Nikolas du izena. Gure asmoa bakarra zan; Ugalde erretoraren illobia ikustea. Lendabizi Mariano Mendigatxa'ren etxea ikusi genuen. Etxe zabal illun ontan 1832-2-12'an jaio zan. Artalde aundiak zitun eta arremantako gizon atsegiña. Bonaparte printzearen laguntzallea genuen eta bein Bidangoz'era etorri zitzairen eta emen gaxotu zan. Gero Azkue'ri emengo euskara biltzen lagundu zion. Eskutitz batean garai artako bizitza nolakoa zan agertzen digu:

Vidankoze 1904co. Marchoare Ina:

D. Resurrecion Maria.

Ene gein ona: Karta kontan isartandaud Yñaute egunaz eta valle kontako bizi moldiaz.

Kemen, ene trenpra guciuan Yñaute eguna quartandigu, ssei egunbaten gisa; gente guciua egoiten da etsen, eta azkaci eta adeskide anichek egitendei bazkariak ssunto; aurten tenpra dela caso, iñaute eguna izanda goresima egunbatean bikain triste; egun guciuan egonda elurrari dunbadanba; gesalbateki kariketan, ezbaizaiteken cristianik erkin; ezen beztitu zipoterorik ere.

Kemen irur eramu digu vizitako, kosecha, zunra eta ardiak; kemen emaztekia orobat trabajatanda, nola gizadia, mendi lanetan; kosechako abanchu lan guciua egitendei emaztek; balle contra ezdaite-



Bidangoz erria aldapan.

que ssin emaztekirik serbuchatra, ezbaikakiei mendiko lanetarik. Badu ogei obro urte gente biardunen neskato guziuak faitendra, Frantziara negu guzuko espartinan trabajatra, kantik ssin, eta badei egun oro pezata bat eta costiua jornal; eta egita tenpran ilabete vatez edo obro, costiua, eta irurna pezeta; corren gatin dago emaztekien zerbuchina galtruk.

Ene mente guciuan eta anichez leintarik, kemen izaguntanda zunrezko trafikua, geroago eta aboroago: ssaz tenpra cuetan, valle conek saltucion Gobernuo bati, valleko komun guzuko lerak, kalako lodiguatik gora; ogei urterentako ogei milla duroren; gainara vecino doken guciuek trabajata dei dokeina; valle contan, dago beso chiki, trafiko dagonaren, zunn trabajatako; ssitendra Aragoko lein irietarik anich peon; eta Provincietarik ere bai, ssitendra anich kuadrilla, bedatse, eta uda guzuko; korrengatik kemenko peona, da kario: oraiberian irabaztandu costiua eta irur pezeta, mayatziaz gero, irabacendei laurna, eta costurik bage, borzna eta erdira; ssaz eltuzren irabaztra altebat, ogeita zazpira erial peon bakocharen.

Erranduan gobernuko korrek, Aragokoan, zakan erosirik berze lerdoi bat, eto lerdoi cartan, zaken uda igarian, emonzakan, banek erraitenkein zazpiein gizon; eta verze banek erraitenkein milla. Yzaba mendiko mugan egozren trabajatan, Anoko mendian (Aragon); ezdakid cer erritako zren; gisa guciuez emonzen gente misetable bat, gasski beztitruk, erdi bilainzruk; ezemonkein ssaten baizik bi errancho arroz, ardaunrik ekusibage, ezren irietra batrete arrimatu, beren erritik zsinzren lerdoyara, eta lerdoyetik franzren beren errietra; erran emonkein aurten ssinensrela valle contra; ezitein ikusi solo artzain eltuzrenek muga kartra.

Orai artio errandaudanaz, berorren baitan erranendu, zer valle abrats alda cura, kainbat deuri erkitendionian arboletarik!; bada ssakintzan guciua. Carlos setimoaren gerraraino, zegon vallia ogeita bor milla dororen zorrian, carretera egincen tenpratik; gero Carlosen gerran carlisten deituzteinian mitilak, emezortzi urtetarik aiketa, ogeita ezdakid zomatra draino, valle coi mitilak eraman biarrian paka arazizein ogeita bi milla duro, leinekueki eta reitoetra zor zegonareki ssaz eltucen zorra berrogei eta bedratzu milla durotra. Zorr corren pakatiagatik saltuda kainbat arbole; daigun aprilian edo mayatzian berantena akabatenda pakatiaz zorr guciua.

Egonzaiteken bai, valle kaur aski abrats; baya eztago gizonik, dago amiinstracione gasto bat, eta vizpor abratsentako solo dra valleko ontarzun guciuak.



Ualde idazlearen illarria (Bidangoz).

Negiuu betik sarrekitanda gasto. Ardi dunak daude anissko kussu; saldoak daudela flako, eta asuri chiki; eztagola ssatekorik, eta erribra zolan urik ere ezemondokei alkanza; orainore lotsareki daude, Jaungei-koak ezbadu erremediatan trenpareki, izaitraduala zomait mortalera andi.

Anich alegratennaz erri korrek ardazaun onki, eta gaizak ere erkinzizkiola gisa berian.

Ni ere nago osagarrireki, anke negiuu gasto duala oraiartio ssa, eztud buru minbat eta ez zetul bat ekun. Nola azken kartan, eta contan dirreccionia verze gisatra isartanbaituk, cuidao pikor bat baratanzaitad errecibitantionez ote.

Mariano Mendigacha.

Urte batzuek geroago eskutitz onek balio aundia dauka. Erronkari-ko euskara nolakoa zan agertzen digu.

Ba daude 1902-1915 urte bitarte ortan, 34 eskutitz Mariano Mendigatzak Azkue'ri egiñak. Faustino Zeriok «Euskera» aldizkarian argitaratu zitun 1969 urtearen inguruan.

Elizaraño igota, egutera aldera, illerria dago; illobi zar asko daude arri belt ugari ta danean belar xea. Garbia arkitu genuen illerria. Arri losa bat lurran et an ba erakutsi zigun apaizak: «Au Prudenziou Ualde'n illobia da». Ez da gutxi oraindik galdu gabe, garbiak eukitzea. Erretora onek lan aundiak egin zizkion Bonaparte printzeari: San Mateo'ren Berriona Erronkari'ko euskararat itzuli, baita Astete'n kristau ikasbidea 1869 garren urtean. Eliz ondoko etxe zar ortan igaroko zitun, negu osoak itxita elurrakin iñora joaterik etzegoela, euskarazko itzulpenak egiten.

Erri au ikusten danez, garai batean, joan dan gizaldian, ain zuzen euskararen kabi bizia zan. Izkuntz berezia maite zuten eta euskarazale onenak etortzen zitzaizkien.

Iruña'ko «Euskara» taldea sortzerakoa'n 1877 urtean, Bidangoz'ko bat arkitzen dugu, Angel Zenbrano. Ara ze gauz arrigarria. Askoz geroago oraindik Azkue datorkie ta emen kantu zar batzuek biltzen ditu, batez ere: «Iruerean lantza Zaldun-zibika»; «Ots, Ainguriei», Mariano Mendigatzak abestu zion. Oraindik urte asko ez dirala euskara galdu da; garbi dago. Lendabizi euskara galdu, gero mendiak artalderik gabe utzi ta azkenean zer?

Illeri ontako zarrak pixtuko ba lira zer izango litzake lenengo itza?: «Guk maitetutakoarekin zer egin duzute? Gure uskara? Gure artaldeak?, gure etxeak?, gure Erronkari? Gizon aiek bizitzari arpegia

eman zioten. Eragozpenak lanarekin gaindu zituzten. Bañan..., gizon legunetik zer etorri liteke?

Landatik eliza begira gelditu giñan; dorre luzea, begi bakarra ta kanpaien leyoeekin, saietzean berriz illerri aldera balkoia ta atea arku borobillakin. Arri landuzko eliza erromanikoa dugu aurrean. Gure egon aldia luzatzeko ez genuen astirik.

Apaiza gizon eldua ixil xamarra da ta osasunak ez dio geigi laguntzen. Garde'ko bidearen berriak galdetu nizkion. Galdu gabe ibilizati aundi batean lagundu ginduen mendian. Arratsaldeko laurak laurden gutxitan abiatu giñan. Elizaren ondotik dijoa estrata zarra goruntz. Soldaduen barrakoiak eroriak. Gaiñez-gain zijoan bidea. Ordu erdi ortan egin genituen alkarizketan euskalzaletasunik etzeukala gure apezak, nabarmendu nintzan. Osasunaren aldetik burua zaindu bearra gañera.

Nere galderakin ez nuen geigi estutu. Gaiñera orduan guretzat garrantzituena bide zuzenari eustea zan. Egi batera atera giñalarik esan zigun: «Goiko gainean ezker eskubi dijoa zuen bidea, eskubikoa utzi, goruntz San Juan'en baselizaraño aldapa duzute ta ezkerrekoa artu. Gaiñera goiko lepotik Garde erria zuen aurrean agiri dago. Ondo ibilli».

Pinudian sartu giñan ta mendi gainera atera, apezak esan bezala, ezkerreta artu genuen, mendi bidea. Itzuli aundia emanez malkorra bait zan, goitik bera bat batean zijoan. Aldapa bera bide garbian ondo genbillen, azkar xamar, aize goxoak laguntzen ginduen. Eskubira naikoa jetxita bide xiur estua arturik beko zelai batera atera giñan. Piñuak gero ta geiago bakantzen. Emen Erronkarin piñuaren izena «lerra» da. Eskubitik genuen mendi bide zabala, gerra ondotik guda mutillak egiña. Ospel aldetik aterata, berriz eguzkiak jotzen ginduen. Gure bidea toki batzuetan eroria zegoen, bestetan autsia, baita larrak artua zombait zatitan, arri kozkor aundiak amilduak ere bai. Nunbait, gaur ez dute geiago zaintzen, orrelako batean, arri baten ondoan sube gorrixta. Gu ikusita etzun alde egin. Gelditu giñan. Etzan aundia. Makillakin buruan ikutu nuen. Zutik jarrita eztenakin gogor egiten zion egurrari, bañan alperrik. Larrua margo biziakin oso polita zuen. Pakean sasian izkututzen utzi genuen. Bide osoan ez genuen beste suberik ikusi. Orrela emen bezala toki garbian arkitzea obe..., gainerakoan pixti auk bildurgarriak dira.

Gure bidea, zuzenean, soldaduen kanpamentura, atera zan. Toki orrek ARRIBLE izena du. Errekondoan dauden militarren barrakoiak utsik zeuden. Oso ur gutxi zeukan ibaiak. Ur obitik joan

giñan. Garbi esateko etzan ibairik ikusten, bidea bai zabala egiña. Nunbait udaran agortzen da ta neguan elurrakin loditzen. Urak obi sakona egiña zeukan; arri borobillak toki batzuetan, gutxitan arkaitz puxka aundiak ta geienean arri xea. Mendi bideak, bira aundia egiten zuen eta gora zijoan, urobia berriz beruntz zabala ta garbia. Ba genun bidaxka erreka ondotik bainan dana larrak artua; urrats bat emateko lan geiegi egin bear. Beko aldera urobian zulo aundiak, jakiña utsik zeuden bainan arkaitz tartean ibiltzeko arrixku aundia. Ezkerreko bidetik ginjoazen. Gañeko aldean Erronkari izeneko errixkara dijoan bidea artu genuen. Goraño igo giñan eta errixka paketsua ibai ondoan zegoen murgilduta. Erriaren sarreran gure aurrean illerria. Lenagotik ezagutzen nuen. Gayarre abeslari, gizaseme bulartsuaren illobia guztiz ederra an dago. Marmore arrizko Benliur'en lana da. Gayarre erri ortakoa zan. Naparroa'ko leoia eman zioten izena, abesten asten zanen bazterrak ongi ixiltzen zitun, dan danak ots indartsu ori, adi, adi, ixill, ixillik entzuten gelditzen ziran. Abeslari ona genuen, baita euskaldun benetakoa. Bere izebari cuskaraz egindako eskuutzak zerbait esan nai du. Merezi luke gizon ospetsu onen illobi ondoan idatzita uztea, guretzat gaur bitzi bat da:

«Barcelona 19 diciembre 1884.


Ene tia Juana maitia:

Eugenia xin da arro onki. Keben gaude anisko onki guziak eta ori nola dago? Nai din xin kona itxasoaren ekustra? Anisko andia da tia Juana. Nai badu nik dud anisko orentako, bidagearen pagateko, kemengo ostatiaren pagateko.

Ez di egiten kemen otzik batrere, xatan dugu kemen anisko onki eta gero artan dugu iror neskatxe postretako eta gazte eta polit. Ah! Zer bizia! Tia Juana Maitia, amar urte txikiago bagunu...!

Gorainzi guzientako eta piiko bat neskatxe pillit erronkari guziazai».

Goruntz begira, gelditzeko ez genuen astirik, ibai ondora jetxi giñan; iturri ederra dago. Eska ibaien ertzean egarria kendu ondorean, ibaia igaro aurretik, ur garbi ari begira gelditu giñan. Urak urritzen zijoazten; nunbait goi aldean legorte aundia izaki. Ibai gañetik arri aundi batzuek oñarri bezala artuta, zear eztaliak, enbor lodi bat zegoen ipiñia eta poliki andik igaro giñan beste aldera. Neguan enbor aiek etzutela ezertarako balio pentzatzen egon nintzan. Txinparta ta arrokeri ederrakin jetxiko dira emendik Auñamendiko elur urtuen urak. Datozten urak, arkaitz tartetan amiltzen eroturik zoratura bezala



Almadia Eska ibaian.

doaz. Garai batean ibai ontatik udaberrian jeixten zituzten Erronkari'ko gizonak basoetako zugaitzak eta egurrak. Gizon aiek barrena bear zuten ibai ontan ibiltzeko. Uran zekarzkiten egur zarrak ALMADIAK zuten izena, urte gutxi dira ibai ontan azkeneko aldiz egin zituztela. Beraxeago Burgi'ko gaiñeko aldean orduan ikusitakoa me-rezi du aipatzea.

Kamioiak ugaritu arte, Aezkoa, Saraitu eta Erronkariko piñu eta izaiak ibaiaz ibai, eramaten zituzten. Napar aldeko baillara oietan egur asko bai dago, lanbide ortatik bizi ziran giza seme geienak; piñuak bota eta gero eramane. Zuaitzak botatzeko gizon azkarrak bear badira, enborrak ibai basati aren barrena eramateko oraindik azkarragoak. Enborrak lotzen zizkieten alkarri eta egur sail orri almadia deitzen zien. Azkuek bere iztegian itz ori euskalduna bezala jaso zuen. Izan leike moruei artua izatea. Gizonak gainean joaten ziran. Naparroan lan au orain dala 20 urte arte egin da. Gero errege bideak zabaldu ziran eta kamioiak ugaritu. Yesako zingira egin ondoren zaila zan, an barrena igarotzea. Geroztik Almadien bearrik geiago ez. Aitu ziran. Garai artan lanbide zaila zan eta gizaseme xeentzat egina.

Gaur berriz Naparroa'ko Diputazioa, erriaren bizitzak dituen alderdi guztietaz asko arduratzen da. Ez dago lo. Kulturari asko begiratzen dio.

Almadian ibillitako nere ondoan zegoen saraitutar gizon ari galdetu nion Arbaiun'go arritartetan almadiaren gainean ibiltzen ote ziran. Bide guztian ezetz esan zidan, ezin, an ez dagola sartzerik. Toki batera iristean gizonak jetxi egiten omen eta almadiak bakarrik utzi, gero al zituzten bezala enborrak bildu eta berriz aurrera. Arbaiun'go arritarteak ikaragarriak bait dira.

Ura bizi-bizi, arri tartean zijoan tokiei beldurra zien. Ortarako ba dute izen berexi bat «eskorrak». Izan leike erdaratik etorria izen ori.

Ementxe izketan ari giñala atera zan almadia beruntz eta bazetozen gurgana korrika periodistak. Antxe topo egin genduen Xabier Aranburu ta Luis Peñakin.

Gure adiskide auk oso goiz lanean asirik ziran, bear bezala almadiak nola jartzen zituzten ikusteko. Gizon argi auen bidez jakin genduan zetorren almadiak bazeramazkiela 88 enbor eta gainean lau gizon. Izenak jakitea etzaigu gaizki etorriko: Eugenio Tolosana 65 urtekoa, Florenzio Lakasta 65 urtekoa, Pablo Tolosana 49 urtekoa, ta Inozenzio Ayerra 62 urtekoa. Almadietan ibilli diran Erronkaritar azkenak auk dira. 14 urtekin asten omen ziran, aitari laguntzen lendabizi bide puxka batean, gero osoan. Garai aietan lau zati izaten zuten almadiak, zati bakoitzak 3,5 metro zabalean ta luzean, osoan 28 metro egur ibai gainean. Enborrak alkarrekin urritzakin lotzen zituzten. Danetara

200 enbor zeramazkiten; gizon bat aurrean oztopo guztiei gogor egin bear ziena eta bestea atzean.

Agiri zaizkigu gure gizonak. Eska ibaiaren barrena dijoaz, aurrean bi arraun luze dituzte, erdian makila bat eta txintxilik antxumea, atzean beste bi gizon auntz larruak bizkarrean ta buruan onto zapelakin. Lasai dijoaz. Bagoaz Burgi'runtz, bertan daukaten ur gelditik goitik bera nola jeixten diran ikustera. Bazter guztiak giza semez beterik daude. Ordu erdi batera ageri zaigu berriz almadia, ibaiaren aldapa zorrotzera urbilduz dijoaz. Leenengo muturra sartzen da. Gizonak arraunei indar guztiekin eusten die. Zapla jotzen dute egurrak erortzean eta atzeko zatiari bultzada ikaragarria ematen diote. Oztopo aundiena igaro dute, irri parra goxo bat espainetan dutela lasaitu dira almadiako gizonak, eta ikusle guztiak txaloka asi gera. Andik aurrera gizon aiek jai dute.

Zenbat urte ta gizaldietan igaro ote dituzte almadietako gizonak orrelako toki txarrak, bizia galtzeko arrixkuakin. Beren bizitzako egun guztietan, gaurkoak izango zituzten leenengo txaloak. Gizon oiek oso egun gorriak ikusirik daude. Gaur, 20 urte dirala almadiak aitu ondoren konturatu da gizartea zeinen gizon azkarrak ziran almadiak eramaten zituzten aiek.

Lan ortan txapeldun Julio Karo Baroja dugu. Maiatzaren bederatzian igande egunean almadia berritu dute, film bat egiteko, erliki berezi bat gordeta eukitzeko eta bear dutenean jakintzuek ikus dezaten.

Euskal Erriko giroa maite dugunok ezin gal genezake orrelako aukerarik. Igande goizean meza ondoren atera giñan Naparroa'runtz. Iruña, Ilumberri, Nabaskoitze igarota Burgin Erronkariko errian giñan eguardi aurretik. Bidean lañopean ba ginjoazen, Ilumberri'ra igarotzerakoan eguzki garbia.

Ibaia, Burgiko gotiko zubi azpian barrena dijoa edertasunez jantzita. Giza seme ugari zegoen ibaiaren ondoan, milla berebilletik gora ere bai. Burgi'tik bost kilometro goragotik ateratzekoak ziran. Arritarte galanta batzuen barrena dijoa Eska ibaia eta an astekoak ziran; toki beldurgarria eta zaila. Ibaia estutzen da eta asarre, basati, jauzika asten da.

Estutasunetik aterata, zabaldu eta lasaitzen zaigu ibaia, baina an enborrak eramateko oso ur gutxi daukate. Azkenean Burgi'n bertan urtegi galanta dago, an barrena almadiak igarotzeko bazter batean aldapatxo baten antzekoa eginik dute. Ura ere oso zaila jeixteko.

Al genduen bezala bizpairu tokitan aldatuta jarri giñan almadien goraberak ondo ikusteko. Gure ondoan Saraitu'ko gizon genduan, bere gaztegaraiian almadian ibillia. Arek ematen zituan argi bideak ezin nintzakean gal. Almadiak ibaian jarri aurretik errekarren zuloa ondo garbitzen omen zuten. Arri aundiak dinamitaz lertu bear. Ibaiaren goiko muturretik ateratzen ziran Uztarro edo Isaba'tik eta almadiak Zaragoza edo Tortosa'raino eramaten zituzten. Bide ori 6 edo 7 egunetan egiten zuten. Atzera oiñez itzultzen ziran eta iru egun bear.

Lan au egiteko garaia, urritik maiatza arte izaten zan. Orduan aunditzen dira urak eta egurrak errexago eramaten. Piñua eta izaia jeixten zuten bakarrik; aritza eta pagoa astunegiak izaki. Ur gutxi dagoen tokietan egur bustia arri gainean ondo irristatzen omen da. Goizean egun sentiarekin ateratzen ziran. Kazkabarra edo elurra ari, ta egur gainean joan bear.

Egurrak okertuta arri tartean gelditzen ziranean, jetxi ta uretan sartu bear aiek zuzentzeko. Otz aundietan almadi gainean sartzerakoan berriz, galtzetan zeukaten ura izozten zitzaien eta anakak, otzak ez iltzeko, geldirik ezin egon. Aiek gizonak eta ez gaurko ille luze eta bigote bigunak. Bizkarrean auntzaren larrua zeramatzen ez oztutzeko. Gaua eroztzen zitzaien tokian, an gelditu eta ganbara batean lo egin bear. Gainera zubi azpitan barrena igarotzearren ordaindu bear izaten zuten.

Oso beranduzan. Guretzat oso atsegin izan zitzaigun almadiak ikustea; bizi berexi bat ematen diote ibaiari. Gizona izadiarekin bat egiten duanean, errege da.

Orain galdera bat, gaurko almadiak ez ote ziran orain bi milla urte erro-matarrak zebilzkiten tresnak Errioxako aberastasunak Ebro ibaia barrena jeixteko? Teknika errexa da eta gauza asko eramateko moldatzen dana. Arri-garria gaur arte ain interesgarriko lanbideak, Euskal Errian irautea.

Ibaia ta errege bidearen artean Irati izeneko olategi aundia dago, erabat utzia ta ustua. Etxe aundi onek ixillik il zorion zerbait esan nai du.

Berealaxe Erronkariko Erregebide nagusian geunden, bide ori ikusteakin batean, oroitzapen ugari zetorzkidan burura. Bide ortik maiz berebillez ibilli naiz Erronkari'ko bazterrak ikusten, baita euskal aztarnen billa. Alperrik, ni joaterako zarrak il ziran. Eskerrik beste batzuek nere aurretik ibilli zirala, Mitxelena, San Martin, Kandido Izagirre, batez ere esker aundiena Erronkari ibar ontako ESTORNES anayei eman bear. Sendi au, Isaba'koa Erronkari ipar aldeko erri ontakoa da ta lan asko euskal kulturaren alde egin dula aitortu bear. Gerra aurretik Donostira bizitzera joan ziran. Liburuak argitaratzen asi ta, lenengo argitaraldia «Zabalkundea» bilduma egin zuten. Emen Arturo Kanpion'en lanak agertu zituzten. Gaur «Añamendi» bilduma sortu dute ta «Itxaropena» irakorla eskuratu. Erronkari buruz, Bernardo, Jose, eta Mariano iru anaien artean lan asko argitaratu dituzte; ensequak, ele berriak, edestia, folklorea eta abar. Baita Erronkari'ko euskarari buruz elizti bat. Ortzen dago lana egiña ta betiko agirian emengo euskara nolakoa zan jakiteko.

Gaur bai irakorlaren bidez, baita liburu bildumen bitartez gutxi aibat lan egiten ari dira euskal kulturaren alde. Iru anai, batean, kementsu indar osoakin argitasun ederrakin. Euskal erriaren alde. Euskaldunen artean ba ditugu batzuek elefantiak ikusita arkakusuak dirala esaten dutenak, olakoak lan aundiak ezin dituzte ikusi. Nere ustez besten lanak ezin ikusirik dabilzantzat ez daude neurri aundiko ekintzetan sartuak.

Estornestarrak oso gutxi bezala ezagutzen dute Erronkari. Ibar onen alde bear zan garaian arpegia eman dute ta ez bizkarra. Erronkari garrantzi aundiko alderdi aberatsak ditu. Erriak paregabeak azpitik asita goraiño; Burgi, Bidangoz, Garde, Erronkari, Urzainki, Isaba, Ustarroz. Mendiak basoz eta larrez josiak, urak ugari, lege berexiak eta izadiaren aldetik edertasuna gutxitan bezalakoa. Euskara ederra, galdu zuten, baiñan nere ustez dana ez dago galdurik, oraindik beste toki askotan bezala pixtuko da. Naiz Jainkoak gauz asko eman, atzera dijoala ezin ukatu.

Errietan suak urritzen, artaldeak gero ta gutxiago, gazteak anka ta azkenean naigaberik aundienetako bat; arrotzak nagusi gelditzeko prest. Azkeneko urte auetan, ia egunero Iruña'ko egunkariak «Belagua gora ta Belagua bera» dabiltz. Erronkari'ko bazterrik zoragarriena, Isaba gaineko aldean gelditzen dan ibartxoa, Belagua izeneko dugu; zelai zabala mendiz inguratua, basoak bertan, ur garbiak, aizetik babestua ta gaineko aldean malloen gallurretan, neguan eta udaberrian jolasteko elurra naikoa. Or nun erosleak agertzen zaizkien ibar eder ori osorik erosi naian. Bizpauru milla oporretako bizitzak egiteko asmoakin datoz. Zoritxarrez lur oien nagusi batzuek Isaba'ko semeak jakina, dirua artzogatik saltzeko prest, bainan beste batzuk kementsu ta zutik aurka. Azkeneko auen buru Estornes'tar anaiak buru auste oneri buruz, argitaratu berria daukate liburu, izena alaxekoa «Belagua». Gogotik, bat batean. eskutik kendu gabe, asi ta buka, irakurri dut liburu au; Jose Estornes Lasa'ren lana dugu. Zeatz eta meatz Belagua'ko sal erosketa onen gora bera ta urrats danen berri ematen dizkigu. Gizona azkarra bear du orrelako lana egiteko. Eten gabe Erronkarin alde, lanean zebiltzala ba genekin, bainan liburu au argitaratzeakin lanik aundiena egin dute. An ta emen, burrukan, bakarrik ibiltzeak ez du balio, gero arrazoiak tajuz agertzen dirala oraindik garrantzi aundiagoa dute. Liburu onek iru alderdi dauzka. Batean erosleak agertzen zaizkigu; lurrak eskuratu, diru zikin ori ugaritu, arrotzak ekarri, bertakoak sakabanatu. Bestetik berriz saltzalleak, danak utzita anka egiteko prest. Azkenean gizon batzuek, egitazko gizonak, biotza ta burua daukatenak, sorterrria, Naparroa ta Euskal-lerria maite dutenak eta gure Ama burra arrotzurik utzi nai ez dutenak; gogor ibilli diranak eta ez nunai, batzuetan Diputazioan bertan, ordezkari eta lendarrien aurrean Erronkarin alde arpegia ematen. Arrazoiak beren eskutik daukate. Ondo da arrotz etxe edo hotel batzuek egitea, bearrezkoa Erronkari'ko erri geienetan arrotz etxeak ugaritzea, garaiz aberezalei laguntzea, bearrezkoa egurra bertan lantzea ta ortarako olategi berriak egitea, Irati,ko olategi erdi eroria udarako aurrentzat antolatzea, al dana Belagua'ko izadia zaintzeko egin eta batez ere Erronkariko lege zarrari eutsi, erronkarritarrak Erronkari'n nagusi gelditu ditezen. Bizpauru milla bizitza Belagua'n egin ezkeru gaurko erronkarritarrak eskubideat galtzen dituzte. Orrelako gizonak bear genituzke beste ibar askoren

alde lana egiteko. Erronkarin alde ikusten danez Estornestarrak asmo berri asko aurreratzen dituzte. «Belagua» liburu onen alderdi onak asko dira, batez ere emandako berriak; batzuen eta besteen arzoziak egunkarietan agertu diran bezala aurreratzea.

Erronkariko nortasuna, buruausteak eta etorkizuna, bi idazti euskaraz, bat Federiko Garraldarena, bestea Mariano Mendigatxarena ta azkenean Erronkariko ibarreko batzar nagusiaren lege arau zarrak. Azkeneko arau auek argitaratzea gauza egokia deritzait. Erronkarik daukan nortasunaren oñarria agertzen diguteta. Euskalerrri osoak orain ezagutu lezake bear bezala jakiteko ta ikasteko.

Belagua izeneko liburu au, beste lurralde askotan gertatzen diran goraberen gainetik dago; beste lan askoren gainetik. Belagua'n orain gertatzen ari dana, buru auste bera Xibero'n Irati'ko mendibasoekin dituzte. Paris'ko batzar nagusian lege berri batzuek eman dituzte ta Xiberoko baso batzarraren arauak danak zalantzan eta txintxillik gelditzen dira; gorrotoa bai, itzak ugari bainan ez da naikoa. Zulo ortan gertatzen ari dana, eun kilometrorra ez dakite. Ez dute ezertxore argitaratu; geroak ezer gutxi ikasiko du. Beren alde azaltzen dituzten legeak ez ditugu ezagutzen. Erronkarin berriz bestela jokatu dute. Ortxen dugu «Belagua» izeneko liburua, berri danak ematen dizkigu, lege zarren arauak errez irakurtzen ditugu. Liburu ori gaurko ta biarko gelditzen da. Jakintsuak, lege gizonak, agintariak, izparringikariak, errizaleak, begi aurrean daukate erriaren egitazko bizitzaren buruaste latza bat. Ortxen ikusten da garbi asko erri batek zenbat irabazi ta galdu lezaken. Orrelako liburuakin Jose Estornes'ek mesede aundi bat egin digu gu danori, bañan batez ere, bere erriari, bere Erronkari maiteari.

Liburu ortan egin duna, eredu bezala dugu beste gauz askorako. Ortxen daukagu Gipuzkoan bertan buruauste galanta, ibaien garbitasunarekin edo zikinkeriakin, asko idatzi da, zurrumurru aundia nabaritu dugu, bainan oraindik arrazoiak alde batetik eta bestetik azalduz etzaigu libururik agertu. Gai oneri buruz zerbait egiteko garaia da. Belagua'rekin egindana zergatik ez Gipuzkoa'ko ibaiekin? Liburu batek asko esan nai du ta geroagoko ortxen gelditzen da. Bai, Belagua liburuakin asko ikasi lezakegu ta ori Jose Estornes'eri esker.

Beste zerbait esan nai nuke oraindik. Liburu ortan agertzen digu Estornestarrak nolakoa dan egitazko Erronkariarra. Bere aldetik arrazoia dula, bearrezko gauzetan agertzen digu mendiko indarra ezere beldurrik ez duna ta azkeneraño iritsiko dana, berea eskuratu arte, ez al da ori ederra? Estornestarrak zer dan benetako Erronkariarra ta egitazko gizasemea agertzen digute. Egiaren aurrean ez daukate zalantzarik, orduntxe bakarrik egiak bere neurria artzen du.



Erronkari'ko basoak.

Udarak, Estornestarrak beti Isaba'n igarotzen dituzte, al dutela ortxen daude beti igande ta jai egunetan. Beren etxean euskal museo bat tolestatzen ari dira, batez ere Erronkariko gaiak jasoaz.

Or euki duten borroka latzekin garbi dago; Erronkariko gizasemeak oso erdibituak, aserre, ezin ikusirik ibiliko dirala. Orrelako giroan pakea lortzen zailla; euskalzaletasuna indartzeko giro txarra. Bainan euskal dantza, txistu ta orrelako gaiak zabalduaz, berotasuna oztu leike, alkartasuna ugaritu ta nola ez? euskalzaletasuna berritu, batez ere Erronkariko ibarraren maitasuna. Or pakea egiteko dauden gizonak oraintxen dute garaia, euskal erri kultura zabalteko, alkar ezin eramanak aztutzeko ta nagiak baztertzeke, garai berdinean erriaren eziketa jatorra egiteko.

Ezin ukatu, Isaba ta Belagua oso atsegin zaizkidala, maiz izan naiz toki polit eta eder oietan. Beti errekaen inguruan nenbillen, eta Euskalerriko mendi gallur goiena ondo ezagutzeke asmoa nuen. Gure mendi geienetan ibilli nintzan, bainan «Iror Erregen Maian» ez. Utsune au zailla zitzaidan iresten, oraindik guti dala, joan dan urtean ain zuzen ibillialdi au egin nuen, egitan danetan ederrena, gogorrena ta zaillena. Euskaldun danak egin bear genukena. Ementxen sartzen ditut egun orren gorabarak. Ezin dut aztu ta Erronkarira natorrela aldiro gogoan daramat. Bein egin dut, berriz pozik joango nintzake beste batean. Lenengo ibillialdiaren oroitzapena bizirik daukat.

Naiz Naparroa, ongi xamar ezagutu, ez nuen Larra ta Iru-Erregen Maya alderdi ura beñere ikusi. Aitortu bear, ikusteko gogo ba nuala. Naparroa'k daukan nortasuna, ezagutu naian, ari nintzala, naita naiez bere edestia ongi jakin bear.

Nere iritziz, Naparroa'rentzat garrantzi aundieneko garaiak, IX, X, XI, gizaldia ditugu. Iruña, Naparroa'ko iri nagusia beti gizaldia oietan agertzen zaigu bere nortasun berexia azaldu naian, bere burua etsaipean menderatzen uzten ez dula. Naiz etsaiak indartsuak izan, ipar aldean frankoak eta Karlomano, egoaldetik berriz moroak, Abderraman I, II, III, buruzagi beldugarriak. Galdera bat zetorkidan burura: «Iruña'k nun zeukan babes-tokia ta abere artaldeak eukitzeke lekua»? Saraitu ta Erronkari izaki Naparroa'ko gibela, ondo zaindua ta babestua.

Saraitu'ko ORHI mendi inguruko larre-mendiak ikusi ondorean, Erronkari'koa ezagutu bear, asmo oiekin abiatu nintzan.

Iruña'ko Iñaki Romeo sendagille gazteakin nengoen; gazte onen lengusua sendagillea ere, lagundu naian guregana bildu zan. Illunabarrean Isaba'runtz Iruñatik atera giñan irurok. Isaba'n gaba egin ta urrengo egunean oso goiz egun sentiarekin, Belagua aldera atera giñan.

Arrako atzean utzita, ibaiaren ondoan gorde genuen berebilla; oñetako lodiak jantzita aurrera oñez.



Iror erregen maya (Erronkari).

Belagua'ko bazterrak ederrak dirala, berealaxe oartu giñan. Illuna zan, zeruan oskarbi, aizea epela, abuztua izaki. Gure mendi gallurra urruti zegoen ta goiz atera bear.

Artap rret erreka bere kazkardiarekin igaro ondorean, zelai batean sartu ta Betitxoza bordatik mendi artu genuen. Aldapa latza da. Beti arkaitzetan igotzen. Antxomarro mendi zuloraiño iritsi giñan; aurrean aska luze bat dauka. Iturria bertan jaiotzen da.

Bidexiorra arrizko mendi orma baten azpitik dijoa. Arkaitz tartean pago sendoak jaiotzen dira. Toki garbixeago batean basamutillen etxolak agiri. Andik gora aldapa gogorra. Larra'ko lepora ateratzen gera. Toki onek mendi-txintxur baten antza dauka. Antxe goian, leku aldapatsu auetan asten dira larre-tokiak. Larrerria izeneko mendi lepotik Inzola'ko Lapakiza eskubian dago. Aiek mendi saillak!

Arrizko orma bat arkitu genuen ta ura ezkerreta utzi bear eskubiko mal-datik joateko. Nunai lore urdin ederrak ikusten genituen. Goi-goien mendi ate batetik barna Lapakiza mendiaren ipar-aldean bereala giñan. Zugaitz batzuek bakarrik agiri ziran, erabat larrutuak, il zorian ba leude bezala.

Andik, ipar-aldera bai ondo ikusten dala Larra izeneko tokia, arkaitz gorria, ikaragarrizko leize ta ebakiekin, arria zillarezkoa, inpernua dirudi. Bazter oneri gizonak bildur aundi dio. An galdu ezkerro ba daki larri ibilliko dala. Guk eguraldi ezin ohea genuen baiñan mendi bazter aietan ekaitz beldur-garriak izaten dira. Ba daki arria noiznai egiten, ortotsak an bezalakoak ez omen daude iñun. Tximista ezker eskubi jotzen asten danean, an ez omen dago giroa. Tximistak, zugaitzak eta arkaitzak lertzen ditu.

Gure bidea goitik bera, mendi sakon batean sartzen da. Antxen daude tokiak larratzeko. Aragoi'ko lurretan gaude. Andik gora dijoa gure mendi bidea eta beldugarrizko aldapa igo bear. Bazter aren izena Lasolana de Anso. Arri askatua ta kazkardia nunai datza. Naiz abustuan izan, elurra zuloetan ugari zegoen. Nik poliki ibilli bear nuen. Biotza errez nekatzen zitzaidan. Gora ta gora, eten gabe baiñan bidea puxketan egin bear. Nere laguntzalleak aurretik zijoazten. Aiek gazteak izaki, bat gallurretan zerua ikuitzen ikusten nuen. Orrelako batean Ernani'ko mutil batzuekin topo egin ta gelditu bear. Aiek Belabarze'tik igo ziran, gu berriz belagua'tik genjoazen. Gazte auek esan zidaten, Maya'ren burura ia igotzerakoan, Frantzi'ko ertzainen elikopteroa mendin gaiñean geldirik zegoela ikusi zutela.

Gero ta bertago ikusten nuen gure mendiaren gaillurra. Bidexioarra gero ta estuagoa arrikazkasdira sartzera zijoan. Nere indarrak larritzen, bakarrik nenbillen beste bi lagunak goien. Nere aurrean arkaitzak zutik zeuden, nere ixtarrak ta besoak aulak. Esker eskubi oñetakoan aztarnak. Igotzeko besoak ere lana egiten zutela, gora etzegoen geiago joaterik eta arri tarte batean, al

nuen bezala eserita itxoiten gelditu nintzan. Ez gora ta ez bera; goruntz ikaragarrizko orma zuzena, bera berriz malkorra latza. Aurrean putreak egatzez. Kopeta izerdiz bustia neuka. Nere bi lagunak, ni deika asi ziran, azkenean billatu ninduten. Nere kabi artatik ateratzen komerik. Nik auxe bakarrik esan nien: «mendi basamortuan, azkena ez da beinere bakarrik utzi bear». Atzera, besten laguntzarekin beste metro batzuek egin nituen eta ezkerreko kazkarditxiki batetik igo nintzan mendi-gallurrera. Eguardia zan. Goien belaunikatuta gure Euskalerriko mendi gallur nagusi oneri musu bat eman nion. Mendi au irabazten dunik ez daukagu, 2.348 metro ditu. Xabier'ko San Franzisko'ren irudi txiki bat ipiñi dute; «Nabarra izeneko Mendizalen Alkarteak 1952-8-16'an eskeiñia. Eskeintza opari orren eguna, bi izkuntzetan idatzia agertzen da.

—Zeru ondoan ura giro zoragarria—.

Ezker eskubi begiratzen ezin aspertu; eguzkia, aize gozoa, mendi sailak ikusi ala. Gizonak beste alako une zoragarririk euki al dezake? Etzanda lasai, an egoteko gogoa izaki; ludia ain ederra gutxitan ikusten bait da. Sartaldera metro batzuetara Budogia dago. Ipar aldera bakarrik zorrotz eta tente arkaitz billutsik agirian ANI edo AUÑAMENDI. Ego aldera Petritxema, Ansabere orratzarekin, Alano'ko malloak; Ezkaurre eskubira ego-aldeetik. Sortaldeetik dana mendiz josita, bata besteari erantsiak dirudi, Oso izeneko gallurra danetan nagusi. Gure begipean Leskun erriaren inguruan, putzu galanta Lhurs izenekoa. Putzu oiek «ibon» deitzen diete bertakoak.

Mendi aundi aiei bakarrik ez nien begiratzen gure aldekoak ikusi nai nituen ere, naiz oso urruti ikusi; Beriain, Aralar, Aizkorri, argazkiak atera ta atera ezin asperturik nenbillen. Oso urruti Monkaio ikusten nuen; agertzen da or goitik ateratako argazkietan. ORHI ta LAKARTXELA muga aldean oso ondo nabarmentzen dira.

Goitik ondo ageri dira, Aragoi ta Naparroa aldeetik dauden larretokiak, eta mendi sailak. An bai zegola tokia artaldeak izkutatuta gordetzeko. Iruña'ko garairik txarrenetan, euskalduna mendi aietan errege.

Goiko gallur artatik jetxi bearra. Poliki, poliki asi giñan. Bazkaltzeko garaia zan. Goizetik orain arte ez genuen ezertxore edan. Egariak erretzen nenbillen. Azkenean elurra botilletan sartuta ura edaten genuen. Orrelako batean goi aldera ardi sailla larratzen guregana zetorren; artzaia atzetik. Alderdi aietan gizon bat arkitzea ez da errexa. Agurtu genuen, Teruel'darra berez, Insa'ko Blas Sarasa'ren morroi bezala zebillen. Artalde artan ba zeuden 2.000 ardi. Larratzeko belarra ezin ohea, orregatik ardiak an gizenak daude.

Azpiko sakonetan iturria arkitu genuen ta bertan bazkaltzen gelditu giñan. Ura bai otza; nolakoa ote da neguan? Goiko mendiko lepura igo berriz ta gelditu

gabe jetxi naiain genjoazen. Basoan sartu giñanean, ipar aize bizi batek azkar asko, lañoa, LAKORA ta LAKARTXELA aldetik sartu zuen.

Arrako elizatxora iristerakoan, lañoa gaiñean genuen, eguzkia unetxo batean sortaldeko arkaitzak arrosa kolorez jantziak euki zituen. Gure ondoan yoaren otsa ta artzaien ziztoa entzuten genituen. Arratsaldeko seirak ziran. Berebilla artuta Iruña'ra itzultzeko garaia.

Orain Diputazioak mendi bazter oiek babestu bear lituzke et izadia zaindu, gizona diruaren gaiñetik errege izan dedin.

Estornes'tarrak Erronkarri'ko lur ori zaintzen ekin eta jarrai gure Euskalerriko Ama Lurra data.

Erronkari izen gartsu ori buruan daukatela, beste gai batez oroitzen naiz. Orko mendietan bizi da artza. Ustekabean arkitzeko beldurrik ez daukat bañan Erronkari'ko mendietan nagola, gogoan eukitzen dut beti. Berez maite ta beldurra ematen didan pixtia da. Alde batetik ederra billatzen dut eta bestetik ba dakigu kalte aundiak egiten ditula zoritxarrez.

Gaur oraidik noiz beinka Naparroa'ko aldizkariak artzaren batek Erronkari'ko artaldetan ondamendi aundiak egin ditula esaten digute. Artza gure artean gaizki ikusia izaki.

Orain dala gutxi Frantzia'n liburu eder bat agertu da sartaldeko Aunamendi'ko artzei buruz egiña; egillearen izena F. Merlet da. Gizon jakintsu au, artzaren ondotik Naparroa ta Aragoi'ko mugetan barna ibilli da. Bertatik bertara ikusi nai zuen eta nola bizitzen zan jakin. Ikustea ta nun bizi zan jakitea, illabele asko mendian egotea kosta zaizkio. Pixkanaka artzaren aztarnak billatzeko zer egin asmatu du. Gerorago, maite ditun janariak ekarri dizkio. Beti ixilka ibilli da.

Artzak oso gutxi bear bait du iges egiteko ta ezkutatzeko. Bizpairu urtearen buruz azkenean berri asko jakin ditu. Oso basa pixti ederra bezala agertzen digu; buru onekoa, argia, oroimen aundikoa, bakardadezalea, paketsua, izkutuan bizi dana, ikusten da bizidun eder bat dala ta oso kalte gutxi egiten duna. Gaur toki basatietan dabil. Oso goran dauden mendi lepoak atsegin zaizkio. Gure basoko pixtietan ederrena dugu, baiñan oso bakan. Era bat baztertu dute. Gure gizon jator onek artza babestea ta zabaltzen laguntzea bere liburuan eskatzen digu. Izadia gizonaren bearrezko ingurua omen da ta nolakoa dan jakiteak eta ezagutzeak pozik aundiena ematen omen dio. Izadia gordetze ta babesteakin gizarteak asko irabasten omen du. Ala dio berak. Gaiñera gizonari ta bere ondasunei ez diela bestelako gaitzik egiten. Gose gorriakin edo bere burua gaizki ikusi ezkerro, orduan bakarrik beldurgarria omen. Berez ez du aragirik jaten, bere eguneroko janaria bestela biltzen du. Batez ere landare asko jaten ditu, zañak, aziak, basoko arnariak, gaztañak, urrak, intxaurrak, basakaranak, marrubiak. Ximaurriak oso atsegin zaizkio. Amurraia ere bai uretan arrapatzen

du. Busti aldiak artzea maite ditu. Eztia billatzen gogotik alegintzen da. Abere usteldutakoak dauzkaten arrak baita pozik jaten. Gauza guzti oietatik emengo basoan naikoa dauka. Neguan berriz basopetan orbelaz kabia egin ondoren, lo lasai egiten du.

Esaten digunez Xibero ta Biarno'n ba omen daude 25'ten bat artza. Ori Frantzi aldetik. Oien erdiak Espaiña aldetik berriz.

Frantzi aldeko mendi sailla aundi ori, estaduak bere gain artu du, dagon izadi berexia, al dan obekiena zaintzeko. Artzaren eizea galerazia dago. Orain artzen bat kaltea egiten ari dala ikusi ezkerro, bereala iltzen omen dute. Gaiñerakoan ondo babestuak daude ta eiztariak zerbait egin ezkerro zigortuak.

Auñamendi'ko ortan, Naparroak ikaragarriko toki basatiak eta ederrak dauzka. Larre izenekoak, tokiak bai beldurgarriak. Aietan artza alkate. An lasai dabil. Jakiña oso gutxi daude geienez bi. Entzun dugu toki eder guzti oiek babestu ta bere gain artzekotan Diputazioa dabillela. Bejon diela. Orain arte mendi zoko oiek gaizki ikusiak zeuden; gizonak etzien arrera onik egiten. Gaur berriz bere ametsa ta atsedena. Naparroak bere gain artzen ditula, baita zaintzen ere, artza babestu nai luke.

Basoko bizidunak ez dira desegiteko, gizonarentzat baizik. Artzaren bizitza bertan aztertu dezakegula, zeinen ederra dan izadia oartuko giñake.

Euskaldunok esan dezakegu artzak ba ditugula Naparroan. Larra izeneko Auñamendi'ko toki basotira joan ezkerro ba dakigu ango alkatea artza dala. Agertu bear genioke zor zaion begiramena.

Artzaren berriak jaso ba ditut beste bi bizidunen berriak jakin nai nitun; bat pixtia, bestea egaztia. Pixtia len Euskalerrian ikusten zana katamotza (lince erderaz) ta egaztia basollarra (urogallo erderaz). Irati'ko basoan ba zeudela entzun nuen baiñan bertan ez dit inork berririk eman. «Belagua» liburu ortan berriz Jose Estornes'ek basollarra Erronkarin bizi dala dio. Berari galdetu bearke diot, noiz eta nun ikusi duten.

Erronkari'ri buruz bi ekintza guztiz ederrak ez ditut nere begiekin ikusi; bat «beien oparia» izenekoak, bestea «mugarrien eguna». Aipatzea merezi dute.

«Beien oparia» jai berexi bat da, ez nolanaikoa. Urtero San Martin'arri ondoan Erronkari'ko alkateak Auñamendiko egoaldetik agertzen dira ta Ipar aldetik berriz, Aret, Lane, Aramit eta Anze'koak. Ipar aldekoak urtero uztaillaren 14'an iru miga gazte Erronkarikoei eskuratzen dizkiete. Isaba'ko alkateak «Paz abant» itzekin agurtzen ditu iparaldekoak. Alkate batek mugariaren gaiñean eskua ipintzen du, ondotik besteak ganean bakoitzak bere garaian. Gero gauza bera, Isaba'ko alkatearen makillan. Orrela urtero 1375 garren urtean asita gaur arte, berritzen dute bi alderdietako alkateak zinkuntza. Europa'n ez da inun orrelako gauzik egiten. Erdi aroan larretoki ta iturriengatik emen burruka ikaragarriak izan omen eta azkenean Karlos II garrenaren

garaian Pakea egitea lortu zuten. Ortarako inguruetako gotzaiak emengo erri gizonekin Anso'n bildu ziran. Urtero San Martin'en mugan Pakea oparia esken-tzeakin berritzekotan gelditu ziran. Gertakizun ontan datza oitura onen asiera. Geroztik Ipar aldekoak 1893 garren urtean beien oparia uztea asmatu zuten, bainan La Hayako epaitegi nagusiak, baita Frantzikoak jarraitzea beartu-zituzten. Bi alderdiak naita utzi lezakete, gaiñerakoan ez dago beiak ukatzerik.

Dana dala Erronkarritarak eusten diote egun oneri ta eguardian baz-karia ematen diete Iparaldeko alkatei.

Mugarrien egunean, udaran, Saraitsu'ko mendietatik asita Auñamendira-ño bi alderdietako alkateak biltzen dira. Mugarriak alkarrekin ikusten dituzte ta bear bada zuzentzen. Ondorean danak batean Bazkaltzen dute ta mendiza-lentzat jai.

Irati izeneko olategiko aurrean Erronkari'ko erregebide nagusia utzita, eskubira Garde'ko bidea artu genuan.

Eguna amaitzen, zeruan odeiak sortalderuntz zijoazten. Ori ikus-tearekin ezin aztu Erronkariko euskal esaera zarra «Odeiak Jaka'ra curia kakara». Beroa egiten zuen, beste aldetik aizerik ez. Mendi bidetik ginjoazen gora ta gora, noiz beinka bide ertzetik Eliz beltzaren arpegia edo etxe aurrea ikusten genuen. Bidea, intxaur zugaitzaketa GARDE erria patxara'n gure aurrean.

Arratsaldeko zortziak ziran. Eskubi frontoi «Toki ederra» euskaraz izena eman diotena ta euskubi jatetxe erosoia «Erdi alde» izena duna. Jatetxe aurrean gazte batzuek mai ondoan eserita, lasai, patxara ederrean. Etzuten oirik arrotzentzat eta beste etxe batera bidali gin-duzten. Kale estuak, etxe zarrak orma beltzak. Eguneko bidearekin lertua nengoela ezin ukatu. Urintza artu, jantziak aldatu ta maira. Eseri nintzanean arri kozkorra bezala, astuna arkitzen nuen nere soiña. Ensalada, aragia, ta batez ere edaria bizpairu pitzer garagardo limona-darekin. Aoa ta txintxurra ondo busti ondorean lasaiago nengoen eserita. Apaldu ondorean aiek lanak altxatzen. Erria ikusteko gogorik ez, ezta ere almenik, gure nekaldiakin illak geunden. Oian sartuta berriz buruan sua, soiñan ezin egona, aoan txinparta, ankak batetik bestera ibilli bear; azkuria oñetan; berotasuna izugarria barrenean, landan mutil kokkorren oiua entzuten nitun... gero ixiltasuna aundia.

Uste baño obeto ginjoazen gure ibillialdiakin. Bide aundienak eta zaillenak egiñak genituen, ez giñan batere atzeratu. Jaka'raño aste ontan iristea etzitzaidan ain zaila iduritzen.

Urrengo goizean zazpitan esnatu nintzan; leyoko zirritoetik argi me zurizta sartzen zan. Eguraldia nolakoa zan ikusteko, leyoa irikita begiratu bat eman nion giroari; zerua urdin, sortaldetik zuritzen,



Garde erriko Kalezarra.

otza xamarra, kaleak ixillean. Jantzita kafesnea artzera jetxi giñan. 500 pezeta danegatik ordaindu nitun, ta erria ikusteko asmoa burutik ezin kendu. Bein baiño geiagotan igaro naiz emendik beinere gelditu gabe. Oraingoan aukera polita nuen. Bizpairu kale, Iriburua, Iriondoa. Eliza goien zear, gibela erri gainean gelditzen zaiola, azpitik Gardalar ibaitxoa. Etxeak arrizkoak, zarrak baiñan garbiak. Karrikak estuak ta zola arri xeakin ondo tolestatua. Eliza itxia genun. Erretora ez da bertan bizi. Bart arratsian eman zuen meza, argiak pixtuta ikusi nitun baiñan soiñak etzigun geiago laguntzen. Lareunen bat biztanle daude Garde'n. Gaur euskaraz dakinik ez dago iñor. 1910 garren urtean euskara ta erdera egiten zan. Urte mordoxka ba da emen apaiz euskalzale amorratua euki zutela, erriaren izen berbera zeramana.


Marzelino Garde'k, bizpairu urte egin zitun emen. Asi zan euskal sukarra astintzen. Berealaxe aldatu zuen Iruña'ko gotzai erdaldun eta erdaldunzaleak eta Araba'ko mugara bidali zuen. Naiz erriberakoa izan apaiz onen. napar eta euskalzaletasunak ez du parerik. Merezi du bear bezala ezagutzea. Nik uste danak asko irabaziko genukela. Naparroa'ko euskal gogoa Uztarrotz'en eta emen Erronkari'n apaiz zegolarik asi zan maitatzen, euskal nortasunaren sakontasuna ezagutzen. Geroztik euskaraz idazten duanean beti Erronkariko euskara erabiltzen du. Ikus Prinzipe de Biana'ko idazlanak Ementxen agertzen dut bat Agur Xuberoa izenarekin:

*«Jaureguiberry Andrearen eskietan Uruña'rat
xitian, bere herri moitiaz elarraiteko.*

*Uskaldunok uskaraz elerran bear degu
Zomaiten ezpainetan, apeza non sortu?
Neurk ere bere amaz eztu bear alketu;
ene iri moitia zutut, Kargaztulu.*

*Erriberan sorturuk, korrengatik naparra
beino zainetan daukat odol züberotarra
Kanko artzainek moite Bardearen belarra
ta kuek biotzen sartu Iparreko beharra.*

*Jinkoaren graziaz, haurra nintzekian.
aitzinekoan deia nik entzun barnian.
«ikaszak gore Uskara, hedazak ungunian
berareki mugarik ezta gore artian».*



Goizeko argia Garde'ko errian sartzen.

*Bortiaraino helturuk, anitx aldiz lañoa;
buria zulik Orhy da gidari zintzoa,
konen bazterren txerka bide zaharra doa;
lanxarra xoaan-eta, kor dugu Xuberoa!*

*Kantik ekustan dena, bai den eguskarri!
ohianean Larrainē, urzo zuri zuri,
Santiaren budarra «Madelena» üduri
Xuberotik norbaitek: «semia - xin adi».*

*Izagun eta bertan nik moite dut herria
artzain, laborari ta, bai bertsularia,
batek erraitan deit Berterretx-en hiltia
Eztiki sartu zaigu Xuberoa moitia.*

1966-ko VI-en 4an
URUÑAN, M. GARDE

Gure apaiz au ez da Erronkaritik urruti sortu, beraxeago baizik.

*Aragoi ibaia, zillarrezko jantziakin eta dizdiratsu, ederra ta indarrez
betea, patxara lasaian, Zaragaztelu'n (Carcastillo) barrean dijoo, goitik bera
Naparroa'ko zelaietan sartzen dela. Zerua geienetan urdin illun dago. Nolako*

*Urtearora, alako giroa, beti beroa edo otza. Aragoi ibaiaren gaiñeko aldean
toki zabal batean, Zaragaztelu datza, Larrate izeneko mendi gibelean.*

*Naparroa'ko sortaldean dauden lur auetan sortu zaigu gure euskalzale
sutsu au, gaur, Diputazioatik euskararen alde lan aundia egiten ari dana. Baten
batek galdetuko du, eta nola leike ori? Lendabizi gauza bat jakin bearra dugu.*

*Naparroa'ko Diputazioak euskarari anitz laguntzen diola. Bertze euskal-
kietan baiñan aurrerago dijoo Naparroa'ko Diputazioa euskara kontuan. Danak
dakigun bezala, gauzak ez dira berez sortzen. Gizon bulartsu batzuen lanak
indarberritzen dute gizarteko giroa.*

*Joan zaigun azkeneko urte ontan, euskararen alde Diputazioan egindako
lanetan Marzelino Garde apaiza jaunaren eskua ikusten da. Nortasun aundiko
gizona dugu ta garrantzi aundiko lanak egiten ari zaigu. Euskalzale jator au
ezagutzeko ta bear bezala nor dan jakiteko, asieratik bere jokabideak ariari
eldu bear ditugu.*

*Aipatu dugun bezala, Marzelino Garde Zaragaztelu'n 1925 garren urtean
jaio zan. Bere aitak mutiko onen euskal konzienzia esnatze ortan garrantzi
aundia izan zuen. Anastasio Garde Goñi Marzelino'n aita zaragaztelutarra
dugu, nekazaria. Bein Zaragoza'ra autobusean zijoaztela, naparrak baturroen
aldetik gogor artuak izan ziran, zernai entzunda, itzuli bear nunbait. Ala gertatu
zitzaion ta urrengo egunean, errepublikako garai artan Agirre ta Irujo jaunen
itzaldi itxaropentsuak entzun omen zituan jaioterrian. Bi alderdi oiek ikusirik,
euskaldunen aldera jo omen. Zabalkundea izeneko bilduma asi zan ezkeretik
artzen zuen. Bere aurtxoak bilduta su bazterrean, Kanpion'en zati batzuek
irakurtzen asi zitzaizkien, batez ere Martiniko, Gamio anaiak, Erraondoko
azken txistularia. Marzelinok, Naparroa euskalduna, etxean ezagutu zuen.*

*1934 garren urtean, erriko aurrak Iruña'ra ateraldi bat egin zutelarik,
Diputazioa ikustera etorri ziran eta aur bakoitxari Naparroa'ko edestiaren ale
bana eman zieten.*

*Garai berdintsuan, Florenzio Lazkano Beteluarra, idazkariaren laguntzalea,
euskara irakasten asi zitzaien.*

*Batxilleratua egiten errian asten da. Urte oiek beiak zaintzen eta liburu
arteaz igarotzen ditu.*

*Urte txarrak dira, anaiarteko guda. Zaku batean txintxillik sapaian,
aitaren Kanpion'en liburuak arkitzen ditu.*

*Napar idazle ospetsu au, gogotik irakurtzen du; kanpion'i eskerrak, Napa-
rroa euskalduna ezagutu zuen.*

*1939 garren urtean Iruña'ko apaiztegian sartzen da. Euskalzaletasunaz
bere lagunak kutxatzen ditu ta garai berdiñean euskara ikasten du Intxaurren
eliztiakin. Elizaren aldizkariari euskarazko eraskin bat erastekotan dabil.
Izena ere billatzen diote «igandea» baiñan alperrik. Ez da beiñere sortuko.*


*Ibilkaria ta mendizalea dugu. Bere erritik Uztarroz'era oñez dijoo ta
Otsagi'tik Zaragaztelu'ra egun batean sartzen da.*

*«Aralar» izeneko aldizkaritxo bat erderaz ateratzen du, apaiztegian.
Naparroa'ren alde barneko zaletasuna, orri oietan aunitz zuzperten du. Napa-
rroa'ko lurretan egindako ibillialdiak ortxen agertzen ditu.*

*Ezkuz idatzitako Naparroa'ren edestia Iruña'n ta Zaragoza'n 1943
garren urtean zabaltzen da.*

*Errenkan Iruña'ra egurastera ateratzen dirala, besoan sarturik urrundik
zetozkion euskal aldizkariak apaiztegiara eramaten ditu, baita zabaltzen. Or-
duzkerotik Iruña'ko euskalzaleak ondo ezagutzen ditu.*

*1945 urtean lenengo olerkiak euskaraz idazten astenda. Apaizgaiantzat
euskal ikastarora sortzeko lanean dabil. Azkenean irakasle bezala, Blas Fagoaga
izendatzen dute, baiñan nola euskaldun errietakoak bakarrik artzen ditun, bertan
gure izkutzka ikasteko aukera ukatzen diote.*



Garde'ko eliza.

Bere euskalzaletasunagatik, gaizki ikusia da Obispadoan. 1950 garren urtean apaiztu ondorean, erri txikienetara bidalitzen dute. Batetik bestera dabilkete, Gazteluberri (Castillonuevo), Uztarroz, Garde, Usanabilla (Genevilla), Urraul (sei parroki).

Sinismen aundiko gizona dugu ta aldaketa oiek Jainkoaren bideak bezala artzen ditu. Erri batzuetik bestera, elizatxoetan, erromeritan, Jainkoaren itza gogotik zabaltzen ari da. Aurrekin, gaztekin, lana aunitz egiten du, batean eta bestean. Barrenean daukan sua zabaltzen ez da aspertzen. Gazteluberrin, bi urte. Ondorean Uztarroz'era bidaltzen dute. Erronkari'n euskalzaletasuna loratzen zaio. Uztarroz'en bere kabia arkitzen du. Antxen billatzen du bere euskal arrobia. Bizirik dauden aiton amon aunitzek oraindik euskara ondo dakite. Eguberritan elizan erri osoarekin bertako kantu zarra «Gauzen aingurieki» euskaraz kantatzen dute. Aurrekin euskal itzak biltzen asten da, idatzita ekartzen dizkiote. Erronkari'ko «uskara» noski talde bateri irakasten asten zaie. Garai ortako kuadernuak bere ondorengoak eman ditu.

Gaztetxoei Kanpion eten gabe irakurtzen die. Euskal gaiak Iruña'ko Pensamiento Navarro egunkarian idazten asten da. Egunkari ontara jotzen du, Jose Agerre euskalzale benetakoa ta irakasle onak egunkaria ber beran idazten zulako. Orduan garai artan egunkari ontan euskaraz errez idazten zan. Ementxe argitaratzen du 1954 garren urtean, garagarrillaren amairuan euskaraz «Erronkari'ko Txorinoa» izeneko olerkia benetakoa.


«Unrazien tartetan
abia izaturik
txoria duk kantetan,
bedatsia sarturik.

Zer egun epel duk, txori ñotxo
zeuri dundupean!
magal xabalik —goixa da gosh—
txori ñabarra xoan-xitan.


Gore Bedatsia lasterka doa
eta unrustoian! bai, zer onki!
Ay txoriñoa
negu gorrian nora yoa yi?

—Eltan denian Eizlari xuria
beste lutrera xoaitan txoria.

.....



Garde'ko erri bazterra.



Garde erria Erronkari'n.

Ronkari lerdoietan
argia ullunik...
bigotzak, M- rretan
Keben, zer otz betk!

Gora uskara —txori gaxoa—
abi bellorik erden ezik,
otzez daldardar erraitan doa:
Erkin beino len, nai dur ilik!

Erronkari guziaren txoriak
ekunen tei bero ta argia
urrin'ko bazterretan.


Baia Uskara —ene gasxoa—
kain otzagatik iltra bayoa
Deusez'aren eskietan
Ez il kain fite; sar adi kan
etxeño baduk bigotz batean.»

Garai berdiñean Matias Labari Erronkari'ko azken euskaldun artzaiaren eriotza agertzen digu.

Erronkaritar onek erraten omen zion «uskaraz» Marzelinori: «Zu artzai ona zara». Itz oiek erranez il zan Erronkari'ko azken euskalduna. Idazlan onen erantzunak ludi osotik jaso zituen. Izparringia egun ortan aitu zan. Artetxek Donostian aipatu zuen pozik.

Erronkari'ko jantzi bikaiñak gaztei, maiz, jai berexietan jantzi arazten zien, emengo nortasuna berexia obeto agertzeko. Erronkari'ko Andra Mari guztiak Ibarreko irian bildu zituzten eta orduan bildu al, jantzi guztiak agertzen saiatu zan. Mitxelena, Elosegitar sendia eta beste gipuzkoar batzuek, Erronkari'ko euskara jasotzen lagundu zitun. Ustarrotzen dagola beste aldeko euskal dunekin artuemanetan dago: Erri ontan, betiko, Erronkari'ko euskararekin lotua gelditzen zaigu.

Eliza barrutitik Uztarrotzen bi urte igaro ondorean, Garde errira erretore bezala aldatzen dute. Garde'n, Garde jauna ez dago lo, bide berdiñetik jarraitzen du. Erriko apaiz berri baten meza dala ta, jai aundi bat antolatzen du ta kalean izki aundiakin idatzirik agertzen du euskaraz «Onki xin gure apez moitia». Elizatxo batean Zubero izeneko Andra Mari bat daukatelako «Agur Zuberoak» Etxaun'en abestiaren itzak aldatuaz lelo berria egiten du; gazte denei ikasi arazten die euskaraz.



Erremendaria lanean (Garde).

Euskalerrria ongi ezagutu dezaten Gernika'ra eramaten ditu gazteak. Baiñan euskal etsaiak ez dute pakean uzten eta berriz Erronkari'tik aldatzen dute. Oraingoan Araba'ko mugara dijoa, Usanabilla (Genevilla) izeneko errira. Lau urte egiten ditu; an agertzen dan lenengo erretora naparra daukagu. Ordu arte beti Errioxa'koa zuten. Naparzaletasuna gogotik ereiten du. Bertako nekazariei kooperatiba bat sortzen laguntzen die.

Garai txarra da, euskal apaizak ez dabilta lo ta Marzelino aiekin batean lanean. Zigorra eldu zaio ta berriz aldatzen dute. Oraingoan bere parroki berriarren izena RIP (Ripodas) izkiekin asten da.

«Euskalerrriaren adiskideak» elkarteak sortzen da Iruña'n; asierako kidea dugu. Nunai ikastaroak gertutzen dituztela, Diputazioa dala, Eliza dala, danetara jotzen du.

Garai ortan izparringian apaizentzat Ikastetxe Nagusian antolatutako ikastaro baten iragarkia ikuste du. Antxe asten da goimaillako ikasketak egiten. Lenengo, Elizaren edestia bukatzen du, gero filosofia egiten asten da. Ortzen dugu berrogei urtekin ikastetxean lanean, jo ta ke ikasten. Iruña'n gero ta arremian aundiagoak ditu, batez ere «Euskalerrriko Adiskidekin». Iruña'n lenengo ikastola sortzen dala, begi onakin ikusten du ta egiten dituzten euskal jaietara biltzen da.

Oraín artio ikusi dugunez, bi oñarri sendoei eutsi die. Alderdi batetik Jainkoari ta bestetik Euskalerrriari. Gizon enentzat, Jainkoa bere izaera ta jokaera guziaren bizkar ezurra da. Euskalerrria berriz bere gizabidearen arnasa.

Ikastola dala ta andereñoak deitzen dute, nunbait ikastoletara etorri berri batzuek ikaragarrisko otsa zabaltzen ari dira; aurren eziketari Jainkoa ez dala aipatu bearrik, sexual aldetik askatasun osoa bear dala, iraultza eta abar. Alderdi ortik zuzen arkaitzak in topo egiten dute. Apaiza au ez da Jainkoa aldatzen ibiltzeko gizona. Sinismena aundiko gizon onentzat, Jainkoa ez da folklorea, gutxiago mitoa. Kutsatua dagon ikastola garbitu bearra dago. Iruña'n ikastola berria sortzen da, Paz de Ziganada bere izena.

Euskalerrrian, Marzelino Garde'ri esker, lenengo aldiz ikastolak garbitzen asten dira. Ondotik nolako borroka datorren Euskalerrrian danak dakiguna da; «mozorroak» ustekabean ikastoletan sartu dira ta aurren konzientzia zulatzen asiak ziran. Aunitz, patxaran lo.

Bitartean zenbat gaztetxo betiko urraturik eta nor errudun? Marzelino Garde, Erriberako euskalduna dugu ta Jainkoa ta Euskalerrriarekin, jolasten ez dakin gizona. Ez da sasi jakintsua, ezta ere iñosua; gizona, euskalduna ta sinismenduna baizik.

Garai ontan, gutxi gora bera, Zeruko Argian, indar aundiko lan bat, Iruñan gertatutakoa azalduaz idazten du. Mozorroak gizon onekin arkaitza arkitzen dute.

Gaiñerakoan, eten gabe bere bearra zuten euskalzalei biotz zabalik laguntza eskeintzen die. ORHI mendiak bakarrik dakizki berriak. Negu gorrian ikusi du gure Marzelino, elurte illunetan eskua ematen... An gertatutakoak ez ditu iñork berritu.

Bere aita Zaragaztelu'n il zalarik, antxe zeuden Naparroa'ko euskalzale danak, gizasemez, eliza lertzen. Gizon onen itzala antxe ikusi zan.

1972 garrengo udaran, Diputazioak Principe de Viana'ko sailletik ikastolak ateratzen ditu, berak daukan eziketa sailleari eransteko.

1972-12-15 egunean, garrantzi aundiko oñarriak jasotzen ditu Diputazioak, euskararen alde.

Eziketa sailleko kide, Marzelino Garde izendatzen dute ta gaiñera euskal Jakintza batzordekoa, 1973 garren urteko martxoan Principe de Viana izeneko euskal aldizkariaren arduraduna izendatzen dute.

Pedro Diaz de Ulzurrun sendagille ospetsua ta euskalzale jatorrak, lantoki ori uzten du ta Marzelino Garde'ri ematen diote.

Gure euskalzale jator onek, aldizkaria gogoz artzen du. Aspalditik aldizkariak atsegin zitzainkion ta Principe de Viana'n ba zituen lendik lan mordoxka bat Erronkari'ko euskaraz argitaratuak. Euskara Naparroa'n berpizteko indar aundiko gauza deritzai izparringi au. Euskaldun berria da ta asieran lan aundiak artzen ditu aldizkari au aurrera eramateko.

1973 garren urtean, goiz, Naparroa'ko Euskal Irakaslen lenengo ikastaroa antolatzen asi zan. Bide ortan Naparroako euskal itxaropena ikusi zuen. Ain ongi aurrez prestatutako gauza ezin gaizki atera. Bide ederrenetakoa artu bai zeukan. Ikastaro ontara irurogei ikasle etorri zitzaizkion. Ikastaldi auek ematen, ogei irakasle ibilli ziran. Danak txundituta gelditu zitzaiakion erranez: «Lenengo aldia da, gauza bat ain ongi Euskalerrrian ateratzen dala». Ikasleak pozik etxera. Diputazioak poza aundiagoa, ain gauza eder bat egiten zala ikusirik. Ortxe oartu ziran Marzelino Garde balio aundiko gizona zala. Ez da aizearen antzekoa.

Azaroan Principe de Viana astapeneko Euskal Jakintza taldeko idazkaria, Diputazioak izendatu du. Ez dala nolanaiko lana danak konturatzen gera. Diputazioak, gizon onen eskuetan uste osoa dauka.

Oraín, ortxe dabil, Forudun Diputazioan, jo ta ke, euskararen alde ta euskal kulturaren alde lana egiten.

Erribera'ko aspaldiko euskaldun berri au, gizona dugu. Itza garbia du, begia zorrotza, biotza irikia, langillea da. Sinismena beretzat bizia, euskara altxorra, Euskalerrria aberria. Gaurko Naparroa, zer dan eta nora dijoan jakitako, gizon au ezagutu bearra.

Gure aurrean daukagun etorkizuna, gizon ontaz mintzatuko da. Naparroa'ri bi gauza oso osorik gorde ta eskuratu nai dizkio, alde betetik kristau sinismena, beste aldetik euskal nortasuna. Bi elburu oietara jotzeko, biderik egokiena euskara zabaltzea dala, konturatu da.

Amar urte ezkeretik Euskalzaindikoa dugu. Erronkari'ko euskara eza gutzen duna eta ango kulturak jakintsua. Jose Estornes Lasa jaunak «Erronkari'ko uskara» liburua egiterakoan, Marzelino Gardek bere laguntza opatu zion. Orrelako gizon sendo, jator ta garbiak, Naparroan euskarari indar berri bat emango diola, garbi dago. Sinismena ta euskara, biak gureak diralako, zabalduko ditu zearo.

Goiko aldetik bera jexita, Frontoiarene atzeko aldean Erriko seme ospetsu baten irudia begira gelditu giñan; lorategia du aurrean, ertzean ibaia ta inguruan zugaitz ederrak. Arri aundi baten gañean Pedro Naparra'ren irudi; bi izen zitun Pedro Bereterra ere deitzen zuten. Egitazko gizona genuen benetan azkarra ta napar zinezkoa. 15 eta 16 garren gizaldi tarte ortan bizitu zan. Italian guda mutil bezala ibilli ondorean Naparrora etorrita buruzagi ta gizon ospetsu au Naparroaren askatasunaren alde azkeneraño guda egin zuen. Naparroa'ko azkeneko erregeen alde borrokan ibilli zan. Juan eta Katarina Labrit'en besoa ta basbesa genuen. Guda galduta etsaiaren eskuetara erori zan eta Karlos V garrenak espetsean sartu zuen. Simankas'ko gazteluan il zuten. Naparroa'ren askatasuna-gatik eta Naparroa'ren erregeak aldeztutzegatik bizia kendu zioten. Gizon indartsu ta Napar zinezko onek merezi zuen bere sorterrian oroitarria. Xiberotarrak emandako eredia merezi du aipatzea. ETXAHUN'EK pastoral bat eskeño dio euskaraz; 1973, uztaillan 22'In Gotain'en agertu dute Pette Bereter izenarekin.

Naparroa'rentzat garai ura ezin zitekean txarragoa izan. Esango nuke bi gizaldi txarrenetakok izan ditula. Bat amaseigarrena, bestea emeritzigarrena. Biyek negargarriak, baiñan bitan txarrena amaseigarrena. Orduarte askatasunean bizi zan, geroztik Kastilla'ko erregepean gelditzeen da; gaiñera ondo uztarritua. Garai illun ontan bizitzea egokitu zitzaion, Garde'ko seme ospetsu oneri. Garai ortan napar asko agertzen zaizkigu Naparroa'ren saltzaille ta arerioak. Pedro Nabarro berriz, Naparroa'ko erregearen alde ematen du arpegia. Naiz Naparroa erori, bere aberriaren aldetik arkitzen dugu; onekin gizona zala ta ez nolanaikoa egertzen digu. Gainera orrexegatik Simankas'ko orma otz eta illuna artan sartzen dute; zerbaitengatik izango zan. Gaztelu ikaragarri artan kentzen diotela bizia ba zekiten, Naparroa oraindik obeto ankaperatuko zutela. Gure aintza ta ospe bizia orrelako gizoni. Bai



Pedro Bereter (Garde).

Simankas'en, baita Amayur'en erortzen diran gizonak guretzat esanai aundia daukate ta Naparroa'ri agertzen diote beti, daukan nortasuna ezin dula ez trukatu, gutxiago oraindik saldu.

Orrelako napar zinezkoen odolak daukan balioak gizaldi ta gizaldi luzetan iraungo du, ondasunik ederrena dalako ta salneurrik ez dulako. Galtzeak edo irabazteak ez du esanai aundiena, baiño maitasunez ixuritako odolak bai. Ta ixuritako odola aberriaren alde eman danean, oraindik askoz gero.

Pedro Nabarroren iduria ikusten dugula, orduko ta oraingo gizaldiari mintzatu zaigu, erri baten nortasuna ez dala txantxetan ibiltzeko jostallua esanez. Ori gutxinaz ikasiko ba genu zerbaitean aurre-ratuko ginake.

Amaseigarren gizaldiko asiera ontaz askotan oroitzen naiz. Naparroak askatasuna galdu zuen garai arek beti nere jakin naia zirikatzen dit. Orduko goraberak Euskalerra'ren etorkizunarekin zer ikusi aundia daukate, zoritxarrez kastildarrak Gipuzkoarren bidez ankaperatu zuten Naparroa. Ori txarra ba da, txarragoa oraindik naparrak bi zatitan puxkatuak ibiltzea eriotzara iritxi arte. Agramondarrak eta Beamondarrak, bi talde oiek ondatu zituzten bazterrak eta Naparroa desegin. Ara anaiak erdibitzeakin zertara iristen dan.

Garai illun ta goibel artako une txar ura egun batean, ustekabean, bi xos eskuratu nitula garbi asko ikusi nuen. Bi xos oiek garai artakuak ziran amaseigarren gizaldikoak eta biyek Naparroan egiñak. Orduan Naparroan gertatutakoa zillarezko bi puxka txikietan ageri zan. Oso neurketa polita arkitu nuen eta ezin dut ixillin euki, gaiñera bi xos aiek Pedro Nabarrok ezagutu zituen eta bi xos aietan ageri da urte batzuetan Naparroan gertatutako aldaketa. Bat Naparroa'ko erregeen garaikoa da. Alderdi batean bi izki ederrak ditu I K, Naparroa'ko erregeen izenak Juan eta Katalina, berez Katalina zan Naparroa'ko alaba, Juan senarra Frantzi'ko lurralde aundi bateko nagusia. Biyek Naparroko izenean Naparroa'n agindu zuten azkeneko erregeak, biyek Iruñan koroiatu zituzten azkeneko erregeak. Bi izki oien gainean koroierder bat ipiñia dago. Beste aldean berriz gurutzeta bakarrik. Xos ortan Naparroa'ko armarririk ez da ageri. Katalina ta Juaner regeak eragozpen aundiak izan zituzten Iruña'n sartzeko. Ateak ixten zizkieten, azkenean sartu eta Eliz nagusian 15 garren gizaldiaren bukaeran koroiatu zituzten. Orduetik Naparroa'ko egitazko erregeak ditugu. Orregatik xosan erregeen izenak ipintzen dituzte ta izeneen gañean koroierder aundiak jartzen Naparroa'ko egitazko erregeak zirala danak garbi ta argi ikusi zezaten. Xosaren zillarra ez da aberatsa, indar



Naparroa'ko xosa zarrak.
Ezker azkeneko erregeak.
Eskubi Fernandorena.



gutxi du ta margoa motela gelditzen zaio. Jakina Naparroa erdibitua zebillen beti borrokan. Sua bazter guzitan, etxetan, erritan, garitan; anaiak borrokan, guda inguruan naigabea ta txirotasuna, diru gutxi.

Beste xosa berriz Fernando, Kastilla ta Aragoiko erregeak egin du; 1512 garren urtean Iruña eskuratu ondorean. Naparroa'ko erregea Juan Albitarra Irumberrira (Lumbier) dijoa, geroxeago Naparroa galtzen du. Fernandok xosa ori egiten duanean, alderdi batean Naparroa'ko armarría ipintzen du, zati osoan kateak ikusten ditugu. Gainean koroi txiki bat armariaren bi alderdietan —K— Naparroa'ko erregiñaren izena. Beste aldean gurutze tartean bi kotoi txiki ta bi —F— txiki, Fernando'n izena. Xosaren zillarra egitazkoa da, ona, margo bizia du ta lodi xamarra. Fernandok Naparroa eskuratzen du baina oraindik xosan erregiñaren izena gordetzen du. Gizon maltzurra, argia ta aberatsa zan, Kastillako erregea Fernando. Naparroa'ko erregen izenen tokian, armarría, katiak jartzen ditu; naparrak pozik eukitze arren, naiz egitazko erregei erresuma ebatsi. Naparroa'ko bertako alaba dana Katalina erreginaren izena gordetzen du. Fernandok agintzen du Naparroan, ango nagusi berria da, ala guztiz ere bertako erregiñaren izena ez du aztutzen. Ori da gizon argia ta maltzurra izatea. Katalinak alde egin bear du, erresuma kentzen dio baina naparrak pakean eukitzearren izena ez du kentzen diru gaineretik, gainera Naparroa'ko armarría oso osorik agirian jartzen du. Egitaoko Naparroa gizaldi ta gizaldietarako ankaperatu du baina itxurra ondo zaintzen alegintzen da. Naparroako armarría azalduaz erriaren aurrean ondo agertzen da, gainera zillarra ohea ematen dio. Ara bi xos txiki oietan zenbat irakurri diteken eta zenbait esan nai diguten.

Orrelako gauza txiki batean ainbesterañoko aldaketa ikusten dugula, zer gertatuko ote zan gauza aundiagoetan?, batez ere errien goraberetan? Dana dala ta Naparroan etzan girorik izango, ainbeste gizon illak edo giltzapean, arrotzak agintzen, napar aberri saltzalleak arro, arro. Garai aiek ezin ditugu aztu edo ez ditugu burutik ain errex kendu bear. Bertako semeak dira okerrenak, aberria lertu, izkuntzari ostikoa eman, erriak saldu, anaiak espetxera bidali... Kaxkariñak gera. Orrelako anaiakin ez gindezke urruti joan; dema, gorrotoa, besten ona ezin eraman. Aulak nagusi izan nai ta ortarako egitazko gizonak il bear... Garde'n dagon Pedro Nabarro'ren iduri aurrean asko asmatu bearra dago. Ez da edergallu bat bakarrik. Aspaldiko

gizona dugu baina asko erakutsi lezaigukena. Naparroa berriz lertzeko, senide tarteko borroka naikoa du. Naparroa'ren etorkizuna berriz, erriaren eziketa aldetik izango da. Euskal kultura zabaltzen ba diogu ta ori oñarri bezala artzen ba du, ordun bai egitazko bidea arkituko dula. Beti alderdi ortik egin bear litzake lana, ta ez bazterrak ondatuz. Sinismena eta euskal arnasa izan bear lukete egitazko naparrentzat, etorkizun jatorrari eusteko urratsak.

Aragoi aldera abiatu giñan; goizeko 8 terdiak ziran, azkenetako etxetan erremendari bat lanean zebillen. Gizon eldua, txiki xamarra, bizia, burniak eransten zebillen, Lazarza du izena.

Gora ta gora zijoan errege bide berria, orain dala gutxi egin dute. Guda mutillen barrakoi batzuek ustuta erdi erorian atzean utzi genituen. Mendian bi alderdietara lerra sailak, bide bazter batean artzai mutilla arkitu genuen, eserita zegoen, makilla belauna gainean zula, ta ogia tipul gordinekin jaten ari zan. «Goiz zabiltz» nion. «Bai, eguzkiak berotu aurretik lana amaitu nai nuke», esan zidan; gure lana gogorra da, artaldeak urruti ditugu ta beti ardien atzetik ibilli bear, ori bai, udaran beti lasaiago». «Txistuaren antzeko tresnarik ez al duzu mendi auetan artzaien eskuetan jotzen ikusi edo entzun», nere galdera. «Ez, beñere olakorik», zion artzaiak. «Euskara ezagutu al duzu» egin nion berriz galdera. «Guk ez dakigu, gure gurasoak euren artean egiten zuten, guk ez genuen ezertxore ulertzen. Gañerakoan gure abizenak, mendienak eta abar, danak euskaldunak dira», itz oiekin naikoa esan zigun. Bide luzea genuen eta gu aurrera. Gardalar erreka eskubi aldetik zegoen, bidea igotzen zijoan, beti zuzen. Erreka gero ta berago gelditzen ari zan eta gu mendiaren magalean, mendi bularraren inguruan. Orrelako batean, bidea biurtzen asi zan, bira aundiak esker eskubi ematen. Orma aundiak ikusten genituen eginak, toki malkar aietan. Bidea moztutzea asmatu genuen.


Arriei ta mendi zakarrari eutsiaz aldapa ikaragarriak igotzen asi giñan. Bidea nundik nora zijoan garbi ikusten genuen. Gure atzetik zetozen berebillak nolako bira luzeak ematen zituzten ondo ageri ziran. Gu berriz bidea moztzen genula aien aurretik ginjoazen, biotzak zartaka ederrak ematen zizkigun, kopetatik izerdia dario, txokatillak minberatuta, eskuak arantzaz beterik..., baiñan ala guztiz ere, gu aurrera Gure birrikak artzen zuten aize arengatikan oso goien giñala nabaritzen genuen. Berriz errege bidera atera giñan eta puxka batean andik aurreratzen ginjoazen. Geroxeago bide xiurra eskubitik, gaiñez gain zijoala ikusi nuen eta uraxe artu genuen. Mendi gain aietan ezker eskubi larre zabalak ageri ziran, musker margo biziz jantziak,

bordak beltz antzekoak, artalde bakan batzuek ere bai. Zuzenean mendi lepoan giñan, etzegoen oso garbia, pinuakda na artua zeukaten. Atzean Naparroa uzten genuen, gure aurrean berriz Aragoi. Bi aldetan lur berdinak, mendiak aundiak, gizonak berriz anaiak. Enda berdiña dala ezin ukatu; Euskalerrria, artzai errria. Atze ta aurre mendi saillak urrutiraño ikusten genituen. Ura itxura dakana Auñamendik!, bularra zabala, sendo eraikia, gallura berriz tente, bizkar egokia, oso goien giñan, 1171 metro.

Anso Aragoien Naparroaren alboan

Sortalderuntz berriz aldapa bera, eskubira Puyeta'ko amaren baseliza txuri txuri, ezpatan antxera bukatzen dan bi begiko dorre, txiki batekin. Bigarren mendi bizkar ondotik eskubira *FAGO* errria bidea; etzan gurea. Antxen ginjoazen gelditu eziñik zuzenean; esku-bira erreka Ezpela izenekoa. Muño batetik beko zuloan urrengo errria ageri zan. Errege bideak bira aundiak ematen zitun eta guk geiegi ibiltzeko gogo gutxi. Baso bat ikusten genuen gure aurrean, azpian zelaitxo bat eta andik ibaira bidea. Anso errria ibaiaren gainean zegoen. Ezkerreko piñutegian sartu giñan. Baso azpia oso zikiña, larra ta egurra usteltzen nunai. Olako batean, sakon aundian sartuta ez genekin nundik nora jo. Ezkerretik artuta, zakarren artetik, otakak, al genitun bezala eskuekin baztertzen lanak, ebaki aundia ta itsusi xamarra ikusi genun gure aurrean. Beste aldera igarotzeko tokirik estuena billatzen ibilli giñan. Aurrena ni igaro nintzan ta Mikel atzerik. Jauzi bat egin zuen eta eskutik makilla erori zitzaion. Bira bat emanda beko soroan nintzan. Mikel makillaren billa, errekaen zuloraño jetxi zan, zorionez urik gabe zegoen, makilla osorik arkitu zuen. Nolako arkaitz tartean zebillen ikusita beldurra eman zidan. Anso errria aurrean genuen, zubira iritxita, ibai lodia ta basatia gure azpitik zijoan.

Putxu ederrak, sakonak ikusten genitun. Otsa aundia ateratzen zuen urak. Mikelek ala dio «busti aldi bat artu nai nuke, nun aldatuko ditut jantziak?». «Ur zulo oien inguruan nunai gizona» esan nion. «Neskan batek ikusten ba bau!», irriz dio. «Artza al aiz iñor beldurtzeko?», esanda ixildu nuen. Etxe zarrak errenkan, gainean genituen. Losa aundiko galtzara zarra artu genuen. Beko aldetik ikusita indar aundiko erriaren antza du, zar kutsua gaiñera dauka, nola ez? Arresi



Puyeta'ko basiliza.



Anso erria Aragoien.

luzeak, orma lodiak, etxeak arrizkoak, dorre batzuek. Ondo babestua dagola ezin ukatu. Tellatuak gorri illunak, arria ori beltzatu xamarra. ANSO erria antxen genuen, dana batean, etxeak ondo zamatuak dauz-kala. Erri barrenean ez nintzan beiñere sartu. Oraintxe aurreneko aldiz. Eguardiko 12 terdiak ziran. Karrikak aldapan ditu, beko aldetik asi ginan igotzen, etxeak bata besten ondoan, bizitza bakarrekoak, tellatuak luzeak, ormak arrizkoak.

Etxe asko erdiarakoak dira. Eliza galanta gañean, dorre lodiakin. Sarrera platereskoa du, dana amaseigarren gizaldian egiña dago. Aldare batzuek barrokoak, galantak, eta gurutze bat zillarrezkoa platereskoa. Sakristik galdu ala gelak ditu. Elizaren aurrean erretoretxea, sendoa, jauregi baten antzekoa, arri landuakin egiña, tellatu zabalekin, ta sarrera apaña.

Erretora etzala oraindik etxera etorri esan ziguten. Erri barrenean ipar aldera sartu giñan; bizpairu kale ederrak eta zuzenak, ezker eskubi dendak, edan tokiak, eta arrotzetxeak. Bazter batean gizon txiki bat itzalean ziri batekin ardillea astintzen. Argazki bat ateratzen asi nintzaion, baita eskerrikasko esan ere. «Ori merke da» esanta ao zabalik utzi ninduen. Oskindegi baten ate ganeko arrian dagon irudia begira gelditu giñan, gurutzea ta urtea erdian ta baztarrean txakur bana buztan arroakin. Orrelako irudi asko Euskalerrian ikusten dira; erri kutsua daukate.

Ustekabean, egurasten gabiltzala ta ezker eskubi begiratzen, karrikaren beste muturrean aitona bat, galtza motzakin jantzita, ezkerreko karrika estu batean ezkututzen zaigu. Ni atzetik, argazkia ateratzen asten natzaio ta nere aitona gero ta azkarrago. Lasterka gu aren billa, nunbait sartzan da, nun bizi dan aitona, emakume bateri gal-detzen diot. «Auntzaxeago etxe txiki batean» esaten digu. Mikel aurrera dijoa, ateko burnizko morolloa jotzen du ta emakume bat ateratzen zaio esanaz: «Ez dala etxetik jetxiko esan dit aitak, ta ez baduzute tiro bat bizkar gainean jaso nai, len bait len alde egiteko emendik». itz oiek etziguten poz aundirik eman. Eliz ondora abiatu giñan. «Meza emateko asmoa dut eta nai izan ezker oraintxe duzu busti aldi bat artzeko tenorea» esan nion Mikel'eri. Jauziz izkutatu zan.

Elizaren sarreran nengoen erretoren aitarekin, semearen zai; berealaxe antxen genuen apaiza Damaso Lapetra gizon egokia, ziuerra, alaia, biotz onekoa, ni ikusteakin poztu zan. Meza ematen lagundu ninduen. Eliza erakutsi ondorean, antxen zetorkigun Mikel alai ta lasai bustialdia artuta. Gurekin bazkaltzeko esan nion erretorari, pozik artu zuen deia. Eliz atarian eten gabe izketan ari giñala, or nun uste-



Anso'ko kale luzea.

kabean gure ondora datorren, lengo aitona antziñako jantziakin. «Len iges egin duk, baiñan orain artuko diat argazki bat» nion nere baitan. Oldoztu ta egin, aitona onek burua altxa zunerako nere lana egiña zegoen. Erretora agurtu zuen eta jakiña gelditu bear, nor giñan jakin zuanean aitona pozik; kafea gurekin artzera deitu nuen. Aitona gero ta legunago gurekin. Beste olako erriko gizon jator bat, artzai ta garai berdinean idazlea zala esan zigun ta gurekin kafea artzera deitu zuen.

Gure elkarizketaren mamia, ardura aundiakin artu zuten; artantza, erriaren nortasuna, txistua, euskararen aztarnak Anso'n eta abar.

Jatetxean sartu giñan; Auñamendi izena du. Gizaseme asko zeuden eserita barrenean. Bazkaria; barazkiak eta arkumearen saieskiak erreta, gero igaliak. Gure erretora gizon atsegiña da. Orain erriko jantzi ta tresna zarrak bildu naian ari omen ta erriaren nortasuna, obeto ezagutu ta pizkortu nai luke. Etnografiari buruz Naparro'an egiten ari diran lanen berriak eman nizkion, ez ditu ezagutzen. Ez daki gizajoak bide ortatik nundik nora jo, esaten diotengandik gero ta ardura geiago agertzen du. «Anso'ko toponomia edo toki izenak bakarrik bilduko ba zenitu mesede aundia egingo zenioke erri ontako kulturari, baita Euskalerrikoari», esan nion garbi asko. Ala bait da. Oraindik egin gabeko lana, egin ezkeru zenbateraño euskal itzak sartuak dauden ikusiko genuke.

Ortxen sartzen zaigu len ikusitako aitona, Jose Aznarez 78 urte, anai bat Jaka'ko kalonjea dauka. Eskuan bertako izkuntzan idatzitako liburua dakarkit. Antzerki bat da ta ematen dit esanaz: «Liburu onen antzekoa Resurezion Maria de Azkue'ri eman nion «txeso» izkuntzan idatzia». Aitona onek gure euskal idazle guztiz ospetsu ura ezagutzen zuen. Azkue emen zebillen euskal aztarnen bila. Anso'ko euskal sustraiak aipatzen genitula, pozik zegoen gure aitona ta esaten zigun: «Erri au ta inguruko mendiak garai batean Euskalerriko zatiak ziran». Euskal izen asko daude emen. Erderaz ez dute ezer esan nai. Euskal sustraia ta doña dabilkite, ara nere etxearen izena «txortxi». Inguruko izenak berriz, Zuriza, Guarrinza, Ezkaurri, Berdoloki, Idoia, Txamarradas, eta abar. Au artzaintza tokia da ta garai batean emengoa euskal enda zan. Oraindik artzaintza da gure bizia ta ametsa. Erderaz abesten asten da, «Mendiko portura zoazen ardia, zeinen txuri jeixten zeran zelaira». Bai bizita ez da errexera, txarrena mutillak artza zaindu bear dutenean..., jarraitzen du.

Jangelako atea irikitzen da ta beste aitona etortzen zaigu. Anso'ko oiturarat jantzia; gizon sendoa, zabala, susko begiak, ezpain zorrotzak, eta txapel borobilla buru gainean, okertua, 75 urte ditu, izena Jorge

Puyo, artzaia bainan gizon argia, egunkarietan idazten du ta liburu bat ere ba du. Artzaia ta idazlea biyek batean toki gutxitan arkitzen dira. Eskuan bere liburua dakarkit, «Artzai baten bizitzaren berria» du izena. Azalean idazlearen argazkia, artzaia anak zabalik, abarkak oñetan, galtzak belaunerano, galtzerdi luzeak eta zapel borobilla buruan, makil luzea eskuan, onduan atzeko aldean artaldea.

Egitazko gizona dugu. Beti bizpairu millaka ardien artaldea euki du. Udaran askotan bakarrik Auñamendiko bortuetan ibillia. Ekaitza sortzen danean danak burutik bera artu bear, euria, kazkabarra, elurra, tximista ta ortotsa.

Neguan berriz Ebro ibaiaren onduan otz gorriakin etxetik urruti, illabete asko igaro bear, askotan bakarrik artaldeak zaintzen. Ludi ontan ezer gutxiren beldurra ta lanean ikasia. Beti mendiakin bat egiten dakina. Jaiotzetik aize garbia artzen oitua, odola bizia, larrua mendi gallurretako eguzkiak errea. Ibilliaz erriaren mendi, ibai ta basoak ondo ezagutzen dituna. Gizona azkarra ta argia. Mendiaren bakarrik, arkitzen diran oietako gizon bat. Orrelako gizasemea gure aurrean eukitzea ez da makala. Nere asmo bakarra gizon ori entzutea zan. Aoa ondo itxi ta entzun. Antxen genituen gure aurrean Anso'ko bi aitona jatorrenak oraindik aintzinako urtetan bezala jazten diranak eta Erriko apaiza. Jantzien izena galdetu nien, buruko zapia «kaxirulo», galtzak motzak «zaraguelles». Len dantza bat ba omen zuten erriaren «Alakai» izenekoa; ez omen zuen ezagutu, izena entzun bakarrik.

Euskal izenekin asi giñan, ondo artzea merezi luke. Izen batzuek entzun nizkien. Oso politak dira. Anso'tik bi kilometrora ego aldera ba omen zan aspaldi erri bat «Atxar de ormat» izenekoa. Beste bat aspaldi desegin zana, Santa Engrazia'ko mendi bizkarrean Onoros izenekoa. Arrigibela berriz Zuriza'ko sarreran, baita Liuzu muga ondoan. Esandako errixka guzti oien izenen sustraiak euskaldunak ditugu. Borda batzuen izenak alaxekoak, Txikin, Tximena, Artzibu (menditarte). Zertan zegotzan erri onen nortasuna ta berexitasuna galdetu nien Anso'ko aitona auei. Zeuzkan baso mendi eta lurretan: 53 kilometroko muga dauka Frantzia'kin eta Naparroa'kin 63. Orretzek agertzen omen Anso'ko nortasuna. Mendi sail aundiak ditazte, geienak erriarenak, sendi bakoitxak eskubide berexiak dauzka. Erri onek gaiñera eskubide zarrak ditu. Egurra lendik Prantzitarrak ekartzen zieten larrearen ordañetan. Gainera erriko gaiak Frantzian saltzeko eskubide osoa zeukaten. Nunbait merkaturik urbillena, oker zetorkien alde ontatik.

Iru urtetik bein, beste batzuetan sei urtetik berriz berritzen dute eskubide au. Urtero mugak ikusteko ibilli-aldia egiten dute. Orrela zaintzen dituzte erriko lurrak.

Ordua begiratzten zula patrikako urrezko ordukari zarra agertu zuen, begiratu bat eman nion eta erakutsi zidan, zazpi duro ordaindu omen zitun orain dala 50 urte.


Anso'ko mugari buruz ari ziran lasai izketan, Frantziakin erriko muga oso oso urrutiraño sartzen omen; Leskun, Seta, Gun, Urdos erriak auzokoak dituzte. Ondo konpontzen omen dira beste aldekoekin. Emengo lur puska bat Frantzian sartzen omen eta ango beste bat emen. Urrutiko toki oien izenak «Mallo de Azpetra». Araño sartzen da Anso'ko erria.

Mendiei garrantzi aundia ematen diete, baiñan baita erriko jantzi berexiei, ala diote: «Jantzi onekin egin genun lenengo jaun artzea, orrela jantzita joan naiz beti Madrid'era erriko buruausteak konpontzera, agintarien aurrean beti jantzi auekin agertu gera».

Erriaren nortasunak zerbait oso sakon eta berexia agertzen dula ba dakite. Berez ateratzen zaie esatea, euskaldun sena daukatela beren nortasunaren onarritzaz. Aspaldiko zain oiek berexitasun sakona bat ematen diete ta euskal izakeraren urratsak dirala ba dakite. Guk aipatu gabe garbi asko geiago esan ziguten. Jorge Puyok ala zion: «Gazteago izan ba nintz pozik euskara ikasiko nuke». Euskara zer dan ez dakite bainan euskal sustraia oraindik ugari arkitzen dira gizon oien artean. Enda bat iltzen zeinen zailla dan ortxen ikusten dugu baita euskal izakerak nolako indarra daukan. Naiz inguruak eta giroak ezertan ez lagundu oraindik iraun; euskara artzantza bakarrik zegoen garaiko kultura izaki. Iri aundiak indarra artu ondok bazter danak kutsatu zituzten ta jakina gizonaren lenengo lana, bizi, al dan bezala. Gainera artzaia beti ain sakabanatua izan baita. Bakoitza bere aldetik. Euskararen galerak artzantza aroakin zer ikusia du. Artzantza iri aundien mende gelditu danean euskara bukatu da mendi auetako artzaien artean. Zergaitik Gipuzkoa ta Bizkaian iraun ote eta Aragoien aitu ta il? Eskutapen aundi baten aurrean gaude. Aragoiko euskarari buruz ustekabe aundiagoak arkituko ditugu oraindik. Azken itza ez dugu esan.

Anso erriak 800 biztanle ditu, eundik gora artzai bizi dira. Basoei esker sendagillea, albaiterua, ille ebakitzallea, gaxozaña, labeak eta errota utsean erriak ematen dizkie.

Beartsuentzat ezkillu bat dago Errikoetxean eta ura artuta karrikara ateratzen dira. Auzokoak ezkila ori entzuten dutenean laguntza eskuratzen diete; ogia, gazta, txerriak, arroltzak edo dirua.



Aznarez jaune Ansotarra.

Arratsaldea aurrera zijoan eta Jorge Puyo'ri bi itz, berak eskeñitako liburuan jartzeko, eskatu nizkion. Pozik idatzi zizkidan. Neretzat balio aundia du liburu onek. Lendabizi artzai batek egiña dalako, bigarren egilleak eskeñi zidalako. Irugarren mami aberatsa daukalako. Orain dala 45 urte asi zan idazten eta ogeiren bat urte izango dira Zalduba'ko (Zaragoza) ta Iaka'ko izparringiak lanak bidaltzeko eskatzen zizkio-tela ta orrela maiz idazkiak argitaratzen asi zala.

Lan guzti oiek bilduta ta beste zertxo bait geiagokin 147 orrialdeko liburua egin du; gaiak geienak artzantzari buruz dira.

Xeetasun asko ematen dizkigu; artzantzaren bizia Aragoiko mendi auetan ezagutzeko bearrezkoa, nai ta naiezkoa. Miña latza agertzen digu, nunbait agintariak ez dute artzantza bear bezala la-guntzen eta artzaiak, eragozpen aundiak arkitzen dituzte bidean.

Artaldeak, mendi oietako aberastasuna aundienetako bat bezala agertzen digu; bere ustez oraindik geiago ugaritu diteke. Basoen alde itz beroak ditu. Artaldeak eta basoak zaintzeko esaten du. Zugaitzen artzai etsai oietako bat ez da. Gizon argi onek ba daki artzantza ta basoak ez daukatela asarre egon bearrik eta biyek, batak bestearen bearra daukatela.

Urte asko dirala esan zitun egi galantak gaur oraindik bete ez diranak eta bear bearrezkoak deritzaiakigunak. 1946 garren urtean lan bat idazten du, artzaien alde ikaskintza berexiak antolatu ditzaten; Jaka'n bertan. Artzaiak bildu nai lituzke gero ta geiago jakin bear lituzketen gauzak ikasi ditzaten, batez ere ardiaren gaitzak, esnea ta aragiaren salketak nola egin eta artzantari buruzko legeak eta abar eta abar, nola diran ikasteko. Gaur ortxen ikusi ditugu Ipar aldeko Euskalerrian artzai gaztetzat ikastetxe berexiak; gure aldeko Euskale-rrian berriz ez dago bat bakarrikan ere. Aragoien larre zabalak izanik oraindik gutxiago. Aberastasuna gure mendietan zabaltzekotan ikas-tetxe berexiak bear ditugu. Gaur artzaiak ikasia bear du ta iñola ere ezjakiña, arrituta gelditzen naiz ikusteakin nola agintariak eta apaizak ez diran ortaz oartzten.

Artzaintza zaindu nai ba dugu, ikastetxetik asita zuzpertz bear litzake. Gure erruz ortxen daukagu bizi bide egokia erdi illean eriotzan edo azkenekotan.

Jorge Puyok artzantza maite dula ezin uka; gazta nola egiten duten agertzen digu, baita gainera zergatik den Ansokoa, Erronka-rikoa, baiño ohea. Lan asko ditu ardiaren gaitzei buruz, baita nolako osakiak bear diran agertuaz.

Bizitza osoa artzantzari igaro dulako, aolko politak ematen dizkie artzaiei. Ara zazpi agindu berriak, 1.º Larrea piensoa bainan ohea dalako artaldea egunero larratzera eramane.

2.º Ibilliaz azkartzen diralako, ardiak geldirik ez beñere utzi.

3.º Soroetan kalterik egin ez dezaten, ardiak zaindu orrela nai-gabe aundiak baztartzeko.

4.º Gaitza artzen dualako, toki ezetan ez ibilli artaldea.

5.º Burua beti itzalean euki dezan goizetan sartalderuntz eramane ardiak eta atsaldetan sortalderuntz.

6.º Belar txarretik artaldea baztartzeko.

7.º Aldapa gora poliki ibiltzen utzi artaldea.

Zazpi arrazoi oiek artzai argi baten bizitza osoa agertzen digute, gainera ezitzalle on batena.

Edestia ere ondo ezagutzen du, batez ere artzantzari lagundu zioten erregeak; Aragoi'ko Jaime I, 1272 garren urtean egindako mesedea goraiatzeko du.

Naiz mendiko gizona izan, arritzekoa da nola maite ditun, ikas-tetxe nagusiko mutillak. Udaran danak batean Jaka'tik Anso'ra da-tozela, gaiñera ludi osotik, biotz onez artzen ditu ta poza aundiakin itz sakonak esaten dizkie. Artzai onek ba daki aurrerapen aundienak ikastetxe nagusitik datozela ta biarko agintariak gaurko gazte oiek direla.

Liburu ortan euskal itzen bat ikusten ote nuen ibilli naiz. Gure kutsuko itz gutxi arkitu ditut; boira (lañoa) baskiña (jantzia), abarka. Bertako izkuntza baita, jantziak maiz aipatzen ditu. Erria maite dula-ko dunari eutsi nai dio.

Gure alkar izketaren bukaeran bi gizon zar oiek negarrez asi zitzaiz-kigun, nunbait erria bera dijoalako, len zituzten eskubideak oraingo alkateak kendu nai omen dizkie. Orain arte zituzten aurrerapenak sen-dagillea, albaitea, eta abar, erriak bere gain artu ezin ditula esanez. Bi artzai zar oiek zioten; «Erria aberatsa da, basoak gero ta geiago balio du, ta zer gertatzen da gure artean? Erria gero ta berago, di-joa». Erri onek daukan aukerakin oso gora joan bear luke bainan gizon kaxkarrekin ezin aurreratu, betiko kontua.

Jatetxetik lasai enparantzara aterata azken itzak esaten ari giñan. Orduntxe pianoak jotzen zuen: «Maritxu nora zuaz» gerozago, «Men-di-Mendian». Biotza pozarekin lertzen neukan. Euskalerriko eresia gure artean... Nor ote ereslari? Mikel izaki..., parrez datorrit. «Painoa jotzen ba al dakizu?», nion. «Gaurko bazkari onen ondorean barrendik atera zait euskal donuak jotzea» erantzuna.


Aizea osasuntsoa, zerua urdin, mendiak garbiak, aurren otsa. Gure aiton oiekin pozik beste egun bat izketan iraungo genukean, bainan egunak laburtzen asiak eta Jaka urrutixko. Bi aitonak berriz zoraturik. Guk ustekabeen betiko adiskideak egin genitun.

Gure inguruko ateko morrolloak ikusten egon giñan, burnizkoak, iduri politakin, bertan bizidan erremendiariak egiñak, Lasarsa jaunak, Garde'n dagoen beste aren anaya.

Erri onek maite mindu batzuek bear lituzke, batez ere gaztedi langille berri bat. Gaur mendiko berebil batekin, bereala urrutiraño joan leike, baita milla ardiko artaldeari etekin biñaka atera ere. Noiz bait esnatuko dira. Euskal arnasari buruz berriz zer esan? Askok izenak erabat euskaldunak dituzte, 21 sendi Mendiara abizenakin, Gorria eta Gurria beste batzuek; Tresako, Añaños, Barkos, Ornat izenak ba daude. Euskaldunak dituztela izenak oartuko diranean ez dakigu zer egingo duten. Geroak azken itza.

Don Damaso'k lagundu ginduen bidean; goruntz errege bidea Auñamendi aldera dijoa, Zuriza izeneko basoraño, guretzat urrutixko gelditzen zan eta asti gutxi. Izadi zaleak maite dute Zuriza izeneko Anso'ko mendi bazter ori. Entzunez ezagutzen dut; ez naiz oraindik izan, beruntz abiatu giñan. Erriko beko aldean zerreria eta etxe batzuek. Mendi tarte estuan sartzen da bidea, bi aldetara arkaitzak eta eskubi ibaiak sakon aundi bat irikitzen du, putzuak ugari, arrikozkor aundien artean. Ura musker margozkoa aparra dario zihoan. Inguru ortan, Don Damaso errian dagon ezker bi gizonen beren buruak galdu omen. Bat tiroz, eiztari ona izaki; bestea jantzi berexi onenekin etorrita labana arkumeari bezala sartuta, artzaia zan. Tokia nunbait alaxekoa, basatia, illuna, gogorra. Ekaitzarekin ez dago an gelditzeko girorik. Gizonak ere beldurtzen dira. Auntxaxeago toki iriki batean utzi genuen Anso'ko erretora jatorra; «Agur, noiz arte?» esanez.

ETXO'KO eskubiko bidea artu genuen, egin berria. Arratsaldeko lauterdik ziran. Mendi magalak larrez jantziak eta piñudiak ugari. Bide ondoan bi arkaitz luze, bat bestearen ondoan beatzaren antzera zerura begira. Erderaz «Lekaime ta Lekaide» izenarekin ezagutzen dituzte bertakoak. Tunel bat igaro genuen. Lasai ginjoazen, Etxo'-raino 7 kilometro genitun. Lasterka ibiltzeko asmorik ez genuen. Ezker eskubi geiegi begiratzan ibilli gabe aurrera. Anso'ko bazkideak, gizon argi aiek genitun gogoan. Gure eguardiko solasaldiko gaiekin ginjoazen batean; erria bai nortasun aundikoa. Gizon batzuek kementsuak,



Jorge Puyo artzai idazlea (Anso).

arrazoiak beren aldetik, ala guztiz ere etorkizunari beste itxura obegorik ezin eman, ura giro ustela. Mendi lepora ateratzen ari giñala pinudiak ugaritzen, zugaitzen artean ezpela erruz. Zelaitxo batean «mini» berebilla gelditua ta ondoan sendi bat eserita, ixillik irakurtzen. Goitik bera laster artu genuen eta ibaia ondotik ginjoazen.



Aragoiko gizonen jantziak.

Etxo erri alaia Aragoien

Zelaitxo batean iturria zegoen, Txurdana izeneko ta berealaxe lenengo etxe berritara atera giñan; etxe batzuek oraindik egiten ari ziran. Ezker aldera *ETXO* erria, eguraldia berealaxe aldatu zan; aize otzak gogotik jotzen zuen, karrika estu aietan etzan giro atsegiña, aurrak korrika, gazteak ate ondoan, adiñakoak sukaldean. Arratsaldeko zortzi-terdiak ziran. Etxo'n illuntzen, oñetakoak miñ ematen zidaten eta zuzenean osakiñarengana joan giñan. Mutil koxkor bateri galdetu nion zuzenbidea. «Ate gorri bat du etxeak, ortik bera joanta ezkerreta». Jetxi, karrika estu aietan, illunduta ez nuen ezer ikusten, bera atera nintzan, gora gero igo ta ertzañen etxe aurrean berriz arkitu giñan. Eltzetzo bateri galdetu nion osakiñaren zuzenbidea berriz, ate ondoraiño lagundu ninduen. Sarreran etzegon argirik. Denda txiki baten barrenean iru emakume izketan. Neska bat aurreratu zan eta zer nai genuen galdetu zigun. Anakak larrutuak nitula esan nion: «Gipuzkoa'tik oneraiño oñez gatoz». Gabero espadradapo zarren ganean berriak jartzen nitun, ikusi zitun anak. «Olioakin kendu bear dituzu poliki espadradapoak eta ur beroan anak goxatu. Biar goizean gasa jarri lendabizi ta gero ganean espadradapo zabala». Eskerrar emanaz arrotzetxe egoki baten izena galdetu nion. «Erriaren beko enparantza ondoan duzute GABI izeneko».

Erriaren sarrera aldera berriz abiatu ginan, aize otza berriz; etzan giro goxoa udara izateko. Azkenean billatu genun gure arrotzetxea; etxe garbia, zuriz eta gorritz margoztua, lorez apaindua. Andre ille gorria atera zitzaigun, apaltzeko ta gabeen lo egiteko guretzat tokirik ba ote zeukan galdetu genion. Baiezkoa berealaxe eman zigun

Apari aurretik garbigelan sartzeko baimena eskatu nion. Gar-

baskan bustialdi ona artzeko, gaiak ondo gertu zizkidan, batez ere olioaztu gabe. Ordu bat igaro nuen poliki nere anketako espadadrapoak kentzen. Zalla zan. Ariak eta larrua bat egina izaki, azala osorik kendu bear; amar beatzen puxkak eta bi orpotakoak, oraindik beste batzuek anka azpian. Espadadrapo pilla ederra bildu zan, zerrenda guziak olioaz oratuak zeuden eta lan ederra artu nuen bazterrak ez zikintzeko.

Larru bizia gelditu zan, bainan nola ain nekatua nengoen, ez nuen ezer nabaritzen. Anakak, banaka eskuakin artuta sartu nituen garbaskan. Urak azkuria ematen zidan lendabizi, gero lasaitasun ederra artu nuen. Uran, etzanda nengoen, gero andik altxatzeko gogo gutxi.

Anakak uratik atera ondorean txintxillik zeuden azal puxkak txuri, txuri, gelditu zitzaizkidan. Ondo legortu nitun eta jantziak aldatu, ezparziñak jantzita jangelara, era bat gaztetuta jetxi nintzan. Ni jeixterako nere zai zegoen mayan eserita Mikel; uraren onbidea aipatu nion. Egarrria genuen eta edateko betiko edaria eskatzeko esan nion, ondolik aparria; zopa, amurraiak ta igalia. Jangela txikia zan, bainan egurrakin ondo apaindua.

Gure ondoan gizaseme gaztea bere sendiakin eseri zan. Ura gizon arroa! galdetu gabe bere biziaren xeetasunak eman zizkigun. Gallego bat Mexiko'ra joana, orain Aragoiko goi alde ontara etorria neskamen billa. Emaztea, ondoan zeukan emakumeak arpegia ximuan antzera margoztua; margo beltza, urdiña ta gorria. Altxa ta exeri zebillen gizaseme gaztea, ondo nazkatua utzi ninduen...

Amarrak inguruan beste bi gizaseme datoz afaltzera, aietako bat Don Regino erriko erretore zala esan zigun etxeakoandreak. Gure ondoan afaldu zuen eta kafea artzerakoan agurtu nuen. Biramone goizean meza emateko asmoa agertu nion. Nere eskariak poza eman zion, gogo onez lagunduko nindula esan zidan. Laguna afal ondorean joan zitzaion, gure mai ondora bildu zan, guregana urbiltzea etzitzaidan gaizki etorri. erriko kontuak jakin nai nitun bainan alperrik oso urte gutxi zeramazkin Etxo'n. Len Jaka'ko apaiztegian zegoen. Eizea maite du ta nunbait Etxo erria eizetoki berexia izaki. Basurdia bazkatzen erruz dabil inguruko mendi auetan. Urterik onenean 128 basurdi il dituzte, aurten berriz 65; urte kaxkarra izan dala diote.

Erriko aberastasuna; artzantza ta udarako arrotzak. Artaldeak udaran goien eukitzen dituzte ta neguan erriko beko aldeko mendietan, ez oso urruti. Arrotzak berriz erruz datoz udara igarotzera, gañera zerreri bat galanta daukate. Erriko oitura zarrak eusten alegintzen



Etxo erria Aragoien.

dira. Gazteak bertako dantzak egiten dituzte, ederrena «jota txesa» izenekoa. Bertako dantzari taldea oso ezaguna da Aragoien. Atzerrira ere ateratzen dira.

Urrengo goizean alkar, eliza ikustekotan gelditu giñan apaizarekin. Lo egiteko gela ederra eman ziguten, oiak zabalak, besaulki erosoak eta ormak paper margoztuakin, oso alaiak. Etzanda belarriak zurrumurro otsarekin etziran ixiltzen, andik gutxira lo gelditu nintzan.

Urrengo egunean ostiral goizean zortzitan altxa giñan; leyoa iriki ta aize otza zebillen, zerua urdin. Eguzkiak mendi gaiñetik argitzen zuen erria. Etxo, erri bezala ezaguna da ta meza ondorean ikusi nai nuen. Zuzenean elizara igo nintzan, bi enparantza igaro ta ezkerreko arrizko malladitik gora.

Eliza gain batean dago, ipar aldetik aurrean enparantza bat dauka ta inguru osoan etxeak. Eliz ondoan daude etxerik zarrenak eta erri inguruan berrienak. Egoaldera eliz aurrean atari zabala dago ta andik alderdi batera erria ondo ageri da baita ibai ondoko zelaiak. Elizak puxka batzuek erromanikoak ditu, nunbait Napoleon'en garaiako gudan erre zuten eta geroztik berritu dute. Barrenean erretaula barroko ederrak ba daude. Embun'go lekaide etxetik joandan gizaldian ekarriak, andik lekaideak bidali zituztenean.

Zortziterdietan meza eman nuen. Erretora zai zegoen. Meza ondoren gosaltzera alkarrekin joan ginan eta etxeratzerakoan erria erakutsi zidan. Goitik tellatuak eta tximiniak ikusten gelditu ginan. Tellatuak danak ezberdinak, batzuek besten ondoan dantzan daudela dirudi. Kaleak estuak dira, etxeak garbiak, geienak berrituak, txuriak eta tellatua arbelazkoa, illun xamarra urdin antzekoa, tximiniak berriz oso luzeak lau malletakoak batzuek eta mutur zorrotzarekin.

Emen Anso'n erdal izkuntza berexi ta zarra egiten dute, ziur asko erdiaroztik. Beren izkuntza onen izena —Txeso— da ta benetan maite dute. Gizaldi ontakoak ditugu emengo bi seme, txeso izkuntzan asko idatzi dutenak. Ezagunena Domingo Miral da, Oñati'ko (Gipuzkoa) ikastetxe nagusian irakasle bezala egona, antxe ezagutu zuen euskara. Gero Zaragoza'ko ikastetxe nagusiko irakasle izendatu zuten. Anai arteko guda aurretik Jaka'ko udarako ikastetxe nagusia eraiki zuen. Primo de Ribera agintariaren aurrean esan omen; «Zuri esker asi dugu ikastaro au, nai izan ez ba zenu, berdin iriki genukean». Euskaldunen adiskide aundia genuen. Txeso izkuntzari buruz lan asko egin zuen; izkuntz onek euskal sustraiak ba ditula dio. Ez da gutxi ori esatea. Gizon ospetsu onek idatzitako lan batzuek irakurri ditut batez ere antzerkiak, bainan ez dut euskal itz garbirirk arkitu zoritxarrez.

Erriko artuemanetako izkuntza erabiltzen du ta jakina bereizkuntzarik ez dut nabaritu. Euskal itzak arkitzeko lanbideko nekazari edo artzantzako solasa erabilli bear lukete. Orduan, bai, zerbait garbirik ikustea izan leike. «Eskila, kaparra, txikia, allaga, arto», itza auek besterik ez nituen irakurri.

Beste erriko seme ospetsua Beremundo Mendez Koarasa, aita maisua ta bera errikoetxeko idazkaria, 1968 garren urtean il zan. Olerkaria genuen eta olerki guztiak txeso izkuntzan idatzi zituen.

Bi gizon auek, beren izkuntza erri ontan, Anso'n bezala, maite dutela ezaugarri ditugu. Orain zarrak bakarrik egiten dute, eta jakiña jakintsu batzuek ezagutzen dute, azkeneko auen artean bizpairu aleman Kuhn eta Rohlf, bat inglesa Elcoek. Paris'ko irakasle ezaguna dan Potier jaunak, emengo izkuntzari buruz egin zuen bere tesis doktoralala.

Erretorak ate bateko arri landuan egindako irudiak ikustera eraman ninduen. Etxea eroria zegoen eta orma bakarrik zutik. Orma ortan ate gañean arriak iduriakin, urbildu nintzan ta irudi oiek bi LAUBURU oso ondo egiñak. Ez nuen uste ETXO'N bi lauburu arkitu bear nitula. Arri oiek puxkatzea miña emango lidake, galdu edo autsi ez ditezen, nere ustez jaso bear lituzkete. Ikusten dugunez, gai asko daude gurekin lotzen dituztenak erri auek.

Gosaltzera gure arrotz etxera joan giñan; Mikel zai zegoen bañan irriparrez pozik. Kontua eskatu nuen; dana, lo egin, apaldu, gosald, biyena 490 pezeta. Etzan asko, amar duru geiago eman nizekion etxe-koandreak, neskamearentzat. Parrez esan zidan erdaraz; «orain Jaka' raño ñez joan nai al dute? autobusean bidea bereala egiña izango lukete...»

Gure erokeriarekin arritzen al da etxeoandre?, nik. Etxekoandreak: «Bakarrak izango ba ziñate, bañan orain dala gutxi izan dugu beste bat, gizon adinekoa, ille luzea ta galtza motzakin ibiltzen zan. Aur danak biltzen zitun eta goizetik pinpilinpausak biltzera, tresna berexi batzuekin ateratzen zan. Emen ba omen dago pinpilin bat beste iñun arkitzen ez dana, marrazkia eskuetan zeukala etorri zan. Or ibilli zitzaigun erriko bazter guztiak ikusten. Nai zuna etzuen billatu; par ederrak egin genitun errian. Gero jakin genuen Europa'ko kajintsu audientetakoala zala...» Jarri nitun betaurreko beltzak eta alde...

Egun argitsua genuen, argi alaia, giro ona. Baratzen ondoan Erretorak illerria nun zegoen erakutsi zigun eta ondoan Eskagues izeneko Andra Mari'ren eliz erromanikoa. Aragues'ko bidea apaizak etzekin oso ondo ta lendabizi zerrerira eraman ginduen ango nagusiari nundik nora joan bear genuen galdetzeko. Indar aundiko zerreria,

olategi berria ikusi genuen. Gizon sendoa atera zitzaigun. Langille bat deitu zuen eta nundik zegoen biderik motzena galdetu zion. Egunero Urdues'tik oñez zetorren, orain bereillez. Arexek esan zion erretorari; «Mendi tarte artatik arzazute ezkerreta argi indar ariaren bidea, gero gaiñetik ageri da baso bidea ta jarrai... ez duzute gal-tzerik». Eskerrak emanaz alde egin genuen. Zubi berria igarota, ezkerreko aldetik ego aldera zubi zarra ageri da; begi bakarra du, bi baztarretan oñarri sendoak ditu ta erdian mea. Andik joaten omen zan Anso'ra galtzara zarra. Zubi zar oiek bizitasun aundia ematen diote ibaiari ta begiarentzat oso atsegiña gelditzen da. Eskubi aldera arkaitza ageri duten mendi aundiak daude: Garay izenekoak, ezker berriz mendi zabalagoak. Laster bidea artu genuen eta gaiñez gaiñ argindar ariaren ondotik ginjoazen. Mendia bi aldetara garbia zegoen. Goraño atera giñan Etxo dana batean ikusten zan. Etxo'ren atzeko aldean *SIRESA* izeneko errixka ageri ta azkenean auñamendiko Malloak arkaitza zurizko bizkar ta gallurrekin, batez ere Agierri izenekoak. Siresa'ri begira gelditu giñan. Edestian eta artean izen aundiko tokia dugu. Lendik ondo ezagutzen dut. Auzo ontan eliza arri landuzkoa sendoa ta zabala dago AKISGRAN'ko (ALEKANIA) elizaren antzekoa ta ondoan amabiren bat etxe erromanikoak. IX garren gizaldian ementxe zegoen lekaidetxe. 852 garren urtean San Eulogio, Kordoba'tik etorri zan emengo lekaideak agurtzera ta liburutegi ederra arkitu omen. 867 garren urtean, Falindo Aznarez buruzagiak eman zion, Etxo'ko erria Siresa'ri. Santxo Garces Iruña'ko Erregeak 922 garren urte inguruan Berdun erritik asita Leire'ko azpirano erresumaren muga Mairuen aurka sendotu zuen ta elizari bizi aundia eman zion. Azkenean Siresa'ko monestegia Iruña'ko erregeren eskura atorri zan ezkontzaren bidez; Garzia I Santxez'en emaztea, Andregoto, Aragoi'ko buru zagiaren alaba bait zan. Santxo II Garces Iruña'ko erregeak Siresa'ko monastegiari beste erri bat eman zion Javierremartes izeneko.

Jaka'ko eliz nagusia egin ondorean 1077 garren urtean, Siresa'ko eliza Agustinotar kalonjeen mende gelditzen da ta erregearen babesean.

Ementxen azi ta ezi zan Aragoi ta Naparroa'ko erregea Alfonso burrukalaria, gizon azkarra ta sinismen aundikoa (1104-1134). Mairuen aurka 50 burruka ikaragarriak egin eta irabazi zituen. Azkenean Fraga erriaren aurrean il zuten. Tudela 1118 garren urtean mairuei kendu zien eta Zalduba (Zaragoza) 1119 garren urtean.



Etxo'ko erri bazterra.

Errege onek Etxo'ko erriari askatasuna ta nagusitza eman zizkien baita Monzon'dik Monkaio mendiraño larreak artaldentzat. Alfonso erregea emengoa nola zan bertako gizasemeentzat esku zabala agertu zitzaian. Egin zituen gudetan, nunbait Etxotarrak etziran besamotz geldituko ta asko lagunduko zioten.

Ezin duguna aztu da, garai artan Alfonso burrukalariaren garaian Etxo'ko erria ta inguruak era bat euskaldunak zirala ta euskaraz mintzatzen zutela. Euskara Erronkarikoen antzekoa egingo zuten. Orregatik mendi, ibai, baso, abizen, itzak euskaldunak dira ta ez dituzte izen oiek aldatu, gaurko gizasemeak ordukoen semeak dirala ezaugarri, enda berdiñakoak. Alfonso burrukalariak, gizaseme oien artean euskaraz egingo zuen, emengo aurrekin jolasten ikasita zekiten. Gero Monkaio'ko larreak eman zizkiela ez da arritzekoa, Etxo'ko artzai euskaldunak ego aldeko mendi aien inguruan zabalduko ziran eta orregatik daude ainbeste izen euskaldunak Monkaio inguruan. Mendi aundi ta zabal au Muskaria'ko (Tudela) ego aldean gelditzen da. Mendi onen edertasuna arrigarria da, magalean ipar aldera Tarazona iria dago ta naiz mairuak egiña izan, ba daude oraindik euskal kutsuko oiturak.

Bearrezkoa da jakitea mairupean bizi ziran iri aundi oietan, erdal-kristau erria ere bizi zala, erderaz mintzatzen zana. Aragoi'ko erregeak iri oiek eskuratu zitula, Tarazona, Zalduba (Zaragoza) eta abar, iri oietik poliki poliki sartu zan mendi aldean erdera ta Aragoi'ko ipar aldetik artzaiak mintzatzen zuten euskara baztertu zuen. Erdal izkuntza ori erriak egiten zuana latina zan, ez gaurko kastellanoa, Aragoi'ko erdara baizik. Danak dakigu Erromatarren garaian, orain dala 2 milla urte, iri ederrak zituztela egiñak gaurko Aragoien, batez ere Zalduba (Zaragoza) Ebro ibaiaren ondoan. Aragoien erdera zarra da ta irietan egiten zuten batez ere, euskara berriz mendian. Auñamendi aldean, gaur Euskalerrian erdarakin gertatu dana, erdi aroan gauz berdiña gertatu zan Aragoien. Erriberako erdara, mendiko euskal erritan sartu zan. Pixkanaka euskara utzi zuten ta Erriberako erdera artu. Orduko erdera, ura gaurko Etxo ta Anso'ko izkuntza berbera da gutxi gora bera. Orain, bertako erdera galtzen dijoaz ta kastilla'ko erdara erabat nagusitzen.

Naiz euskara erdiaroan galdu, ortxen daude bizirik mendi, ibai, etxe, sendi ta abarren izen euskaldunak. Enda ere gure antzekoa da ta oitura asko guk ditugun antzekoak dira.

Alfonso Burrukalariaren garaian, XII garren gizaldian, Etxo'n euskara zutela erriko izkuntza ta gure izkuntza, Monkaio'ko mendiraño zabaldu zutela, orixe da garbi agertu nai nuana.



Auñamendi aldeko tximinia.


Siresa'n gaur ikusten dugun Eliza, XII garren gizaldikoa Erramiro erregeak altxatu arazi zuen, erromanikoa; bizpauru zatitan egiña dagola ikusten da, zatirik zarrena sarrera aldekoa du, gainerakoa gerokoa, 12 garren gizaldikoa. Ormak garbirik daude, arria bakarrik erakusten dutela. Ba daude 15 garren gizaldiko 4 erretaula margatuak ikusgarriak eta bestea 16 garren gizaldikoa. Margo oiek ikustera bakarrik merezi du, joatea. Andre Maria 13 garren gizaldikoa, egurrezko iduria, oso ona ere. Alfonso burrukalariak esan dugun bezala Monkaio'ko larreak eman zizkion Etxo'ri ta Siresa'ri berriz Zalduba'ko Santiago'n eliza.

Eliza ta Siresa'ko errixka gain batean gelditzen dira, eskubitik Aragoi Subordan izeneko ibaia dijoakio ta ezkerretik Ezpetal izeneko ibai txikiagoa, ibai aundiarekin erriko azpiko aldian batutzen dana. Aragoi ta Ezpetal, bi izen oiek ere euskaldunak ditugu (Ara-goi, bat; goiko lurrak; bestea, ezpela izenakin, ikusi bearko duna).

Aragoi ibai ondotik ipar aldera errege bidea dioa OZA (OTZA) izeneko menditarteraño, Auñamendiko mendi barreneraino.

OZA'ko basoak mendi aundi tartean daude ta ibai ondoan. Araño joateko mendi tarte estuak igaro bear, batez ere inpernu izeneko; arkaitz gorria bakarrik ta ibaraño ebaki sakona, arritartean putxuak ageri dira, ura amilka dioa aparra dario. Errege bidea amildegi gainean gelditzen da. Zulo oietako batera sokakin Gayarre jetxi omen zan, jota bat abesteko. Barrua bear du gizonak beko zulo aietara jeixteko; ba genekin Gayarre gizon beroa zala.

Mendi bazter aiek begirutzen ez giñan aspertzen. Gure buruan mendiaren edertasuna ta gure abendaren edestia, biyek batean nasutzen ziran. Etxo'ko erretorari azken agurra eman ondorean sortalderuntz abiatu giñan.



Lauburua Etxon.

Sasabe Aragoiko gotzaitegi zarrena' runtz

Gora aldera igo ta igo bear; mendi garbia gunun eta sasoi ona. Eguzkiaren argiak arpegian jotzen gindula, aize goxo arekin batean ezurretaraino sartzen zitzaigun. Gure poza aundia zan, estutasun aundirik gabe ginjoazen. Bidea goruntz garbi ikusten genuen. Eskorte baten ondotik bide biur bat eginda, bidaxka igotzen zijoan. Eskortearen gaineko aldean giñala, Mikele'ri berez atera zitzaion: «Gure Bilbo'ko ikasleak emendik ekarri bear nituzke, bizitza latza zer dan jakiteko». «Bainan ez al zaude sendagintza ikasten ari» nion. «Bai jakina baiñan adiskide batzuen artean bizitza bat artu dugu, gure artean biltzeko ta gaztetxo atzeratu xamarrei ikaskaiak emateko. Orrela dirua irabazten dugu ta ez daukadu gurasoei eskatu bearrik». «Asko kentzen al diezute zuen ikaslei» galdetu nion. «Nolako etxea ala eskatzen diegu», berak irriparez. Berriz jarraitzen du:

«Gaztetxoen etxetara joaten gerala, Txinako lore ontziak ta argibeso aundiak ikusten ba ditugu, orduan beldurrik gabe nai duguna eskatzen diegu». «Ez duzute neurri txarra billatu, lan saria eskatze-ko» nion.

Arritu nintzan, Mikeleri, izketan egitea berez atera zitzaiola ikustea. Ez du itzik esaten; parra ta ixillik. Izan leike euskaraz egiten genulako izatea. Baiñan naiko ondo egiten zuen.

Mendi bizkarrera iritsi giñan, gainez gain igotzen, urrutixko eskubi aldera bide zabala ikusten genuen. Araño joateko mendi sako-nera jetxi bear ta baso ondotik igaro berriz, arri koskor ederrez betea zegoen, mendi magala. Beko aldean larra ugari ta basoa uste baño zikiñagoa. Poliki joan bear; naiko eramanpena artu genuen. Erreka legortua, urik gabe zegoen. Astia artuta gelditu gabe, ezker eskubi


eginaz basoko gora aldera, atera giñan. Espelez betea arkitu genuen bazter ura. Mendi bide zabala artuta eskubi aldetik lepo iriki batera ginzoazen. Andik bera sortalderuntz begiratuta sakona ikusten zan. Erria etzan ageri, nunbait beko zuloan izaki. Mendia berriz garbia zegoen, laster bidetik abiatu giñan goitik bera. Lendabizi gari soroak ikusi genituen eta gero erri txar bat ibai ondoan; gure aldetik auzo bat eta ibaiaren beste aldean eliza tellatua eroriarekin ta inguruan etxeak. Errixka onen izena *URDUES*. Bizpairu sendi bakarrik bizi dira orain, geienak alde egin dute... Elizak dorre luzea polita du, erro-manikoa. Ur bazter ederra da; dana mendiz inguratua, ta pinudiak ikusi ala ondoan, goiko tontorretan larre bikañak.

Ibai aldera zetorren adinako emakume bateri galdetu genion bidea: «Ez duzute galtzerik, eliz ondotik eskubiko aldetik arazute galtzara ta zuzenean andik ordu batera Aragües'en zaudete. Baseliza baten azpitik igaroko zerate». Esan bezala losa aundiakin egindako estrata artu genuen. Mendi aldetik sagar zugaitzak zeuden, eldu gabe, berealaxe mendi lepora aterata ezkerreko bidetik mendi magalean zearka errekarano joan giñan. Ibai gañean Santa Eulaliaren basiliza zarra ikusten zan, ondotik zijoakion estrata zarra.

Baseliza begiraten gelditu nintzan; etxe zarren itxura du ta bizpairu puxketan egiña. Saiets aldetik arrizko orma batzuek eusten dute zutik. Bisigotiko aztarnak ikusten ote nitun begira ibilli nintzan, bañan ez nuen ezertxore arkitu. Elizatxoaren zoko orreri «katarretza» deitzen diote. Andik bide txar bat artu genuen goruntz. Bazterrean azkon gorriak zeuden marraztuak. Piñudi basoan sartu giñan ta andik mendi lepora atera. Oroel mendi sendoa ta zabala aurrean lenengo aldiz ikusi genuen ta atzean urruti, Garde'ko mendi lepoa ta pixka bat beraxeago Puyetako basiliza txuria.

Gure azpian *ARAGUES* erria zegoen. Gaindik bera sartu giñan. Erriaren eskubi aldeko zatia ikusten genuen; etxe pilla zabalean ta ertzean etxe batzuek txurituak. Soroen ondotik, arrizko ormak ezker eskubi genitula gure bidea larrain batzuetaraino zuzenean sartu zan. Erriaren gaiñeko aldian giñan, aur batzuek makillakin jolasten eta aiton bat mandoa lotzen. Eliza ondotik igaro ;berritu berria dute. Sartu gabe zuzenean bazkaltzera ginjoazen. Lasai karrika estu aietan, ezker eskubi begira genbillen. Atari zabaleko etxean bizpairu gizaseme bazkaltzeko asmoakin sartzen ikusi nitun eta aien atzetik gu. Nere baitan, «Oientzat ona bada, guretzat ez da txarra izango», nion.

Jangela batean, gizasemeak mai txiki ondoan eserita, sukaldeko atetik kea dario. Sukalde barrenean otsa, itxillua ta zarata. Zeukatena



Aragues erri txuria.

atera ziguten; arroz zopa ona, gero tomatea, piparra ta tipula, iru margo ezberdin azpil batean, arkume saieskiak ta igaliak. Dana, bi-yontzat, 325 pezeta ordaindu nitun.


Karridak aldapan daude, ondo zainduak, garbiak. Gure karrika etxe baten azpitik zijoan ta eskubi aldetik Lizara izeneko arrotzetxe berri baten aurrean giñan; etxea bai bikaina ta egokia. Ez da nola-naikoa, inguruakin batean dijoa. Malkor gainean txintxilik dagola ematen du. Ez giñan sartu. Ertze batetik aurreko bazterrak begira geunden.

Ibaia, OSIA izenekoa, naiko bean dijoa. Erria, gainean, mendi magalean gelditzen da. Ibaiak bide zabala iriki du ta ez dauka kabi sakonik egin.

Ur kabiko arri xe txuriak, ondo agerian, daude. Goruntz Lizara izeneko ibartxoa dago; arrotzetxeari eman dioten izena berbera da. Ortik, Auñamendiko mendi tartean sartzen da, Artikuzo izeneko malkorretik, Bernera mendi ondolik, Estanes izeneko zingiraño.

Arrotzetxe ertzetik ibaiaren obi zabala ta Auñamendiko mendiak begira gelditu giñan ixtanpa batean. An asti geiago egoterik etzan, giroarengatik; aize zakarra ta otza. Ezurretaraño oztu giñan eta gebiak irikiak ezin euki.

Ibai aldera jo genuen arratsaldeko 3 terditan. JASA izeneko erria gure aurrean zan; eskubialden bizpairu kilometrora. Ibai gaiñetik ol me bat jarria zuten, andik igaro ginan beste aldera. Mendi bide zabaletik ginjoazen. Erria gain batean dago, goi aldean eliza ta ipar aldera beruntz enparantza luzea ta zabala, inguruan etxeak. Errixka ontan etzuan ainbesterañoko aizea egiten. Emakume zar batzuek atari aurrean exerita zeuden solasean, aietako bateri Aisa'ko bidea galdetu genion. Bidea erakutsi arte lagundu ginduen. Eskubiko erriko saietsetik, erreka ondolik dijoa Aisa'ko bidea. Berritzen eta zabaltzen ari ziran langilleak; len andik zijoan galtzara zarra. Orain berebillentzat errege bidea berritzen ari dira. Mendi sakon ortan etzan aizerik ta eguzkiak ondo jotzen zuen. Arri xea ta galipota botatzen ari ziran langilleak. Ogeiren bat lagun zeuden lanean. Arratsaldeon soillak emanaz, aurrera egin genuen. Zati eder batean bide zabala zegoen, gero urratzen zijoan ta mendi erdi aldera aitzen, ordu erdi baten bidea egin genula, atzera begiratuaz, bean langilleak arkakusuaren neurrikoak ikusten genituen. Orrelako batean erreka aldetik, eskubitik galtzara zarraren aztarnak garbi ikusi genitun, eta bide ura artu. Galtzara zarra beitik gora sartzen da, al dan azkarrena, urratu xamarra dago. Berealaxe baso ondolik ginjoazen. Goruntz ateratzen



Garia jotzeko tresna lanean.


ari giñala, aizea oztutzen zijoan. Sabelan orru batzuek entzun nituen ta berchalaxe galtzak askatzeko gogoia etorri zitzaidan. Basopean berlarrez inguratutako zelaitxo bat, zugaitzen ostoeekin ondo itxia arkitu nuen, marrubi landareak nunai zeuden. Ustekabean nunbait nere sabela oztu zan. Beldurtu nintzan, bidean gelditzen asi ezker ez nintzake urruti joango ta gaba sartuko zitzaigun bat batean. Ardillezko txamarra jantzi nuen, baita sabela ondo itxi. Mendi lepora aterata, begiak zoraturik, ezker aldera Auñamendiko mendi zabalak ageri.

Napazal izeneko bizkar gaiñean laño zuriak estalkia egiña zeukan. Eguzkiaren argiak lañoak gorritzen zituen ta mendi gallurra urdin illun biurtzen, arkaitzak berriz zillarren antzera dirdira. Mapari begira gelditu ginan, mendien izenak ikusteko. Gure gaiñeko aldean ezkerreta zegonak LUR izena, uts utsik, eta eskubikoak «Artika» euskal toponimo bat, «Artea» otsatik datorrena.

Beruntz sortaldera gure aurreko mendi magalcan zabal zabalean eratua AISA izeneko erria. Etzagoen galtzerik, mendia garbia genuen, piñu aleak eta artea txar batzuek. Beko zuloan Estarron ibaia zijoan lasterka. Ibairano iritsi giñala, busti gabe beste aldera igarotzeko tokia billa ibilli giñan. Eskubi aldera emakume bat zuriketan ikusita, oso urruti joan gabe zubiren bat izango genula asmatu nuen. Aurre-raxeago ol batzuek ibai gaiñean. Zubitik berealaxe beste aldean ginan. Ibai ertzetik bidaxka txar bat zijoan eta ondoan ormak barak batzuen inguruan. Tarte batean estrata arkituta erriko beko muturrera iritsi giñan. Etxe zarrak eta karrika estuak, erriko erdi aldera larrain batean garia jotzen. Ikaragarritzko tresna aundi bat zebilketen, otsa ta autsa ugari ondoan. Bizpairu gizon zapel zabalekin eta emakume bat beltzez jantzia, agurtu genitun. Erriko gaineko aldean dago eliza dorre bat ertzean dauka ta bestea erdian, poligonal antzekoa. Bizpairu zatitan egiña dala ageri, erromanikoa aurreko garaiko zatiak ditu. Oso zarra dala ikusten da. Gain batean dagola, erri onek ibaia zaintzen du ta aspaldi bizi da emen gizona.

Larre onak dauzkate emendik asi ta ASPE (Aizpe) izeneko mendi gallurretaraño.

Ementxe gaba igarotzeko asmoakin etorri giñan. Arrotzetxerik ez genuen arkitu. Borau urrengo errian izango genula esan ziguten. Borau'raño iristeko bide luzea gelditzen zitzaigun eta ez genuen aukerarik, azkar ibilli bear baizik. Elizaren gaineko aldean bizpairu etxe, larrain batzuek, olloak ollarrarekin atarian lardakatzen, gizon bat gurdi baten ondoan. Borau'ko bidea erakutsi zigun. Erriko gaineko



Sasabe: Aragoiko gotzaitegi zarra.

aldetik mendi leporaño nola ateratzen zan ikusten genuen. Mendi garbia azaltzen zan.

Gelditu gabe igo giñan, giro ona genuen. Auñamendi aldiñ lañoa baiñan guk zeru garbia, arratsaldeko epela, argi bizia, eguzki goxoa, bidea berriz ezin obea.

Mikelek esaten dit: «orrelako pakea ta toki osasungarria bear genuke Bilbon. Giro onekin burua aldatzen da ta lana obeto egingo genuke; «Bai, jakiña, Bilbo'n, zuek, aize zikiña alde batetik eta bes-tetik, buruak nastuak eukiko dituzute. Iraultza dala ta, gaurko gaz-tedia oso gordin dabil», nion. Mikelek: «Gure inguruan bazter nas-tutzalleak ugari. Etzait aztutzen nere osaba Pablok esaten zidana; zuen lana ikasketa aundiak egitea ta amaitzen da, gero ondolik bildu zaitezte zuen maillekoak eta alkarrekin ikusi iraultza nola egin, edo gizartea nola aldatu». Ala da; gizon jakintsuak eta jakinduriz ondo jantziak, lanean dakitenak gizona lagundu lezakete. Gazteak arrotzen errexa da, lanean ezitzen zalla. Orrelako itzak gaur ez dituzte nunai onartzen... ezta ere eliz gizon askok. Itsuak bere kidekoak bidean lagundu nai... Askok bide onetik ibiltzen ikasteko, aurren, bide txar-retik asti aunitz galdu bear.

Goiko mendi leptik ezker aldera Auñamendiko mendi gallurrak, esbubira berriz San Juan de la Peña eta Oroel urdin illun; Jaka'tik urbil genbillela ezaugarri. Eguzkia izkututzen zijoan, gureztat lur aiek arrotzak ziran, ez genitun bear bezala ezagutzen. Goitik bera mendi garbia eta galtzaran bidebiurrak mozten genitun, bidaxkak artuz edo larre ta arri tartetik aurreratuz. Mendi bular borobillak erreka ondoko sakona estaltzen zuen. Ez genuen urbillean etxerik ikusten, erreka ondora aterata ibai ondolik kilometro bat egin eta zubi bat igarotzerakoan *BORAU* erriko lenengo etxeak gaineko aldean ageri. Liburuetan ikusita, ba nekin baseliza zarrenetako bat zegola emen euskal izen garbia zeukana, SASABE'ko San Adrian. Apaldu arretik ikusi nai nuen bazter ura.

Aldapa bat igo genuen, luze xamarra. Mando gañean zetorren nekazari bateri SASABE'ko berriak galdetu nizekion. «Atzean utzi duzute baseliz ori, zuen bide ori artu berriz ta mendira igo bearrean, jarrai ibai ondolik aurrera. Bi kilometrorra ibai ondolik bide estua artu, gero 200 metro eskubi aldera, erreka gaineko aldean arkituko duzute. Obe biar joatea, gaba gañean dugu».

Etzan ori nere asmoa, itzulita SASABE'runtz abiatu giñan; garbi bide garbia genuen. Ondolik LUBIERRE izeneko ibaia, arri kozkor ederrak ba zitun obian. Ibai ta gurdi bide tartean baratzak, nekazari

batzuek eguneroko lana amaitzen, besteak mando gañetara igotzen. Mendi tartea estutzen zijoan, orrelako batean Sasabe'ko iragarkia aurrean, eskubi aldera bide biurra ibai gañetik. Bi bazterretan arri borobil pillak. Eskubi aldera zoko batean, arriz inguratua San Adrian'en baseliza. Era bat illuntzen, argia baño illuna geiago. Bizpairu argazki atera nizekion. Eliza luzea ta estua da, erromaniko arku erdi borobillako sarrera du.

Barrenera sartzeko aski jetxi giñan. Atea irikia zeukan, barrengo zola gutxinaz metro erdi bat bustiñez betea. Leporaño lokatzen sartu gabe ezin ibilli. Bizigotiko astarnik ez nuen ikusi, amaika garren gizaldian egiña zala itxura. Pedro I Aragoi'ko erregearen aurrean sagaratu zuten.

Barrengo lokatz busti artan aberen aztarnak ugari. Gainerakoan utsik zegoen. Landan eguneko azkeneko argia ta ontzaren karrexia. Tokia bai paketsua ta basatia, izena berriz ondo jarria «SASABE» (sasi azpian edo baso azpian). Izen ori zeltak, erromatarrek, griegoak edo fenizioak etziotela eman, ikusteko gutxi bear. Itz orren esanaia jakiteko gauza bat bakarri bear, euskara. SASABE'ko bazter ortan eguneko azken unca zoraturik igaro nuen.

Ixiltasun aundia ondoan ta ankapean arri otsa, euskal izen ori belarri ondoan neukala zoriontsu nengoen ta begi aurreko elizatzoa ikusirik biotza urratua. Izena euskalduna, eliza emengo lenengo kristau garaiaren ezaugarri. Eliza ugoldeak nunbait era bat arriz estali zuen eta tellatua bakarrik agirian utzi. Orain dala gutxi 1962 garren urtean, ingurua garbiru diote bainan ez dute bear bezala zaindu. Erdiaroko aspaldiko garaietan monastegi bat zegoen eta Jaka'ra joan aurretik emen bizi ziran Aragoi'ko gotzaiak ta emen daude obiratuak. Oska'ra ere emendik bidali zituzten mairupean bizi ziran kristaumentzat iru gotzai. Kristau erriarentzat izen aundiko tokia dugu ta bear bezala zaintzea merezi duna. Oraingo gizasemeak bainan ziurragoak izango ote dira, biarkoak?

Erri baten kulturak arri eder auen bearra izaki ta kaikuak ostikoka. Gizona motza izatia zer dan edergallu oien aurrean ikusten da.

Guk jateko bakarrik egin bear al dugu lana? Biarko ez al genituzke edergalluak zaindu bear? Gizonaren edertasunez eta jakinduriz mintzatzen zaizkigu.

Ariñasko itzuli giñan, oñetakoak ondo zapaltzen zituzten arriak. Otz xamar egiten zuen, ez izerdirik ateratzen, barrena berriz sutan Estu genbillen lo tokirik ez genuen oraindik billatu ta beranduxko zan. Errian sartzeko bederatziak ondo joak. Karrika estu aietan indar

argia, ta neska gazte multzo bat solasean. Arrotzetxearen zuzenbidea galdetu nien, goraxeago bidali ginduzten. Atadi estua ta barreanean gela txiki ta zikiña, mai beltz txiki bat erdian ta zaragi bat bazterrean, baita garagardo kajak zokoan. Ipurtargi bat zeukaten eta gutxi ikusten zan. Zolan lurra bizia ageri, sapaian goiko solairua. Amona zar bat txikia bezin aula. Garagarra limonadakin eskatu nion. Alde egin zun, andik puxka batera etorri zan.

Itz bakan batzuek esanda joan zan berriz. Azkenean pitzer zikin zurizta bat eskuan zekarren. Bizpairu gizonezko datoz ardo edontzi erdiak edatera, bat moztaka eldua ta bi gazte luzeak. «Nundik zabiltzate garai ontan» galdetzen digu gizonak. Guk dana esan bear. Gure ibillialdiaren goraberak eman genizkien. «Koño -koño «zion». «Ez duzute sasoi txarra». Gizona izketan patxara ederrean eta bi gazteak ez ginduzten begiak gañetik kentzen. Eskuak gerrikoan sartuak batek, besteak patrikan; goitik bera, zearka begiratzen ginduzten. Amonak etzula ez afaririk, ez oirik, esanaz utzi ginduen.

Adineko gizonak, gazte bateri esan zion; «Joan adi etxera ta galdetu zak, gaur gaberako artuko ez lituzketen bi arrotz auek». Ixtanpa batean ezezko erantzunakin genuen osteraz gaztea. Apaiza nola bertan ez dan bizi, alkatearengana joango nintzala esan nien. Gure aurreko gizon moztakak: «Ni naiz emengo alkatea». «Neronek billatuko dizuet, etzerate oirik gabe geldituko», esanda alde egin zuen. Andik gutxira datorkigu esanaz: «Juan-Ramon izeneko etxean artzen zaituzte, afaltzen asteko daude, lenbailen joatea obe». Bereala utzi genuen edantoki illun eta zarpail ura. Gizonen ardoak eta gure edaria ordaindu genuen. Etxeraño alkateak lagundu ginduen. Atea jo ta azkar etxekoandrea atera zitzaigun, «aurrera» esanaz. Lenengo bizitzara igo ginan. Etxe zarra, sendoa, zabala, naiko tokiakin, bainan oso garbia, ondo berritua. Sukaldean sendia mai inguruan bilduta, tresna zarrrik etzan ageri, danak berriak, labeak, maiak, arasak... Lekak lur sagarrekin atera zizkiguten eta ondolik arroltza pareta urdai azpikoarekin. Igalia nik eskatu nuen, urdallatik arin xamar nola nenbillen, platanoak limoiakin. Ixillik jaten asi ginan. Nagusia: «nundik nora tenore ontan?». «Gipuzkoa'tik Jakara'ño oñez. Bidea ez genuen ezagutzen eta azkeneko errian AISA'N lo egiteko asmoakin. An arrotzetxerik etzegola ta Borau'n billatuko genula... orregatik etorri gera ain berandu», nik.

Bi aurrek begi aundiekin begiratzen ginduzten. «Ori asmo gogorra izan duzutena» etxekoandreak. «Oñez ezagutu bear dira gizonak eta lurrak» nik. «Artzaiak egiten duguna» nagusiak. «Itzak, izenak



Borau erri alaia.

ta euskal kutsuzko gaiak jasotzen gabiltz» nik. Orduntzen lasaitzen asi ziran gure entzuleak. Artzantza ta erriaren gora berak galdetu genizkien, orrela jakin genun erriak baso galantak zitula. Urtero bi milloi pezeta gora bera basotik ateratzen dituzte. Orrelako erri txar batentzat asko da, ogeitamarren bat sendi bizi dira, berreunen bat biztanle.

Basoko diru onekin erriak gauz asko egin ditu; ura ekarri, argia jarri, Errikoetxe berria, dantzarentzat gela zabala, berebil danentzat estalpea, illerria ta etxeak txuritu dituzte. Asko da. Etxeko nagusia artzaia dugu. Goizean «lanrover» artuta mendira dijoa ardiak ikustera, milla inguru ditu. Etekiñ ederra ateratzen die, noiznai bildots eta axurickin perira dijoa; inguru ontan peririk ezagunena Jaka'koa da.

Kafesne beroa artu ondorean oyeratzen gera. Areto baten antzeko gela ematen digute, bi oi zabalak daude. Ler eginda nola geunden berealaxe etzan ginan. Azkurea anketan, sua barrenean, ezin egona soñ osoan. Otza egiten zuen eta estalki lodiak gainean bota genituen. Loaren illunpean sartu nintzan. Lasaitasun aundia arkitu nuen, uste baño bide geiago egin genuen egun ontan. Orrela Jaka'tik urbillago ta kilometro gutxiago egiteko, guk uste baño obeto ginjoazen.

Urrengo goizean zazpi terdietan deitu ginduen etxeko andreak, urintza beroa artu, bizarra ebaki, gosaldu eta eliza ikustera etxekoandriak lagundu ginduen. Giltzaren billa aldamera joan zan. Zerua garbia genun, etzan odeirik ageri, karrikak utsik. Bi zakur enparantzan jolasten. Goizeko lenengo eguzkiak argiz bete zuen erria; etxeak txuri, tellatuak urdin, alaitasun aundia arkitu nuen goiz artan. Eliza erriaren gaineko aldean dago bakarrik, arrizko malladia igo ta elizaren sarrera aurrean, ate gainean Krismoi erromanikoa. Atadi ortik erria bean lasai cratua ondo ikusten zan. Eguzkiak mendi gainetik bidaltzen zuen dizdirak, itzalak astintzen zitun pixkanaka ta argi zurista bat bezalako botatzen.

Argi orrek tellatuaren margoa leguntzen zuen. Mendiak ondo inguratzen dute erria.

Elizak bi begiko dorre zabal motza bat dauka. Eliz barrena dana berritua arkitu genuen, solairua jarri berria. Aldare asko ta geienak platereskoak amasei garren gizaldikoak. Illerri berria erakutsi nai zigun etxekoandreak, elizaren atzeko aldean dago; gorputzak apaletan sartzen dituzte tellatuzko etxetxo batean. Etzitzaidan asmo egokia iduritu. Ainbeste toki izaki, ta gorputzarentzat oberena lurra da ta gainean arrilosa. Etxe onekin eliz atzeko ikuspegia ondatu dutela



Auñamendiko malloak Urdues ondotik.

deritzait. Gaiñera gorputzak orrela ez dira uzteltzen; kalteko irtenbidea.

Ilerriko gaineko aldean, «Jaka'ko» bidea erakutsi zigun etxe-koandreak: «Jarrai bide ontatik ta an aurrean mendikoa dea artu, mendi lepoan etxola dago ta ondoan bi laster bide ezker eskubi. Artzazute eskubikoa ta ez duzute galtzerik; batez ere zuzenean aurrea dijoana utzi». Eskerrak emanaz alde egin genuen. Errege bidetik ginjoazen; bira bat ezkerreta emanez, berriz eskubira dijoa.

Berealaxe goruntz ta gain ortik erria ondo ageri da. Tellatuak, batzuek besten ondoan azpian ta goien elizaren ormalodickin marrazki polita sortzen dute. Udarako gizaseme asko etortzen zaizkie ta ez da arritzekoa.

Azkenean

Aragoiko Jaka'ra


Astirik galdu gabe aurrera jo ta, bizpairu kilometro eginda mendi lepoan giñan. Etxekoandreak esan bezala etxola txuria aurrean eta ezker «lanrober'entzat» bide ona ta eskubi bidaxka. Gure bidea zuzenean aurrera zijoan, bide ori konpontzen zebiltzen ta goitik kamioak beko aldetik girabiran igotzen ikusten genitun. Inguruak begiratuaz zorutzen gelditzeko tokia da mendi lepo ori; ezker Kantatxu'ko mendi aundi zabal ta bulartsuak, arkaitz arroak gallurretan ageri. Euskubi Oroel Jaka gaineko mendi zorrotza, ondoan San Juan dalako arkaitza (San Juan de la Peña) dauka, beko sakonan gure aurrean Aragoi izeneko ibai basati lodia, onduan zelai aberatsa dauka, belardiak ta piñudiak ageri, musker margo bizia dutenak. Begiak zorutzen eta burua ametsetan, oldozten asi zan. Etxo'n Aragoi izeneko ibaiaren beso bat utzi genuen, gure aurrean bigarrena izaki. Bi ur beso oiek ARAGOI lurraldearen izena sortu dute edestian. Ezin aztu euskalduna dala ta euskaldunak zirela emengo gizonak eta gurea zala emengo abenda.

Gainera bi beso oien artean aintziñako erdiaroko illunpetik ARAGOI izeneko erresuma sortu zan. Erresuma bezala Naparroa'ko Errege euskaldunak, Santxo Aundiak eraiki zuen 1033 garren urtean. Aragoi erresuma etzan berez sortu, Naparroaren laguntzarekin baizik. Ezin duguna aztu da, Aragoiek askatasuna ta Erresumaren nortasuna lortu arte gizaldi bat baño geiago aurretik, Naparroa'ko basebean bizitu zala.

920 garren urte inguruan, Berdun eta Sos bitarte ortan Santxo Garzes lenengoa Naparroa'ko erregea lurralde bietan arkitzen dugu mairuen aurrean muga ondo sendotu naian. Errege au bera dugu



Sonpor aldean Auñamendi.



Arkaitzpeko San Juan'en eliza.

Errioxa'ko goiko aldeak eskuratu zitunak; egoaldetik auxe bera dabil Naparroako sortaldean erresumaren saietsa sendotzen eta zuzpertzten. Aragoi'ko mendi alde auek Naparroa'kin batean bizi ziralarik, era bat euskalduna genuen, izkuntza ta oitura aldetik, Erronkarikoen antzekoa. Askatasuna lortu ondotik pixka bat geroxeago beste eun urte egin zitun Naparroa'kin batean ta garai aietan euskal nortasunak iraun zuen.

Aragoiko erresuma zarraren lurraldetan, Amairugarren gizaldian euskara era bat galtzen asiko zan. Egoalderuntz Aragoi'ko erresuma asko zabaltzen zijoan, an iri aundiak zeuden, gañera katalanekin lotu eta geroxeago oraindik Mediterraneoko itxasoan zabaltzen asi zan. Azkenean Aragoi'ko erresuma aundian mendiko ibar auek indar gutxi zeukaten. Iri aundien esanak zeukan indar guztia.

Aragoi ipar aldeko ta egoaldeko gizasemeak etziran berdiñak. Ipar aldeko mendietakoak euskaldunak geienak, egoaldeko zelaietan berriz mairu asko edo mairu izanak. Ipar aldeko lurretan lege bere-riak zeuzkaten, erriak indar aundia zeukan. Erregeak ezin zuen nolani agindu.

Naparroa'ko ibarren berexitasun berdina zeuzkaten, Aragoi erresuma zarraren lurretan bizi ziranak. Goiko mendiko gizon oiek beren mugak ondo babestu zituztenean berago zabaltzeko asmo geiagorik etzuten.

Egea'ko batzarrean 1265 garren urtean Erregearekin eztabaida gogorak euki zituzten. Antxen oartu zan Erregea, luberrik eskuratzea bere gain bakarrik gelditzen zala ta ala egin zuen. Andik aurrera Erresumaren zabalkundea Erregearen lana izan zan. Garbi esan bear duguna, Aragoi'ko Erresumaren asiera Naparroa'ri esker eskuratu zula ta asiera ortan euskaldun garbia zala. Oraingo Aragoi'ko jakintsuak asierako euskal nortasun ori aitortzen dute lasai asko.

Gaur Aragoi'ri buruz idatzitako liburuetan euskal aztarnak aitortzen dituzte. Liburu batekin bakarrik gelditu naiz txundituta. Zoritzarrez lan ortik asko itxaro nuen.

1972 garren urtean Jose Maria Lakarra, Lizarra'ko semeak, Aragoia'ri buruz liburu bat argitaratu du Espasa-Calpe irakorlan. Edestilari onenatakoa dugu ta gainera Naparra. Gaur, gizon onek ainbeste, bazter auetako berriak gutxi jakingo dute. Zaragoza'ko ikastetxe nagusiko zuzendaria da. Arrituta gelditu naiz, zeinen garrantzi gutxi ematen dion liburu ortan Aragoiko euskal aztarnei ikusita. Ez du ezer ukatzen bainan egia ixillik gordetzen du ta ori ezin dut ontzaz eman. Ixillik gelditzearekin mesede txar bat egin digu. Jakiña

paperetan sartua dagon gizona dugu, garai oietako paper zarretan euskera ez da agertzen. Orduko artzaiak etzekiten idazten. Eliz gizonak idazten zuten, bainan beti latinez. Jose Maria Lakarrak lurraren izenak irakurri bear lituzke ta gero noiz eman zizkietan izen oiek billatzen asi.

Etziran mairuak edo erromatarrak edo frankoak orrela bazterrak bataiatu zituztenak. Nork orduan? Zergatik ez digu esaten? Gure idazle naparrak ez daki euskaraz. Lur auetako aztarnen esanaia jakiteko euskara ondo ezagutu bear da. Euskara jakiteak ez du kalterik egiten, mesede aundia baizik. Ezin ixillik euki Aragoi'ari buruz Lakarrak egindako liburuak nazka eman zidala. Berri asko ta jakingarriak arkitzen ditugu; Euskal kulturaren aztarnei buruz itz bat bakarrik ez. Ori da gauza ezin ditekena egin, ta naita naiez euskaldunok ixillik ezin duguna gorde.

Liburu onen oroitzapenak, etzuen nere biotzaren poza illundu. Begi aurrean edertasun geiegi nuen negarrez asteko. Alde guztietara begiratuta, emen ta an zeuden lurak zerbait esaten zidaten.

Eskubira berriz une luzean Oroel ta San Juan'en arkaitzari begira gelditu nintzan, askotan igo naiz mendi oietara, baita bein San Juaneko gañeko zelaian, belar eder gainean udara batean estalkirik gabe lo egin. Beti ango erromaniko arriak eta bazterretako euskal urratsak ikustera joan izan naiz. Bi mendi oiek bata bestearen aurrean daudela Oroel sortaldetik, *San Juan'en Arkaitza* sartaldera, gure edesti zarraren izen aundiak dira. Toki basatia da ta mendi saillak malkor aundi-koak, mairuak bazter auetara urbiltzen ari zirala, mendi auetan lekai-de bakartiar batzuek or asten dira biltzen, mairupean bizi nai ez dute-nak aiengana biltzen dira; gainera egitazko kristauak izaki.

Garai artako gizaseme batzuen izenak ezagutzen ditugu, Atares'ko Juan «Voto»ta Felix. Askatasunaren alde inguruko gizasemeak ementxen biltzen dira ta arkitzen dute egitazko babesa. Iruñako erregeak asko laguntzen die ta Naparroa'kin oso lotua arkitzen dugu. Erresumaren asieratik, Leyre ta San Juan'en arkaitza Naparroa'ko Errege zarrak ondo zaitzen dituzte.

Bi mendi oietan dauzkate gudako orma lodizko babesak, berez oso toki zalletan estaliak, len aipatutako liburuan Lakarra jaunak esaten digu, asieratik San Juan'en arkaitza Naparroa'kin Aragoi'kin baño lotuagoa arkitzen dugula. Garrantzi aundiko monastegia sortu zan. San Juan'en arkaitzan, IX garren gizaldiko aztarnak ageri dira oraindik. Amaikagarren gizaldian etxe zarraren gainean monastegi berria egin zuten erromanikoa, ortxen daude obiratuak Naparroa'ko errege zar asko. Naparroa'ko aurreneko errege asko or obiratuak

izateak zerbait esan nai du. Gaur monastegia erakusten duan etxe zaitzalleak Aragoi'ko erregen izenak agertzen ditu. Naparroa ez du ezertarako aipatzen, joku ori nazkagarria zeritzaidan eta arpegira bota nion nere ezin egona. Egia dan bezala, zergatik ez dute azaldu bear? Nori egiten dio egiak kalte?

Amabigarren gizaldian arrizko ibiltoki itxia egin zuten, gaur oraindik zati bat zutik ikusten duguna ta danen ustez lan zoragarria, abe ta abeburu landu batzuek iduriekin gelditzen dira.

Gerogo konponketa batzuek ere egin zituzten. Arrizko etxe sail ori, bat batean, arrosa margozko arkaitz aundi baten babesean, arpean dago estalia. Orregatik «Arkaitzako San Juan» izena eman diote. Alderdi guztitik basoz josia dago; sartaldera begira tokia bai izkutua ta babesa, errexa zaintzen, zailla arkitzen eta bertan gaineko aldean larre toki berexiak dauzka.

Iturri ederra du onduan. 1675 garren urtean erre zitzaien monastegi au ta gaineko zelaietan berria barrokoa, galanta eraiki zuten, bekoa utzia. Napoleonean garaian frantzesak etzioten mesede aundirik egin eta 1835 garren urtean, Madrid'ko agintariak beste lekaideekin batean, emengoak ere bota zituzten. Inor zaintzeko etzegola lurrera erori zitzaien, bai goikoa ta bai bekoa. Artzaiak emengo liburategiko paperekin sua pixtuzen zuten. Onela betiko galdu zituzten izan ditezken liburu ederrenak. Ala da bizia; batzuek lana egin, besteak dana urratzeko. Zoritxarrez ori da emen gertatutakoa. Orain konpondu daitekena jaso dute ta zaindari bat jarri. Etxea oso garbia arkitu dugula aitortu bear. Estaduak zaintzen du orain eta urtetik urtera ikusleak ugaritzen ari zaizkie. Amar urte dirala, etzegon errege biderik, bizpauru urte ezkerotik, bide berri berritik igo gera. Edestia ta ederlanen aldetik monastegi auek ezagunak ba dira, izadiaren edertasunak ba du arritzeko aiña indar. Begientzat gauz ederrak dira orko mendi, arkaitz, baso ta zelai sailak. Gaiñera goiko monastegi ondotik joanda bertan dago mendi gaiña ta ortik Auñamendi'ko malloak aurrez aurre ageri.

Mendi sail zuri aiek ikusita barrena lasaitzen da, birrikak garbetzen eta biotza goxatzen. Alderdi guzti oiengatik euskaldunak gogo biziz etorri bear lukele emengo edertasuna, edergalluak eta gure edestiaren aztarna zarren usaia artzera.

Euskaldunak egin bear duguna da gure bitxiak ezagutu ta maiz aipatu, ori ezin digute ukatu. Lendik guk uste baño lan aundiagoa egin zuten euskaldunak. Besteak ixiltzen dutena, guk agirian esan. Zoritxarrez gure edestia ta gure Amalurra gaizki ezagutzen ditugu, askorentzat oraindik Naparroa'ko zati aundiak, arrotz lurretaz artzen dituzte, orduan Aragoi'ko lurretan nola Euskalerra ikusi?

Jakintsuei beste gauza bear bearrezkoa galdetuko nieke oraindik. Nere ustez ez litzake gaizki etorriko Sanguesa'ko Prinzipe de Biana'ko gazteluan



Arkaitzpeko San Juan'en monastegia.

agertoki bat antolatzea, garbi azalduaz noiz ta nundik nora sortu zuten, Aragoi'ko erresuma Naparroa'ko erregeak. Orrelako lan bat erriak ontzaz artuko luke. Aspalditik pensatu nuen berte ainbeste egin bear litzakela Errioxa'kin, Deio'ko gaztelu zarrean Lizarra'ko aurrean. An antolatu bear litzake agerketa eder bat Errioxa nola Naparroak mairuen atzaparretik askatu zuen, agertuaz. Oraindik ikusten dugunez, lana ausarki egiteko aukera ba dago.

San Juan'en arkaitzari buruz bi itz esateko asmoa dut; ez dira alperrik etorriko. 1071 garren urtean Santxo Ramirez erregearen agintaritzapean lenengo aldiz sortu zuten emengo monastegi zarran, Erroma'ko liturgia ta eliz liburuak. Ordu arte Toledo'ko elizarenak erabiltzen zituzten.

Ezin ixillik gorde, otoitza egiteko giro egokia arkitzen dala emengo arri zar, arkaitz sendo ta baso eder auen ondoan. Zoritxarrez gaur ez da bazter auetan geiago otoitzik egiten. Zer da gizona otoitzik gabe? Euskaldunok beinpein otoitzari zor aundiak dizkiogu ta gaur len baño geiago oraindik. Gizonak barneko sakontasuna otoitzaren bitartez nabaritzen du. Euskaldunak berriz gure otoitza euskaraz alkarrekin egiten dugula, erri bat bezala agertzen gera Jainkoaren aurrean. Noizko euskaldun zeruleak berriz mendi auetan? Barneko bizia zuzpertzeko zeruleak indar berexia eskuratzen digute.

Ezin aztu esatea, Arkaitzpeko San Juan'en elizatik mendi bide bat beruntz irten dala, «Santa Cruz de la SEROS» errixkaraño dijoana. Ordu erdi batean beko erriraño sartzen da. Ez dago galtzerik. Estrata zar batetik errex ibilli diteke. Arri borobil askatuak ugari daude bidean. Ikuspegia oso polita; basoa orlegia, arkaitza gorriak, ta errixa zarra edestian izen aundikoa. Etxeak arrizkoak, tximeni zabalekin; bi eliz daude, bat txikia zarrena San Kaprasio izenekoa, erromanikoa 1082 garren urtean egiña, dorre motz bat dauka bi arkuko leyoakin, landa aldetik orman tellatu pean arkuen antzeko irudia ta abside txiki bat oso polita. Tellatua arrilosakoa du.

Beste eliza, lekaimen monastegi zarra. Errixa au Naparroa'ko erregearena zan eta X garren gizaldian Santxo Garzes II'nak bere emazte Urraka'ri eman zion ezkontzaren opari bezala. Erregina onek emakumentzat monastegi bat eraiki zuen. Geroxeago XI garren gizaldian Erramiro Aragoiko lenengo erregeak bere alaba uzten du emengo lekaimen artean eta gero bigarrena Santxa izenekoa alarguna (1070). Bigarren erregearen alaba onentzat illobi eder bat egin zuten, gaur Jaka'n dagona.

Gaur ikusten dan eliza 12 garren gizaldikoa da, iru bizitzako dorre sendoa du. Sarreran abe landu bakarra iduriz betea dago, ur bedeinkatuaren ontziarekin. Ez da nola naikoa. Ol margozko 15 garren gizaldiko erretaula dago aldare nagusian, 1490 egina ta erdian alabastrozko Ama-Birjiñaren iduria zutik. Amabirjiñaren bizia margotua dago, 8 ol oietan, eta edertasun aindukoak dira.

XVI garren gizaldian lekaimen emendik Jaka'ra joan ziran bizitzera ta monastegi zar au bakarririk utzi zuten. Arritzekoa da nola ez dan geiago ondatu.

Santa Kruz de la Seros erria, arkaitzako San Juan'en monastegiaren pean dago. Goian gizonak zeuden, bean emakumeak.

Beko monastegiak erriarekin batean, itxura ederra du arkaitz aundi baten pean. Margoak ez dira nolanaikoa; zerua urdin illun, basoa orlegi, arkaitza gorria. Erri ontako lur asko Olandarrak erosi dute ta etxeak egin dituzte udan igarotzeko. Zoritxarrez San Kaprasio elizaren ondoan bost bizitazko etxea altxa dute. Bururik gabe gauzak egiten noizbait ikasi dugu. Gure lurak atzerritarrei bi xoxetan saldu ta toki ugari dagon lekuan etxe luzeak, gora, ikuspegia urratzeko. Ez da arritzekoa alderdi auetako lurak eta erriak atzerritarrek eta arrotzak erostea. Aizea osasuntsoa, eguzkia nai aiña, ikuspegi zoragarria, Auñamendi begi aurrean egun guztian, ura ugari, arri zarrak bazter guztietan, toki paketsuak, igaliak ezin obeak. Atzerritarrek erne, euskaldunak lo zorroan, bertakua gizarajo batzuek. Errietan bizitzeko ta lurgintzan lana egiteko ez dituzte bear bezala jantzi ta danak utzita alde dijoaz.

Emendik gutxira konturatuko gera nolako astakeriak ari geran egiten. Gero zuloak konpontzeko beranduxko izango da. Emengo gizasemeak geienak iri aundietan biziko dira ta landan arrotza nagusi. Negarra egiteko garaia etorriko zaigu, bainan alperrik. Okerrak ere noizbait ordaindu bear dira. Gure eziketaren utsuneak noiz gallenduko ote ditugu? Mingaña arin, itz ugari, ezi tzalle gutxi. Eziketarik gabe ezin da erri bat azi. Eziketak, ariketa ta lana eskatzen du. Gure artean errexkerira jotzen dugu. Esku lan eder asko arkitu ditugu, gure bide ontan, garbi agertzen digutenak, lengo gizonak, gure asabak, ekinaldiari gogotik eutsi ziotela. Lan oien bitartez, orduko aintzinakoak zerbait eskatzen digute, guri; orain, bear bezala erantzutea. Lo zorroan egontia ez dago aurrerapenik.

Erri txiki ontan bertan gertatu dana, urte batzuek dirala berrogeiren bat sendi bakardadean bizi ziran; orain bizitza errexagua dute, errege bidea ederra egin diete ta emendik urte gutxira bestea beilik goiko monastegira. Gora datozen guztiak, beraño errestasun osoan bilduko dira. Orrela gainera ibilialdia osatuko dute. Bide berri orrekin goiko monastegia ta beko erria bat eginta arkituko ditugu. Orixe izando da urte gutxiko aldaketa. Batzuek madarikatzen ibilli diran lur auek, besteak bedeinkatuko dituzte. Orrela idatzi da beti edestia. Ekintza berxietarako gizonak bear.

Mendi leptik, ezker aldera «Kruzeta» izeneko tontorrari begiratu nion. Izen orrek berak zerbait aitortzen du. Latinetik dator, bainan euskaldunak esaten duten bezala. Kristau sinismena sartu

ondotik euskaraz egiten zan ezaugarria. Gure aurrean burni bidean bultzia aurreratzen ikusten genuen beko zokoan.

Naiko ongi gureganaño eldu zan kamioien otsa ta orrua. Beko bazter ortik zijoan Frantzi aldera errege bidea. Egun garbia zan. Eguzkiak indarrakin jotzen zuen. Goitik eskubi aldera artu genuen bide xiorra. Mendia garbia zegoen sortaldetik zear zijoan gure bidaxka, goi xamar.

Eguzkia ondo artuz, argitasun aundiakin neurri onean ginjoazen. Bi mendi bular igaro ondoren, era bat jeixten asi zan gure bidea ta urbide berri zabal batera atera giñan. Bukatu gabe zegoen.

Errege bide gaiñetik ginjoazen. Kastiello izeneko errixkara urbil-tzen asi giñan. Errixka ortara iritsi aurretik, baratz ondotik errege-bide nagusi aldera jo genuen. Uste baño berebil geiago zebiltzan, eten gabe gure ondotik igarotzen ziran.


Nere buruan asmo bakarra nuen, limoi batzuek crostea. Urda-llatik arin xamar nenbillen ta lenbait len platanoak limoyakin nastuta jan nai nituen. Bide baztarrean edantokia ikusi nuen, baita limoien ura eskatzera joan ere, baiñan alperrik. Aurrerago beste denda txikia zegoen, aurreraxego katalanen denda aundi bat zegola esanez utzi ninduten. Gelditu gabe arin ninjoan bide bazterretik, nere barrengo arintasunaren bildurrakin, limoiak billatu naian. Katalanen etxe sendoa urrutitik ageri. Lasterka asi nintzan, platanoak ikusi nitun txin-txillik. Nere poza aundia zan, limoiak eskatu nizkion etxeakoandreaki. Etzeuzkala, entzun nionean bat batean alde egin nuen. «Izan dadilla jaunak nai duna» nion nere baitan.

Nere esteko otsa aztu nuen, gure ondotik zijoan ibai zurrumu-ruari erantsi nion belarria. Osto tartetik noiz beinka ura ikusten genuen zubi batetik igaro giñan ta arkaitz estu tartetik aurreratu. Ondoan arrobia lanean; gizonak, kamioak, indar tresnak, autsa, zarata.

Bide bazterrean zugaitzak genituen eta itzaletik ondo genbillen. Ibaitek ezker aldera gero ta geiago baztertzen ginjoazen. Aldapa gure aurrean. Bidea zabaltzen eta zugaitzak bakantzen. Eguzkiak malloakin buruan jotzen ginduen. Bero izugarria, musu zapia patrikatik aterata kaskasoillan ipiñi nuen.

Ezker aldetik mendia pinudiakin estalia ta gaztelu baten antzera antolatua. Aldaparen gaineko aldean eskubira etxe batzuen tellatuak ageri.

Ezker mendia burni arantzeko sarez itxia. Guda mutil batzuek fusillakin eta soldadu bakarra eserita orma ertzean piñu azpian. Asto ura ni ikusita parrez asi zan esanez «Ara aitoma ezin ibilliz dator».



Azkenean Jakan.

Ni berriz ixillik aurrera. Musu zapia burutik kendu nuen. Aldapa gainean ginan, eskubi arrotzetxe galantak, eroxoak, egokiak; ondoan aurrak txirrintan. Ezker, guda mutilen etxe mordolloak lerroan. Gero auzo berriak asi ziran agertzen. Gure aurrean berriz erne tente, sendo, urdin illun jantzia OROEL mendia. Argia nai ala, aize leguna, giro atsegiña. Gizon ta emakume arin jantziak atze ta aurre. Gu gelditu gabe aurrera iri barnera. Iri zarran sartzen asi eta berealaxe ipar aldeko gainean, Katedralan giñan. Eguardiko amabiak ziran, barnera sartuta labur eta zintzo asko Jainkoari ezkerak eman nizkion. Une artako zoria ezin konta.

Mikel'eri eskua ta eskerrak eman nizkion. Gure poza aundia zan, azkenean *JAKAN* giñan.

Ba nitun eginkizun batzuek. Katedralaren aurrean argazkiak atera nai nitun. Zoritxarrez eliz atarian berebilla zegoen illkutzarekin. Argazkia geroako utzi nuen ta merkatura abiatu nintzan. Iparaldeko Katedralaren saietsian daude arkupe batzuek eta an igaliak eta barazkiak saltzen zeuden. Atso gazte ta adiñekoak erosten, nere aurrean ba nitun bizpairu arro arro, atzetik nituanak ere nere aurretik zijoazten. Azkenean aserratu nintzan; kosta zitzaidan nere limoiak eta plata-noak erosten.

Ondorean, platanoak eta limoia besoan nitula, Joakin Ara izeneko gizon bat billatu nai nuen. Emengo Ara jauna Donibane loitzun'en bizi zan beste aren lengusua izaki. Lenago aipatu dut gurasoak emengoak nola zeuzkala Frantzira joan ziran bizitzera ta Joakin Maule'n, Xiberon jaio zan. Bere gurasoen sorterrira maiz zerroten.

Aragoi maite zuen eta esaten zidan: «Aragoi euskal izenez eta oituraz beterik dago. Aragoitarrak Jaka inguruan gero ta geiago euskal zaletasuna pixten ari zaiela nabaritzen dute. Aragoi Euskalerrria bait da. Ba ditut senideak Euskalerrria asko maite dutenak. Nere lengusuak nere izen abizen berberak ditu, Jaka'ko kale nagusian dauka denda...».

Donibane Loitzune'ko Simon Ara urte bat lenago, biotz miñakin bat batean il zan: nik eman nitun illetak. Illerrian nintzala eguzkiak atsaldeko argia eskeintzen zigula, indar aundiakin Aragoiko ibillialdia egiteko gogoia sortu zitzaidan..., baita asmoa betetzeko garaia ere etorri Jaka'ko Joakin Ara'ren zuzenbidea galdetu nuen.

Bertaraino lagundu ginduzten, denda ederrenetakoa, larruzko gai berexiak saltzen dituzte. Joakin Ara lengusuaren izena aipatu nien, besoak zabaldurik artu ninduten. Eguna dendarientzat txarra zan, larunbata, denda jendez betea zeukaten. Erantzuteko senar emazteak bakarrik, denda barrenera eraman ginduzten. Bazkaria ta etxea



Katedralaren atarian (Jaka).

eskeni ziguten, bañan azkar ibilli bear genuen, gabean Orexan meza eman bearra izaki. Nere parrokia urrun zegoen. Nik erositako plata-noak eta limoyak antxen artu nituen. Mikel'eri garagardoa eman zioten. Itz asko egin genitun; batez ere lengusu jator ura, emengo dantzariak eta mendi bazter auetako nortasuna aipatuaz. Lan geiegi zegoen etxe artan eta berealaxe alde egin genuen.

Orain Jaka'ko karriketetan lasai ibilli nai nuen. Iri txukuna ta garbia da. Denda onak ditu udarako arrotzetxe asko ta guda mutillen kuartelak. 15 millen bat biztanle daude. Katedralaren ondoan karrika estuak, iri inguruan etxe berriak.

Jaka izen ori, Cayetano Enrique de Salamanca jaunak dionez euskal sustrai omen. Zelai batean datza, bide kruzcan; Frantzia-tik Ebro aldera ta Auñamenditik Iruña'ra, alkartzen dirala. 809-839 urtetan Aznar Galindez buruzagi aberatsaren pean bizi ziran lurralde aiek, geroxeago Iruña'ko erregearen babesean. Amaika garren gizal dian emen Gaztelu bat zegoen; saltzalle ta mandazarienzat zerga biltzallea. Nunbait Frantzi ta Mairuen arteko sal-crosketa asko bide ontik egiten zan. Santxo III garrenak, Errege onek bere semea Erramiro, Aragoiko zerga neurritu ziena, lenengo erregea izendatu zuen eta Jaka'n zeukan ezertokia. 1058 urtean lenengo aldiz agertzen da Jaka'ko gotzaiaren izena.

Erramiron semeak Santxo Erramirez erregeak, ementxen eraiki zuen iria. Arginak ekarri zitun katedrala ta jauregiak egiteko, baita Frantzesak bizia emateko; esku langille trebe asko bear, batez ere saltzailleak eta industri txiki sortzailleak. Erromako liturgia sar arazi zuen era-bat elizan. Iri berri oneri bere burua bear bezala zaintzeko, lege berri ta aurrelari bat eman zion, Jaka'ko fueroa izena duna. Lege au bera eman zioten, geroago Lizarra ta Donosti'ri. Peri bat ere sortu zuen, izen aundiko ta Mairuen gaien zerga jasotzeko etxea.

Ezin uka erabaki guzti auekin Jaka'ko iriak bizitasun aundia zeukala. Inguruan artzaiak ta baita nekazari batzuck, irian berriz guda mutillak, gotzaia ta sal erosleak. Gauz askotarako, iriko bidea artu bear nai ta naicz.

Jaka'ko garrantzia, 1063 garren urtean ementxen egindako eliz batzar nagusiak agertzen digu. Garrantzi aundia zeukan. Ezaugarria? eliz berria, muga berria, indar berria ta ego alderuntz etorkizun aundia. Orduko iria katedralatik, benediktinin lekaimetxeraño zabaltzen zan.

Garai artako bizpairu gauz ba dauzkagu oraindik zutik. Bat ederrena ta bitxi aundienetakoa katedrala da, Jaka gotzaitzako eliz nagusia.



Burnisare erromanikoa Jaka'ko eliznagusian.

Espainiko lenengo katedrala erromanikoa dugu. Eliza ontan lenengo aldiz arkitzen da atea ta sarrera arku erromanikoekin; sapaia ere arrizko zañakin. Sarrera dorre zabalakin eгина; or dauzka zatirik zarrenak. Barrenean dauden abe erromanikoak sendoak dira; garai berdinekoa, epistolako abside borobilla. Beranduagokoa da Merkatu aldeko atadia. Bi aldare daude oso ederrak eta aspaldi ezagutzen ditudanak. Jaka'ra natorren aldiro atsegin zaizkit ikustea. Bat eskubi aldean, San Miguel'ena 1523 urtean, Juan de Moretok eгина, bestea atzean ezker aldean Trinitaten aldarea, euskaldun batek eгина, Azpeitia'ko (Gipuzkoa) semea zan, artilarari onen izena Juan Antxietia, ez da nor nai, Migel Angel'en ikaslea Italian, Kastillan berriz Juan de Juni'ta Bezerra'kin lan eгина. Kamon Aznar arte aztertzalleak dionez 16 garren gizaldian Espanian agertzen dan artilarari onena, Miguel Angel bera gallendu zuna. Euskaldun onek egindako lanik ederrena aldare auxe dugu. Alabastro arrian egin zuen. Zeruko aita orrek buruan dauka lan aundia, illea, bizarra arpegia batez ere. Asmatzen ari dala ematen du. Nolako indarrakin gaiñera! 1575 urtearen inguruan bukatu zuen. Moreto eta Antxietaren lana aukeratu atsegin ba zait, biyek neurtzeko da. Moreto'ren San Miguel gauza goxoa, polita da, bainan indarrak gabekoa. Onen ondoan Antxietaren lanak neurri danak puxkatzen ditu. Zeruko Aitak daukan barrengo indarrakin arriak lertu bear dula, dirudi. Ara nun dagon ba Euskaldun baten lan ezin ohea Jakan ain zuzen. Orain arte ortxen gelditu da izkutuan.

Orain bertan, Jaka'ko katedralean dagon lanetik ederrena, Trinitadaren iduria, ortxen daukate bazter batean. Urte gutxi arte Juan Antxietia etzuen iñork ezagutzen. Bi Antxeta zeudela zioten, bat Gipuzkoarra, bestea naparra. Irudigille onenak bezala kastillakoak agertzen zizkiguten. Kamon Aznari esker Antxietan izena danen aurretik azaltzen zaigu. Gizon ospetsu onek liburu bat eskeñi dio eta kastil darrak lan ederrak egin zituztela dio, Antxietak berriz ezin oheak, paregabeak. Kastillakoak esku langille bikañak, euskalduna berriz «genio» bat. Ez daukagu kastilla'ra joan bearrik gauz ederrak ikusteko, ortxen ditugu Naparroan Antxietaren lanak, Tafalla, Kasceda, Agoitze ta Jakan Trinitatea. Jaka'ko edergallurik bikañena gipuzkoar batek eгина. Irudi oneri buruz Kamon Aznarrek dio: «Amaseigarren gizaldi bukaerako Europako esku lanik ederrena dala». Etzuen zernai esan. Itzak ez ditu nolani erabili. Noizbait ikasiko ote dugu nolako edertilleak dauzkagun gure artean?».

Katedral ontan ba dago zerbait ikustekoa. Ibilitoki itxiko geletan (klastroan) museo bat antolatzen ari dira. Ekintza eder orren buru

Donostiar apaiz bat dugu, Aurizenea Kalonjea. Eliz barrutiko ederti lanak biltzen ari da ta gela oietan bear bezala tolestutzen; Irudi erromanikoak, gotikoak, gurutzeak, Andra Marik, santuak. Gauzik ikusgarrienak, ormako margo erromanikoak osorik ekarri ditu inguruko elizetatik; Susin'go bi gizaseme, Ruestra'ko absidetik bestea, Bagues'ko Kristoren eriotza, Nabasa'tik Kristoren burua, Sorripas'tik Aingeruaren agurtza Mariari, Urries'tik Adan'en tentaldia, Osia'tik Apostoluen irudiak, besteak Esko, Zeresola ta Ipas erritik. Ezin dut aztu erromaniko burni sarea, ain benetakoa deritzaidana. Bitxi oiek danak biltzen eta bear bezala tolestutzen ari dana euskaldun bat, gainera euskalzalea.

Katedralitik illobi erromanikoa ikustera Benediktinen lekaike etxera joan giñan, Eliza'ko atzeko aldiak daukate. Seros'tik 16 garren gizaldian ekarri zuten. Aragoi'ko lenengo erregearen alabarena zan, Erramirona ain zuzen. Santxa izena zuen. Irudi erromanikoa asko ditu ikusgarriak. Lekaike oien jangelan ba daukate kristo erromaniko baten iduria.

Beste eliza, erromaniko aztarnekin, Santiago izenekoa da. Aipatu bear Aragoi ibai ondoko Andra Mariaren baseliza. Ortzen diote mai-ruekin borroka latza izan zala ta urtero maiatzaren lenengo ostiralean jai bat egiten dute. Jaka'ko festak garagarrian izaten dira Santa Orosia'ren egunean, aste bateko jaiak. Jaka'ko patroia Santa Orosia da. Emakume onen ezurak katedralean gordetzen dituzte. Maiatzan eta Garagarrian bi egun oietan, Jakan, Aragoi'ko azken txistulariak biltzen dira. Aitonatik billobera jarraitzen dutenak. Ez daude asko. Basa'ko Yebra'n Jaka inguruan bat; euskal kutxu aundia dauka txistulari onek. Eresi aldetik ortxen arkitzen dugu euskal aztarna bizirik oraindik, makil dantzariekin batean. Azkenean Aragoi'ko trixtulariaren billa nenbillela, Basa'ko Yebra'n arkitu nuen, urte ontan bertan, bizpairu illabete lentaxeago.


Euskal txirularia Aragoien

Ateraldi ontan, gauza jakingarriak ikusi genituen. Gure gosea ondo kendu genuen. Zerbaiten billa gendillen ta arkitu genuenian, uste baiño ederragoa ta borobillagoa zan egia; euskal txistua bizirik oraindik Aragoien.

Aspalditik, Aragoi'ko mendietan euskal kutsuko gauzen bat, bizirik izan bear zula oraindik, antza eman nion, usaia artua nuen; euskal izenak erruz bait daude baztarretan. Euskara galdu zala ba genekin, bainan txirularien bat arkitzea etzitzaudan ain zalla iduritzen, noizbait mendi bizkarren batean arkitzea itxaro nuen. R. I. E. F. aldizkariaren bilduma eskuetan nuela orain dala 50 urteko lan batean irakurri nuen, nola ingeles batek orain dala eun urte Aragoien erositako txistu bat «British Museum» Londres'en zegoen. Ori jakin ta zerbait billatzeko itxaropena geiago sortu zitzaidan.

Asi nintzan billa. Noizbeinka Aragoiko mendi lepotan urbiltzen nintzan eta beti ikusten nituen artzaiei galdera berdiña egiten nien: «Emen zuen artean, txistuen antzeko zerbait jotzen duan artzairik ba al dago, edo entzun, edo jakin al duzute?». Erantzuna ezezkoa jasotzen nuen. Apaizei galdezka asi nintzan. Baita batek esan, «Santa Orosia'n Basa'ko Yebra errian daukazu bat». Urrutiko-izkinez deitu nuen errira. Garagarrillaren 25'an Santa Orosia'ren egunean jai aundia egiten zutela, esan zidaten. Gure txistulariaren aztarnak antxen genituen. Etzan gutxi.

Lan guzti auen berri Oñatibia'ri eman nizkion. Alaitu zan gogotik eta alkarrekin joan bear genula adierazi zidan. Garaia etorritakoan, bezperatik arrebak bere berebil txikiarekin eraman ginduen. Naparroan zear abiatu giñan. Yesa aldetik Aragoien sartu. Jaka'n unetxo bat gelditu. Oroel mendi zorrotza gure irriparrekin agurtu ta illunabarrean Sabiñanigo'n giñan. Arrotz etxea ezin ohea arkitu genuen; berria, garbia, eroso ta merkea. An, bide zuzenetik ote ginjoazen galdetu genuen. Baiezkoa eman ziguten, baita esan ere, urrengo



Santa Orosian baseliza.



Aragoi'ko txirularia.

goizean zazpitan dantzariak Santa Orosia'ren elizara igoko zirala. Baezpare, goiz jeiki giñan; oskarbi, eguzkia gurekin zegoela Basa'ko Yebra erriaren bidea artu genuen. Zazpiak jo gabe antxe giñan. Emakume batzuek bakarrik zeuden enparantzian. Galdetu ondorean, seielan oñez joan zirala dantzariak esan ziguten. Sabiñanigo'n emengo berrik ikusten danez, etzekizkiten ain zuzen. Berebillez Santa Orosia'raño igotzeko mendi bide bat artu genuen. Bereala bi sendi bizi diran San Julian izeneko errixka txiki baten ondotik igaro giñan, erreka etzegoen urruti, ta inguru guztian baso galanta. Beti ezkerreko bidetik ginjoazen. Aurretik ta atzetik, beste berebil batzuek ba genituen. Arrizko bide malkar batetik, aldapa latza igotzen asi giñan. Antxen txintxillik, etxe txuri, ta arbelazko tellatuakin FANDILLO errixka'ra iritsi giñan, iru sendi bizi dira. Ateratzerakoan enborrakin egindako askan zeukaten iturri ederra. Mendi bide zabala artuta, gora ta gora beldurgarritzko mendietan igo bear. Zuloak, arriak eta lokatza nai gabe ustegabeen genituen. Larri ibilli giñan. Lepo batera atera ondorean besten atzetik, jetxi bear. Aspertuta zelaitxo batean itzalean utzi genuen berebilla. Beste batzuek aurrera zijoazten. Oñez, ordu erdi batean, mendi bizkar batera atera giñan; 1.900 mtr. gora iritsiak izaki. Nai z goiz izan 8 terdiak, eguzkiak berotzen zuen. Etzan laño bat ikusten. Inguruan berriz mendi galantak. Gure azpian, sartaldera zelai zabala zegoen ta erdian Santa Orosia'ren baseliza erromanikoa galanta. Alderdi guztietatik, gizasemeak oñez multzoko elizara zetozen. Gure barrenean genuen zoriontasuna etzan nolanaikoa. Poliki jeixten asi giñan, bean putzu batzuek zeuden. Al genun muturretik igaro bear. Gure oñetakoak ondo zikindu ziran. Berealaxe larre ederrean garbitu genituen. Gazteak zebiltzan batetik bestera. Antxe dago eliza galanta, iru barnekin, soilla. Arri landuzko dorre motz bat dauka. Barrenean aldare barrokoa. Antzinako gauz zarrak ez genuen ikusi. Bazter batean, botilla ugari otzean zeuden. Borda bat ere ba dago ta sartaldera Elizaren beste aldean iturria, oso otza, ur ugari ta indar aundiakin bertan jaiotzen dana.

Dantzariak zelaiaren beste urrutiko muturrera iritsi zirala jakin genuen. Aien billa abiatuta, lasai joan ta ordu erdi batean iritsi giñan. Taldeka oso eratuak gosaltzen ari ziran. Toki orren izena ZOKE da. Zelai antxe bukatzen da ikaragarritzko malkor batekin. Azpian Basa'ko Yebra ageri. Zelai aren muturrean elizatxo bat eroria zegoen. Nunbait urtero an biltzen dira dantzariak. Erritik bizkarrean zillarrezko buru bat dakarkite, barrenean Santa Orosia'ren ezurrekin. Ortik asten da, otoitzekin eliz ibillialdia; inguruetako gurutzuek etorri arte itxoiten dituzte. Batzuek urrutiko erri txiki batzuetik dakarkite. Bi ikurrin oso aundiak ekarriak zeukaten, luzeak eta zabalak, muturrean lorezko koroiekin apainduak. Gazte indartsu batzuek eskuetan arturik alde batetik bestera astintzen zituzten; ura zan gauza polita. Olako batean altxa ziran gosaldariak eta errenketan jarri. Artu zuten bizkarrean Santa Orosia'ren burua

ta orduntxe entzun genuen txistua. Arriturik, oztuta bezala gelditu giñan. Ustekabean, ordu arte ez genuen ikusi, antxe zegoen gure txistularia. Unetxo artan gure barrenean zer gertatu zan ezin genezake esan. Zuzenean txistulariaten ondora joan giñan, baita elizaraño lagundu ere. Begiratu ta begiratu, entzun ta entzun ametsik zoragarriena baiño ederragoa zan ura. Dantzariak dantzatu zuten Santa Orosia'ren aurrean; ondotik abiatu ginan. Ikurriñak aurretik, meza laguntzalleak, errietako gurutzuek, dantzariak, txistularia, Santa Orosia'ren burua, apaizak ta erromeslariak alderdi guztietan. Txistuaren doñua, makillen otsa, otoitzen eresia, mendian oso goien ura dana entzunez, Euskalerrian giñala zirudin. Zelai aundi ura, larre toki aberatsa da ta San Pedro egunean igotzen dituzte artaldeak. Basa'ko Yebra erriaren larreak dira. Aurrean mendi aundi bat genuen; OTURIA izenekoa. Elizan sartu giñan. Itzaldi luzea entzun genuen; Santa Orosia'ren buruari mun ematera erri osoa urbildu zan; luzegia lamalez, azkenean etzekiten zer abestu. Bukaeran dantzariak eliz barrenean dantzatu zuten. Elizatik aterata, Santa Orosia'ren burua iturrira eramane zuten baita dantzatu zekizkiten guztiak. Dantza oien 18 aldaketa badakizkitez eta egiten dituzte. Mirari bat da 28 sendiko erri ontan gaur arte irautea. Santa Orosia-gatik gorde dizkigute. Dantza oiek ez dira erriarentzat, Santa Orosia'rentzat baizik. Dantzen bitartez, erriak Santa Orosia'ren ospakundea betetzen du. Dantzak rito bat dira. Dantza geienak makillekin egin zituzten; goian lendabizi, gero anka azpian jotzen zuten, beste batean baita lurra ere. Otsagi'ko dantzen antza aundia eman nien. Doñuak eta dantzak euskal kutsu aundia daukate. Magnetofonian doñu guztiak artu zitun Oñatibiak. Zortzi dira dantzariak eta zuzendari bat daukate, baita mutil koxkor laguntzallea. Egun ontan urtean bein bakarrik dantzatzan dira. Bear aina dantzari osatzen ez diranean, ezkonduak gogotik laguntzen die. Dantzariak jantzi berexiak dantzatzan dira; sonbreroa lorez apaindua, buru azpian zapi beltza katxirulo izenekoa. Zapi polita bizkarretik bularrera dijoakiena, txalekoa beltza, alkandora txuria, galtza motzak galtzerdi zuriak, ezpartziñak eta belaunetan koskitinak. Eskuetan berriz makil motzak. Dantzak bukatutakoan, antxe gelditu zan Santa Orosia'ren burua iturri ondoan apaizak errezatzen ari zirala ta erria oraindik mun ematen. Bizpairu milla gizaseme ba zebiltzan inguru aietan. Batzuek elizkizunetan, besteak bazkaria gertutzen eta besteak jolasean; iturrira, uren billa asko zetozen berriz.

Berealaxe txistularia agurtzera joan giñan. Nekez arkitu genuen. Bere izena Faustino Villacampo Lanaspá, 48 urte ditu ta Basa'ko Yebra errikoa da, ALBEITIA etxekoa. Txistua benetan zarra, autsia dauka, ezpelakin egiña; espadradapo ta sube larruakin inguratua, gurea baiño txikiagoa da ta txirula baiño aundiagoa. Txistua bezala artzen da ta beste ainbeste zulo ditu. Txistulari onek doñuak ez ditu ain ongi jotzen, beti ia gauza berdiña; ez daki solfeorik. Nunbait egitazko txistularia gizon zar bat aspaldi il zan. Errian txis-

tularirik gabe gelditu zan Santa Orosia. Gaurko txistulariaren aitak aitak doñuak buruz oso ondo omen zekizkin eta al zuen bezala beste orren txistua artuta berriz asmatu zuen jotzen. Gaurko gizon gazte onek al duna jotzen du.

Ori dana ederra ba da, gauzik arrigarriena tuntuna dauka. Xuberoan, tuntunak orrelakoak zituzten, orain dala oso gutxi arte. Salterio izenekin eza-gutzen zuten. Aragoi'ko txistulariak lepoan lotua zebilkin. Xuberokoa baiñan aundiagoa da. Santa Orosia'koak txistuari «silbo» deitzen zion ta salterioa «chicoten»; kutxa baten antza dauka bi zulo ditu ta gainean lokarriak, otsa txikia ateratzen du. Ezkerrakin artzen du txistua, bularrean dauka tuntuna ta eskubiakin makilla tuntuna jotzeko. Aragoi'ko txistularia ez genuen pakean utzi. Azkenean nola jotzen zuen ikusteko Oñatibiak artu zuen eskutan ta asi zan jotzen. Lenengoa aureskua. Berealaxe lasterka euskaldun bat agertu zitzaigun berez Urnietarra Jose Ramon Etxeberria Lasarte. Gizon arek zeukan poza. Urte asko Santa Orosia'ra igotzen dala. Gerra garaian an ibillia zan, alkarizketa polita bat ere egin genuen anego Aragoitar gizasemekin. Garbi esan genien, ango lurren izenak zer esan naizuten, guk bagenekielara euskaldunak ziralako eta euskaraz ondo ulertzen genitula. Berak etzituztela ulertzen euskara galdu zutelako. Aoa zabalik entzuten ginduzten. Azi ona erein genuen. Dantzen eta txistuen berriak jaso genitula Santa Orosia nor zan oraindik ez genekin. Asi giñan galdezka. An zegoen amona batek ondo ezagutzen zula esan ziguten. Amona ura ezin billaturik, aiek gure lanak. Azkenean bazter batean arkitu genuen; argia, bizia, liraña, apaña ta izlaria. Oñutsik igo zan erritik Santa Orosia'raino. Jakiña erderaz esan zigun: Santa Orosia, Bohemia'koa omen zan. Egipto'n jaiola. Ezpañi'ra etorri omen zan ta ondoko errian zebillen, Basa'ko Yebra'n. Nekazari bateri laguntzen ari zitzaiola belarra biltzen, Mairuen erregea datorrio ta bere emaztea bezala artu nai du. Neskak, ezezkoa ematen dio. Erritik goraxeago zeuden Kobetan iltzen du ta goien lurra ematen diote. Gizaldi batzuek georago artzai bat an zebilela, aingeru bat urbildurik arri bat altxatzeko esaten dio ta iturri eder bat jaiola zan. Berriz esaten dio arri ura altxatzeko ta odola sortzen da. Alaxe, Santa Oroxia'ren gorputza arkitu zuen. Aingeruak agindu bat ematen dio: burua bertan eliz berri batean gordetzeko ta gorputza Jaka'ko katedralara eramateko. Geroztik, emen goien urtero Santa Orosiaren eguna ospatzen dute. Andre zar onek bere esaldian gure ustez itz euskaldun bat esan zuan «enzamarrando».

Bazter guztietan itzalean bazkaltzen asi ziran. Eguzkiak ondo berotzen zuen. Alaitasuna nabaritzen zan; gitarrak ugari ta jotak urrutitik entzuten genituen. Guk egin bearrezko lana bukatu genuen. Nere beste bi lagunak San Juan de la Peña ezagutu nai zuten. Ortarako azkar ibilli bear. Santa Orosia eliz inguruko giro zoragarria utzirik abiatu giñan oñez. Ibillialdi ura etzitzaigun gaizki etorri. Utzitako tokian berebilla arkitu genuen. Mendi bide ura etzegoen gure



Yebra'ko dantzariak.

berebil txikiarentzat egiña. Olako batean, putzun, lokatza busti batean, ondo sartu giñan eta ezin atera. Kurpillak botatzen zuen zartakoakin, Jon eta ni laguntzera atera ondorean, goitik beraño zikindu giñan. Gure jantziak ondo apaindu zitun lokatzak. Azkenean «Landrober» bat agertu zan eta arexek gure zulotik atera ginduen. Nunai agertzeko ondo apainduak gelditu giñan. Orrela etzegen bazkaltzera iñungo jatetzera agertzerik; batez ere Sabiñanigo edo makurrago Jaka'ra. Ikaragarritzko mendi aundi aietik poliki jeixterakoan, oartu giñan oberena Basa'ko Yebra errian gelditzea izango zala. An ondo ulertuko bait zuten gertatu zitzaiguna; bertako bazterrak ondo ezagutzen bait dituzte.

Sartu giñan errian. Utsik zegoen. Gizaseme geienak goien zeuden. Jate-txean gertatutakoa esan genuen. Berealaxe ulertu zuten. Bazkaltzerakoan adiñako gizon bateri galdetu genion: «Zu, gazte garaian dantzaria al zianan». Pozez beterik baizekoa eman zigun, baita dantza bakoitxaren doñua abestutzen asi. Gizon arek, doñuak ondo ezagutzen zitula ta oso aberatsak zirala berealaxe oartu zan Yon Oñatibia. Goizean artutako txistuaren eresia entzun genuen berriz. Bere poza ezin eukirik, irriparez asi zitzaigun Jon: «ementxe dago egitazko donua». Etzegen era bat galdua. Gizon atsegiña arkitu genuen. Jangelak ba zeukan euskal kutsua bere ontzi ta errediza zar aiekin. Aulkia'ri Xuberoa'n bezala «Kadiera» deitzen diote. Bazkaltzen bukatzerakoan Jon Oñatibiak erabaki garrantsitzuak artu zituen. Bat txistulariari txistu berria, berak daukan orren berdiña egitekoa eta eramatea, bertan ez bait dakite egiten. Bestea berriz, Basa'ko Yebra errira urrengo batean joatea, doñu zar guztiek artzera ta andik, dantzen doñua, ondo, zan bezala osatzea ta paperan idaztea, txistulariak zuzen jo dezaten. San Juan de la Peña'ko bidean ginjoazela ez genuen geiago goiko Aragoi baztar ori arrotzerria bezala begiratu, Euskalerriko zati bat bezala baizik. An go gizonak eta baztarrak, oraindik euskal kutsu aundia daukate.

Ametsetan egatzez

Benediktinen lekaimetxetik iriaren sortaldeko arresi gaiñera joan nintzan ta Yebra erri aldera, ango mendiei begira gelditu. Nere buruan asmo geiegi nituen. Nere eustez Euskalerritik maiz deitu bear lituzkete Basa'ko Yebra erriko dantzariak. Orrela dauzkaten dantzen antzekoak ikusiko lituzkete Euskalerrian eta euskal iturritik datorkiela jakingo lukete. Euskalerria'kin dauzkaten lokarriak eta aztarnak arkituko lituzkete. Euskalerriak berriz noraño dagon eratua euskal azia jakingo luke. Anai arteko ta senide arteko artueman oietan Euskalerria irabazle.

Mendi aiei gebira nengoela, burua dantzariekin ametsetan, belarrian berriz txirularen otsa.

Ez uste Euskalerria emen gelditzen danikan. Euskararen urratsak ba ditugu berago. Oska irira joateko nai ta naiez BELARRA izeneko menditik igaro bear. Euskaldunentzat izen orrek zerbait esan nai du. Ain garbia irauñ bait du gaur arte. Or luzaro euskarak irauñ dula ageri. Edestian, 1096 garren urteakin bereganatzen du Aragoi'ko errege Pedrok, Oska iria, jakina euskaldunen laguntzarekin. Iri ontan dakigun bezala mairuak eta kristauak bizi ziran. Kristauak erromanze erdalduna mintzatzen zuten.

1.349 garren urtean Iri ontako erabaki batek euskarari buruz argitasun aundia ematen digu. Lakarra jaunak arkitu ta argitaratu zuen berri ori (Revista de Archivos 1913 T. 29, p. 433) Ala dio Errikoetxeko aginduak: «Item myl corredor nonsia usado que faga mercaderia ninguna que compre ni venda entre ningunas personas, faulando en algaravia nin en abraych nin en bansguenc; et gui lo fara pague por coto XXX sol». Agindu orrekin, euskaraz mintzatzen, Oska'n

galerazten dute ta gaiñera zigortzen. Nungo euskaldunak ote ziran Oska'n euskaraz egiten zutenak. Euskaraz nai ta naiez euskaldunen artean egin bear. Etziran Oska'raño Naparroa'tik oñez joango. Naita naiez Oska inguruko erri txikikoak izango ziran eta Aragoi mendietako artzaiak. Orrelaxe ordaindu zituzten Oska askatu zuten euskaldunak.

Agindu orrekin garbi ikusten duguna da, 14 garren gizaldiaren erdiraño OSKA inguruan euskara bizirik zegoela. Orrenbeste errixken euskal izenen arrazoia, Errikoetxeko erabaki ortan ematen digute.

Erdiaroa ondo sartua zegola Aragoien oso barreneraño euskara bizirik zegoen, ainbeste izenek aitortzen digutena da. Zoritxarreko garaiak eta euskara gaixua! Askozez urbillagoko beste berri pozgarria daukagu ta au urrutixeago gertatua. Salduba'n (Zaragoza) ain zuzen. 1900 garren urtean, Salduba'ko alkateak olerki saria sortu zuen erderaz jakina, baiñan beste sari bat euskaraz. Euskarazko saria, OSKA iriaren izenean banatu zan.

Orrelako erabakiak goratu bear ditugu, gaiñera eskertu bear genituzke. Garai berdiñean, esker opari bezala ontzaz artzen ditugula orrelako ekintzak azaldu dezaiegu. Aragoien euskaldunak bizi bait ziran eta gaurko gizasemeak orduko gizon aien semeak bait dira, gainera Salduba euskaldunen laguntzarekin askatu zuten; lenengoak irian sartzen Naparrak. Ekintza onen ezaugarri bezala Alfonso burrukalari erregeak Salduba'n San Migel'en eliza eman zien, gaur oraindik zutik dagona. Euskalerruari orregatik euskararen izenean laguntzea bidezkoa da.

Neurri berdiñean Jaka'ko udarako ikastetxe nagusian euskarak bere tokia euki bear luke, gutxinez Aragoiko euskal kulturak. Udaran Jakan itzaldi ta ikastaldi berexiak izaten dira. Ludi osotik datozte gazteak eta iriari bizitasun aundia ematen diote.

Neurri berdiñean, 14 garren udara da iri ontan Auñamendiko dantzari eresi ta abestaldeak iri ontara biltzen direla. Arrazoi bat geiago euskal taldeak pozik oneraino urbiltzeko, Aragoi'ko anaiekin arremanak zuzpertzeko. Eskua zabaltzeakin asko irabazi genezake; obeto ezagutu ginduzkete. Gaiñera gure aldetik euskal kulturaren indarra ta garrantzia obeto ikusiko genuke. Gure lelo zarrak esaten digunari eutsi bear genioke. «Eman da zabaltzazu munduan frutua». Euskaldunen lanak nunai ikusten dira. Bide ortik jarrai bear genuke, euskarari eutsiaz, aitzaki guztiak ortarako ontzaz emanaz. Gure labe zokoan geldituta ez dugu ezer irabazten. Gure nortasunak, bazterrak asko aberastutzen ditu. Lengo edo aspaldiko aztarna oiek bide bat irikitzen digute. Ortik aurreratu gaitezke irakasle, koblari, ereslari,



Jaka'ko merkatua.

mixiolari ta dantzariak. Bide oiek erri baten bizitzaren urratsak bait dira, gure erriarenak, Euskalerrriarenak. Nolako arrera egingo dion Aragoiek Euskalerrria'ri oraindik ez dakigu. Ustekabe aundiak izan genitzake. Euskal aztarna indartsuak beren bizitzaren sakonean arkitzen dituztela itzuli aundi bat eman dezakete emengo gizasemeak ta nork daki gauzak aldatzen asi. Gerta litezkenak, gaurtik nork ikusi? Aragoi'ko semeak asi litzaizkigu esanez, «ni euskalduna naiz». Orduan zer esan genezaieke? Ez da amets bat utsean egina. Oroitzen naiz nola Oresa'n agertu zan bein mutil bat erretoretzeko atea joka». «Euskaraz ikasi nai dut, euskalduna naiz» esan zidan «Naparra al zera?» galdetu nion. «Ez, Aragoitarra, Ayerbe erriko semea. Nere abizena euskalduna da, Eskuer» (Eskueder ote garai batean?) gazte onen erantzuna; 25 urte, ille beltzak, begiratu bizia, irriparra ezpañetan, zainduna, mutil egokia. Berez Aragoien asi zan euskaraz ikasten. Aragoiko erriaren zañak ezagutu naian, irriak egosten zuen. Aragoiko ipar aldean egiten dan erdera zarra ikastera joan zan. Orduntxe ango izkuntza zarraren aztarnak aztakatu zituen, ta garai berdinean euskal sustraiak arkitu zitun. Orduntxe sortu zitzaion euskal sena ezagutzeko gogoa. Barrengo su batek zekarren guregana. Txuñezar baserrira bidali nuen. Lau illabete egin zituen baserri ortan. Jose'ri laguntzen zion ikulluan eta sorroan, aurrekin jolasten zan. Azkenean euskaraz ondo, oso ondo mintzatzen zuen. Mutil onekin amets zoragarriak egin nitun. Txuñe-zar baserrian seme bat bezala artu zuten.

Amaitzea

Azkar ibilli bear genun Jaka irian. Iruñan atsaldean Erronkaritar autobusa artu bear nuen, illunabarrenean OREXA'N meza emateko. Egun artan, argitasun ikaragarria zan bidean. Eguzkia errege, laño baten izpirik ez. Berebillan leyoak irikita, aizea arpegian artuaz, abia-dura ederrean. Erregebidean iñorrez.

Lerro auk idazten nagola ezin aztu bide ontan dagon errixka bateri buruz Txillardegiren eskutik artu dudan berri bat: «Santa Orosia'ren artikulua irakurri ondoren, oso interesgarri izango zaizun xetasun bat jakin dut... Amaren aldetik Sigues'koa den emakume batekin mintzo nintzen gauza auetaz (Sigues non den ba dakizu: Irunberrietik (Lumbier) ekaldera. 15 edo 20 bat kilometrorra eta Aragoien) eta bereala bota zizkidan puntu bitxi batzuk... Emakume au, zearo «zigoztarra» Aratues Elizalde izenekoa da. Izen guztiak omen ditu orrelakoak, eta jenderik geiena euskal deiturakoa omen da Sigues'en. Aren izeba bati, zergatik ez dakiela, euskal liburu zahar bat aurkitu zioten hiltzean euskerazko meza-libururen bat ageri denez. Eta abar...» Oneraño Txillardegiren azkeneko eskutitz batean (Hendaia, 1974'ko 1974'ko otsaillaren 11).

Erregebidetik Yesa izeneko zingira ageri; ura urritzen, nunbait neguan elur gutxi egin du Auñamendin. Ur bazterrean bi errixkak agertzen dute burua, ezker aldera zingiraren beste aldean Ruesta, gure ondoan egi batean Tiermas, oso erri zarra Erromataren garaian ezagutzen zutena. Ikuspegia'ri bizitasun aundia ematen diote, zoritxarrez usturik daude, ormak bakarrik, ez da iñor bizi. Gure aurrekaldean ezker eskubi Xabier delako gazteluata Leyre Monastegia. Auntxaxeago ezker aldera Naparroan Zangoza iri aundiko kea. Indarra

ta etorkizuna Naparro aldetik dago. Amets zar batzuek bururatu zitzaizkidan. Garai bateko asmoak nituen begi aurrean. Len aipatutako Aragoiko gazteari esan niona bein: «Ondo ikasi zak euskaraz emen gure errian, Iruña'n Diputazioak irakaslentzat antolatutako ikastaldiak egin itzak eta Sangoza'ko ikastol berrira joan adi euskal irakasle bezala. Naparroan Aragoi'ko muga ire kidekoak arkituko dituk. Al ba duk maisu ikasketak egin itzak garai berdinean. Karrera dunak bear ditugu erria zuzpertzeko. Zangoza'tik asi adi Aragoi'ko euskal aztarnak miatzen eta argitaratzen... Azkenean Jaka'n iriki bear ukek euskal ikastola bat». Erokeria dirudi. Ez ba; gauza berdiñak ikusi ditugu Naparroan. Amar eta amaikagarren gizaldian Naparroak Aragoia'ri bultzada aundi bat eman zion bezala gaur beste ainbeste lagundu lezaioke; Nork daki?

Ezezkoa emanaz, Fernando Ezkuer'ek alde egin zuen... Nere ametsa egokia iduritu zitzaidan. Amets asko ikusi ditut Naparroan egia biurtzen. Oraingo Naparroa'ko giroa zuzpertzzen naiko lan. Gerorako ere utzi bear dira gauzak egiteko. Zangoza'n euskal gogoa iriaren etorkizunarekin batean zuzpertzzen dala, Aragoi'ko muga dauden bazterrak berpiztuko dira.

Ara zortzi egun amets eta erne igaro, eguzkiak ezurak berotuaz, anak ama lurra zanpatuaz, aize bizia arpegian artuaz, mendiko usaiak birikaraño sartzen, uraren eresia entzunez... Euskalerrian igeri.

Ibillialdiaren neurketa

Igandea - 73 - 8 - 26

Orexa	9'tan meza eman
Gorriti	9'40 irten
Azpiroz.	11'35 iritsi
Lekunberri	13'30 iritsi
Etxarri	13'55 iritsi
Aldaz.	15,30 irten
Itxaso.	18'— irten
Jaunsaras	20,— iritsi
Illarregi.	20'— iritsi

Astelena - 73 - 8 - 27

Illarregi.	8'20 irten
Auza	
Lizaso	
Gerendiain	
Elso	
Urrizola.	
Olague	
Leazkue.	12'30 iritsi
Inbuluzketa	
Urdaniz.	
Zubiri	18'— iritsi
Erro	20'30 iritsi

Asteartea - 73 - 8 - 28

Erro	7'20 irten
Esnoz.	
Lusarreta	
Arrieta	10'30 iritsi
Gorraiz	
Oroz-Betelu	12'45 iritsi
Azparren	
Abaurre-gaiña	
Eauarta.	21'— iritsi

Asteazkena - 73 - 8 - 29

Eauarta.	9'15 irten
Esparza.	
Sarries	
Guesa.	
Igal	14'30 iritsi
Bidangoz	15'45 irten
Garde	20'— iritsi

Osteguna - 73 - 8 - 30

Garde	8'30 irten
Anso	12,30 iritsi
Etxo	20'30 iritsi

Ostirala - 73 - 8 - 31

Etxo	9'30 irten
Urdues	13'— iritsi
Aragues.	15,30 irten
Jasa	
Aisa	
Borau.	21'— iritsi

Larunbata - 73 - 9 - 1

Borau.	8'30 irten
Castiello	
Jaka	12'— iritsi

Errien izenak

Abaurrebekoa.	175	Elso	98
Adoain.	190	Elzaburu	92
Aisa	274	Erro	117
Aldaz	77	Esnoz	119
Alkoz	95	Esparza	186
Anso.	224	Espoz	134
Aragues	271	Etxarri.	77
Aria	168	Etxo	257
Aribe	168	Fandillo	304
Arizu	103	Gaintza	50
Arizkuren.	154	Garde	220
Arribe	59	Garralda	174
Arrieta.	128	Gerendiain	95
Artozki.	150	Goldaraz	79
Arze	136	Gorraiz.	139
Atallo	56	Gorriti	65
Auza.	92	Gorriz	148
Azkarate	48	Guesa	188
Azparren	159	Gurpegi	138
Azpiroz.	72	Igal	192
Betelu	62	Illarregui.	87
Beuntza	85	Imizkoz	132
Bidangoz	199	Inbaluzketa.	112
Borau	276	Intza.	52
Eauarta	179	Iraizoz	95
Ekiza	154	Iriberry (Aezkoa)	168

Iriberry (Artze)	126	Oroz-Betelu.	146
Itxaso	81	Osa	138
Izal	190	Oskoz	82
Izalzu	184	Otsagi	182
Jaka	294	San Juan'en Arkaitza	287
Jasa	272	Saragueta.	125
Jaunsaras.	82	Sasabe.	276
Lakabe.	159	Seros.	205
Lanz.	104	Siresa	262
Larrasoaña	112	Uzi	68
Leazkue	109	Uli-Goikoa	152
Lekunberri	74	Ulozi.	152
Lezaeta.	72	Urdiruz	133
Lizaso	93	Uriz	133
Lusarreta.	123	Urdues.	271
Muniain	159	Urrizola	98
Muzkiz.	85	Usoz.	159
Nagore.	136	Uztegi	51
Oloriz	138	Yebra	299
Orbaizeta.	163	Zandueta.	134
Orbara.	168	Zazpe	138
Orexa	25	Zubiri	114
Orokieta	86		

Epailak 15, 1976

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA-ren

Amargarren urtea betetzean
argitara ematen da liburu au.

Laus Deo

- Obras Completas de José Miguel de Barandiarán.**
Diccionario Vasco-Español-Francés, de Resurrección M.^a de Azkue.
Complemento al Diccionario Vasco-Español de Azkue, de M. Sota, L. de Aquesola y Pierre Lafitte.
Cancionero Popular Vasco, de Resurrección M.^a de Azkue
La Gran Enciclopedia Vasca (Temática e ilustrada)
Revista Internacional de los Estudios Vascos, dirigida por Julio de Urquijo
Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco. 25.000 apellidos vascos con su significación, casa solar, pruebas de Hidalguía y escudos de armas, millares a todo color, de Jaime de Querexeta; dibujos de Endika de Mogrobejo
Antropología Vasca. (Mesas y conferencias de las Semanas Internacionales de Antropología)
Euskalerrriaren Alde. Revista de Estudios Vascos (1911-1932) 21 vols.
Diccionario Histórico-Geográfico del País Vasco, de la Real Academia de la Historia
Historia General del Señorío de Bizcaya, de Estanislao Jaime de Labayru
Annales del Reyno de Navarra. (Historia del Imperio Vasco en la Edad Media), de José de Moret y Francisco de Alesón
Cosas Memorables o Historia General de Guipúzcoa, de Pablo de Gorosabel, Carmelo de Echegaray, López de Isasti, Francisco Labayen, Juan I. de Iztueta, etc.
Historia General de Alava, de Juan José de Landazuri
Historia de la Noble Villa de Bilbao, de T. Guiard y Larrauri
Historia del Consulado y Casa de Contratación de Bilbao, de T. Guiard y Larrauri
Historia del País Vasco Continental, de José Miguel Torre
La Biblia en Euskera (ilustrada con centenares de grabados de Gustavo Doré y otros), del Capitán Duvoisin
Obras Vascas Completas de Agustín de Kardaberaz
Gramática Básica Dialectal del Euskera. (Morfología Vasca), de Resurrección M.^a de Azkue y Severo Altube
Efemérides Vascas y Reforma de la numeración euskérica, de Sabino de Arana y Goiri
Ipuñiak, (Cuentos en Euskera vizcaíno) de Resurrección M.^a de Azkue
Zigor y otras narraciones vascas, de Arturo Campión
Antiguas danzas de Guipúzcoa (bilingüe), de J. Ignacio de Iztueta
Obras inéditas de Iztueta, de José de Garmendia
Diccionario vasco-castellano y castellano-vasco de voces comunes a dos o más dialectos del Euskera, de Arbelaitz
Guipúzcoa, último camino, de L. P. Peña Santiago
La Cocina Vasca, de Ana M.^a Calera. Prólogo y revisión de José María Busca Isusi
La Verdad sobre «El Otro Arbol de Guernica», de Luis de Castresana
Guía Micológica del País, con centenares de grabados a todo color y en negro, de Roberto Lotina Bengurúa
Diccionario de Vizcainos Ilustres, de J. E. Delmas
Historiografía de Vizcaya, de Andrés E. de Mañaricúa
Diccionario Marítimo Ilustrado vasco-castellano y castellano-vasco, de Ignacio de Garmendia Berasategui
Peru Abarka (edición bilingüe), de J. A. de Moguel
Diccionario Histórico-Geográfico de Guipúzcoa, de Pablo de Gorosabel
La Pintura Vizcaína de la Postguerra, de Juan Aróstegui
Los Ejercicios Espirituales de San Ignacio, de J. I. Egüía Rezola
Orreaga (Roncesvalles) en 21 dialectos y subdialectos del Euskera, de Arturo Campión
Crónica de los Señores de Vizcaya del linaje de Haro, transcripción de Angel Rodríguez Herrero

